


# GOI-ZALE

I.-OTOITZAK

II.—KRISTO'ren ANTZ BIDEA

III.-ERASPENAK

Karmeldar Idaztiak
Gazteiz
1 956

NIHIL OBSTAT
Fr Secundus ab Eucharistia
Fr. Linus a Sacra Familia
CENSORES ORDINIS

IMPRIMI POTEST
Begonniae, die 23 februarii 1956
Fr. Hippolytus a S. Familia
Vic, PRVLIS.

NIHIL OBSTAT
Fr. Isidorus de Guerra, O. F. M.
Aranzazu, 10 martii 1956

IMPRIMATUR
Sti. Sebastiani, 12 martii 1956 j
t Jacobus Episcopus
Sti. Sebastiani

# ATARIKOA

Aita Pi karmeldaŕa, Gorozika'ko 5emea, Bizkargi azpian jaio zan, 1899'gaŕen urtean. Ta amaika urte dira Peru'ko Lima'n ií zala, 46 urteko.

Ez eban iñundik be aiztu bere amaren magal gozoan ikasiteko izkuntza joria; nai-ta Amerika zear, beti arima biía, luzaro bizi, ba eban asti pizkat euskeraz idazti edeŕak eratzeko. Asko idatzia dogu, bai, «Karmen'go Argian» eía. Aita Granada'ren liburu sakonak ŕa osorik euskerara biurtu ebazan, bai ía Sales'tar Prantzisko donearenak be.

Baña bere lanik bikañena, nire eritxiz, gaur esku artean jarten dautzugun Kenpis agurgaŕiaren «Kristo'ren Antz-bidea«. Goxo ta arduraz egiña nunbait.

Ezfa bein-beingoa be, irugaŕen aldiz argitara emoten dana baño. Lenengoz, urte mordoska dala, 1926'gaŕenean, Zornotza'n, «Jaungoiko-Zale» ' ren irarkolan, bigaŕenez be, antxe beŕian, 1936'gaŕenean, eía orain ogei urŕe geroago...

Ez gorputz bakaŕik, arima be ba-gara, ta berau zeruratu beaŕean gagoz, Arazo oŕetan, ezek laguntzekotan, liburu eder onek

Noizean - noizeau *irakuŕi* eg*izu,* ba, ta *etxatzu iñoiz* da*mutuko,* ze*rutiko ur* gardena *bere oŕi* aŕean a*urkituko* do*zu-ta.*

Ga*ñera, esku*-liburu antzera erabiíi dagizun, goizgabeko otoitzak, autortza, Jaunarŕzea, Meza santua, Gurutzbidea, Jose donearen zazpi domekak, *o*nd*o* ilten laguntzeko era labuŕa, ta abar, berton ipiñi ditut.

Oŕela, ez dozu Kenpis bakaŕik; otoitzliburu au*k*era*ko* ta egoki be bai.

Eibar'en, 1956-1-6'an.

Aita JAGOBA, K. O.

# I.—OTOITZAK

# GOIZEKO OTOITZAK

*Goizean, oetik jagikeran, ur bedeinkatua artu ia (jurutzea* egiñaz, *esaizu :* Gurutze santuaren señaleagaitik geure t areriokandik zaindu gaizuz t geure Jaun eta Jaungoikoa. Amen. Aitearen eta Semearen t eta Espiritu Santuaren izenean. Amen.

EGUNA ESKINTZEKO.—Egun oni asiera emoteraño ekaŕi gozuzan Jaungoiko Jauna: eiguzu indaŕa, gure itz, gogorakizun eta lan guztiak, ezetan okertu barik, zure lege-bidean beti joan daitezan. Bitarteko bekigu Jesukristo gure Jauna, Zeugaz Espiritu Santuaz batean

gizaldien gizaldietan Eŕege bizi dana. Olantxe.

JESUS ' EN BIOTZARI OTOITZA. — Neure Jesus maitea, Maria'ren Biotz garbiaren bitartez, gaurko eskari, neke ta egite guztiak eskintzen dautzudaz, egiten yatzuzan iraiñen ordez, ta zure Biotz santu oŕen asmo guztietarako.

ANDRA MARIA'RI.— Ene Ama maitea, oso-osorik eskintzen dautzut neure burua : zuretzat nire begi, belaŕi, min eta biotza. Osoan zeurea nazan ezkero, zeure gauza ta ondasun lez zaindu ta gorde nagizu, aŕen. I*ru Agur Maria.*

JOSE DOATSUARI. — Esan eziñalako arduraz Jose doatsua zure Ama guztiz deunaren senartzat aukeratu dozun Jaungoikoa : eiguzu, aŕen, luŕean zaindari dogun Iez, zeruan bitarteko izan daigula. Olantxe.

AINGERU JAGOLEARI.—Jaunaren aingeru ta nire zaintzaile on ori, zagoz nire alde,- ez ni bakaŕik itxi, galdu ez nadin,- gau ta egun argitu, zaindu ta lagun zakidaz.



ERIOTZA ONA JARISTEKO. — Jaungoiko maitea : ilgo nazala gauza argia da; noz, non eta zelan, orixe iakin ez; baiña pekatu astunean il ba ' nadi, betiko galdua nintzake. Maria, Birjiña doatsua, Goiko Jaunaren Ama deuna, pekatari nazan ezkero, nire alde egizu orain eta nire eriotzaldian. *300 eguneko* parkapena, *egunean bein.*

AGUR MAUIAK. — *Goizean, eguerdi la aŕatsean* otpitz *eder au* esateko *oiturea artu* egizu.

I. Jaunaren aingeruak Maria'ri iragaŕi eutsan.

E. Eta Espiritu Santuaren egitez Ama egin zan. *Agur Maria.*

I. Ona emen Jaunaren mirabea.

E. Egin bekit zuk diñozuna. *Agur Maria.*

I. Eta Jaungoikoaren Semea gizon egin zan.

E. Eta geure artean bizi izan zan. *Agur Maria.*

I. Otoitz egizu gure alde Jaungoikoaren Ama done oŕek.

E. Kristo'ren agintzariak jadetsi daikeguzan.

OTOITZA.—Ixuri, aŕen, Jauna, gure biotzetara zure grazia,- aingeruak iragaŕirik, zure Seme Kristo gizon zala jakin genduan ezkero, bere nekaldi ta eriotzeagaítik, biztuta zeru edeŕean sartu gaitezan. Kristo gure Jauna bera bitarteko bekigu. Olantxe.

*Pazko-aldian* Agur Marien *ordez ititngo au* esafen *da* .-

Zeruko Eŕegiña, poztu zaite, Aleluia.
Sabelean ekaŕi zenduana, Aleluia.
Biztu da, esan eban lez, Aleluia.
Eŕegutu egiozu Jaungoikoari gure alde. Aleluia.

I. Poztu ta alaitu zaite, Birjiña Maria, Aleluia.

E. Jauna egiz biztu da-ta, Aleluia.

OTOITZA.—-Jesukristo zure Seme ta gure Jaunaren biztuereaz mundua pozetan ipiñi dozun Jaungoikoa,- egizu, aŕen, Andra Maria bere Amaren bitartez, betiko bizitzako poza izan daigula. Kristo gure Jauna berberaren izenean. Olantxe.



## Egun bítarterako otoitz batzuk

JAN - AUKKI.TIK ÍÍSATUKO. — Bedeinkatu gagizuz geu, Jauna, ta bedeinkatu zure esku zabalari esker, artzera goazan janari oneik be. *Aiia Çurea, Agur 'Maria ta Aintza.*

Zeruko Eŕege ancliak ango mayan batu gagizala.

JA.\-OSTI;A,\\ — Eskeŕak zeuri, zeure mesede guztien alderako, gizaldien gizaldietan Eŕege bizi zarean Jaungoiko alguztidun oŕi. Olantxe. *Aita Çnrea.*

Jaungoikoak bere bakea emon daigula.

Eta gero betiko bizia.

LANA ASTI'.ÁN.—- Jauna, lan au zeuri eskintzen dautzut; aŕen, bedeinkatu egizu.

OliDUA EDO KANPAIA bNTZUTEAN. — AgUr Maria guztiz garbia, orban barik sortua.

MEZA r.N'rzuTEKO OKDUA\\--Jauna, eriotzaldian dagozan eta gaur ilgo direan pekatarien alde, gaurko egunez emongo diran Meza guztiak eskintzen dautzudaz. Jesus gure Beŕeroslearen Odol bikaiña eŕuki bekioe.

Eooznis' UEAR-ORDUTAN.—Andra Maria, neure Ama ona, zu zara nire igesleku ta indaŕa,- zure magalpera nator ustc osoaz; zagoz neugaz, Ama samur ori, ta ezbear guztietatik jagon ta zaindu nagizu.

## Illuntzeko Ofoitzak

*Oera baiño len,* ez *aiziu iñoz be, egun bitartean artutako mesede aundiakaitik eske-* ŕafc *einotea. Jzteriu zeure barua, ta ikusi zetau uts eain* dozunj *damutu biotzez,* ía *asmo sendoa artu o.u'reranizen alanúo utsik ez* egiíe*k*o.

OTOITZA. — Eskeŕak zuri, Jesukristo neure Jaun oŕi, gaur egin daustazuzan mescde guztien alderako. Zeuri eskihtzen dautzut lo au, baita gau-aldi osoa



be,- zaindu ta gorde nagizu pekatutik. Oŕetarako zeure saiets santu baŕura sartu nai dot, eta Maria Birjiña neure Ama gozoaren magalpean babestu. Begcz emen neugaz Aingeru santuak, ni bakean zaintzen; eta betor nigana zure onespeiia. *llebetero parkapen osoa.*

JI:SUKRISTO NF.URI: JAUNA.—Jesukristo neure Jauna, Jaungoiko ta gizon egiazkoa, neure Egile ta Salbagilea, zareana zarealako, ta gauza guztiak baiño maiteago zaitudalako, damu dot, Jauna, damu dot biotz biotzez, zti iraindua. Asmo sendoa artzen dot ez geiago pekaturik egiteko. Zu iraindutcko bide guztietatik alde egin, autortu eta oben-nekea betetako. Amen.

ANDRA MARIA'RI. — Zure tnagalpera nator igesi, Jaungoikoaren Ama deuna; entzun, aŕen, nire eskariak bear-orduetan, eta aŕisku guztietatik onez atera nagizu, Birjiña eder ta onetsi oŕek.

JESUS, MARIA TA JOSB.—Jesus, Maria, fose, zuentzat nire biotz eta arima,

Jesus, Maria, Jose, eriotzaldian lagun zakidaze.

Jesus, Maria, Jose, gau onetan gorde nagizue.

AINGUKU JAGOLEARI. —jaunak sortzetik laguntzat emondako Aingeru santúa, argitu, záindu ta gorde nagizu.

GARBITOKIKO ARJMAI.—Emoiezu, Jauna, azkenbako atsedena, ta betiko argiak argi egin begioe.

Maria, Jaungoikoaren Ania eŕukitsua, gure ta ildakoen alde egizu, aŕen.

Xír *bedeinkaiua artu* ta *Aitearen* egizu :

Aitearen eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean. Amen.

Gorde nagizu, Jauna, zeure betseiña lez.

Zeure egoen kerizpean zaindu nagizu.



## AUTORTZA

«Zuri eniongo dautzudaz zeru-eŕiko giltzak,- eta zuk luŕean lotua zeruan be lotua izango da,- eta zuk luŕean askatua, zeruan be askatua izango da» (Mat., XVI, 19).

Gizaseme guztiok zerurako egiñak gara,- Jaunak ez dau iñor galtzerik nai. Saŕitan, alan be, pekatu egin oi dogu, Jaungoikoren legea ausi, arimea loitu,- ta zeruan loiturik ezertxo be ezin sartu. Zer egin? Ona autortza, zeru itxia edegiteko uŕezko gilfza, Jaungoiko eŕukitsuaren esker aundia. Esan egizu egindako utsa edo pekatua ta zure arimeak lengo garbitasuna jaritxiko dau,- autortu ez ba'dagizu, baŕiz, galdua zara, pekatu astunean ba'zagoz beintzat. Zerurako ez dozu beste biderik edo aterik | edo autortu edo betiko zorigaiztoa.

Bear dan lez autortzeko, ondo gertau zaite. Ona emen oŕetarako bost eginbear nagusienak: 1) lenengo, baŕura begiratu

ta zetan uts egin dozun ikusi; 2) egindako pekatuen damu bizia artu,- 3) auŕerantzean pekaturik ez egiteko erabagi sendoa biotzean sórtu,- 4) pekatuak, astunak beiñipein, autor-entzuleari esan; 5) autor-entzuleak ezaŕitako oben-neke edo penitentzia bete.

Guztiotan beiñenak oneik biok dozuz: *damua* ta *erabagia.* Etzaite laŕegi estutu baŕua aztertzen,- alegiña egizu, batez be, pekatu astunak gogoratzeko, ta naikoa dozu. Datnutzen, bai, alak egizuz. Era bitakoa dozu datnua : *mailasunezkoa* ta *bií*duŕezfcoa, biak onak, baiña maitasunezkoa obe. Benetako damuak, ostera, auŕerantzean pekatura ez biurtzeko ta txaŕera zaroazan bide gnizto ta aŕiskuak isteko erabagi sendoa beragaz daroa.

Lenengo, damuzko sakramentu au artu baiño len, otoitz egizu, batez be pekatuak ezagutzeko argitasuna eskatuaz,

AuTORTZA- AURREKO OTOITZA.—-ZatOZ, Espiritu Santua. Bete egizuz zure siñistunen biotzak, eta maitasun-sugaŕez



biztu egizuz. \. Bialdu zeure arnasa ta baŕien baŕi biztuko dira E. Ta lur azala baŕiztuko dozu.

*Otoitz daçjigun.* Zintzoen biotzak Espiritu Santuaren argiz irakatsi dozuzan Jaungoikoa: lagun zakiguz, aŕen, Espiritu oŕen bitartez zuzena maite izanik, bere atscgiñez beti poztu gaitezan. Jesukristo gure Jaunaren izenean. Olantxe.

ifŕeugo, baŕua *azlerlu.*

JAUNGOIKOARLN LBGEKO AGINPUAK.—£(-uengoa,- jaungoŕkoa nmíleen izatea. Goiz-aŕatseko otoitzak egin ditut? Fedeko egirik ukatu? Ezbaian attu? Areitzaz txanlxetan itz egin? Sorginkeri, aztikeri ta olangorik siñistu? Siñismenai'en aurkako libururik irakuŕi al dot? Edo aurka ezer esan, edo esaten dabenakaz batu? Eleizgizonakaitik txarto esan? Zerura joateko itxa-opena galdu? Txarto autottu edo pekatu astunean gure Jauna artu?

Bigaŕena ,• *Jauníjoikoareii izena acjotan alperik ez artzea.* Biraorik jaurti al dot

Jaungoikoaren edo santuen aurka? Seme-alaben aur̃ean bear-bada? Jaungoikoaren izena agotan alper̃ik erabili? Edo lotsa ta begirapcn barik? Zin egin al dot alper̃ik, edo-ta guzur̃az? Neure buruari biraoka kalterik opa? Egindako promesa edo agindua bete al dot beti?

*Jrugar̃ena: Jai-egunakjai egitea.* Domeka ta jaiak zelan gorde ditut? Meza entzuteko egunetan entzun dot beti? Beranduegi eldu? Bear dan jaieraz entzun? Igandez lanik egin al dot, bear gor̃ian ezik? Beste iñori eragin?

*Ĺaugar̃ena .• Cjurasoai dedu ia lolsa* izar̃ea, Gurasoen edo arein ordezkoen esanik ezetsi al dot? Gurasoai lotsa gitxi izan, eurakjo edo bildurtu, eriotzarik eurari opa, edo lotsabakokeriz naigaberik emon? Mor̃oiakaz esker txar̃eko izan? Gurasoa ba'naz, badaezpadako auturik erabiii al dot umeen aur̃ean? Neure seme-alabak galbide ta ar̃iskuetatik aldendu dodaz? Neure irabazia ez ete dot ondatzen jan-edanean edo jokoan?



*Bostgar̃ena: Iñor ez iltea.* (ñogaz asar̃atu al naz? Eriotza edo beste oker andiren bat iñori opatu? lñorjo ta zauritu, edo etor̃i jakon kalteaz poztu? Bekaizkeriz gor̃otoan bizi, patkapena iñori ukatu? Neure burua il nai izan, edo janedanean neur̃i barik osasunari kalterik egin dautsat? Iñori gaiztakerira eragin? Liburu txar̃ik emon, arimako bizia galtzeko zotian jar̃irik?

*Seiijanna ta bederalzigar̃ena: Aragikeriŕk ez egitea. liesteren* senar *edo emazterik ez gura izatea.* Buruan nai biotzean erabili al dot, egiteko asmoz, aragizko pekatutik?Egin al dotonetan pekaturikikustez, entzutez, itz egitez edo irakur̃iz? Kanta zikiñik abestu edo entzun, antzoki, ziñe ta beste olango leku nabarbenetan ibili? Nasai samar jantzita, edo lagun gaiztoakaz ibili? Bakar̃ean neugaz ikutu loirik, beste iñogaz, gizon, emakume, ezkongai edo ezkonduaz? Zenbat bidar?

*Zazpiganna ta amargar̃ena : Ez osiutea. Iñoren ondasunik, oker-bidez, opa ez izatea.*

Ostu al dot ezer, edo besteri kalterik egin? Kalte egiñarena edo ostua biurtu? Zoŕak ordaindu barik luzaro egon al naz? Ilburuko ta beste aginduak bete ditut? Dirua edozelan eralgi al dot? Izen ona iñori kendu?

Zortrii/aŕeua . Ez da» *tjauzarik iñori* rz fzarlea, *la* gnzuŕifc *bt e*z esaíea. Guzuŕezko lekuko edo testigu izan al naz? Guzuŕik esan al dot? Txarto esanez iñoren izena baltzilu? Besterentzat fxarto esanak pozik entzun? Ixil-gordeak zabaldu edo guzuŕezkoak asmau? Eritxi txarariñik edo zaio txaŕik egin al dot neure buruan? Norbaiten eskutitzik irakuŕi jaubearen baimen barik?

Ondoren esan egizu t-Mik pekatari onek» ta zoaz autortzera. Autortegian belaunikaturik, esaizu Ienen : *Agur TAaria,* guzíiz *garbia.* Autoŕentzuleak erantzungo dautzu: *Orban bagarik serlita,* Esan gero zenbat denpora dan azkenengoz autortu ziñala. Aŕezkero, lenengo aginduan... Bigaŕenean... Eta onela beste



guztietan. Danak esanda gero, entzun abadeak esango dautzuzan konsejuak, bai ta gogoan artu oben-nekea edo penitentzia. Abadeak pekatuak parkatzeko berbak esan bitartean, esan biotz-biotzez : *Jesukristo neure Jauna...*

## JAUNARTZEA

«Ogi bizia Ni naz», esan eban Jesukristok; eta bera egi utsa dan ezkero, olantxe izan bear. Bai, benetan, zerutik iatsiriko Ogia dogu Bera, ta au bear dan lez jan dagianik ez da ilgo,- jan ez dag't-anak, ostera, ezin bizirik izan,- jan egin bear, ba, bizirik irauteko.

Bizia damoskun janari zoragaŕi ori altarako Sakramentuan daukagu; ortxe gau ta egun, geure zain. Pekatu astunaren eriotzatik arimea jagon nai ba'dogu, or guretzat egizko osakaia, bai ta arimea onoimen sendoz indartu ta apaintzeko be. Oŕa altaran bizi-ituŕi gardena.

Zoaz, ba, saŕi, al dozula egunero, jaunartzera. Gauza edeŕagorik egin ete zeinke? Ortxe aurkituko dozu pekatutik iges egiteko indaŕa, ziltzaldietan bear dozun kemena. Zoaz beti asmo zuzenez, pekatu astun barik, biotza garbi dozula, Ezyatzu geiago eskatzen.

Jaunartze-auŕetik, ekaŕi gogora nor



artzen dozun zeruko Ogi oŕetan, zu nor zarean, zergaitik datoŕen, eta zetara datoŕen.

*Nor dator?* Nor da nigana datoŕena? Ai, ba'neki ondo!... Jesukristo, Jaungoiko ta gizon, zeru-luŕen Jabe ta egilea. Osti santu onetan Bera artzen dot, gorputz ta odol, bere gogo ta Jaungoikotasunaz. Duin ez nazan aŕen, olan siñisten dot.

Nor naz *ni?* Ezer-eza ta pekatari nabarmena. Ainbat bider iraindu dot Jesus on eŕukitsu ori. Biotza pekatuz beterik eukia nozu... Alan be, Zuk, Jesus on oŕek, ona zer diñostazun : «Nire aragia jan eta nire odola edaten daunak betiko bizia dauko, ta azken - egunean Nik berbiztuko dot». Eskeŕik asko, Jauna.

*Zergaitik dator?* Maitasun utsez datorkit. Ez daukanak ezin ezer emon; nik ez daukat ezer onik; zer emongo? Ez dator nigana irabazi-bila; bai on utsez eta maitasun-bila. Beiñola be olantxe emon eban bere bizia gurutze-agean.

*Zetara dator?* Gaixorik daukat arimea,

osagile-beaŕean, eta Zu osagile zaitut. Osatu nagízu, jauna. Badakit,- zure ara-gia jan eta zure odola edan ba'dagit, osatuko naz. Zatoz, bada, Jaungoiko maitea, nire osasun, nire argi, nire poza.

*Abadeak §ure Jauna eskuetan artu ta tiiari erakuslean, esan zuk* be *iru bider* .•

Jauna, ez naz ni iñor Zu nire.etxean sartzeko,- baiña esaizu itz bakar bat, eta niie arimea osatuko da.

Zoaz *ondoren, apaí ela itzalik andieuaz, Jaunaren Qorpuiza arlzera.*

jAUNAUTZE-oSTtAN.—Zagoz jxilik, zeuie Jauna zeure baŕuan daukazu-ta. Jesus, oso maite ta kutun, zeurea dozu. Uste osoz eskatu egiozu bear dozun guztia; ez dautzu ezer ukatuko. Eskatu zeure-tzat, guraso, senide, adiskideentzat,- eskatu pekatarien a!de, Aita Santuaren alde; il-agiñean dagozanak eta garbito-kiko arimak be eogotan izan.

'



**Loíola'ko Iñaki deunaren otoitza**

Kristo'ren arimea, santutu nagizu.
Kristo'ren gorputza, salbau nagizu.
Kristo'ren odola, ase nagizu.
KristoVen saietseko ura, garbitu fnagtzu.
Kristo'ren nekaldia, indartu nagizu.
Ene Jesus ona, entzun nagizu.
Zure zauri-baŕuan gorde nagizu.
Zugandik alde egiten itxi ez eidazu.
Arerio gaiztoagandik jagon nagizu.
Neure eriotzaldian dei egidazu.
Eta Zugana joateko agindu eidazu.
Zure Santuekaz betikotasun osoan
Zu goratu zaidazan. Olantxe.

300 *eguneko parkapenak,* 7 *urtekoa egunean bein, eta parkapen* osoa, ŕ/iean *bein.*

OTOITZA. — Zeugandu egizu, Jauna, nire aukeramen osoa, baita nire gomutamen, adimen eta naimen guztia be. Daukadan eta dodan guztia Zeuk emona dot eta zeuri biurtzen dautzut,- zeurea dozu eta naien dozunez erabili egizu. Zeu maite izatea eta zeure eskeŕa emoidazuz, eta oŕegaz naikoa dot,- oŕezaz gaíñerakorik ez dot ezertxo bere eskatzen. (300 *tguntko parkapenak, eç)unean bein).* .

JESUS GURUTZEKOARI. — fB*ere irudia urean esan bear da).*

Ona emen ni, Jesus on eta gozoa, zeure auŕean auzpez eta belauniko, eta gogorik bizi ta gartsuenaz eskatzen dautzut nire biotz oni sinismen, itxaropen eta maitasunaren sua, neure pekatuen egiazko damua eta euretan auŕerantzean ez jausteko erabagi sendoa ezaŕi claiozuzala,- nik bitartean maitasun aundiz eta damu zintzoz zure bost zauriak gogora ekaŕi ta auznartzen ditut, Dabid igarleak zure aoan, Jesus ona, jpinten ebazan itz



oneik neure begi-auŕean dodazala : Nire esku ta oñak zulatu ta nire azur guztiak zenbatu dabez. *(Bakotxean parkapen osoa dau, agindutako erea bete ezkero).*

ANDRA MARIA'RI.—Biurtu nigana zure begiok, Maria Bitjiña goragaria, oiain zure begien atsegin-poza egiñik nago-ta. Eskatu nire alde zure Seme maitemaiteari, bere gorputzodol osasungaŕia jan-edariz cmon daust-eta. Nire utsegitc ta bear-izan aunclien ordcz, zeure irabaziak cskiñi. Eskeŕak emon nire izenean eta mesede baŕiak eskatu. Nire gorputz eta atiinea bere esker eta mesedez bete barik ez daitcla nire biotzbaŕutik joan, Olantxc.

# MEZA DEIINA

Mezea, zer da? Eleiza Ama Deunak auxe erakusten dausku: Jesukristok bere gorputz-odolez, ogi ta ardáo irudipean, Aita Jaungoikoari eskintzen dautson oparia dala.

Ba-ziran Lege Zaŕean be opariak : abere, ogi, ardao, orio, ta abar, Jaungoikoari eskiñiak. Kristo'k, ostera, areik kendu ta beste baŕi bat ipiñi euskun, berberak Aita Goikoari gurutze-agean eskiñia.

Mezea ta gurutzeko oparia, baŕiz, gauza bat baiño ez dira. Jesukristo'k gurutzean bere burua, gorputz eta odol, eskiñi eban,- altaran be, bere gorputza ta odola eskintzen ditu, meza-emoilearen bitartez. Bera da, bai an ta bai emen, eskintzaiíe ta opari.

Gurutzean opari odoltsua izan zan, altaran ez,- emen ez dau Jesukristo'k odolik ixurten. Gurutzean Berak bakaŕik



eskiñi eban opari baliotsua gizonen onerako,- altaran meza-emoileari emoten dautsoz bere indaŕa ta abotsa. Gurutzea goŕitu eban Odol bikaiña altarako edontzi edo kalizan daukagu orain,- Jaungoikoaren Semearen gorputza, gurutzagean josi ta eskiñia, ona orain oial zuri gaiñean, Opari goitar egiñik.

Zetarako da? Lau gauza oneiterako bai beintzat :

1) Jauugoikoa *tjurtzeko.* Gizonak baditu zeregin berarizkoak munduan bizi dan bitartean : oneitatik lenena, Jauna ezagutu ta zor dautsagun menpetasuna berari autortzea. Baiña gizona ain ezereza izanik, gauza ez oŕetarako,- ta Jesukristo'k, gure ordez, bere Gorputza ta Odola eskiñiaz, zor yakon besteko gurtza emoten dautso Goiko Aitari.

2) *Pekatu-iraiñak or*dainŕzeko. Gizona pekatu egiñaz zordun egiten da Jaungaikoaren alderako. Eta, nok zor ori kitutu? Pekatu astun batez Jaungoikoari egiñiko iraiña ordaintzeko, Santu guztien egite

onak ez dira naikoa. Jaungoikoak bakaŕik ordaindu dagike, ta orixe egiten dau Jesukristo'k meza santuan.

3) *Eskeŕak emoteko.* Jaungoikoari zor dautsagu guztia : arima, gorputz, bizi, osasun, eguneroko esker ta mesedeak. On guztiokaitik eskeŕak egiteko nieza santuko oparia dogu era ta biderik egoki ta zuzenena.

4) *Mesede ba'riak eskatzeko.* Pekatuan jaust ba'zara, ta begiak gora jasoteko lotsaz ba'zagoz, Jesukristo meza santuan Aita Goikoari gure aide otoika daukazula gogoratu egizu. Ta olan, Beragan uste onez beterik, cskatu egiozu bear dozun guztia. Ta ez bildur izan, jadetsiko dozu-ta.

## Mezearen betíko zatia

*Táeza sanluaren betiko* zalŕa, *etfunero esan oi dana, jarten* dogu *ernen,* zafŕ *aldakorak. JCristo'ren Çorputz- edo Çorpuzti- eguneko mezatik ezaŕiko dputsaguz.*



[.—SlÑISBARRlEN MtZEA

a) *Çjertaketa.*

Meza-emoŕlea, *altara-au'rean zutunik, onan asten da .*

Aitearen eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean. Olantxe.

, *Çjero, meza-taipintzeu dautsonak eranlzuten* daiiísola, *jaiaitzen dau.*

Bmi.. — Eldu nadin Jaungoikoaren altarara.

E. Ni, gazte onen poza dan Jaungoikoagana.

*42'gaŕen Eresia.*

1 Ebatsi Zeuk, jauna, nire auzia, egizu nire alde bada - ezpadako gentecn aurka,- gizon maltzur eta makuŕagandik zaindu nagizu.

E. Zu zaitut, Jaungoiko ori, nire indaŕa,- zegaitik jaurti nozu, ta zegatik nabil ilun, arcrioak naigabetzen nauala?

I. Bialdu egizu zure egiaren argia,- onek zuzendu ta eroango nau zure mendi santura, zure jauretxera.

E. Eldu nadin Jaungoikoaren altarara, ni gazte onen poza dan Jaungoikoagana,

I. Kitara - otsean goratuko zaitut, Jaungoiko, bai neure Jaungoikoa. Zer dalata zagoz ilun, ene baŕua? Zegaitik laŕitzen zara?

E. Itxaron Jaungoikoagan,- oindiño geyago goratu bear dot berau,- bera dot nire arpegiko poz-argia ta neure Jaungoikoa.

I. Aintza Aitari ta Semeari ta Espiritu Santuari.

E Len lez, orain, beti ta amaibako egunetan. Olantxe.

BIRL. — Eldu nadin Jaungoikoaren altarara.

E. Ni gazte onen poza dc n Jaungoikoagana.

I. Jaungoikoaren izena gure lagun.

E. Arek egiñak dira zeru luŕak.

AUTORTZA.—*Táeza-emoúeak makurturik* •.

Nik, pekatari onek, autortzen dautsat Jaungoiko alguztidunaii, Andra M.aria



beti Birjiñari, Mikel Goiaingeru zoriondunari, Joan Bautista zoriondunari, Pedro ta Paulo Apostolu deunai, beste santu guztiai, ta zuei anai-aŕeba oŕei, pekatu laŕegi egin dodala gogapenez, itzez eta egitez, neure eŕuz, neure eŕuz, neure eŕu andiz. Augaitik eskatzen dautset Andra Maria beti Birjiñari, Mikel Goi-aingeru zoriondunari, Joan Bautista zoriondunari, Pedro ta Paulo Apostolu deunai, beste santu guztiai, eta zuei anai-aŕeba oŕei, otoi egiteko nire alde Jaungoiko gure Jaunari.

*"Meza erasoten dauanak erantzuten dautso.*

Eŕuki bekizu Jaungoiko alguztiduna, ta zure pekatuak parkaturik, eroango al zaitu betiko bizira. *Abadeak erantzuna* . Olantxe.

*Oraín meza-erasotzaleak be* «Nik pekatariak» *esaten dau, ela gero abadeak jaŕaitzai dau,* eŕŕ *o*soarenízaí *eŕukía eskatuaz* •.

I. Eŕuki bekizue Jaungoiko alguztiduna, ta zuen pekatuak parkaturik eroango al zaitue betiko bizira.

E. Olantxe.

I Gure pekatu guztiak parkatu, garbitu ta czereztuko al ditu Jaun eŕukitsu ta alguzridunak.

Zerbaŕí makurtuía.

I. Biurtu zaitez, Jaungoiko ori, gugana, ta bizi-erazo gagizuz.

E. Eta zure eŕia Zugan poztuko da.

I. Erakutsi eiguzu, Jauna, zure eŕukia.

E. Eta emoiguzu Zugandiko osasuna.

I. Jauna, entzun nire otoitza.

E. Eta nire oyua eldu bedi Zuganaño.

!. Jauna zuekaz.

E. Baita zure ariman be.

*Abádeak, allarara itjon, eía ixikan diño* .

Kendu, aŕen, Jauna, gugandik gaiztakeri guztia, altara santu onetara biotz garbiz igon gaitezan. Kristo gure Jauna bitarteko bekigu. Olantxe.

*Jllara-anko kulv.nai muti* egiñez .

Aŕen, Jauna, eijien dagozan gorpuzkin onein izeneko santuen eta beste santu guztien irabaziak bitarteko dirala, niie oben guztiak parkatu egizuz. Olantxe.



i

## Sarcrea

Mfza-emoŕíea *orain eskumaldera doa la «Ljurulze* Sant*u*a» egíñŕfc, *mezearen saŕerea irakurten dau.*

SARRF.RF.A.— Gari guriz janaritu ebazan, aleluia, ta atxeko eztiz ase. Aleluia, aleluia, aleluia. —- Ps. Pozezko ijutik egizuez Jaunaren omenez, gure indaŕa da-ta,- jo egiozuez txaloak Jakob'en Jaungoikoari.

*"Xirie.* Jauna, eŕuki zakiguz.
Jauna, eŕuki zakiguz.
Jauna, eŕuki zakiguz.
Kristo, eŕuki zakiguz.
Kristo, eŕuki zakiguz.
Kristo, eŕuki zakiguz.
Jauna, eŕuki zakiguz.
Jauna, eŕuki zakiguz.
Jauna, eŕuki zakiguz.

GLORIA. — Gora Jaungoikoa goietan. Eta bakea luŕean gogo oneko gizonai.

Goresten zaitugu, onesten zaitugu, gurtzen zaitugu, andiesten zaitugu, eskeŕak emoten dautzuguz. Jaungoiko Jaun, zeruko Eŕege, Jaungoiko Alguztiduna. Jaun - Seme bakar, Jesukristo, Goiko Jaun, Jaungoikoaren Bildots, Aitaren Semea. Munduko obenak kentzen dozuzana, eŕuki zakiguz. Munduko obenak kentzen dozuzana, artu gure eskaria. Aitaren eskumaldean zagozan ori, eŕuki zakiguz. Zu bakaŕik zara santu, Zu bakaŕik Jaun, Zu bakaŕik guztien gaiñeko, Jesukristo, Espiritu Santuaz batean Jaugoiko Aitaren zorionean. Olantxe.

b) *Jrakaspena.*

*Abadeak, altara cjamean mun tgin ta eŕiari begira .*

I. Jauna zuekaz.

E. Baita zure ariman be.

OTOITZA.—Sakramentu aŕigaŕi onetan zure oiñazeen gomuta itxi dauskuzun Jaungoikoa,- zure Gorputz-odolen gertaera au ospa-erazo eiguzu, zure erospe-



naren ondorea geuregan eten barik sentitzeko eran. Eŕege bizi zarean...

E. Olantxe.

IRAKURGAIA.—Paul doatsuak Korintiokoai (I, 11). Anaiak : Jaunak irakatsita dakit irakatsi dautzuedana, au da, Jesus Jaunak, saltzeko euken gabean, ogia artu ebala, ta eskeŕak emonik, zatitu ta au esan ebala ; «Au neure gorputza da, zuen alde saltzeko dana,- egizue au neure gomutaz». Apalondoan be bardin, ontzia arturik, au esan eban . «Ontzi au neure odolezko Itun Baŕia da,- egizue au neure gomutaz». «Ogi au jan eta ontziko au edaten dozuen bakotxean, Jaunaren eriotza adierazoten dozue, Bera etoŕi artean». Beraz ogi au gai eztala jan eta ontziko onetatik edaten dauana, Jaunaren gorputz-odoletan eŕudun daiteke. Aztertu begi, ba, bakotxak bere burua auŕetik eta gero jan begi ogi onetik eta edan ardao onetatik. Bear ez danez jaten edo edaten daunak, bere ondamena

jaten edo edaten dau, Jaunaren Gorputza aintzat artzen eztaualako.

E, Eskeŕak Jaungoikoari.

ZUHUBIA.—Guztien begiak Zu'ri begira dagoz, Jauna; ta Zuk mugonez emoten dautsezu janaria. V. Esku ori zabaltzen dozu, ta bizidun guztiak onez asetzen dozuz. Aleluia, Aleluia. V. Nire aragia egiz da janari, ta nire odola egiz edari. Nire aragia jan eta nire odola edaten dauana, Ni'gan dago ta Ni aregan.

*TAeza-emoileak, aílara au'rera joan* ta *makuriurik, esaten iau* •.

Garbi egizuz, Jaungoiko alguztidun oŕek, nire ezpan-biotzak, Isaias Igarlearenak txingar goriz garbitu zenduzan lez : arexen antzean zeure eŕuki atsegiñez garbi nagizu, zure Ebangelio santua bear dan lez iragaŕi dagidan. Kristo gure Jauna bitarteko dala. Olantxe.

V. Onetsi nagizu, Jauna.

Jauna bedi nire biotzezpanetan, Aren Baŕi ona egoki ta taiuz iragaŕi dagidan. Olantxe.



*Ezkeŕaldera joanik, jaŕaitzen dau* .

I. Jauna zuokaz.

E. Baita zure ariman be.

I. Baŕi onaren zati au Joan'etik.

E. Aintza Zu'ri, Jauna.

EBANGEUOA.—Beiñola Jesus'ek judutaldeari au esan eutson : «Nire aragia benetan da janari ta nire odola be benetan edari. Nire aragia jan ta nire odola edan dagiana, Ni'gan dago ta Ni aregan. Ni bialdu nauan Aita bizi dan lez, eta Ni Aitaren bidez bizi nazan lez, Ni jaten nauana be Ni'gaitik biziko da. Au da zerutik jatsiriko ogia. Zuen gurasoak basamortuan mana jan eben, eta il ziran,- Ogi au jaten dauna, baŕiz, beti-beti biziko da.

1 - 1 / - . --7 I,- -

E. Gora Zu, Kristo.

*7a abadeak liburuari mun ecjiñik* •.

Ebangelio au irakuŕiak parkatu beiskuz obenak.

KREDOA. — Sinisten dot Jaungoiko alguztiduna, zeru-luŕen egilea, agiri di-

ran eta ez diran guztiena. Bai ta Jesukristo Jaun Jaungoikaren Seme bakaŕa, gizaldi guztien auŕetik Aitagandik sortua,- Jaungoikoaganik Jaungoiko, argiaganik argi, egiazko Jaungoikoaganik egiazko Jaungoiko dana. Sortua, ez egiña, Aitaren izakidea, gauza guztiak egin dituana. Gu gizonakaitik eta gure salbatzeaŕen zeruetatik jatsia.

*( Belaunikalu emen ).* Eta Espiritu Santuaren egitez Marta Birgiñagandik aragia artu eta gizon egin zana. Gure alde gurutzean josi be egin ebena,- Pontzio Pilatoren menpean nekaldua ta obiratua, ta Liburu Santuak esan eben lez, irugaŕen egunean biztu ta zerura igon ta an Aitaren eskumaldean jezaŕita dagoana. Eta baŕiro, biziak eta iíak epaitzera etoŕiko dana,- Aren eŕeiñuak ez dau azkenik izango. Baita sinisten dot Espiritu Santua,- Aita ta Semeagaz batera gurtzen eta goresten doguna, Igarleen aoz itz egin ebana. Sinisten dot Eleiza bakaŕa, Santu, katoliku ta apostoluekandikoa. Autortzen dot, pekatuak parkatzeko bataio bakaŕa. Eta sinisten dot ilen biztuerea eta geroko bizia. Olantxe.



1. Jauna zuokaz.

E. Baita zure ariman be.

II. — SINISTUNEN MEZF.A

a) *Abadeak acfur tgúen dautso eriari* ,•

I. Jauna zuokaz.

E. Baita zure ariman be.

Otoi gagigun.

ESKINTZA. — Jaunaren apaizak luŕuna ta ogia eskintzen dautsoz Jaungoikoari,- beraz, santu izan bear dabe, aren izena loitu barik.

*Orain ogia ta ardaoa,* mezako *o*parŕ-gaiak *eskintzen ditu úbadeak.*

OCIA tSKiNTZEAN.—-Eutsi, Aita deun, Jaungoiko alguztidun betiko oŕi, orbanbako opari au; nik, zure otsein gai ez onek, Zu'ri, ene Jaungoiko bizi ta egiazko oŕi, eskintzen dautzut, neure ezin kontau-alako oben, irairi, eta nagikerien

orde,- baita emen dagozan eta gaiñerako kristiñau zintzo, bizi ta il guztien alde be; niri lez oŕei be betiko bizirako osasungaŕi dakigun. Olantxe.

ARDOARI UR-APURRA NASTBAN. —Gizonak aŕigaŕiro egin eta aŕigaŕiroago baŕiztau zenduzan Jaungoikoa; eiguzu urardao onein irudipean adierazten dana, au da, Jesukristo zure Seme ta gure Jauna gizatasunean gure ideko egin zan lez, gu bere Jaungoikotasunaren ideko egitea : berau dozu Espiritu Santuagaz batean beti ta beti zure bizi ta agintelagun dozun Semea. Olant.xe.

ARDAOA ESKINTZEAN. — Zu'ri eskintzen dautzugu ontzi osasungaŕi au,- Jaun eŕukitsu oŕek, aŕen, egizu gure ta mundu guztiaren osasunerako Jaungoiko aundiaren auŕera usain gozoz igon dadila. Olantxe.

Gero *eskuak altara gaiñean la makur,* diño,-

Artu gagizuz, Jauna, biotz-apal eta damuturik gatozenok; eta gaur zure



auŕean eskintzen dautzugun opari au atsegingaŕi izango al yatzu, Jaungoiko Jaun oŕi.

Meza-gaiak *bedeinkaluz* .

Zatoz, Jaungoiko betiko, alguztidun, donetzaile ori; eta bedeinkatu egizu zure izen santuari eskiñiriko opari au.

*Jlzamaŕak garbitzeko* allara-ertzcra doa.

25'GARRI.N F.RIÍSIA.—Eskuok otban guztitik garbitu ta zure altarara uŕeratuko naz, Jauna.

Zure gorespenak abesteko, ete zure aŕigaŕiak oro zabaltzeko.

.Vlaite tlot, Jauna, zure etxearen cdeŕa ta zure bizileku argitsua.

Ez galdu, aŕen, Jaungoiko oŕek deungeekaz batera nire arimea, ezta nire bizi au be gizon odolzaleakaz.

Oneik eskuetan gaiztakeria dabe, euren eskumea lapuŕetako etnoiz baterik daukie.

Ni, baŕiz, garbi ibiiiko naz,- jagon nagizu ta eŕuki zakidaz.

Nire oiñak oiñaŕi sendoan dagoz,- batzaŕetan goralduko zaitut, Jauna. Aintza Aitari...

*Jltara erdiratu la zerbail makurturik .*

Artu egizu opari au, Irutasun deun oŕek,- Zu'ri eskintzen dautzugu, Jesukristo gure Jaunaren nekaldi, berbizte ta zeruratzearen goniutaz, eta Maria beti Birjiña doatsuaren, Joan Bataiatzaile zoriondunaren, Pedro ta Paulo Apostoluen eta beste santu guztien goragaŕi; areiri aintzagaŕi ta guri osasungaŕi izan dakigula, eta luŕean goratzen doguzanok zeruan bitarteko izan daiguzala. Kristo gure Jaunaren izenean. Olantxe.

*Abadeak eŕirantz biurtuz, oioŕíz egiteko eskatzen dautse guztiei.*

Otoitz egizue, anaiok, neure ta zuen opari au Jaungoiko alguztidunari gogoko izan dakion.

E. Artu begi Jaunak zure eskuetako opari' ori, bere izenaren gorespen eta



edeŕerako, ta gure ta Eleiz Ama deun osoaren onerako.

*Meza-emoileak* .- Olantxe.

IXIL-OTOITZA.—Emoiozuz, aŕen, Jauna, zure Eleizeari alkartasuna ta bakea, emen daukaguzan opari oneik doai oŕeik adieŕazten ditue-ta. Bitarteko bekigu Jesukristo...

b) *Sagara-aldia* I

I. Jaunazuokaz.

E. Baita zure ariman be.

I. Gorabiotzak.

E. Cure Jaunagan daukaguz.

1. Eskeŕak emon daioguzan gure Jaungoiko Jaunari.

F. Egoki ta bidezko da.

F.goki ta bidezko da, bai, zuzen eta osasungaŕi beti ta alde guztietan guk Zu'vi eskeŕak emotea, Jaun santu, Aita alguztidun, betiko Jaungoiko oŕi, Kristo gure Jaunaren bitartez. Beronen bidez, Jaun andi ori, goratzen zaitue aingeruak, gurtzen agintariak, ^Vldunak ikaraz

ezagutzen, goyak eta goiko Indardunak aingeru gartsuekaz batean pozez ospatzen zaitue,- gure kantak be areíñakaz batean, aŕen, ontzat artu egizuz,- alan eskatzen dautzugu apalik eskari-oyuka ekiñaz :

*Sanctus. Ĺaguntzaileak irti txiíiu-oís joten ditu.*

Santu, santu, santua Sabaot'eko Jaungoiko Jauna. Zeru-luŕak zure aintzaz beterik dagoz. Otnena zuri goietan. Onetsi a - Jaunaren izenean datoŕena. Omena Zu'ri goietan.

## KANON DERITXON ZATIA

## edo

## SAGARAREN ARAUA

Meza*ko unerik edeŕenetan gacjoz. Meza-*emo*iíeak*, *lenenijo Eíeiza osoaren alde otoiiz egin, zeruko santu ta batez Andra "Mariari laguntza e%katu, Çjoiko Aitari be eskintzen*



*doan opari au* onfzaŕ arízeko.eskaíu ía gero, *Xristo'k azken-aparian lez, ogia ta ardoa Jesukristo'ren Çorputz eta Odol biurtzen dilu.*

El.IilZAREN ALDEZKO OTOITZA. — Zu'ri, Aita onbera oŕi, gure Jaun eta zure Seine Jesukristo bitarte dogula, auzpez aŕenka eskatzen dautzugu, emoi t oneik, eskintsari t oneik, opari t santu garbi oneik ontzat artu ta bedeinkatu daizuzala. Lenengo ta bein, zeure Eleiza santu katolikuaren alde eskintzen dautzuguz, Eleiza au Iur zabal osoan baketu, jagon, batu ta zuzendu dagizun, zure Otsein N. Aita Santu, gure gotzain N. siñistun zintzo ta apostoluen siñiste katolikuan bizi diranen guztiekaz batean.

BIZIEN ONEIÍAKO. — Gomutau zaite, Jauna, zure otsein ta mirabe N. ta N. tzaz, gotnutau emen dagozan guztietzaz, siñiste onekoak eta zintzoak dirana badakizu-ta. Euron alde eskintzen dautzugu, edo ta eurok be eskintzen

dautzue, opari goragaŕi au,- euren buru ta senideen alde, euren arimak zeruratzeko, betiko osasun eta zoriona jadesteko ustean eskintsari oneik Zu'ri, betiko Jaungoiko bizi ta egizko oŕi, egiten dautzuez.

ZERUKOEN LAGUNTZA - ESKP.. — Guztiok alkar arturik, gogora dakargu, lenengo ta bein, Maria beti Birjiña doatsu, Jesukristo Jaungoiko ta gure Jaunak Ama dauanaren gomuta gurgaŕia, baita zure Apostolu ta Martiri doatsu Pedro ta Paulo, Ander, Santiago, Pilipe, Bartolome, Mateo, Simon eta Tadeo, Lino, Kleto, Klemente, Sisto, Kornelio, Zipriano, Lorenzo, Krisogono, Joan eta Paulo, Kosme ta Damian eta zure santu guztien gomuta gurgaŕia be; euron irabazi ta otoitzak dirala bitarte, gauza guztietan zurelaguntzarenindaŕak babestu tajagon gagizala eskatzen dautzugu. Bitarteko bekigu Kristo gure Jauna bera.

*Abadeak oparien cjaiñean eskuak ezarlen ditu.*



Gu zure moŕoi onein eta zure etxeko guztien opari au abegi onez artu egizu, aŕen, Jauna,- emoiguzu bakea gure egunotan, eta betiko surtatik gu aldendurik, zeure autuen artean artu gagizuz. Bitarteko bekigu Kristo gure Jauna. Olantxe.

Opari au, Jaungoiko oŕek, orotan bedein t katu, zeuretzat t artu, ontzat t emon, itxurazko ta zeure gogoko egizu, aŕen, zure Seme txit maite dan Jesukristo'ren Gorputz eta Odol biurtu dakigun.

OGIA SAGARATZIÍN DAU.—Berak, il-auŕeko egunean, bere eskusantuagurgaŕietan ogia artu eban, eta, begiak zerura jasorik, Zu'gana, bere Aita altsu oŕegana, Zu'ri eskeŕak emonaz, bedein t katu, zatitu, ta bere ikasleai emon eutsen, zirautsela: «Artu egizue, ta jan guztiok onetatik: AU NEURE GORPUTZA DA».

ARDAOA SAGARATZEN DAU.—Era berean, apal ondoan, edonrzi (kaliza) bikain au be bere esku santu ta agurgaŕietan arturik, Zu'ri baŕiro eskeŕak emonaz, bedein

t katu eban, eta bere ikasleai einon euisen, zirautsela: «Artu egizue, ta edan guztiok onetatik: AUXE DA, BA, NIRE ODOL-ONTZÍA, ALKARTASUN BAŔl TA BETIKOA. SIÑISTEKO ESKUTUKIA: ZUEN ETA BESTE ASKOREN PEKATUAK PARKATZEKO IXURIKO DANA. Oneik egin daizuezan bakotxean nire gomutaz egikezitez.

OPARIAK ESKIÑIZ. — Ořegaitik, Jauna, guk zure mořoiok eta zure eři on osoak, zure Senie Jesukristo gure Jaunaren Nekaldi deuna, lurpetiko berbiztutea ta zeruratze argia gogora ekarten doguzala, Zu'ri Jaungoiko andi ta argitsu oři, zeuk emondako doai ta emoietatik, opari t garbi au, opari t santu au, opari t orbanbako au c-skintzen dautzugu, betiko bizirako ogi santu au, ta betiko osasunerako edontzi au.

Opari onei abegi ona ta eřukiořa egiezu, ařen, eta ontzat artu eurok, zure niořoi zintzo Abel'en emoiak, Abraan gure



Aitagoiarenvoparia, ta zure apaiz nagusi Melkisede'k opaldu evttzun opari deuna, eskintza orbanbagea, ontzat artu zenduzan lez.

Çero, ma*k*urluri*k*, e.saíeti dait:

Zu'ri, laungoiko alguztidun ořì.auzpez eskatzen dautzugu, zure aingeru santuak bere eskuz opariok zure goiko altara bikaiñera, Jaungoiko andi ořen auřera eroan dagizala,- altara onetan zure Semearen Gor t putz eta O t dol txit deunak artzen doguzanok zeruko onespen guztiz eta eskeřez beteak izan gaitezan. Bitarteko bekigu Jesukristo gure Jauna berbera- Olantxe.

II.LEN AI.OIÍZKO OTOITZA, — Gomuta zaitez, Jauna, siñeste-ezaugařiaz auřetik joan jakuzan eta bake-lotan dagozan zure mořoi eta mirabe N. ta N'.'tzaz be.

Eurori, Jauna, ta Kristo'gan atseden daben guztiai argizko ta bakezko toki atsegin bat emoiezu, ařen, Jesukristo gure Jaun ořen izenean. Olantxe.

Bai ta guri, zure eŕuki ugarian ustea dogun zure moŕoi pekatarioi be, emoiguzu, aŕen, artuentxoa ta lagunartea zure Apostolu ta martiri santuekaz: Joan, Esteban, Matia, Barnaba, Iñaki, Alexander, Marzelino, Pedro, Pelizitas, Perpetua, Ageda, Luzia, Ines, Zezilia, Anastasia, eta beste santu guztiekaz,- artu gaizuz, bai, arein lagunartean, ez gure irabaziakaitik, zeure eŕuki samuŕaŕen baño. Bitarteko bekigu Jesukrist° gure Jauna,

Beronen + bitartez, Jauna, sortuerazoten dozu beti on guztia; baita san + tutu, in + dartu, bedein + katu ta guri emon be.

Bere + bidez, Bera + gaz, ta Bera + gan Zu'ri, Jaungoiko alguztidun oŕi, dedu ta aintza guztia dagokizu, Espiritu Santuaz batean. Gizaldien gizaldietan.

E. Olantxe.

d) Jaunaŕízea.

*Túeza-emo'úea Jaunartzera* doa, *oŕetarako* bere *biotza gertau gura dau, ta cjeriu biderik*



onena *A'úa Çurea* esatea *aurki,* Jesukrisfo'k bere aoz /ra*k*atsifa*ko* oíoitz edeŕa *auxt dogu-ta.*

PATER NOSTER. — Salbagilearen aginduak adoreturik eta JaungOikoak berak irakatsirik, bildur barik diñogu:

Aita gurea, zeruetan zagozana, santifikadu bedi zure izena,- betorkigu zure eŕeiñua; egin bedi zure borondatea zeruan lez luŕean be. Emoiguzu gaur geure eguneroko ogia,- parkatu eiguzuz geure zoŕak, geuk gure zoŕdunai parkatzen dautseguzan lez; eta ez eiguzu itxi tentaziñoan jaustcn.

E. Baña gatxetik jagon gaizuz.

Abadea*k*: Olantxe.

Jagon gaizuz, aŕen, Jauna, lengo ta oraingo ta geroko gaitz guztietatik; eta Jaungoikoaren Ama doatsu ta aintzatsu, Maria beti Birjiña, zure apostolu zoriontsu Pedro ta Paulo eta Ander eta santu guztien bitartez, emoiguzu eŕukiz bakea gure egunotan,- zure eŕukia lagun dogula, pekatutik beti alde egin ta biuŕialdi guz

tietatik jarein izan gaitezan. Bitarteko bekigu zure Seme ta gure Jaunjesukristo bera, Espiritu Santuaz batera Zeu'gaz bizi ta agintzen dauana gizaldien gizaldietan.

E. Olantxe.

iMeza-emoíleafc *Osti* Deuna /*r*u zati *ecjiten dau.*

I. Jaunaren bakea bego betí zuekaz.

E. Baita zure ariman be.

Jesukristo gure Jaunaren Gorputz ta Odola emen nastau ta Sagaratuak izango al yakuz artzen doguzanoi betiko bizitzarako. Olantxe.

*Qero abaátak iru bider* bulaŕa joaz,-

Munduaren pekatuak kentzen dozuzan Jaungoiko-Bildoís ori: eŕuki zakiguz.

Munduaren pekatuak ker.tzen dozuzan Jaungoiko-Bildots ori: eŕuki zakiguz.

Munduaren pekatuak kentzen dozuzan Jaungoiko-Bildots ori: emoiguzu bakea.



JAUNARTU-AUBREKO OTOITZAK —Jesukristo gure Jauna, Zu'k bein zure apostoluai esan zeuntsen: «Neure bakea isten dautzuet, neure bakea damotzuet»; ez egiezu, aŕen, nire obenai begiratu, b i zeure Eleizearen siñismenari. Eleiza au, zure gogoa dan lez, baketu ta bat egizu, amaibako egunetan bizi ta agintzen dozun Jaungoiko oŕek. Olantxe

Jesukristo gure Jauna: Jaungoiko biziaren Semea, Aitaren aginduz etaEspiritu Santua lagun, mundua bizierazo zenduana: zure Gorputz-Odol santu onen bitartez, jagon nagizu ta atara neure; bide makur eta gaitz guztietatik; eta zure aginduai beti dautsedala, ez nadila, aŕen Zu'gandik iñoz be aldendu. Eidazu auxe Zeu'k, Aita Jaungoiko beragaz eta Espiritu Santu oŕegaz gizaldien gizaldietan Eŕege bizi zarean oŕek. Olantxe.

Jesukristo gure Jauna: nik merezi ezaŕen, artu nai dodan zure Gorputza ez bekit, aŕen, neure burua galtzeko epaibidea ta ondamendia,- ta bai zure eŕuki

andiz nire gorputza eta arimea zaintzeko ta euren sendabidea artzeko. Eidazu auxe Aita Jaungoikoaz ta Espiritu Santuaz batean amaibako egunetan bizi ta agintzen zagozan oŕek. Olantxe.

ABADEAREN JAUNARTZEA. — Artu dagidan zeruko ogia, ta Jaunaren izenari dei egin dagiodan.

Orain, *bulaŕa joaz, iru bider* esaíen *áau-*.

Jauna, ez naz ni iñor, Zu nire etxean sartzeko,- baña esaizu itz bat bakaŕik, eta nire arimea osatuko da.

Jesukristo gure Jaunaren Gorputz onek gorde begi nire arimea betiko bizitzarako. Olantxe.

*Osti apuŕak batuaz:*

Zer etnongo dautsat Jaunari' egin daustazan on guztien ordez? Edontzi osasungaŕi au artu, ta Jaunaren izenari ots-egingo dautsat. Bai, Jauna goraldu ta Berari ots-egingo dautsat, eta areriokandik onez atarako nau.



Odol *santua artuaz:*

Jesukristo gure Jaunaren Odol onek gorde begi nire arimea betiko bizitzarako. Olantxe.

ESKU-GARBITZEA.—-Aoaz artu dogun au gogo garbiz artu daigula, Jauna,- ta gaurko emoi au betiko osasun biurtuko al jaku.

Jan doclan zure gorputza,Jauna,ta edan dodan zute Odola itsatsi bekidaz eŕaietan,- eta sakramentu garbi ta santu onek indartu nauan ezkero, ez bedi, aŕen, nigan gaiztakeri-orbanik gelditu. Egidazu auxe, amaibako egunetan Eŕege bizi zarean oŕek. Olantxe.

AZKEN-OTOITZAK.— Ogiaujan eta ontziko au edaten dozuen bakotxean, Jaunaren etiotza adierazten dozue, Bera etoŕi artean. Beraz, gai eztala Ogi au jan nai ontziko au edaten dauanak Jaunaren Gorputz-Odoletan eŕudun izango da.

OTOITZA.—Goza dagigun, Jauna, betean eta betiko zure Jaungoikotasuna;

Gorputz - Odol baliotsu oneik artzeak ori adirazten dau-ta. Egiguzu auxe Aita Jaungoikoagaz Espiritu Santuaz batean gizaldien gizaldietan bizi ta agintzen dozun oŕek. Olantxe.

I. Jauna bego zuekaz.
r -> • • l,
b. liai ta zure aninan be.,
I. Zoaze, mezea amaitu da-ta. *Eáo-.* Onetsi daigun Jauna.
E. Jaungoikoari eskeŕak.
Meza-*emoileak makurturik esattn dau-.*

Atsegin bekizn, lrutasun santua, moŕoi onen oparia,- ta ontzat artu egizu nik txatxar onek Jaungoiko andi oŕen begietan egin dodan eskintza au; ta zure eŕukiaŕen, niri ta euren alde eskiñi dodan guztiai osasungaŕi bekigu. Jesukristo gure Jaunaren izenean. Olantxe.

*Abadeak, aítareari mun eaiñik, e'ria bedeinkatzen dau, diñoala-.*

Bedeinkatu zagiezela Jaungoiko alguztidunak, Aitak eta Semeak eta Espiritu Santuak.



E. Olantxe.

Azk*e*u-euaugenoa.

I. Jauna zuekaz.
E. Baita zure ariman be.
I. Ebangelio Santuaren asiera, Juan'ek dakaŕenez.
E. Aintza Zu'ri, Jauna.

Asi-asikerarik zan Itza (Jaungoikoaren Semea), ta ltza Jaungoikoagan Dana arçk egiña da, eta Bera barik ez da egin egiñikorik ezer be. Aregnn egoan bizia, ta bizia gizonen argi zan,- eta argiak ilunetnn, argi egiñaŕen, iluna]< ez eben artu bera. Gizon bat agertu zan Jaungoikoak bialdua, Joan eri'.xona. Siñispidetzat etoŕi zan berau, beronen bidez guztiak siñistu egien. Etzan argia bera, argiari siñispidea emotekoa baiño. Bazan beste bat egiazko argia, lur onetara datoŕen edozein gizon argitzen dauana. Munduan egoan, eta mundua berak egiña izanaŕen, munduak ez eban ezagutu. Bereakana etoŕi ta bereak ez eben artu. Baña

artu eben guztiai, au da, bere izenean siñisten dabenai, Jaungoikoaren seme biurtzeko eskubidea emon eutsen. Oneik ez dira odoletik jayoak, ez aragi-senetik ez gizonaren naieratik, Jaungoikoagandik baiño. Ta Itza aragi egin *(betauniko)* eta gure artean bizi izan zan. Eta geuk ikusi dogu aren aintza, Aitagandiko Semeari dagokion aintza, eskeŕez eta egiz betea.

E. Jaungoikoari eskeŕak.

AZKEN-ESKARIAK.—*!Meza ixilen ostean* egíŕten *dira* ofoŕízok, Aiŕa *Santu Leon amairugaŕenak aginduta.*

*Cenengo, iru* Agur Mari esafen *dira.*

Agur, Eŕegiña, Ama eŕukioŕa, geure bizi, gozotasun eta itxaropena, agur. Zu'ri deiez gagoz Eba'ren ume erbestetuok. Antsiz eta negaŕez gatorkizuz negar-eŕi onetan. Ea, bada, geure bitarteko Andrea, zeure begi eŕukitsu oŕeik gugana biurtu egizuz, eta erbeste onen ondoren, erakuskuzu Jesus, zeure sabe-



leko seme onetsi ori. O biotz bigun, o eŕukior, o Maria Birjiña gozoa!

I. Otoitz egizu gure alde Jaungoikoaren Ama done oŕek.

E. Kristo'ren agintzariak jadetsi daikeguzan.

OTOITZA.—Zu zara, Jaungoiko ori, gure igesleku ta indaŕa; begiratu, ba, deika daukazun eŕi oni, ta Jaungoikoaren Ama eder Maria beti Birjiña bitarteko dala, tabera gazbatera Jose bere senar doatsua, Pedro ta Paulo zure apostolu santuak eta santu guztiak, pekatariak onbideratzeko, Eleiz Ama deunaren azkatasunerako eta garaitzarako zuzentzen datzuguzan eskariok, eŕukiz eta biotzonez entzun egizuz. Jesukristo gure Jauna beraren izenean. Olantxe.

Mikel Goi-aingeru deun ori, zatoz gure guda-lagun, deabru gaizto ta maltzuŕagandik jagon gagizuz. Menpetu begi Jaungoikoak, auzpez otoitzka gaituzu,- ta zuk, zeruko gudarien buru zajrean oŕek,

gure ariniak galdu nairik, munduan zear dabiltzan Satan eta beste deabru gaiztoak, zure Jaungoiko-indaŕez, inpernura jaurti egizuz.

E. Olantxe.
I. Jesus'en Riotz guztiz santua.
E. Eŕuki zakiguz. *(Jlu iru aidiz esaien*

***m.***



# GOGOZKO OTOITZA edo GOGAKETA

*Ĺ/izona bai eder Jaunaren au'rean belauniko!* Bioíza *gora* jasvrifc, *tnesede la eskeŕak e*skatzeu *dautsaz.*

7aio-baiiak uai*ezk*o dan *esne gurio, bai* ía *arimtak be oloitza, zerua irabazteko. (jizona ba-da bere ustez, zerbait, ba-ditu kemen, indar* ía adore, *gorputzaldeiik. Baiiia rriir.a oldetik ezt*a gauza auudiri*k*, *Jaungoikouk laijundu ezik. Au egi biribila.* 7a *eskatzen dauanak baiño artzen eztauan ezkero, arlzeko eskalu* rgi'u *bear.Jesukristo'ksúridíiio: •t.dcnoiz la beti* oíoiíz *egizue. Eskatu la artuko dozue, deiiu* la *edegiko yatzue,* bíían ía aurkituko dozue».

*í.ra bitan o*foiíz *dagigu-.* aoz *edo iizez, ber*baz, eía gogo utsez, miu-*e*zpanai *erarjin barik.* Nai *bata nai bestea, tjuztiz egoki la eder, Jaung'oikoarekin batzeko, baiña bigarnia, edeíago.*

*Siñistea dogu aritna-bizilzearen oitiari, la* ŕtxaropeñak *sortzen dausku íuŕeko gauza guztiak* ííxi *ta, zerura igonik, laungoikoaz jabe-*

Izeko *gogo bizia. Jainkozko onbide onei eusleko biderik* egokí ta *begiz-joena* auxe. *Jedeko tgi aundiak* gogoan *erabili, ta au, geienik, otoilz-aldian,* siñi^teko *egiak auinartzean, tgin oi dogu.* ,

*Santuen anlzera* geure *barua eraba'ritu ta ondu nai izan ezkerff, gogozko itoilzean saialu la alegindu* bear. *Lenen, gure adimena ta naimena lanean jaŕi, ta gero, biotzaren jarduna, gorigori egiteraiño.*

*Zazpi zati dauz gogozko otoítzat: 1) gerlaketa, 2) irakurtaldia, 3) gogarketa, 4) ikusketa,* 5) *tske'rak emon, 6) eskalzea, \a 7) azkena.*

*Jrakurlea ta gogarizea ez dira bat. Çaia artu ta irakurtea ezla naikoa, gai ori gogoan erabiii bear da, egia ausnartu.* Ońela *biolzean sua sortzen da, ta ondoren erabagi sendoak arlu.*

*jXenpis onetan daukazuz guraña* irafcurgaŕ pder, *asieralik atzeneraiño. Çoiz nai aŕats, irakuii egizu zerbait, asíiro-astiro, ta gero, begiak itxirik, bertako egiak adimenean ela naimenean erabiliaz, bioiza berolu.*

*Santu izateko dirausku* Krisío'*k. Ońetarako biderik* egokŕeua, *gogozko oloiiza. Teresa Ama deunakargi tagarbi- "Ordu lauren bat, egunero, gogo-otoitzari emoiozu, la or zerua zeure eskuetaii".*

# II.-KRISTO'ren ANTZ BIDEA.

# KRISTO'REN ANTZ-BIDEA

## LENENGO IDAZTIA

f **Gogo-bizitzarako oar onuratsuak**

### I ATZAI.BURUA

KRlSTo'li1N' ANTZ-BIDiiA TA LURRBKO USKERI GUZTIRN I;ZIÍSI>I;.\'A

1. «Niii jaŕaitzen daustana eztabil ilunpean», diño Jaunak (1).

2. Kisto'renak dira itz oneik; eurokaz bere bizikerea ta oifurak geugandu daiguzala aolkatzen dausku, egiz argituak eta biotz-itsukeritik azke izan gura ba' dogu.

(1) Joaa, VIII 12.

3. Gure ikaskizunik bein-beiñena Jesukristo'ren bizitzea goznartzea izan bedi.

4. Kristo'ren ikasbidea deunen irakaskintza baño gorago dago, ta Kristo' ren gogoz dabizanak ostenduko mana idoroko dabe.

5. Baña askok Kristo'ren gogorik eztaukie-ta, Bafi-ona safitan entzun afen, gurari motelak eukitea jazo oi da.

6. Eta Kristo'ren itzak ondo ta gozaro ulertu gura dauzanari, bere bizikerea Kristo'ren bizitzaren antzeko egitea egoki yako.

7. Irutasunatzaz gai sakonak eztabaidaka erabilteak zer onik egiten dautzu, apaltasunik euki ezta, ofetantxe be Irutasuna iraintzen ba'dozu?

8. Egiz, itz goratuak eztabe deun eta zuzen egiten; bizikera onoimentsuak, ostera, Jaungoikoarentzat maitagafi egiten dau,

9. Damua zer dan jakin baño, damu izatea gurago dot.



10. Idazti deunak asieratik azkeneraño, ta jakitun guztien esakunak ba'zenkiz be, Jaungoikoaren esker eta maitasun barik, zer onik egín leiketzue?

11. «Uskeríen uskeria ta dana uskeria baño ez» (1), Jaungoikoa maite izan eta berari bakafik otsein-egitea izan ezik.

12. Gizakeriaren ezespenetik zerurantza igotea, jakituri sakona da.

13. Ondasun igeskofak bilatzea ta ustea euretan ipintea, uskeria da.

14. Andikeri-zale izatea ta burua afo jasotea, uskeria da.

15. Aragiaren zalekeriai jafaitzea, ta gogor zigorkatu beafa ekafiko dauana gura izatea be, uskeria da.

16. Bizitza Iuzea gura izatea, ta ona izan daiten ez arduratzea, uskeria da.

17. Oraingo bizítzeaz baño ez arazotzea, ta gero etofiko danari ez begiratzea, uskeria da.

18. Arin-arin íges egiten dauana mai-

(1) Eccl. I, 2.

te izatea, ta. betiko atsegiña arduraz ez bilatzea, uskeria da.

19. Sařitan gogoratu egizu Idazti deuneko esakun au. «Begia ikusiz eta belařia entzutez eztira asetzen» (1).

20. Zure biotza ikuskořetatik aldendu ta ikusi-eziñetara biurtzeko alegindu zaite.

21. Aragikeriari jařaitzen dautsenak, euren bařua orbandu ta Jaungoikoaren eskeřa galtzen dabe-ta.

## II ATZALBUHUA

### NORBERAZKO ERITXI AI'ALA

1. Gizon guztiak berez dira jakin zaleak, baña zer onik dakar Jaungoikoaren bildurbako jakiteak?

2. Bere buruaz aiztuta, izařen ibilera aztertzen dauan jakitun ařoa baño, Jaungoikoari otsein-egiten dautsan baseřitar apala obea da.

(t) Eccl. 1,8.



i. Norbere burua ezagutzen dauanak ezetsi egíten dau, ta gizonen txaioak etxakoz atsegin.

4. Luřeko dan-danak ba'nenkiz be, baña maitasunean ezpa'nengo, zer lagunduko leuskit nire egiñai dagokionez epaituko nauan Jaungoikoaren auřean?

5. Jakingura lařegiak ezi egizuz, euroetan eragozpen eta iruzurandia aurkitzen da-ta.

6. Ikastunak, agirira pozik urten eta jakitunak dirala pozik entzuten dabe.

7. Gauza asko dira, jakiteak arimari onura gitxi edo bape ez damotsenak.

8. Norberaren gaizkakunderakoa (salbaziñorakoa) laga-ta, besteetara biurtzen dana zentzunbakoa da.

9. Itz askogaz gogoa ezta asetzen,- bizitza onak ostera arindu egiten dau, ta bařu garbiak Jaungoikoagazko uste andia sortzen.

10. Geyago ta obeto jakin, gogořago epaitua izango zara, deunago biziten ezpa'zara.

11.. Ederti edo jakiturien bategaitik etzaite puztu, emon dautzuen ezagutzegaitik bildur izan baño.

12. Asko dakizula ta ondo ulertzen dozula ba'deritxazu, eztakizuna asko geyago da)a siñistu egizu.

13. Gai goratuak jakiten ibiíi barik, zure ezjakitea autortzea oba dozu.

14. Zu baño jakitunagoak eta legea ezagutzean argiagoak asko dira-ta, zegaitik daukazu zeure burua geyago dalakoan?

15. Ezei* onuraz jakin eta ikasi gura ba'dozu, aiztuta ta ezereztzat euki zagiezala gura bear dozu.

16. Ikaskizunik gorengo ta onuragaŕiena, norbere buruázko egizko ezagutzea ta ezespena da.

\7. Norbere burua ezereztzat eta geideak ondo ta andiro epaitzea, jakituri ta ornitasun andia.

18. Iñor argirian oben edo eŕu andiak egiten ikusiko ba'zendu, oŕelan eta guzti be zeure burua obetzat eztozu euki



bear, onean noz arte iraun zeinkeneztakizu-ta.

19. Jauskoŕak gara guztiok,- baña zeu baño jauskoŕagotzat iñor be ez egizu euki.

## 111 ATZALBURUA

## iiGIAREN IKASBIDÉA

1. Egiak berak, eta irudi edo itz igeskoŕen bidez barik irakasten dautsan gizona, zoriontsua da.

2. Gure buru-eritxi ta senak saŕitan iruzur egiten dauskue, ta gitxitxu ikusten dabe.

3. Gai eskutu ta ilunak ondo jakiteak zer ou egiten dau, olakorik jakin ezagaitik epaikundeko egunean eztauskue agiraka egingo-ta?

4. Onurakoŕak eta beaŕezkoak itxita, kaltegaŕiai ekitea zorakeri andia da benetan.

5. Begiak euki ta eztogu ikusten; eta ikastunen enda ta motakaz, zer daukagu zer ikusirik?

6. Jaungoiko-Semeak itz egiten dautsana, eritxi askotan azke gelditzen da.

7. Guztiak JaungoikoSemeagandik datoz, éta guztiak auxe esan bakaŕa diñoe: eta «asierea berauxe da, guri itz egiten dauskuna» (1).

8. Bera barik iñok eztau ez ulertzen ez artez ebazten.

9. Guztiak bat yakozana, ta guztiak batera dakazana, ta guztiak baten ikusten dauzana, oŕexek bai biotzean aldatu barik eta Jaungoikoagan baketsu iraun eike.

!0. Egia zarean Jaungoiko oŕek, betiko maitasunean zeugaz bat egin nagizu.

11. Asko irakuŕi ta entzuteak gogait eragin daust saŕi askotan; zugan dago nai ta gura dodan guztia.

Í2. Ixildu beitez irakasle guztiak, izaki guztiak ixilik begoz: zeuk bakaŕik itz egidazu.

13. Norbait zuri batuago ta baŕuan garbiago egin, geyago ta andiagoak neke

(1) Joan VIII, 25.



barik adituko dauz, adimenaren argia goitik artzen dau-ta.

14. Arazo askori ekin aŕen, garbia, lnua ta aldatu - gaitxa ezta okertuten, guztiak Jaungoikoaren aintzarako egiten, eta bere buru-eritxiz utsik egoteko arduratzen da-ta.

15. Zure biotzaren ezibako zalekeriak baiio geyago, zek eragotzi ta nekatzen zaitu?

16. Gizon onak eta jaungoiko-zaleak agirian egin bear dauzanak, lenengo bere baŕuan atondu daroaz.

17. Eginbeaŕak bera eztaroe griña okeŕetara, baña berak adimenaren bide artezera biurtzen dauz.

18. Bere burua azpiratzen diarduanak baño buŕukaldi «ogoŕagoa nok dauko?

19. Ta gure egikizuna burua azpiratzea, egunoro sendoagotzea ta onean zerbait auŕeratzea izan bear leuke.

20. Bizitza onetako edozein osotasunak be bete-ezin bat dauko, ta gure asniakuntzak eztira iluntasun bakoak-

l). Jakituriaren azterpen sakona baño zeure buruaren ezagutze apala Jaungoikoaganako bide zuzenagoa dozu.

22. Jakituriari ez beste ezagutzeai etxake eŕurik ezaŕi bear, bercz onak eta Jaungoikoagana zuzenduak dira ta; baña beti baŕu ona ta bizitza onoinientsua cibeagotzat euki bear dira.

23. Baña askok ondo biziteko baño jakiteko geyago ikasten dabe-ta, saŕitan ol.er egiten dabe, ta irabazi gitxi edo ezebe eztabe artzen.

24. Jakingayak arakatzeko dauken ardurea, ekandu txaŕak sustraitik atera ta onoimenak ereiteko artuko ba'lebe, eŕietan ainbeste gaiztakeri elitzakez izango; ta lekaidetxeetan bez ainbeste nasaikeri.

25. Ba, azken-egunean zer irakuŕi dogun barik, zer egin dogun, eta ederto itz egin ete gendun barik, ondo bizi izan garean itaunduko dauskue.

26. Esan egidazu, aŕen,- bizi ziranean ondo ezagutu zenduzan arako jaun eta



irakasleak, eta irakas-lanetan nagusi ziran guztiak, orain non ete-dira?

27. Euren ondasunak orain beste baizuek daukiez, eta euretzaz baten bat gomutatzen ba-da be eztakit.

28. Bizi ziran artean zer edo zer zirala zirudien,- orain baŕiz iñok be eztauz aitatuten.

29. Bene - benetan cmengo aintza arin-arin doa.

30. Euren bizitzea euren jakituria lakoa izan ba'litz, Orduan bai ondo ikasi ta irakuŕiko ebela!

31. Jaungoikoari otsein egiteko ardura gitxi dauken amaikatxu galdu dauz jakituri utsalak.

32. Ta apala barik andi izatea aukeratzen dabelako, euren asmakeriakaz aŕotu egiten dira.

33. Maitasun andia daukana, auxe da benetan andia.

34. Norbere critxiz txikia dana, ta andikeriko gorengo malea ezesten dauana, egiz andia da.

35. Kristo irabazteaŕen luŕeko gauzak satsa diralakotzat daukazana, auxe da benetan zuŕa.

36. Bere buru-eritxia itxi ta Jaungoikoak nai dauana egiten dauana, benetan oso jakituna da.

## IV ATZALBURUA

### HGINBEARROTAZKO ZURTASUNA

1. Edozein itz edo burukeriri etxako siñistu bear, Jaungoiko-arauz zur eta astiro-astiro aztertu baño.

2. Au da samiña! urkolagunatzaz saŕitan ona baño txaŕa eŕazago siñistu ta esaten dogu: onen makalak gara.

3. Baña gizon osoak edonoren esamesak eztauz eŕaz siñisten, gizatasuna txaŕerako makuŕa ta izketan labana dala ba daki-ta.

4. Eginbeaŕetan ariñegi ez ibiltea, ta norberen eritxiari gogor-gogor ez eustea, jakituri aundia da.

5. Edonoren itzai ez sinistea, ta entzun edo siñistua beingoan beste batzuei ez esatea, jakituri oŕexena da.



6. Erantzun - eske zoaz jakitun eta baŕu onekoagana, ta zure asmaketai jaŕaitu barik, zu baiio obeak irakatsi dagitzula egizu.

7. Bizikera onak gizona Jaungoikoaren arauz jakitun, ta askotarako zuŕago egin daroa.

8. Norbait bere biotzean apalago ta Jaungoikoaren menpekoagoa dan bestean, guztietan jakitunago ta baketsuago izango da.

## V ATZAI.BURUA

### IDAZTI DEUNAK IRAKURTEAZ

1. Egia biíatu bear da Idazti deunetan, eta ez izkortasuna.

2. Idazti deun guztia, egin zan gogoagaz irakuŕi bear da.

3. Esakera zoŕotza baño onurea geyago bilatu bear dogu Idatzi deunetan.

4. Idazti gorengo ta sakonak lez, idazti' txiki ta eraspentsuak be gogo onaz irakuŕi bear doguz.

5. Irakurtera, idazleak jakituri gitxi edo asko daukalako barik, egi utsaren egaŕiak eraginda joan bear dozu.

6. Begiratu egizu, ez nok esan dauan, zer esan dauan baño.

7. Gizonak ba'doaz, baña «Jaungoikoaren egiak betiko irauten dau» (1).

8. Jaungoikoak nor nor dan begiratu barik, era askotara itz egiten dausku.

9. Idazti deunak irakurtean, irakuŕi ta beste barik siñistu bear geunkenai ulertu ta eztabaidakatu gura dogunean, gure jakingura laŕegiak saŕitan eragotzi egiten dausku.

10. Onurarik zeuregandu gura ba' dozu, gogo apal, garbi ta zintzoagaz irakuŕi egizu,- ta jakitun-izena eukitea bein be ez egizu gura.

11. Gogo onaz ifandu egizu, ta deunen esanak ixilik entzun egizuz, eta zaŕen esanak ez begitzuz izan gogaikaŕi, alpeŕik eztabez esaten-eta. i

(1) Ps. CXVI, 2.



## VI ATZALBURUA

### GURARI OKERRAK

1. Gizonak zeren bat oker gura dauan bakotxean, ber-bertatik artegatzen da.

2. Aŕoak eta zekenak atsedenik eztauke iñoz be,- ezeukia ta gogoz apala dana bake andian bizi da.

3. Oraindik ondo ildurathe barik dagoan gizona, zer txiki ta zataŕetan laster zirikatu ta garaituko dabe.

4. Gogo makala ta oraindiño zerbait aragikoi ta giza-zale danak, gurari lurkoŕetatik nekez-nekez azkatuko dau bere burua.

5. Eta oŕetatik urteten danean saŕitan ifun gelditzen da,- eta baten batek aurka egiten ba'dautso, beingoan asaŕatzen da.

6. Baña gura ebana jadesten ba'dau, bere baŕua bereala kezkaz laŕitzen yako, berak bilatzen eban bakea jadesteko egoki etzan griñari jaŕaitu eutsan-eta.

7. Griñai gogor egiñaz lortzen da biotzaren egizko bakea, ta ez eurak otseinduaz.

8. Bakea gizon bero ta elizkoyan baño eztago, ta ez gizon aragikoyaren biotzean, ezta atetikoetan sartuta dabilanagan be.

## VII ATZALBURUA

### At,l-ERRIKO ITXAROPEN ETA ARROKERITIK IGES-EGIN BEAR DA

1. Itxaropena gizonetan edo beste irazakien bategan ipinten dauana, utsala da.

2. Josu'ren maitasunaŕen beste bateri otsein-egin eta gizartean txiro agertzeko etzaite lotsatu.

3. Ustea zeure buruan ez egizu ipiñi; ipiñi egizu, ostera, zure itxaropena Jaungoikoagan.

4. Zuk al dozuna egizu, ta Jaungoikoak lagunduko dautso zure gurari onari. ',

5. Zure ustea zure jakituri edo iñoren maltzurkerian barik, apalak goratu tn aŕoak beratzen dauzan Jaungoikoaren eskeŕean ipiñi egizu.



6. Ondasunak ba'daukazuz, euroetan aintzik ez egizu artu, ezta adiskideetan be, altsuak dirala-ta; guztiak emon eta, batezbere, guri berbera emotea gura dauan Jaungoikoagan baño.

7. Gorputzaren lerdentasun edo jas edeŕagaitik etzaite aŕotu, gaxo txiki bategaz usteldu ta austu egiten da-ta.

8. Zure trebetasun edo asmamenagaitik etzaite anditu, Jaungoikoa aspertu eztagizun; jatoŕizlco onak beragandik artu dozuz-ta.

9. Zure burua besteena baño obetzat ez egizu euki, gizonagan zer dagoan dakian Jaungoikoak bere auŕean gaiztoagotzat artu etzagizan.

10. Zure egite onakaitik etzaite aŕotu, Jaungoikoaren eta gizonen eritxiak eztira bardiñak-eta,- gizonai atsegingaŕi yakena, saŕitan, Jaungoikoari iguingaŕi yako.

11. Ezer onik ba'daukazu, besteak obeak dirala uste egizu, onetara apaltasunean iraun dagizun.

12. Beste guztiak baño atzerago jartetik kaiterik etxatortzu; baña bateri bakaŕik auŕeratzeak kalte andia dagitzu.

13. Apalak bake iraunkoŕa euki oi dau, baña aŕoaren biotzean saŕifan dira eŕetea ta asaŕeak.

## VIII ATZALBUHUA

### ADISKIDETASUN LARREGIRIK F.ZTA EUKI BEAR

1. «Zure biotza edonori ez egiozu zabaldu» (1); zure egikizunak, ostera, jakitun eta Jaungoikoaren bildur danagaz atondu egizuz.

2. Gazteakaz eta aŕotzakaz gitxitan egon zaite,

3. Aberatsen zurikatzalea etzaite izan, eta etzaite agertu andikien auŕean arpegi one'z.

(1) Eccli. VIII, 22.



4. Apal, bakun, eraspentsu ta bizitza onekoakaz batu zaite, ta eurakaz bizikera onerakoetzaz itz-egizu.

5. Emakume bategaz be adiskidetasun laŕegi ez egizu euki; baña emakume on guztien alde Jaungoikoari otoitz egiozu.

6. Jaungoikoaren eta bere aingeruen etxeko izatea autu egizu, ta gizonen ezagutzetik uŕindu zaite.

7. Maitasuna guztiakaz euki bear da,- baña adiskidetasun laŕegirik ezta egoki.

8. Batzuetan, ezagutzen eztan norbaitek izen onaz argi-egitea be jazoten da; baña bera ikusteak begiak lausotu egiten dauz.

9. Batzuetan gure adiskidetasuna besteai atsegin yakela uste dogu, ta gugan oitura ezibakoak ikusten dabezalako, iguingaŕi izaten gayakez.

IX ATZAI.HURUA

ESANGINTZA TA MI.NPl.TASUNA

1. Agindupean egon, nagusiaren tnenpean bizi ta norbere buruaren jaube ez izatea, gauza andia da.

2. Nagusitzean baño menpean bizitea, askoz be eskieŕago da. i

3. Asko, besterik eziñean bizi dir? mempean eta ez maitasunagaz,- baña oŕetarikoak nekez eta marmarka dabiz. s

4. Burua Jaungoikoaŕen biotz-biotzez menperatzen ezpa-dabe, gogo-azkatasunik iñoz eztabe jadetsiko.

5. Oŕa nai ara zoaz,- baña nagusiaren menpean apal bizi ezik, atsedenik eztozu aurkituko.

6. Irudimenak eta toki-aldatzeak askori iruzur egin dautse.

7. Egia da, bakotxak norbere eritxiz pozago diarduala, ta bere eritxikoakana eŕaz makurtzen dala.

8. Baña Jaungoikoa gure artean bago, bakea eukiteaŕen nozikpein geure eritxia itxi bear dogu.



9. Gauza guztiak ondo-ondo dakizan jakituna, cnor da?

10. Zeure eritxian uste laŕegirik izan barik, besteen eritxia ona ba'da ta besteenai jaŕaitzeko, Jaungoikoaŕen izten ba'dozu, onan geyago auŕeratuko dozu,

11. Iñoren onua entzun eta artzea, emotea baño eskieŕago dala, saŕitan entzun dot.

12. Norbere eritxia ona izatea be jazo leiteke,- baña besteen eritxiak, adimenak eta bear-izanak alan eskatzen dauanean be ez artzea, aŕokeri ta buru gogoŕaren ezaugaŕia da.

X ATZALBURUA

Ai.PERRIKO ITZAK EZTIRA ESAN BEAR

1. Gizonen zer-esanetatik albait geyen uŕindu zaite; luŕeko autuetan ibilteak, asmo bakunaz esan aŕen be, asko eragozten dau-ta.

2. Uskeriak beingoan zikindu ta lotzen gaitu.

3. Ixilik egon ba'nintz eta gizonen artean egon ezpa'nintz, gura izaten dot saŕitan.

4. Baña, zegaitik onen pozik itz-egíten dogu, ta alkaŕegaz autuetan gabiz, ixil-aldira onen banaketan biurtzen bagara baŕua loifu barik?

5. Baña alkarautuetan bilatu gurarik, eta oldozpenak nekatuko biotza arindu gurarik, pozaŕen goaz itz egitera.

6. Asko maite ta gurari biziaz nai doguzanak, baita geure aurkakoak diranak be, gogoan eta autuetan pozik darabilguz.

7. Baña, au da negargaŕia! saŕitan ezer jadetsi barik eta alpeŕik.

8. Azaletiko atsegin au jaungoikozko ta baŕuko atsegiñaren kalte andirako izaten da-ta.

9. Augaitik itxaŕik egon eta otoitz egin bear da, aldia alpeŕerian ez igaroteko.



10. Itz egitea bidezko ta egoki ba'da zure itzak onerakoak izan beitez.

11. Oitura gáiztoak eta bide onean auŕeratzeko ardura-ezak, miña ondo zaintzeko txaŕak dira.

12. Gogo - auŕerakuntzerako, baŕiz, gogoari dagokiozanak autuetan erabiltea laguntasun andia da; batezbere, gogo ta biotz idekoak Jaungoikoagan alkartzen tliranean.

## XI ATZALBURUA

### BAKT.A JADKTSI TA ONEAN JARRAITZEKO ARDUREA

1. Gure ardurapeko eztiranen zer-esan eta egikizunetan nastuko ezpagiña, bake andia eukiko geunke.

*1.* Iñoren egikizunetan nastu, alboetan jauspideak bilatu ta bere baŕuan gitxitan edo belu batzen danak, zelan iraun leike luzaroko bakean?

3. Zoriontsuak bakunak, bake andia eukiko dabe-ta.

4. Deun batzuk, zegaitik izan ete ziran ain oso onak eta ikusketa-zaleak?

5. Euren burua luŕeko zalekerietzaz ilduratzen ekin ebelako, ta olan biotzaren mami - mamitik Jaungoikoagaz batuta, eurenetan asko jarduten ebelako.

*6.* Gu geure griñakaz geyegi arazotuten gara, ta igeskoŕakaitik ardura laŕegi artzen dogu.

7. Ekandu txar batxu bat ondo azpiratu ez, eta egunoro bide onean auŕeratzeko ixiotzen ez garealako, otz eta epel geratzen gara.

8. Geure buruarentzat il-ilak eta gure baŕuan arazo barik ba'gengoz, orduan Jaungoikoarenak be gozartuko geunkez, eta zeruko apurtxu bat ikustcraño be elduko gintzakez.

9. Eragozpenik andiena gu griña ta iŕitsaren jopuak izatea, ía deunen bide onean sartzeko indar ez egitea da.

10. Naigabetxuen bat yatorkunean be, beingoan adorea galdu ta giza-atsegiñetara biurtzen gara.



11. Biotz sendodunak lez buŕuka ekingo ba'gendu, ezbai barilc, Jaungoikoaren laguntasuna zerufik gugana jasten be ikusiko geunke.

12. Rera, ba, buŕukalariai ta bere eskeŕean itxaroten dabenai laguntzeko beti gertuta dago, ta guk garaitu daigun, guretzako buŕuka-biía dabil.

13. Lekaideen bizitzaren auŕerakuntzea agiriko eginbear oneitan baño ipinten ezpa'dogu, geunken eraspena laster amaituko yaku.

14. Aizkoreagaz sustraya jo daigun, griñetatik azkatuta gogoa bakean eukiteko.

15. Urte bakoitxean ekandu txar bat sustraitik aterako ba'gendu, laster guztiz onak izango gintzakez.

16. Baña orain, ostera, Lekaidekundetik ona urte asko daroaguzala, asieran obeak eta garbiagoak giñala dakusgu saŕitan.

17. Gure baŕuko beroa ta auŕerakuntzea egunoro geitu egin bear geunkez,-

baña orain lenengoetako berotasunaren apurtxu bateri iraun-azotea asko dala dirudigu.

18. Lenengoan indarka egin ezkero, gero guztiak oso eŕaz eta pozik egin al-izango geunkez.

19. Oiturea iztea zaila da,- baña norbere gurearen aurka ekitea zailagoa.

20. Baña zer txatxar eta eŕazak garaitzen ezpa'dozuz, zailak zelan azpiratuko dozuz?

21. Zure makurkeriai lenengotik gogor egiozu, ta oitura txaŕa itxi egizu, apurka-apurka zailtasun andiagora eroan etzagizan.

22. Ondo biziaz zuk eukiko zeunken bakea, ta besteai emongo zeunskioen alaitasuna ba'zenkiz, gogoaren auŕerabidean arduratsuagoa izango zintzakela uste dot.



## XII ATZALBURUA

### ZORITXARRARF.N ONUREA

1. Noizipein ezbear eta naigabeak eukitea ondo yatorku,- gizonari erbestean bizi dala saŕitan ezagutu-azo ta bere ustea luŕekoetan ipiñi eztagian, bere bíotzera deitzen dautse-ta.

2. Noizipein naigabeak jasatea (sufridutea) ta guk ondo eta asmo onaz egin aŕen be, besteak oker eta txarto artzea ondo da.

3. Onelakoak ba askotan apalak izaten laguntzen dauskue, ta aŕokeritik zaindu egiten gaitue.

4. Agirikoan gizonak guri jaramonik egin ez eta siñisten eztauskuenean, orduantxe gabiz gure baŕuko ikusle Jaungoikoaren bila.

5. Oŕegaitik gizona oso-osoan Jaungoikoagan sendatu bear litzake, gizatasunaren atsegin asko bilatu beaŕik izan eztagian.

6. Biotz oneko gizona atsekabetua, zirikatua ta oldozkun (pensamentu) gaiztoakaz naigabetua danean, Jaungoikoa barik ezer onik ezin egin leikela ezagututa, iñoz baño Jaungoikoaren beaŕizan geyago daukala igarten dau.

7. Orduan jasaten dauzan zoritxaŕakaitik itundu egiten da, ta zotin eta otoitz egiten dau.

8. Orduan bizitza luzea gogaikaŕi egiten yako, ta gorputz onetatik azkatu ta Kristo'gaz egoteaŕen, eriotzea aurkitu gura Ieuke.

9. Orduan benetako eskiertasunik eta egizko bakerik luŕean ezin euki leikezala, argiro ezagutzen dau.

## XIII ATZALBURUA

### ZILTZALDIAI GOGOR L'GlNBr.ARRA

1. Luŕean bizi garean artean, naigabe ta ziltzaldi barik ezin izan gintekez.

2. Augaitik Job'gan idatzita dago:



«Lur-ganean gizonaren bizitzea,ziltzaldia da» (1).

3. Augaitik bakotxak bere ziltzaldiaren ardurea euki begi ta otoitzean ernai bego, txeŕenak (diabruak) iruzurbiderik aurkitu eztagian,- gaizto ori, ba, iñoz be eztago lo, ostera, beti inguruka nor iruntsiko dabil (2).

4. Noizipein ziltzaldiak eztaukazan ain ornidua ta deuna danik eztago, ta ziltzaldi bat be barik ezin bizi gintekez,

5. Baña ziltzaldiak nekegaŕi ta astunak izan aŕen, gizonari saŕi askotan guztiz onuratsuak yakoz,- ziltzaldietan gizona apala, garbía ta jakituna egiten da-ta.

6. Deun guztiak neke ta ziltzaldi askoren artetik igaro ta auŕeratu ziran.

7. Ta ziltzaldirik eroan ezin ebenak, gaiztetsiak egin eta galdu ziran.

8 Ziltzaldi ta ezbearbako lekaidi ain deunik eta toki eskuturik eztago.

9. Bizi dan artean gizona ziltzaldie-

(1) Job, VII, 1.
(2) I Petr. V, 8.

fatik oso eskier iñoz be eztago,- iŕitsaz jayo giñan ezkero, euren jatoŕia geugan daukagu.

10 Ziltzaldi edo nekegaŕi bat doaneko beste bat dator,- eta zer edo zer jasan beaŕa beti eukiko dogu, gure zoriontasunaren ondasuna galdu genduan-

11. Askok ziltzaldietatik iges - egin gura dabe, ta ziltzaldi gogoŕagoetara jausten dira.

12. íges egiiiaz bakaŕik eztoguz garaituko; ostera, eroapen eta egizko apaltasunaz, gure arerioak baño indartsuagoak egiten gara.

13. Sustraya atera barik, gaitzetik agiriz baño, alde egiten eztauana, gitxi auŕeratuko da.

14. Ostera be, ziltzaldiak onegana aríñago biurtuko dira, ta len baño txartoago izango yako.

15. Apurka-apurka eroapenagsz eta biotz zabalayaz, Jaungoikoa la^un dala,



obeto eziko dozuz, zure indar eta alegiñakaz baño.

16. Ziltzaldian onua saŕitan artu egizu,- ziltzaldian dagoanarentzat etzaite izan latzegia, zeuk zeu poztutea gurako zeunken erara poztu baño.

17. Ziltzaldi guztien jatoŕja gogoa*ren* aklakortasuna ta Jaungoíkoaganako uste uŕia da,- itxasontzia lema barik ureskak (olatuak) batera ta bestera da*r*oen lez, onan bere asmoa izten dauan ardurabako ta nagia era askotara zirikatua izaten da.

18. Suak burcliñea, ta zŕltzaJdiak gizon zuzena egiztuten clabez (1).

)9. Saŕitan zer al dogun eztakigu, baiia zer garean ziltzakfiak crakusten dau.

20. Ernai egon bear dogu, baíezbere ziltzaldia age*r*t*zen danean,- gogoatetík ba*r*tira sa*r*tzen ezetaia be itxí barik,-ateajo ordukoxe gogor egiten ba'-yako, eŕezago gaiaitzen da-ta.

(0 Kccli. XXVII, *6.*

21. Augaitik batek esan eban : «asieran gogor egiozu, gaitza luzarosn sendotu ezkero, osagaŕia beluegi izango litzake-ta» (1).

22. Lenen ba gogoari oldozpen utsa yatorko, gero irudi bizia, ta onen ostean atsegiña ta igikun lizuna ta bayetza.

23. Ta onan, asieran gogor egin etxakolako, arerio gaiztoa apurka-apurka osoan sartzen da.

24. Ta gogor egiteko norbait luzaroagoan nagituaz, egunoro ta makalago gelditzen da,- ta arerioa, baŕiz, indartsuago bere aurka.

2?. Batzuk bide onera datozanean euki daroez ziltzaldirik gogoŕenak; beste batzuk, baŕiz, azken-aldian.

26. Norbaitzuek bizitza guztian dira zirikatuak; batzuk ziltzaldi ariñak daukiez, gizonen bizikera ta irabaziak ondo dakizan eta zer guztiak bere autuen onerako arteztuten dauzen Jaungoikoaren asmo jakintsua ta zuzena danez.

(1) Ovid. Remed. am. 91.



27. Augaitik zirikatuak garenean itxaropena galdu barik, Jaungoikoari beroago eskatu bear dautsagu naigabe guztietan lagundu dagiskula,- berak, ba, Paul deunak diñonez.- «Zjltzaldiaz batera, ziltzajdiari gogor egiteko laguntasuna emongo dausku» (1),

2g. Gure gogoa Jaungoikoaren eskupean apaletsi daigun zíltzaldi ta naigabe guztietan,- «gogoz apalak diranak Berak gaizkatu tajasoko dauz-tá-v (2).

29. Naigabe ta zikzaldietan ezagutzen da gizonak auŕeratu dauana,- ziltzaldietan dago irabazirik ugariena, ta onoimena obeto agertzen da.

30. Astuntasunik eztagoanean eraspentsu ta gogo beroaz egotea ezta asko,- baña zoritxar-orduan eroapenaz jasaten ba'dau, auŕerakuntza andiaren itxaropena izango da.

31. Batzuk euren burua zaintzen dabe ziltzaldí andietan ez jausteko,- baña

(1) I Cor. X, IJ.
(2) í Petr. V, 6.

egunoroko txikietan saŕitan jausten dira, onen zer txatxaŕetan onen makalak diralako lotsatuta, andietarako ustea euren buruan ezaŕi eztagien.

## XIV ATZAÍ.BURUA

### 7,\0 ARIÑUGIAZ EZTALA r.PAlTU HRAR

1. Begiak zeugana biurtu egizuz, eta besteen egiñak ez epaitzeko alegin egizu.

2. Besteak epaitzeari gizonak alpeŕik daragoyo; saŕitan oker epaitzen dau, ta eŕaz oben egiten dau. bere burua epaitu ta azterkatzeari, baŕiz, beti onuraz daragoyo.

3. Gauzea geure biotzarentzat dan lez epaitzen dogu, gure buru-maitakeriagaitik eritxi zuzena eŕaz galtzen dogu-ta.

\. Gure gurari guztien elburu bakaŕa Jaungoikoa ba'litz, aragikeriak aurka egin aŕen, onen laster ez gintzakez artegatuko.

5. Baña saŕitan gure baŕuan zer edo



zer ostenduta daukagu, edo atetik yatorku, geu be bere atzean garoazana.

6. Asko, egiten dabezanetan, ixilean euren egokitasunaren bila dabiz, baña eztakie.

7. Gauzak eurak gura ta atsegin dabezan erara datozanean, bake onean dagozala dirudie.

8. Baña zerbait bestetara jazoten ba' yake, laster artegatu ta ifuntzen dira.

9. Burutasunak eta eritxiak bardiñak eztiranean, saŕitan adiskide ta auzokoen artean, eta lekaide ta eraspentsuen artean be, eztabaidak sortzen dira.

10. Aintziñako oiturea nekez izten da, ta norbere erítxia iñok be gogoz eztau izten.

11. Jesukristo'ren onoimen eragintsuari baño zeure sentzun eta antzeari geyago itsasten ba'zayakoz, gitxitan eta belu argitua izango zara; Jaungoikoak gu bere menpean osoro egon, eta bere maitasunaz gartuta, eritxi guztiak baño gorago igon daigula gura dau-ta,

## XV ATZALBURUA

### MAITASUNATIKO EGIÑAK

1. Ez luŕeko ezegaitik, ez iñoganako maitasunagaitik ezer txaŕa danik egin leike,- baña bear-izana daukanaren onerako, alakoen baten egite ona kezka barik atzeratu, edo egite obean aldatu leike.

2. Onan ondo egiteari itxi barik, obeagoaz ordeztuten da.

3. Azaletiko egiñak maitasun barik onik eztau egiten,- baña maitasunaz egiten dana, txikia ta ezesgaŕia izan aŕen, oso onuratsua da.

4. Jaungoikoak egiñari baño egilearen biotzari geyago begiratzen dautso.

5. Asko egiten dau, asko maite dauanak.

6. Asko egiten dau, egiten dauana ondo egiten dauanak.

7. Norberaren onurarako baño guztien onerako egiten dauanak, obeto egiten dau.



8. Saŕitan maitasuna dirudiana aragikeria baño ezta,- jatoŕizko makurkeriak, gure zalekeriak, sariaren itxaropenak eta *lasaítasunaren* atsegiñak nekez ízten gaitue.

9. Maitasun benetakoa ta osoa daukana, ezetan be eztabil bere buruaren biía, guztietan Jaungoikoa aintzaldua izan daitela baño eztau gura-ta.

10. Bere atsedenik eztau maite, ta iñori be eztautso bekaizkeririk- bere buruagan eztau poztu gura, baña guztien ganetik Jaungoikoagan gozartu gura dau.

11. Iñori be onik eztautso ezarten,- guztiak, ostera, Jaungoikoari ezarten dautsoz,- on guztiak, ituŕitik lez, beragandik datozalako, ta deun guztiak azkenean egizko zorionaz Beragan atsedenduten dira-Iako.

12. Benetako maitasunaren txinpart bat nok euki leiken! oŕexek bai Juŕeko gauzak uskeriz beteta ikusiko Jeukez.

## XVI ATZALBURUA

### BESTEEN UTSAK EROAN BEARRA

1, Gizonak norberagan edo besteetan ondu ezín leikena, eroapenaz eroan bear dau, Jaungoikoak beste era batera atondu artean.

*1.* Bear ba'da zure egiztabide ta eroapenerako ori obe edo izango dala uste egizu,- eroapen barik gure irabaziak gauza anditzat eztira artu bear.

3. Baña olan da guzti be, Jaungoikoari iagundu dagitzula eskatu bear dautsazu, olako eragozpenak ondo eroan dagikezuzan.

4. Norbait baten edo biŕitan aolkatuta onduten ezpa-da, beragaz eztabaidaka ibili barik, txaŕaz ona egiten ondo dakian Jaungoikoaren eskuetan ezaŕi egizu, Jaungoikoaren guraria ta aintza bere jopu guztietan bete daitezan.

5. Ikasi egízu besteen utsak eta edozelako makaltasunak eroaten, zeuk be



ba besteentzat eroapengaŕi asko daukazuz-ta.

6. Zu zeul< gura dozun erakoa egin ezin ba'zara, bestea zelan euki zeinke zeure gurariaren neuŕira?

7. Besteak onak izatea gogoz gura dogu, baña gure utsak eztoguz beteten.

8. Besteak neuŕi gogoŕakaz artu dagiezala gura dogu,- baña geuri agiraka egiterik eztogu gura.

9. Besteai eskubide luzea emotea iguin yaku,- ta geuri eskatzen dogunik ukatzea eztogu gura.

10. Besteak legepean artu dagiezala gura dogu,- baña geuri ezer galazoterik eztogu eroaten.

11. Onan geure hurua baño urkoa gitxiagotan maite dogula agertzen da.

12. Cuztiak on-onak izango ba'Iira, besteakandik zer jasan bearko geunke Jaungoikoaŕen?

Í3. Baña Jaungoikoak onelan erabagi eban ; «Alkaŕen utsak eroaten ikasi dai-

gula» (1), uts eta astuntasun bakorik, norberetzat naikoa danik eta naikoa dakianik eztago-ta; baña bata besteari jasatea, alkar poztutea, ta alkaŕi laguntzea ta bata besteari irakatsi ta onu onak emotea egoki da.

14. Onoimenetan bakotxa noraño eldu dan, zoritxar-aldian agiri da.

15. Jauspideak ba eztabe gizona jauskoŕa egiten,- baña nor dan agertzen dabe.

## XVII ATZAI.BURUA

### Lt=KAIDEtN R1ZIKL.RA

1. Zure buru-eritxia saŕitan austen ikasi bear dozu, besteakaz bake ta alkartasunean bizi gura ba'dozu.

2. Lekaidetxeetan ta lekaide artean bizi, ta asaŕe bartk jaŕaitu, ta eriotzaraño zintzo irautea, ezta gitxi.

3. Antxe ondo bizi ta ondo ilten dana zoriontsua.

(1) Gal.VI, 2.



4. Bear dozun lez egon eta auŕeratu gura ba'dozu, zeure burua erbesteko ta bidaztitzat etsi egizu lur-ganean.

5. Jesukristogaitik zeure burua senbako egin bear dozu, lekaideen antzean bizi gura ba'dozu.

6. Jantziak eta ule motzak gitxi egiten dabe,- ekanduen aldakuntzak eta griñen benetako ildurak egin oi-dabe benetako lekaidea.

7. Jaungoikoa ta norbere animaren gaizkakundea (salbaziñoa) barik beste ezer bilatzen dauanak, naigabea ta nekemiña baiio eztau aurkituko.

8. Txikiena ta guztien menpeko izateko alegintzen eztanak, bakean ezingo dau iraun luzaroan.

9. Otseintzera etoŕi ziñan, eta ez agintzera.

10. Jasateko ta lan egiteko deitu yatzula iakin egizu, ta ez alpeŕerian eta baŕiketan egoteko.

11. Uŕea Iaban lez, gizonak enien egiztuten dira.

12. Emen iñor ezin egon leiteke, Jaungoikoaŕen biotz-biotzez apala izan gura ezpa'dau.

## XVIII ATZAUIURUA

### AsABA DEUNEN EREDUAK

1. Benetako deuntasun eta jaungoikozaletasunaz argi egin eben asaba deunen eredu gurenai begiratu egiezu, ta guk egiten doguna gitxi edo ezertxu be cztala ikusiko dozu.

2. Ene ba'da, zer da gure bizitzea aenaren ondoan?

3. Kristo'ren adiskideak gosez eta egaŕiz, otzez eta bilostasunez, lanez eta nekez, lo gitxiz eta barauz, otoitzez eta gogarketa deunez, eta jasarpen eta irañetan Jaungoikoa otseindu eben.

4. Bialduak, ziñopak, autorleak, neskutzak eta Kristo'ren oñatzetatik ibili gura izan eben guztiak ibai lor asko ta astunak jasan ebezala!

5. Bizitza onetan euren arimak goŕotatu ebezan, gcro betiko bizitzan eukiteaŕen.



6. Asaba deunak lekaroan eroan eben bizikerea, bai, ba'zan bizitza estu ta ixilekoa. Aenak bai ba'ziran ziltzaldi luze ta astunak! aek bai, saŕi askotan arerioak oñazetu ebezala! Aek Jaungoikoari saŕi-saŕi eskiñi eutsezan otoitzak, bai, ba'ziran otoitz gartsuak! Aen barau gogoŕak!

7. Aen ardura ta gurari biziak gogoazkoetan auŕeratzeko! Aen buŕukaldi gogoŕak oitura zataŕak garaitzeko! Aek bai ba'euken Jaungoikoaganako asmo garbi ta arteza!

8. Egunez lanari ta gabaz luzaroko otoitzari ekiten eutsen; eta lanean egozan artean be gogozko otoitzari ez eutsen izten.

9. Aldia onuraz emoten eben,- orduak labuŕak eritxoezan Jaungoikoagaz jardunteko, ta ikasketaren gozotasun andiaz gorputzari jaten emotea be aiztu egiten yaken.

10. Ondasunak, nagusitasunak, deduak, adiskideak eta senideak itxi egiten ebezan,- luŕeko ezer ez eben gura izaten; biziteko bear zana be nekez artzen eben; gorputzari bear zanetan begiratzea be nekegaŕi yaken.

11. Luŕeko ondasunez ezeukiak ziran- baña esker eta onoimenez oso aberatsak.

12. Azalez beartasuna euken,- baña baŕuz eskaŕez eta jaungoikozko atsegiñez poztuak ziran.

13. Gizadiarentzat (munduarentzat) aŕotzak ziran,- bafia, Jaungoikoarentzat urkoak eta adiskide baŕukoak.

14. Euren buruak ezereztzat eukezan eta gizadiarentzat ezetsiak ziran; baña Jaungoikoarentzat edeŕak eta kutunak.

15. Benetako apaltasunean egozan, menpetasun bakunan bizi ziran.

16. Maitasun eta eroapenaz ebizan eta onantxe, gogo-bidean egunoro auŕeratzen eben, eta Jaungoikoaren auŕean esker asko jadéstén ebezan.



17. Lekaide guztien eredutzat ipiñiak izan dira, ta bide onean auŕeratzeko geyago eragin bear leuskigue, epel piloak nasaikerirako baño.

18. Lekaidien asieretan lekaide guztien gogoa bai ba'zala beroa!

19. A zan eraspena otoitzean! onoimenerako a zan gurariaren indaŕa! aek erabilen legea estu-estuan betetea! a zan lotsea ta esanekotasuna írakaslearen agindupean!

20. Ta ain gogor buŕuka ekinda, gizakeria (mundua) azpiratu ebenak itxi euskuezan oñatzak, benetako deun eta on-onak zirala, gaur be argiro dirauskue.

21. Orain, baŕiz, legea austen eztauana, ta bere gurariz artu ebana eroapenaz eroan al dauana, anditzat eristen da.

*11.* Gure izakeraren epelkeri ta alperkeria,- lenengo berotasunetik onen laster itzuliten gara, ta gure nasaikeri ta epelkeri onegaz bizitea be gogaikaŕi egiten yaku!

23. Jaungoiko-zaleen eredu asko saŕi

ikusi dozuzan ezkero, onoimenen aufe-rakuntzea ezpedi, afen, zugan lozofoan egon.

## XIX ATZALBURUA

### LEKAIDE ONAREN IÑARKUNAK

1. Lekaide onaren bizitzea onoimen guztiakaz apaindu bear da, azalean agiri dan lakoxea bafutik be izan dedin.

*1.* Eta azalean ikusten dan baño asko geyago izan bear dau bafuan, alde guztietan lotsa andia izan bear dogu-ta

3. Gure asmoa egunoro bafiztu ta. bide onera gaur lenengoz eldu ba'giñan lez bafuko beroa bizkortu, ta esan bear dogu.

4. Lagundu egidazu, neure Jaun eta Jaungoiko ofek, nire asmo on eta zure otsetntzean; eta gaur ondo-ondo astea emon egidazu, gaur arte egin dodana ezer be ez da-ta.

5. Gure asmoa dan bestekoa izan bear litzake gure auferakunzea, ta ondo



auferatu gura dauanak oso zoli ibili bear dau.

6. Asmo sendoa artzen dauna be askotan jausten ba-da,- banaketan eta asmo epelak artzen dauzanaz, zer izango da?

7. Gure asmoari era askotara izten yako, ta iñarkunak efaz iztea oso gitxi-tan izaten da kalte barik.

8. Zuzenen asmoa euren jakiluriari barik Jaungoikoaren eskefari eutsita dago, ta zerbaiteri ekin orduan ustea beti beragan dauke.

9. Gizonak asmoa artzen dau, baña Jaungoikoak ebazten dau, ta eztago gizonaren eskuetan bere bidea.

10. Alakoen baten oituko iñarkuna jaungoikczaletasunerako edo urkoaren onerako izten ba-da, gero bafiro be efaz eskuratu leike.

11. Baña biotzeko gogaitasun eta al-peferiaz efaz izten ba-da, naiko efudun egiten da, ta kaltea izango dau.

12. Al dogun bestean alegindu gaite-

zan : onan eta guzti be, eŕaz jausiko gara.

13. Baña beti zerbait, au edo bestea, egiteko erabagia artu bear dogu, ta batezbere, geyen eragozten dauskuenen aurka gogor ekin bear yako.

14. Azaletiko ta baŕuko gauzak bardin aztertu ta atondu bear doguz,- gure auŕerakuntzarako bitzuak be onak dira-ta.

15. Beti-beti zeure baŕura batu ezin ba-zara, noizipein batu zaite, ta gitxienez egunoro, au da, goizean edo gabean.

16. Goizean asmoa artu egizu ta gabean zure egiñak azterkatu egizuz, egun oŕetan itzez, egitez eta oldozpenez nor izan zarean,- olakoetan Jaungoikoa ta lagun-urkoa, bear ba'da, saŕitan iraindu izango dozuz.

17. Txeŕenaren azerikerien aurka gizon-arauz gertu zaite,- jan-gura laŕegia ezi egizu, ta aragiaren griñak eŕazago eziko dozuz.

18. *Atper-alper* bein be etzaite egon,-



edo irakurten edo idazten, edo otoitz egiten edo goznartzen, edo lagundiaren onerako dana egiten eragoyozu.

19. Baña gorputz-iñarkunak zur egin hear dira, ta guztiak bardin artzea ezta egoki.

20. Bakotxak bereak eztauz egin bear agirian, norberenak ixilean eskieŕago egiten dira-ta.

21. Guztientzakoetan etzaite izan alpeŕa eta zeuretzakoetan zolia; baña bein aginduak eta eginbeaŕak osoro ta zintzo-zintzo bete ezkero, astia ba-daukazu, zure eraspenari dagokionez zeure baŕura batu zaite.

22. Danak iñarkun bardiña ezin euki leikie; batari au ta besteari a onuragaŕiago yako.

23. Baita aldi batzuetan iñarkun oneik edo besteetan aek egokiago yatzuz; batzuk jai-egunetan, eta beste batzuk lan-egunetan atsegingaŕiago dira.

24. Batzuen beartasuna ziltzaldian daukagu, ta beste batzuena bake ta barealdian.

25. Batzulc ituntzen gareanean gogoratu bear doguz, eta beste batzuk Jaungoikoagan pozik gagozanean.

26. Jai - egunik andíenetan íñarkun onak bafiztu, ta deunen bitartekotasuna gogotsuago eskatu bear da.

27. Jai batean ufengo jairako asmoa arlu bear dogu, bizitza onetatik orduan*txe* urtenda, betiko jaira eltzeko ba' gengoz lez.

28. Augaitik aldi eraspentsuetan zoli gertu, ta eraspen andiagoaz itz egin, eta eginbear guztiak zeatzago bete bear doguz, gure neke-saria Jaungoikoagandik laster artzeko ba'gengoz lez.

29. Ta sari ori belutzen ba'yaku, oraíndiño ondo gertu barik gagozala, ta bizitz onen ondoren gugan agertuko dan aintz edeferako ezkareala gai siñistu bear dogu, eriotzarako obeto gertuteari ekin dayogun.



30. «Jauna datofenean itzafik idoroko dauan otseña zoriontsua da»>, díño Luka goizparlariak. Bene-benetan dirautzuet, ondasun guztien jaube egingo dauala (1).

## XX ATZALBURUA

## BAKARTASUN BTA IXILTASUNBRAKO ZALETASUNA

1. Zeure buruaz bakafean egoteko asti egokia bilatu egizu, ta Jaungoikoaren on-egiteak safitan gogoan erabili egizuz.

2. Txukunkeriak itxi egizuz,- arazoa baño geyago damua dakafen irakurgayak irakufi egizuz.

3. Alpefiko izketak eta ibilteak eta bafiak eta txarto-esanak entzutetik ufinduko ba'ziña, gogarketa deunetan ekiteko asti naiko ta egokia idoroko zeunke.

4. Deunik andienak gizonen artetik al eben bestean ufintzen ziran, eta ixilean Jaungoikoarentzat bizitea aukeratzen eben.

(1) Luc. XII 37,44.

5. Norbaitek esan eban: «Gizon artean egon nazan bakotxean gizon-ezago biurtu naz» (1)-

6. Ta au egunoro geugan dakusgu, lařegi itz egiten dogunean.

7. Itz egitean utsik ez izatea baño, ixilik egotea eřazago da.

8. Kanpoan bear dan bestean burua zaintzea baño, etxean gelditzea eřazago da.

9. Augaitik bařuko ta gogokoetara eltzeko alegin egiten dauanari, Josu'gaz gizon artetik alde egitea egoki yako.

10. Iñor ezta eskier (seguru) agertzen, gogoz ostenduten dana baño.

11. Gogoz ixilik egoten danak izan ezik, iñok be eztau eskier itz egiten.

12. Iñor ezta eskier nagusi izaten, gogoz menpekoa izaten dana baño.

13. Iñok eztau ondo agintzen, agindua ondo egiten ikasi dauanak baño.

14. Iñor be eskier ezta poztuten, bařu onaren ziñalpena daukana baño.

(1) Seneca'k, 7'gařen idazkian,



15. Baña deunen eskiertasutia beti Jaungoikoaren bilduřez betea zan,- eta onoimen andiz eta esker ugariz argi-egin ařen, euren ardurea ta apaltasuna etzan gitxiagotzen.

16. Gaiztoen eskiertasuna ařokeri ta andikeritik dator; eta azkenean, eurai iruzur-egiten daufse.

17. Bein be ez egizu uste izan bizitza onetan eskier zagozanik, Iekaide ona, bakar-zalea ta eraspentsua zareala badirudizu be.

18. Saři askotan gizonen eritxian onertak dirudienak, euren uste lařegiagaitik txařagoetara jausi oi-dira.

19. Augaitikaskorentzat, eskieřegi bizi eztaitezan, taburua ařokeriz jaso eztagien, eta azaletiko atsegiñetara nasaiegi makurtu eztaitezan, ziltzaldi barik ez bízitea ta sařitan zirikatuak izatea obe da.

20. Bein be alaitasun igeskořa bilatzen eztauanak, eta luřeko gauzakaz iñoz be arduratzen eztanak, ibai bařu ona eukiko leukela!

21. Norberagandik ardura utsalak Jaurti, ta onurakor eta jaungoikozkoetzaz baño oldoztu ez eta bere itxaropen osoa Jaungoikoagan ipiñiko ba'leu, onek bai bakc ta bavetasun andia eukiko leukezala!

22. Damu deunean zoli ekin eztauanak, eztauz irabazi zeruko atsegiñak.

23. Biotz-biotzez damutzea gura badozu, zure baŕu-tokira sartu zaite, ta luŕeko zarata guztiak aldendu egizuz, eta idatzita dagon !ez «zeuoen etzanguetan damutu zaiteze» (1).

24. Etzanguan (gelan) idoroko dozu, saŕitan kanpoan galtzen dozuna.

25. Etzangu oifua atsegingaŕi da,- ta nozean-beingoa gogaikaŕi.

26. Ontzearen asieratik saŕitan bertan egon eta ondo zaindu ba'zendu, gero adiskide maite ta atsegin pozgaŕia izango litzakizu.

27. Gogo jaungoiko-zaleak ixiltasun eta bakean auŕeratu, ta Idazti deunetako

(1) Psal. IV, 5,



egi eskutuaz ikasten dauz,- gau bakotxeanikusi ta garbitzeko negar-malkozko ibayak idoroten dauz, luŕeko durundietatik uŕintzen dan bestean bere Egilearentzat etxekoago egin daiten.

28. Ezagun eta adiskide artetik uŕintzen danari, Jaungoikoa aingeru deunakaz uŕeratuko yako.

29. Norbere buruaz aiztuta aŕigaŕiak egitea baño, ostendutá egon, eta norbere buruaren ardurea eukitea obe da.

30. Gitxitan urten, besteen begietatik iges-egin, eta gizasemeak ikustea ez gura izatea, lekaideak txalogaŕi dau.

31. Eukitea egoki etxatzuna, zer dala ta ikusi gura dozu?

32. «Ludía (mundua) ta bere atseginkeriak igaro egiten dira» (1).

33. Aragikeriak nasaitzera daroa, baña ordu ori igaro ezkero, gogoa kezkatzea ta biotza banatzea baño besterik ateraten dozu?

34. Urteera pozgaŕiak saŕitan biur-

(1) IJoan, II, 17.

tze ifuna dakar, eta aŕatsalde alayari biaramon itunak jaŕaitu oi-dautso,

35. Onan aragiaren atsegiña bigun sartu oi da,- baña azkenean aginka ta il egiten dau.

36. Emen ikusten eztozunik beste tokietan, zer ikusi zeinke?

37. Oŕa ortzea, oŕa or luŕa ta izagai guztiak eta oŕexeikaz egiñak dira enparauak.

38. Eguzkiaren azpian luzaro iraun leikenik, non ikusi zeinke?

39. Guztiz asetzea edo uste dozu,- baña ezingo dozu jadetsi.

40. Guztiak begien auŕean ba'zeunkoz be, ikuskizun utsa elitzake izango?

41. Begiak Jaungoikoagana jaso egizuz, eta zure oben eta nagikeriakaitik otoitz egiozu.

42. Utsalak utsalentzat itxi egizuz, eta zu Jaungoikoak agindu dautzuzanetan arduratu zaite.

43. Zure ostean atea itxi egizu, ta Josu laztanari deitu egiozu.



44. Zagoz beragaz zure egotokian, oŕenbeste bake iñon be eztozu aurkituko-ta.

45. Urten ezpa'zintzan eta zuŕumuŕak entzun ezpa'zenduzan, bake onean obeto iraungo zendun.

46. Nozikpein baŕiak entzutea atsegin yatzulako, oŕexegaitik jasan bearko dozuz biotzaren artegatasunak.

## XXI ATZM.BURUA

## BIOTZEKO DAMUA

1. Zerbait auŕeratu gura ba'dozu, jaungoikoaren bildur izan zaite; eta nasayegi bizi gura barik, zure asmamen guztiak legepéan ezi egizuz, eta poz zoroetara etzaite joan.

2. Biotz-damuari ekin egiozu ta eraspena idoroko dozu.

5. Nasaikeriak laster galdu oi-dauzan ondasun asko, damuak ekaŕi oí-dauz.

4. Bere erbestetasuna ta bere arimaren galbideak gogoratu ta goznartzen

dauzana, bizitza onetan bein be oso pozik egotea aŕigaŕia izango litzake.

5. Biotz ariñaz eta gure utsen arduraezaz gure arimaren gaitzak eztoguz oartzen-da, askotan zorakeriz baŕe egiten dogu, benetan negar egin bear geunkenean.

6. Baŕu garbiagaz Jaungoikoaren bilduŕean izan ezik, ez benetako azkatasunik, ez alaitasun onik eztago.

7. Obetzeko diran eragozpen guztietatik uŕindu leitekena ta bere baŕuan damu deunaz batu leitekena, zoriontsua da.

8. Bere baŕua lotu nai astundu leiken edozerjaurtiten dauana, zoriontsua da.

9. Gizon-arauz gogor egizu, oiturea oitureagaz garaitzen da-ta.

10. Gizonak izten ba-dakizu, eurak be zure eginbeaŕak beteten itxiko zaitue.

11. Besteen arazoak ez egizuz leporatu, ta nagusien egikizunetan be etzaite nastu.

12. Lenengo zeure buruari begiratu



egiozu, ta maite dozuzanentzat baña zeuretzat onu (conseju) obeak artu egizuz.

13. Gizonen laguntasuna ezpa-daukozu be, oŕegaitik etzaite itundu; baña Jaungoikoaren otseñari ta lekaide eraspentsuari dagokion lez ondo ta arduratsu biziten etzarelako, bai, atsekabetu zaite.

14. Bizitza onetan atsegin asko ez eukitea, batezbere aragiaren aldezkoak, saŕitan gizonari obe ta eskieŕago yako.

15. Baña Jaungoikozko atsegiñak iñoz bez, edo noizipein baño ezpadaukaguz, geu gara eŕudun, biotzeko damuaren bila ezkabizalako, ta utsalak eta azaletiko atseginkeriak uŕintzen eztoguzalako.

16. Jaungoikozko atsegiña artzeko barik, naigabe asko artzeko gai zareala siñistu egizu.

17. G'tzona oso damututa dagonean, orduan ludi osoa nekegaŕi ta gaŕatz izaten yako.

18. Gizon onak zegaitik damutu ta negar-egin aurkitzen dau.

19. Naiz bere buruari, naiz iñori begiratu, lořik barik emen iñor be eztala bizi ba'daki.

20. Ta bere buruari zeatzago begiratuaz, geyago samintzen da.

21. Gure oben eta oitura gaiztoetan etzunda gagoz, eta zerukoak gitxitan goznartzen doguz-ta, badaukagu samindu ta biotzean damutu beařa.

22. Bizitza luzearen ordez, gogoari eriotzea sařiago erabiliko ba'zendu, ezpai barik berotsuago onduko zintzateke.

23. Baita etorteko yatzuzan gaiztokiko (inpernuko) edo garbitokiko oñazeak biotzez goznartuko ba'zenduz be, neke ta samintasunak pozik eroango zeunkezala, ta laztasunari bilduřik etzeunskiola izango uste dot.

24. Baña oneik gauzok biotzeraño sartzen etxakuzalako, ta oraindiño bigunkerizaleak garealako, augaitik otz eta nagi geratzen gara.



25. Saři-askotan gogoa uts-utsik daukagulako, gorputz gaxoa ayeneka dabil

26. Biotzeko damua emon dagitzun Jaunari apal eskatu, ta Igarleagaz esan egiozu: «Negařezko ogiaz janantu nagizu, Jauna,- ta negar-malkoak neurtuta edateko emon egidazuz» (1).

## XXII ATZALBURUA

### GKATASUNAREN ZORITXARRAK GOZNARTZEAZ

1. Edonon egon, naiz edonorajoan, Jaungoikoagana biurtzen ezpa-zara, eřukaři bat zara.

2. Nai ta gura dozuna jazoten etxatzulako, zegaitik artegatzen zara?

3. Zer guztiak nok daukoz gurariaren neuřiz?

4. Ez nik, ez zuk, ez lur-ganeko gizon batek bez.

5. Atsekabe ta lařitasun barik iñor be eztago luřean, eřegea naiz Aita Santua ízan.

(1) Ps. LXXIX, 6.

6 Nor da ondoen dagoana?

7. Benetan Jaungoikoaŕen zer edo zer jasan leikena.

8. iVlakal eta gaxo askok esaten dabe.- Begitu, urliak bai ba'daroa bizitza ona'. a bai aberatsa! a bai andia! a bai altsua ta goratua!

9. Baña zeruko ondasunetara begitu egizu, ta emengo zer igeskoŕak oso ezetz-bayezko ta astunegitzat eukiko dozuz,- ardura ta bildur barik iñoz be eztira eukiten-eta.

10. Gizonaren zoriona ezta ondasun aldikoŕak ugari eukitea; beaŕezkoakaz naiko dauko.

11. Benetan, luŕeko bizitzea zoritxaŕa da.

12. Gizona gogo-zaleago dan neuŕiz, bizitzea gaŕatzago izango yako, gizatasun usteldúaren utsuneak obeto ezagutu ta argiroago ikusten dauz-ta.

13. Jan, edan, itzaŕik egon, lo egin eta gizatasunaren beste beartasunen azpian bizitea, gorputzatik azke ta oben



barik izan gura dauan gizon eraspentsuarentzat ezbear era naigabe andia da benetan.

14. Bizitza onetan baŕukpya gorputzaren beartasunak oso ástundua dattke.

15. Augaitik azkatua izatea biotzez eskatzen dau igarleak, diñola: «Nire beartasunetatik ateta nagizu, Jauna» (I).

16. Baña ta eŕukaŕiak dira euren ezereza ezautzen eztabenak; eta eŕukaŕiagoalc bizitza zorítxartsu ta ustelkor au maite dabenak.

)7. Emen beti bizi al ba'lira, askok Jaungoikoaren jaureriaren (eŕeñuaren) ardurarik eleukie izango,- onen bat-bat egínda dagoz bizitza ustelkor onegaz, bear beaŕekoak, lanean nai eskean ibilita, oso nekez etiki aŕen be.

18. Aragiken'ak baño atsegín ez izateraño luŕekoetan ondatuta dagozanak, bai, ba'dira benetan zoro ta biotz siñistebakoak!

(1) Psalra. XXtV 17.

19. Baña eŕukaŕi oneik azkenean, maite izan ebena uskeria ta ezer-eza zala asko damututa ezagutuko dabe.

20. Jaungoikoaren deunak eta Josukristo'ren adiskide zintzoak, baŕiz, aragiari atsegin yakozanai ta luŕean loratzen diranai jaramon egin barik, euren itxaropen osoa ta asmoak betiko ondasunetara zuzentzen ebezan.

21. Euren guraria gorantz, iraunkor eta ikusi-eziñetara igoten zan, ikusten diranen zaletasunak bekoetara eratsi etzegiezan.

22. Gogoarenetan auŕeratzeko ustea ez egizu galdu, oraindiño aldia ta ordua daukazuz-ta.

23. Zure asmoa zegaitik biaramoneratu gura dozu?

24. Jagi ta oraintxe asi zaite, ta esan egizu: oraintxe da ekiteko aldia, oraintxe da buŕuka egiteko aldia, oraintxe da ni onduteko une egokia.

25. Txarto ta atsekabetuta zagozanean, orduantxe dozu irabazteko aldia.



26. Su ta ur artetik ígaro bear dozu, atsedenera eldu baño len.

27. Zure buruari gogor egiten ezpadautsazu, oítura txaŕik eztozu garaituko.

28. Gorputz ausikor au darabilgun artean oben barik ezin egon geintekez, ezta gogaitasun eta min barik bizi be.

29. Ezetariko zoritxar barik, pozik atsedenduko gintzakez, baña eŕubakotasuna obenagaz galdu gendun ezkero, benetako zoriona be galdu gendun.

30. Augaitik eroapena euki ta Jaungoikoaren eŕukiari itxaron bear dautsagu, gaiztakeria igarota, bizitza au eriotzeak ondatuko dauan artean.

31. . Beti ekandu gaiztoetara makur'tuta dagoan gizonaren makaltasuna andia da benetan!

32. Zure obenak gaur autortzen dozuz, eta biar autortu zenduzanetan baŕirojausten zara.

33. Arduraz biziteko asmoa artzen dozu, ta emetik ordu batera, asmorik be euki ezpa-zenduan Iez egiten dozu.

34. Onen ausikoŕak eta aldakoŕak garean ezkero, bene-benetan gutzat bein be andirik uste barik burua apal-apal erabili bear geunke.

35. Neke gogoŕaz eta eskeŕaz oztaz-oztaz lortu zana, ardura-ezaz beingo batean galtzen da.

36. Onen goizetik epelak ba-gara, gugaz zer izango da azkenean?

37. Gure bizikeran oraindiño benetako deuntasunaren oñatzik be agiri eztala, bake ta eskiertasuna daukagulakoan atsedenera eldu gura ba'dogu, ondo eŕukaŕiak gara.

38. Asibaŕi onak lcz oitura onetan baŕiro irakatsiak izatea ondo litzakigu, bear ba'da geroko obekuntzaren eta gogo-auŕerakuntzaren itxaropenik ba'lego.

## XXIIÍ ATZALBURUA

### BRIOTZAZKO GOGARKETA

1. Laster-lastertxu egingo dau emen zureak; begiratu ba zelan zabizan.



2. Gaur ba-da gizona, ta biar ezta agiri.

3. fiegien auŕetik kendu ezkero, gogoramenetik be laster doa.

4. Gero etoŕiko danari begiratu barik, oraingoakaz baño arduratzen eztan gizona, baj ba'daia tenteltzaŕa ta biotz-gogoŕekoa!

5. Egite ta oldozkun bakoitzean gaur ilgo zarelakoan lez jardun bear zeunke.

6. Baŕu garbia ba'zeunko, eriotzari bíldur andirik ez zeunskio izango.

7. Eriotzatik iges egitea baño, obenetatik (pekatuetatik) alde egitea obe litzake.

8. Gaur ezpa-zagoz gertuta, zelan egongo zara biar?

9. Biarko eguna bada-ezpadakoa da, ta ba-dakizu biar goizean bizirik itxartuko zarean?

10. Onen gitxi onduten garean ezkero, zer onik dakarsgu Juzaro biziteak?

11. Ene! bizitza Juzeak beti ezkaitu obetzen, saŕítan obenak geitu baño.

11- Ene! gure bizitzako egun batxu bat ondo igaro ba'gendu!

13. Bide oneratu ziranetiko urteak zenbatzen dabez askok, baña obekuntzaren igaliak uŕi dira saŕitan.

14. Iltea bildurgaŕi ba-da, luzaroan bizitea galgaŕiago izan leike.

15. Zoriontsuabere eriotz-orduabeti begien auŕean darabilana, ta ilteko egunoro gertzen dana.

16. Iñoz gizonik ilten ikusi ba-dozu, zeu be bide atatixe joango zareala gogoratu egizu.

17. Goizean, gabera eltzeko usterik ez egizu euki.

18. Ta gabera eldu ezkero, biaramonera elduko zareala esaten etzaite asartu.

19. Augaitik beti gertuta egon zaite, ta eriotzeak gertu barik aurkitzeko lez iñoz be etzaite bszi.

20. Asko bat-batean eta uste barik ilten dira, gizonaren Semea uste eztan orduan etoŕiko da-ta (1).

(1) Matth. XXIV, 44.



21. Azken-ordua datorkizunean, ordurarteko zure bizikerea beste era batera irudiko yatzu, ta asko damutuko zara oŕen alpeŕa ta nagia izan zarealako.

22. Eriotz - orduan aurkitzea gura dauan lez orain biziten diarduna, bai da zoriontsua ta zuŕa!

23. Gizakeria ezesteak, onoimen-bidean auŕeratzeko gurari gartsuak, laztasuna maite izateak, oben-nekearen Ioŕak, esangintzarako bizkortasunak, norbere burua ukatzeak eta edozein ezbear Josukristo'ren maitasunaŕen eroteak, ondo ilteko uste andia emongo dau.

24. Gauza on asko egin zeinkez osasunaz zagozan artean,- baña gaxotuta gero eztakit zer al izango dozun.

25. Gaxoaz onduten diranak gitxi izan oi-dira; bardin batera bestera asko dabizanak be gitxitan deuntzen dira.

26. Zure ustea ez egizu ezaŕi adiskide ta auzokoetan, eta onduteko ordua be ez egizu geroratu, gizonak zugaz zuri derit.xazun baño lasteŕago aiztuko dira-ta.

27. lñoren laguntasunean itxarotea baño, obe dozu otain aldiz arduratu ta egite on batzuk auŕetiz bialtzea.

28. Orain zeure buruaz arduratsua ezpa-zara, gero nok artuko dau sure ardurea? ^

29. «Oraingoxea da aldi eder-edeŕa; oraingoxeak dira osasun-egunak,- orain-goxea da aro artugaŕia» (1).

30. Baña au da negargaŕia! betikota-sunerako bizitzea irabazi zeinkela, aldi au alpeŕik igaroten dozu.

31. Onduteko egun edo ordu bat gurako dozun eguna etoŕiko da, baña jadetsiko dozunik eztakit.

32. Eup, kutun ori: betiko eriotzaren bildur izan eta ordu ori ^anean dozula-koan gertatuta ba'zengoz, aŕisku ta ikara izugaŕietatik aldenduko ziñateke ba!

33. Eriotz-orduan bildurtzeko barik, poztuteko erara biztteko alegindu zaite orain.

34. Oraindixik gizakeriarentzat ilten

(1) IICor.VI,2.



ikasi cgizu, orduan Kristo'gaz biziten asi zaitezan,

35. Orain guztiak ezesten ikasi egizu, orduan Kristo'gana azke joan zaitekezan.

36. Orain oben - nekeakaz ilduratu cgizu zure gorputz ori, orduan itxaropen betea euki dagizun.

37. Zer dala-ta uste dozu, zoro oŕek, luzaroan biziko zareala, egun eskieŕik bat be euki ezta?

38. Atnaikatxu luzaro biziko zirala-koan egozala, atzipetuta gelditu dira, ta gorputzctik uste barik atareak izan dira!

39. Oŕenbat bidar entzungo zendun urlia ezpataz il zala, berendia ito zala, sandiari goitik jausita burua apurtu ya-kola, emengoa jaten egoala ber-bertan il zala, ta angoari yolasketan izan 3'ako!a bere azkenengo ordua: bat sutan il zan, bestea burdiñaz, emengoa izuŕitean, an-goa Iapuŕen eskuetan, eta onan guztioen az1<ena eriotzea da, ta gure bizitzea ke-rizpea lez arin-arin igaroten da.

40. Zu il ezkero, zutzaz nor gomu-

tauko da ta zure alde otoitz nok egingo dau?

41. Egizu, orain egizu, maite ořek, egin al dozun guztia,- noz ilgo zarean eta eriotz-ostean jazoko yatzuna eztaki" zu-ta.

42. Aldia daukazun artean, betiko ondasunak batu egizuz.

43. Gogoan zure gaizkakundea (salbaziñoa) baño ez egizu erabili, ta Jaungoikoarenakaz baño etzaite arduratu.

44. Orain, Jaungoikoaren deunak gurtu ta euren egiteen antza artuta, adiskideakaz egin zaite, bizitza onetatik urten zaitezanean betiko biztokietan artu zagiezan» (1).

45. Luřeko arazoetan zer-ikusirik ez daukon bidazti ta ařotza lez bizi zaite.

46. «Emen uri iraunkořik eztaukozu-ta (2), biotza azke ta Jaungoikoagana gora jasota euki egizu.

47. Zure egunoroko otoitz eta an-

(1) Luc. XVI, 9.
(2) Hebr. XIII, 14.



tziak negar malkoakaz araxe biaJdu bear dozuz, zure gogoalc eriotz-ondoren Jaunaren atsedenera joatea irabazi dagian. Olantxe.

## XXÍV ATZALBURUA

### OBENDICN EPAI TA OÑAZEAK

1. Gauza guztietan elburura begitu egizu, ta ezer estaltzen etxakon, eta emokaiiakaz biguntzen eztan, eta zurikatzerik artzen eztauan, eta zuzen-zuzen epaitttko dauan Epaikari zořotzaren auřean zelan aurkituko zarean, gogoratu egizu.

2. Ene obendi eřukaři ta senbakoa, zure gaiztakeri guztiak dakizan Jaungoikoari, zuk zer erantzungo ete-dautsazu, batzuetan gizon asařatuaren arpegiari bildur dautsazun ořek?

3. Bakotxak bere buruaz be egikizunik asko eukiko dau-ta, iñok be iñoren alde ez zuribiderik ez itzík esango eztauan epaikunde - egunerako, zegaitik etzara gertzen?

4. Zure nekea oraintxe da onuragaŕia, zure negaŕa artugaŕia, zure zotiña entzungaŕia, ta zure datnua ordaingaŕia ta garbia.

5. Irañak artzean, artu dauan iraña baño irain egin dautsanaren asmo gaiztoa mingaŕiago yakonak, eta arerioen alde otoitz gogoz egin, eta irañak biotzez parkatzen dauzanak, eta besteai patka eskatzea belutzen eztauanak eta asaŕatu baño eŕazago eŕukitu egiten danak, eta bere buruari saŕitan indar-egin eta aragia gogoari guztiz menperatzeko alegintzen danak, garbitoki andi ta onutagaŕia dauko.

6. Obenak orain garbitzea, ta ekandu gaiztoak sustraitik ebagitea obe da, gero gatbitzeko iztea baño.

7. Geure aragiari dautsagun maitaketiaz geure buruaii iruzur egiten dautsagu.

8. Arako suak, zer besterik iruntsiko dau, zure obenak baño?

9. Orain zeure buruari geyago par-



katu ta aragikeriari jaŕaitu, gero gogorago zigorkatua izango zara, ta zeu eŕetako eŕekin gcyago batzen dozu.

10. Gizonak oben egiten dabenetan, gogoŕago zigorkatua izango da.

11. An nagiai suzko eztenak sartuko dautsez, eta mizkeri-zaleak gose-egaŕi andiaz oñazetuak izango dira.

12. An aragikoi ta atseginken'-zaleak ur irakiñez eta ikatzaŕi atsituz igurdiak izango di.ra, ta bekaizkeritsuak, txakur amuŕutuak lez, oñazeen artean oŕuka egongo dira.

13. Ekandu zatar bat ezta izango, berari dagokion oñaze barik.

14. An aŕoak lotsaz beteko dira, ta zekenak txirotasun goŕianaurkituko dira.

15. Ango ordu bat nekegaŕiago izaugo da, emen eun urte oben-neke gogoŕenakaz baño.

16. An eztago atsedenik, gaiztokikoentzat atsegin bat bez,- emen, baŕiz, lanati nozikpein izten yako ta adiskideakaz pozaldiak artzen dira.

17. Zure obenen ardurea ta damuá orain euki egizu, epaikunde-egunean deunakaz eskier egon zaitezan.

18. Egun atan zuzenak, len eurak lańitu ta ostikopean erabili ebezanen aurka, adore andiaz jagiko dira (1).

19. Orduan epaikari izango da, orain gizonen epayai burua apal menperatzen dautsena.

20. Egun atan txiro ta apalak uste andia eukiko dau; ańoari, bańiz, alde guztietatik bildur ikarea sartuko yako.

21. Orduan bizitza onetan Kristo' gaitik ezjakiña ta ezesgańia izaten ikasi ebana, jakituna izan zala ikusiko da.

22. Orduan eroapenez jasaniko naigabeak atsegin emongo dau, ta gaiztakeriak aoa itxiko dau (2).

23. Orduan jaungoiko-zale guztiak poztu, ta eraspen bakoak itundu egingo dira.

24. Orduan aragi ilduratua, beti

(1) Sap.V.I.
(2) P. Salm. CVf, 42.



atsegin artean bizi izan ba'litz baflo geyago poztuko da.

25. Orduan jantzi zatańak argi egingo dau; jantzi meak, ostera, ilun.

26. Orduan jauregi uńeztatua baño, etxetxu txiro-txiroa geyago goratuko da.

27. Orduan eroapen iraunkońak geyago lagunduko dau, luńeko al guztiak baño.

28 Orduan gizonen aintziñako azerikeria baño, menpetasun apala geyago goretsiko da.

29. Orduan geyago poztuko dau bańu garbi ta onak, jakituri sakonak baño.

30. Orduan Iuńeko ondasun guztiak baño, aberastasunen ezespena obetzat eukiko da.

31. Orduan geyago poztuko zara eraspenaz egindako otoitzaz, bazkari gozoaz baño.

32. Orduan ixilik egonagaitik geyago atseginduko zara, bańiketa lazeagaitik baño.

33. Orduan egite onak onuragaŕiago izango dita, itz apain asko baño.

34. Orduan bizikera estu ta laztasun gogoŕa atsegingaŕiago izango da, luŕeko atsegin guztiak baño.

35. Orduan neke gogoŕetatik azke izan zaitezan, orain apurtxu bat jasaten ikasi egizu.

36. Lenen emen zeure burua egiztu egizu, gero zer jasan daikezun jakiteko.

37. Orain onen gitxi jasan al ba-dozu, betiko oñazeak, zelan jasan al izango dozuz?

38. Orain neke txiki batek oŕen artega izten ba-zaitu, orduan betiko oñazeak, zer egingo ete-dautzu?

39. Bene-benetan poztasun bi: emen bizitza onetan atsegin artzea, ta gero an Kristo'gaz agintzea, ezin euki zeinkez.

40. Gaur arte beti txalo artear. eta atseginkerietan bizi izan ba'ziña,- oŕeik danok zer onik egingo leuskitzue, oraintxe ber-berton ilgo ba'ziña?

4t. Benetan dan-dana uskeri utsa da,



Jaungoikoa maite-izan eta bera bakaŕik otseintzea izan ezik.

42. Biotz-biotzez Jaungoikoa maite dauanak, ba, ez eriotzeari, ez oñazeari, ez epaikundeari, ez gaiztokiari (inpernuari) eztautso bilduŕik, maitasun orniduak Jaungoikoaganako bide eskieŕa edcgiten dautso-ta.

43. Baña oraindiño obena atsegin dauanak, eriotzeari ta epaikundeari bildur izatea ezta aŕitzekoa.

44. Baña oraindiño gaiztakeritik maitasunak aldentzen ezpa-zaitu, betiko gaiztokiaren bilduŕak atzeratu-azo dagitzula.

45. Baŕiz, Jaungoikoaren bilduŕa baztertzen dauanak onbidean luzaro ez'mgo dau iraun, eta txeŕenaren sareetan laster batuko da.

## XXV ATZALBURUA

### GURE HIZIKURA OSOARI.N OBEKUNTZA GARTSUA

1. Jaungoikoaren otseintzean ernai ta zoli egoii zaite, ta saŕitan gogoratu

egizu : zetarako etoŕi nintzan, eta zer dala-ta gizakeria itxi neban?

*1.* Jaungoikoarentzat biziteko ta gogoaren arduradun izateko, ez ete-zan?

3. Ekiozu, ba, sutsu auŕeratzeari, neke-saria lasteŕ artuko dozu-ta; andik auŕerantzean ez bilduŕik ez miñik bein be eztozu izango.

4. Orain apur bat nekatuko zara, ta gero atseden andia, baita betiko alaitasuna be, idoroko dozuz.

5. Zuk zintzo ta gartsu ba'diarduzu lanean, ezbai barik, Jaungoikoa zintzo ta esku zabala izango da saria emotean.

6. Saria lortzeko itxaropen ona euki bear dozu, baña eskiertasuna eukitea etxatzu egoki, nagitu ta aŕotu etzaitezen.

7. Norbait saŕi artegatsu, bilduŕaren eta itxaropenaren artean loka ebilala, alako baten oso laŕituta eleizara sartu ta opamai auŕean otoitz egiteko auzpaztuta, bere baŕuan burutasun onei eragiten eutsen, esaten ebala : «Azkeneraño iraungo'dodan ba'nenki».



8. Eta bereala entzun eban Jaungoikoaren erantzun au : zer egingo zeunke azkeneraño iraungo dozula ba'zenki? Orduan egin gurako zeunkena, oraintxe egizu, ta eskier egongo zara.

9. Eta ber-bertatik poztu ta sendotuta, bere burua Jaungoikoaren nayaren azpian jaŕi eban, eta bere urduritasun laŕia baretu yakon.

10. Aŕezkero berari zertzuk jazoko litzakiozan ez eban ez jakin gura, ez azterkatu gura, edozein eginbear on asi ta amaitzeko Jaungoikoaren ondogurea ta osoa ezagutzeko ikasi baño.

11. «Jaungoikoagan itxaron ta onean iarduzu, diño Igarleak, eta luŕean bizi zaite, ta bertoko aberastasunetan janarituko zara» (1).

12. Zailtasunaren bildur-ikareak edo buŕukearen nekeak, auŕeratzetik eta obekunfza gartsutik asko atzeratzen dauz.

13. Benetan besteak baño askoz geyago auŕeratzen dira onoimenetan, eurai

*0)* Psalm. XXXVI, 3.

astunagoak eta aurkakoagoak yakezanak garaitzeko gizon-arauz ekiten dautsenak.

14. Gizonak bere burua geyago garaitu ta gogoa ilduratzen dauanean, auŕerakada andia egin eta esker yoriagoa irabazten dau.

15. Baña guztiak eztaukie garaitu ta ilduratu bear bardiña.

16. Olan da guzti be deuntasunerako gertaera obea eukiko dau, griña asko euki aŕen, bere burua onduteko zoli ta arduratsu diarduanak, izakera on-onekoa izan eta onoimenetarako epelagoa danak baño.

17. Gauza bik, batezbere, ooekuntza andirako laguntzen dabe : gure izatasuna oker makurtuta dagoanetik indaŕez aterateak eta beaŕen dogun ona gartsu eskatzeak.

18. Resteengan saŕi iguin emoten dautzuenak, zeuk egin ez eta garaitzeko Erdurea euki egizu.

19. Naiñondik zure onurea atera egizu,- ta jaŕaibide onak ikusi edo entzuten ba-dozuz, euroen antza artzeko berotu zaite.



20. Baña agirakaŕirik ikusi ba-dozu, oŕelakorik ez egiteko arduratu zaite.

21. Edo iñoz egin ba'dozu, ainbat lasteŕen onduteko alegindu zaite.

22. Zuk besteai begiratzen dautsezun lez, besteak be zuri begiratzen dautzue.

23. Anai gartsu ta eraspentsuak ekandu onakaz eta legepean jarduten ikustea, atsegingaŕia ta gozoa da.

24. Ta, baŕiz, negargaŕia ta samingaŕia da, deituak izan ziranetan ez diarduela, bide barik ibilten ikustea.

25. Benetan norbere dei-asmoan nagitzea, ta agindu etxakozanetan nastea kaltegaŕia da.

26. Arturiko asmoaz gomutau zaite, ta eredutzat gurutzeko Jauna ipiñi egizu.

27. Jaungoikoaren bidean aspaldion zabizala, oraindiño Jesukristoren antzekoa izateari azkaŕago ekin eztautsazula-

ko, lotsatu beaŕa dozu Jesukristo'ren bizitzeari begiratzen ba'dautsazu.

28. Jaunaren bizitz eta Nekaldi (Pasiñoan) deun-deunean adi ta eraspentsu diarduan lekaideak, egokiak eta beaŕeko guztiak bertan eŕaz idoroko dauz, eta Jesu'gandik ataz (kanpoan) gauza obearen bila ibili beaŕik eztauko.

29. Ene, gure biotzera Jesus gurutzatua etoŕiko ba'Iitz, orduan bai beingoan eta bear dan bestean jakitunak egingo gintzakezala.

30. Lekaide berotsuak agintzen yakon dana, ondo eroan eta artu oi-dau.

31. Lekaide alper eta epelari, baŕutiko atsegiñik eztaukolako, ta azaletikoen bila ibiltea galazo yakolako, atsekabeen ganera atsekabeak, ta alde guztietatik artegatasunak yatorkoz.

32. Legepean bizi eztan lekaidea jauspide andian dago.

33. Nasaikeri ta alperkeri bila dabiíana, beti laŕi egongo da : bata edo bestea iguingaŕi izango yako.



34. Zelan burutzen ete dira Iekaidetxeetan legepean naiko estu bizi diran ainbeste lekaide?

35. Gitxitan urteten dira, bakarti bizi dira, oso txiro jaten dabe, soñeko lodiakaz janzten dira, lan asko egin baña itz gitxi esaten dabez, luzaroan ernai dagoz, goizjagiten dira, otoitz-aldia luzatu egiten dabe, saŕitan irakurten dabe, ta legea zeatz-zeatz beteten dabe.

36 Begiratu egiezu Kartus'tar, Zister'tar ta beste gopatzetako (erlejiñoetako) lekaide ta Jekaimeai, ta oŕeik Jaunari onespenak abestuteko gau guztietan jagiten dira.

37. Beraz, ainbeste lekaide Jauna goresten asten diran aldi deun oŕetan zu nagitzea, Iotsagaŕia izango Iitzake.

38. Ene, gure Jaun eta Jaungoikoa biotz-biotzez eta aoz gorestea bafio beste egikizunik ezpa'geunke!

39. Ene! iñoz ez jan, ez edan, ez lo eginbeaŕik izango ezpa'zendu; ta baŕiz, beti Jaungoikoa goretsi ta gogozkoai eki-

ten bakaŕik bizi al ba'ziña, orduan askoz zoriontsuago izango zintzake, orain aragiaren beartasunai atseintzen dautsazunean baño.

40. Onetariko beartasunak ezpa'geunkoz; ostera, zoritxaŕez onen gitxitan gozartzen doguzan gogoaren janaldiak baño ezpa'geunkoz!

4í. Gizonak beretzat atsegiñik bilatzen eztauanean, orduantxe asten da lenengoz Jaungoikoa gozartzen, eta jazoten yakozan gora-beratan ondo pozik dago.

42. Orduan askoan ezta poztuten,- eta gitxian ezta ituntzen,- baŕiz, guztietan guztia yakon Jaungoikoagan izten dau bere burua, uste oso ta beteaz,- eta Jaungoikoari ezer etxako galtzen ez ilten,- baŕiz, guztiak bizi yakoz eta beti-beti otsein egiten deutse.

44. Beti zure azkena, ta galduko aldia eztala biurtzen gomutatu zaite.

44. Ardura ta zolitasun barik onoimenak iñoz eztozuz zeuretuko.



45. Epeltzen asten ba'zara, txaito joaten asiko zara.

46. Berotsu ekiten ba'dozu, bake andia aurkituko dozu, ta nekea Jaungoikoaren eskeŕaz eta onoimena maite izanaz arinduko yatzu.

47. Gizon beroa ta zolia edozetarako gertuta dago.

48. Gorputz-lanetan izerditzea baño, gaiztakeri ta griñen aurka ekitea neke gogoŕagoa da.

49. Uts txikietatik aldenduten eztana, apurka-apurka aundiagoetara jausiko da.

50. Eguna onuratsu erabili ba-dozu, gabean beti poztuko zara.

51. Zeure burua zaindu, itxartu ta aolkatu egizu, ta iñori jaramon egin barik, zeure buruaren ardurea euki egizu.

52. Zeure buruari indar-egiten dautsazun bestean auŕeratuko zara. Olantxe.

# BIGAŔEN IDAZTIA

## Barura batzen daben aolkuak (konsejuak)

### I ATZALBURUA

### BARRUKO AUTUETAZ

1. «Jaungoikoaren jaureŕia (eŕeñua) zeuen baŕuan dago, diño Jaunak» (1).

2. Biotz-biotzez Jaunagana biurtu zaite, ta ludi ezesgaŕi au itxi egizu, ta zure arimeak atsedena idoroko dau.

3. Azaletikoak ezesten eta baŕutikoai ekiten ikasi egizu,- ta Jaungoikoaren jaureŕia zugana datoŕela ikusiko dozu.

4. «Jaungoikoaren jaureŕia Goteunagandiko (Espiritu Santuagandiko) bake ta poza da» (2), ta gaiztoai etxake emoten.

(1) Luc.XVII, 21.
(2) Rom. XIV 17.



5. Zure baŕuan beretzako laingo biztokia gertzen ba-dautsazu, Kristo zugana etoŕiko da, bere poza agertzen dautzula.

6. Bere aintza ta edertasuna baŕuan dagoz, eta antxe dauko bere atsegiña.

7. Baŕu-zaleaz euki daroaz Kristo'k bere saŕitako ikustaldiak,- bere autu eta gozoak, bere poz atsegingaŕiak, bere bake andi ta senitartekotasun aŕigaŕia.

8. Ene ba'da, arima zintzoa: Ezkontide onentzat zure biotza atondu egizu,- zugana etoŕi, ta zugan bizi gura izan dagian.

9. Berak onan diño, ba: «Norbaitek maite ba-nau, nire esana egingo dau, ta beragana etoŕi ta beragaz biziko gara» (1).

10. Kristo'ri tokia emon egiozu ba, ta beste enparau guztiai saŕerea ukatu.

11. Kristo euki ezkero, aberatsa izango zara ta naiko yatzu.

12. Bera izango yatzu zure ornitzaíe

(1) Joan. XIV, 23.

ta aldezkari zintzoa, ta gizonetan itx'S-ron be^aŕik eztozu izango.

13. Gizonak laster aldatu ta beingo batean doaz: Kristo'k, baŕiz, betiko irauten dau, ta azkeneraño sendo dago.

14. Gizon ausikor eta ilkoŕagan uste andirik ezta ipiñi bear, onuragaŕi ta niaitea izan aŕen,- eta alakoen batean zeure aurka jagi edo jaramonik egitcn ezpa-dautzu be, oŕegaitik etzara ifundu bear.

15. Gaur zure alde dagozanak, biar zure aurka jagi leitekez; eta bestera be bai, saŕitan aizea lez besteratzen dira-ta.

16. Zure itxaropen guztia Jaungoikoagan ipiñi egizu, ta bere bildur izan zaite, ta bera maite izan egizu.

17. Zure alde berak erantzun eta egokien yatzunez egingo dau.

18. Emen biztoki iraunkoŕik eztaukazu; ta edonora joan aŕen, aŕotza ta erbestekoa zara,- ta baŕiz, Kristo'gaz bat eginda ezpa-zagoz, atsedenik iñoz be eztozu eukiko.



19. Zure atseden-tokia au izan ezta, zer dala ta zabiz oŕa-ara begira?

20. Zure biztokiak zerukoetan izan bear dau, ta luŕeko guztiai, igeskoŕai lez begiratu bear yake.

21. Guztiak igaro egiten dira, ta zeu be eurokaz batera.

22. Ez lotu ez galdu etzagiezan, oŕeikaz etzaite alkartu.

23. Zure oldozkuna (pensamentua) Jaungoikoagan bego, ta zure otoitza eten barik Kristo'gana igon bedi.

24. Goikoak eta zerukoak gogartzen ezpa-dakizu, Kristo'ren Nekaldian atsedendu, ta bere zauri deuneton pozik bizi zaite.

25. Josu'ren zauri ta zakail edeŕetara eraspentsu biurtzen ba-zara, naigabealdian sendotasun andia nabaituko dozu; eta gizonakandiko ezespenari jaramon andirik eztautsazu egingo, ta txarto-esanen esamesak eŕaz eroango dozuz.

26. Luŕean Kristo bera be ezetsi

eben eta beaŕizanik gogoŕenean bere ezagun eta adiskideak irain artean itxi eben.

27. Kristo'k beretzat neke ta ezespenak gura izan ebazan; eta zu iñogaitik espaka asiko zara?

28. Kristo'k arerioak eta txartoesaleak euki ebazan, eta zuk danak adiskide ta ongile euki gura dozuz?

29. Ezetariko atsekaberik ezpayatortzu, eroapenaren saria zelan irabaziko dozu?

30. Aurkakorik jasan (eroan) gura ezpa-dozu, zelan izan zintekez Kristo'ren adiskide?

31. Kristo'gaz agindu gura ba-dozu* Kristo'gaz eta Kristo'aŕen jasan egizu.

32. Josu'ren baŕuan bein ondo sartuko ba'ziña, ta bere maitasun gartsua apurtxu bat gozartuko ba'zendu, zeure onura edo kalteagaitik ez zintzateke arduratuko,- ostera, egin dautzuezan irañakaz poztu egingo zintzateke, Josu maite izateak norbere burua ezesterraño daroa-ta.



33. Josu'ren eta egiaren maitatzalea ta baŕu-zalea, ta zalekeri b'debakoetatik azke dagoana, Jaungoikoagana biurtu ta gogoaz norbere ganera igon eta gozo-gozo atsedendu leiteke.

34. Gauzak esaten daben edo dirudien lez barik, diran lez artzen dauzana, egizko jakituna da, ta oneri gizonak baño geyago Jaungoikoak erakutsi dautso.

35. Bere baŕuan ibilten eta azaletikoak gítxitzat esten dakiana, gogozko egikizunai ekiteko eztabi! toki-bila, ezta aldi egokiaren beeira be.

36. Baŕu-zalea laster batzen da bere baŕura, azaletiko gauzai guztiz iñoz be etxake zabaltzen-eta.

37. Azaletiko lanak eztau eragozten, ezta nozean beingo eginbeaŕak be; gauzai datozan erara beta be eratzen yake.

38. Baŕuz ondo gertuta ta atonduta dagoanak, gizonen egite arigaŕi ta gaiztoen ardurarik eztauko.

39. Azaletikoak beragantzen dauzan neuŕiz, arazotu ta adigabetzen da gizona.

40. Zuzena ta biotz garbia ba'ziña, gauza guztiak onak eta onuragaŕiak izango litzakizuz.

41. Oraindiño zuretzako oso il barik, eta luŕeko gauzetatik alde egin barik zagozalako, zer askok atsekabetu tabeti be artegatu egiten zaitue.

42. Gizonaren biotza geyen lotu ta nastuten dauana, luŕeko gauzakanako zalekeri zikiña da.

43. Azaletik atsegiñak ezesten badozuz, zerutikoak begiratu ta baŕuan saŕitan poztu al izango zara.

## [I ATZALBURUA

## MENPETASUN APALA

1. Zure alde nai zure aurka nor dagoan etzaite laŕegi ardu*r*atu,- baña egiten dozun guztian Jaungoikoa zeugaz egon daiten arduratu ta alegindu zaite.



2. Baŕu ona eukj egizu, ta Jaungoikoak ondo zainduko zaitu.

3. Jaungoikoak Iagundu gura dautsanari, iñoren gaiztakeriak kalterik ezin leyo egin.

4. Ixilik egoten eta jasaten (sufriduten) ba-dakizu, benetan Jaungoikoaren laguntasuna zeugan ikusiko dozu.

5. Berak badaki noz eta zetara lagundu bear dautzun,- eta augaitik zeure burua berari eskiñi bear dautsazu,

6. Lagundu ta edozelako estukuretatik ateratea Jaungoikoari dagokiana da.

*7.* Askotan besteak gure utsegiteak jakin eta euroen aurka egitea, egoki yaku apaltasun andiagoan biziteko.

*8.* Gizonak bere utsegiteakaitik bere burua apalesten dauanean, besteak eŕaz biguntzen dauz, eta asaŕe daukozanak be eŕaz baketzen dauz.

9. Jaungoikoak apala zaindu ta jabon egiten dau,- apala maite dau ta poztu egiten dau.

10. Gizon apalagana jasten da;

apalari esker asko damotsoz,- eta apalazo ondoren, aintzara jasoten dau.

11. Apalari bere ixilekoak agertzen dautsoz, eta gozoro beragandu ta deitzen dautso.

12. Apala iraña artuta bake-bakean gelditzen da, luŕean barik Jaungoikoagan dago-ta.

13. Ez egizu uste ezer auŕeratu zareanik, zeure burua guztien menperako dala ezpa-deritxazu.

## III ATZALBURUA

## GIZON ON liTA BAKETSUA

1. Lenengo zeure buruaz bakean egon zaite, ta gero besteak bakean ipiñi al izango dozuz.

2. Oso jakitunak baño baketsuak on geyago egiten dau.

3. Griñatsuak ona be txartu egiten dau, ta txaŕa eŕaz siñisten dau.

4. Gizon on eta baketsuak gauza guztiak onera biurtzen dauz.



5. Bake onean dagoanak iñogaitik Susmo gaiztorik eztauko.

6. Baña artega ta naigabetuta dagoana, susmo askok eraginda dabil.

7. Bera ezta atsedeten, eta besteai be atsedenik artzen eztautse izten.

8. Saŕitan, esan bear eleukena diño, eta geyen egin bear leukena egin barik izten dau.

9. Besteak egin bear leukiena gogoratzen dau,- baña bere eginbeaŕetarako ardurarik eztauko.

10. Oŕegaitik, lenengo zeure buruaren ardurea euki egizu, ta gero zure urkoarena zuzen euki zeinke.

11. Zuk, zeure egiñak zuritu ta eder ipinten ondo dakizu,- baña besteen zurikatzerik entzun be eztogu gura.

12. Zuzenago izango litzake zuk zeure burua eŕudun epaitzea, ta zure lagun urkoa zurikatzea.

13. Besteak zuri jasaíea gura badozu, zeuk be besteai jasan egiezu.

14. Benetako maitasun eta apaltasu-

netik uŕin ete-zagozan begitu egizu; egizko maitasun eta apaltasunak norbere buruaren aurka baño eztaki asaŕatu ta sumintzen.

15. Onakaz eta otzanakaz bizitea ezta asko; au danai berez be atsegingaŕi yake,- edonok be norbere eritxikoak geyago maite dauz-eta, eurokaz bakean pozik bizi oi da.

16. Baña gogoŕakaz, gaiztoakaz eta ezibakoakaz, edo gure auŕezlariakaz bakean bizi al izatea esker andŕa, ta egite oso txalogaŕi ta gizontsua da.

17. Euren baŕuan bakea daukenak, eta enparauakaz be bakean bizi diranak ba-dira.

18. Raita ba-dira eurentzako bakerik eztaukenak, eta iñori bakean izten eztautsenak be.

19. Besteai gogaikaŕi yakez oneik; baña gogaikaŕiago euren buruarentzat.

20. Eurak bakean bizi, ta besteak bakean ipinteko alegin egiten dabenak be ba-dira.



21 Zoritxaŕez beteriko bizitza onetan, gure bake osoa aurkakoak ez nabaitzean baño, apaltasunaz eroatean ipintea obe da.

22. Bakerik andiena ondoen jasaten dakianak eukiko dau. Auxe da bere buruaren gareitzale, luŕaren jaube, Kristo'ren adiskide ta zeruaren jaube-gai.

## IV ATZALBUKUA

### BIOTZ GARBIA TA ASMO BAKUNA

1. Gízona ego bigaz jasoten da luŕekoetatik: bakuntasunaz eta garbitasunaz.

2. Bakuntasuna asmoari dagokio, ta garbitasuna zaletasunari.

3. Bakuntasunak Jaungoikoagana daroa, garbitasunak Jaungoikoari eutsi ta gozartzen dau.

4. Baŕu - zalekerietatik azke ba'zengoz, egite on batek be eleuskizu eragotziko.

5. Jaungoikoak nai dauana ta urkolagunaren onurea baño gura ta bilatzen

çzpa-dozuz, bafuko azkatasunaz poztuko zara.

6. Zure biotza arteza ba'litz, izaki guztiak biotzaren izpilu ta ikasbide deunaren idazti izango litzakizuz.

7. Jaungoikoaren ontasuna iruditzen eztauan izaki ain txatxar eta zatańik eztago.

8. Bańuan ona ta garbia ba'ziña, guztiak eragozpen barik ikusi ta ondo ulertuko zeunkez.

9. Biotz garbiak, nai zerua nai gaiztokia (inpernua) bańentzen dauz.

10. Bakotxak bańuan dnnez gauzak epaitzen dauz.

11. Lurean poztasunik ba dago, biotz garbidun gizonak dauko.

12. Ta iñon atsekabe ta kezkarik badago, bańu gaiztoak ezagutzen dau ondo.

13. Burdiñea sutan sartuta ugeŕa galdu ta goritu egiten dan lez, Jaungoikoagana guztiz biurtzen dan gizonak be



epeltasuna eranzten dau, ta gizon bańira aldatzen da.

J4. Gizona epeltzen asten danean, neke txatxar bateri be bildur dautso, ta azaletiko atsegiña pozik artzen dau.

15. Baña bere burua oso garaitzen, eta Jaungoikoaren bidean gizon-arauz ibilten asten danekoxe, len astunak eritxozanak, orain ariñak dirudtoz.

## V ATZALBURUA

### NORBERE BURUATZAZKO GOGAKETA

1. Gure buruari lańegi ezin siñistu geunskio, sańi askotan eskeńik eta zentzunik eztaukagu-ta.

2. Gugan argi gitxi dago, ta argi pizka au, ardura - ezaz laster galtzen dogu.

3. Sańitan txarto egiten dogu, ta geure burua txarfoago zurikatzen,

4. Batzuetan griñak igitzen gaitue ta goi-maitasuna dala uste.

5. Besteai utsegite txikiakaitik agiraka egiten dautsegu, ta geureak andiagoak izan eta eŕaz irunsten doguz.

6. Besteakandik jasaten (eroaten) doguna laster asmatu ta andi-egiten dogu,- baña besteak gugandik jasaten dabena eztogu ikusten.

7. Norbere egiñak ondo ta zuzen aztertzen dauzanak, besteenak gogor epaitzeko ziorik eleuke izango.

8. Gizon batuak lenen bere buruaren ardurea artzen dau.

9. Ta norbere buruaren benetako ardurea daukana, besteetzaz ixiltk be eŕaz egongo da.

10. Besteen egikizunetzaz ixilik ezpazagoz, eta zeure buruaren berebiziko ardurea ezpa-daukazu, batua ta eraspentsua bein be etzara izango.

11. Jaungoiko ta zeure buruatzaz osoro arduratzen ba-zara, kanpotik ya'tortzuzanak zirkin gitxi eragingo dautzue.



12. Non zagoz zeure buruaz etzagozanean?

13. Ta zeure buruaren ardurea barik, danetara jo dozunean, zer irabazi dozu?

14. Bakea ta benetako batasuna euki gura ba-dozuz, gauza guztiak atzeratuta, begien auŕean zeure burua bakaŕik euki bear dozu.

15. Asko auŕeratuko zara, aldikoŕetzaz ardura barik ba-diarduzu.

16. Asko galduko dozu, igeskoŕen bat edeŕesten ba-dozu.

17. Beste ezer ez anditzat, ez goratutzat, ez begikotzat ez begitzu izan, bakar-bakaŕik Jaungoikoa edo Jaungoikoarekikoen bat baño,

18. Izakietatik yatortzun edozelango atsegiña, utsaia dala uste egizu.

19. Jaungoikoa maite dauan arimeak, Jaungoikoaren bekoak ezetsi oi-duaz.

20. Betikoa ta neuŕibakoa ta guztiak beteten dauzana, ta arimearen atsegiña ta biotzaren benetako poza, Jaungoikoa baño ezta.

## VI ATZALBURUA

### BARRU ONAREN POZA

1. Gizon onaren aintza (gloria), bere bařu onaren ziñalpena (egi-esana) da.

2. Bařu ona euki egizu, ta alaitasuna beti eukiko dozu.

3. Bařu onak asko jasan leike, ta zoritxařetan poz-pozik dago.

4. Bařu gaiztoa beti bilduřez eta artega dago.

5. Bigun atsedenduko zara, zure biotzak agiraka egiten ezpa-dautzu.

6. Ondo egiten dozunean izan ezik, etzaite poztu.

7. Gaiztoak iñoz be eztaukie egizko pozik, eta bařuko bakerik eztabe asmetan : «Gaiztoentzat bakerik eztago, diño Jaunak» (1).

8. Eta ba-diñoe : Bakean gagoz, gaitzak gure ganera eztira etořiko, norasartuko da guri kalterik egiten? ez egiezu

(1) Is. XLVIII, 22



siñistu,- bereala jagiko da Jaungoikoaren asařea, ta euren egiñak ezerestu, ta euren oldozpenak ondatuko dira» (1).

9. Naigabe-aldian aintza artzea ezta zaila maitalearentzat; onelan aintzaldutea, Jaunaren gurutzean aintzaldutea.

10. Gizonak emoten daben eta gizonakandik datořen aintza (gloria), Iabuřa da.

11. Luřeko aintzak beti lagun dau ifuntasuna.

12. Zuzenen aintza euren bařuan dago, ta ez gizonen aoan.

13. Zuzenen alaitasuna Jaungoikoagandikoa da, ta Jaungoikoagan dago, ta euroen atsegiña egia da.

14. Benetako ta betiko aintza gura dauanak, aintz aldikořaren ardurarik eztauko.

15. Ta aintz aldikořaren bila dabilanak, edo biotzez ezesten eztauanak,

(1) Psalm. CXLV, *4.*

zerukoa gitxiago maite dauala erakusten dau.

16. Ez txaloen, ez irañen ardurarik eztaukanak, biotza baretasun andian dauko.

17. Bafu garbia daukana efaz egongo da pozik eta baketsu.

18. Goratzen zaituelako etzara deunago, ta zatafagoa bez beratzen zaituelako.

19. Zareana, orixe zara,- ta Jaungoikoaren aufean zarean baño andiago zareanik ezin esan zeinke.

20. Zeure bafuan nor zarean begiratzen ba-dozu, gizonak zutzaz diñoenari jaramonik be eztautsazu egingo.

21. «Gizonak arpegia ikusten dau; Jaungoikoak, bafiz, biotza» (1).

22. Gizonak egiñai begiratzen dautse,- baña Jaungoikoak asmoai.

23. Beti ondo egitea ta norbere burua gitxitzat eukitea, gogo apalaren ezaugafia da.

(1) Reg. XVI, 1.



24. Izaki batetik be poztasunik artu gura ez izatea, garbitasun andiaren eta biotzeko itxaropenaren ezaugafia da.

25. Iñoren on-eritxien gose eztabilanak, bere burua osoan Jaungoikoari eskiñi dautsala agiri dau.

26. Paul deunak diñonez «ezta onetsia (bedeinkatua) bere burua goratzen dauana, Jaungoikoak goratzen dauana baño» (1).

*17.* Bafuz Jaungoikoagaz ibiltea, ta bategaz be atetiko zalekeriz ez nastutea, gizon batuaren izakera da.

## VII ATZALBURUA

### CAUZA GUZTIEN GANETIK JOSU MAITE IZATEA

1. Josu maite izatea ta norbere burua Josu'afen ezestea ulertzen dauana, zoriontsua da.

2. Kutun bat beste kutun bategaitik itxi bear da, Josu'k gauza guztien gane-

(I) HCor. X, 18.

tik geyen bera bakaŕik maite izatea gura dau-ta.

3. Irazakien maitasuna guzurtia ta aldakoŕa da,- baŕiz, Josu'ren maitasuna zintzoa ta iraunkoŕa.

4. Irazakiari eusten dautsana, jausikoŕagaz jausiko da; Josu laztantzen dauana betiko sendotuko da.

5. Berau maite izan eta adiskidetzat euki egizu; beste guztiak doazanean be etzaitu bertanbera itxiko, ta azkenean zu ondatzea eztau laketuko.

6. Nai gura nai gura ez, alakoen batean guztiekandik alde-egin bearko dozu.

7. Bai bizitzan bai eriotzan Josu'ri eutsi egiozu, ta zure ustea bere zintzotasunean ezaŕi egizu, guztiak izten zaituenean berak bakaŕik lagundu leiketzu-ta.

8. Zure kutunak zuk beste bat maite izatea eztau gura,- zure biotza berak bakaŕik euki, ta antxe, bakalduna (eŕegea) bere bakal-aulkian lez, jezafi gura dau.



9. Biotza irazaki guztietatik utsituko ba'zendu, Josu pozik biziko litzake zure baŕuan.

10. Josu'gan barik gizonetan ipinten dozun geyena, galduko dozu.

11. Seska (kañabera) aŕoan ez usterik, ez eskurik ez egizu ezaŕi: «Aragi guztia elbitza da, ba,- ta bere aintza (gloria) elbitz-Iorea lez jausiko da» (1).

12. Gizonetan agiriko azalari baño begiratzen ezpa-dautsazu, ziria laster sartuko dautzue.

13. Zure poza ta irabazia besteetan bilatzen ba-dozu, kaltea saŕitan artuko dozu.

14. Guztietan Josu'ren bila ba-zabiz, Josu benetan aurkituko dozu.

15. Baña zeure buruaren bila ba-zabiz, zure burua aurkituko dozu,- baña zeure kalterako.

16. Gizonak Josu bilatzen ezpa-dau, bere buruari gizadi osoak eta arerio guztiak baño kalte geyago egiten dautso.

(1) I Pctr. I, 24.

## VIII ATZALBURUA

### IOSU'GAZ BARRU - BARRUKO ADISKIDETASUNA

1. Josu geugaz dagoanean dana da ona, ta ezek be eztirudi gatx.

2. Baña Josu eztagoanean, dana da gogoŕa.

3. Josu'k baŕuan itz egiten eztauskunean, atsegiña zataŕa da.

4. Baña Josu'k itz bakar bat esaten ba-dau, atsegin andia nabaitzen da.

5. Miren Maitalea negaŕez egoan tokitik etzan jagi bereala, Marta'k esan eutsanean : «Ikaslea emen dago, ta zuri deyez daukazu» (1).

6. Ordu zoriontsua Josu'k negar-malkoetatik gogo-atsegiñetara deitzen dauan ordua.

7. Josu barik bai zareala legoŕa ta gogoŕa!

8. Zu zarean zentzunbako ta utsala, Josu barik zerbait gura ba-dozu!

(1) Joan, XI, 28.



9. Au ez ete-yatzu Iudi (mundu) osoa galtzea baño kalte andíagoa?

ÍO. Josu barik Iuŕak, zer emon leiketzu?

11. Josu barik egotea gaíztoki (inpernu) gogoŕa da, ta Josu'gaz egotea zeru gozoa.

12. Josu zugaz ba'lego, etsai batek be kalterik eleuskizu egingo.

13. Josu aurkitu dauanak, aberastazun ona aurkitu dau,- baita oník onena be.

14. Baña Josu galtzen dauanak, asko galtzen dau; ta Iudi osoa baŕto geyago.

15. Oso txíroa da Josu barik bizi dana,- ta aberats-aberatsa Josu'ren adískide dana.

16. Antze (jakituri) andia da Josu'gaz itz egiten jakitea, ta Josu eukiten jakitea, zurtasun andia.

17. Apala ta baketsua izan zaite, ta Josu zeugaz ízango dozu.

18. Eraspentsua ta geldía izan zaite, taljosu'k zeugaz iraungo dau.

19. Josu zeugandik laster uxatu zeinke, ta baita bere eskeŕa galdu be, atetikoetara itzuli gura ba-dozu.

20. Ta Josu uxatu ta galdu ezkero, nogana joko dozu, ta adiskidetzat nor bilatuko dozu?

21. Adiskide barik ezin zeintekez ondo bizi; eta adiskiderik maiteena Josu ezpa-yatzu, guztiz itun eta atsekabetua biziko zara.

22. Beraz zoro antzean diarduzu, ustea beste bategan ba - daukazu ta poztuten ba-zara.

23. Josu irainduta eukitea baño len, ludi guztia norbere aurka eukitea aukeratu bear da.

24. Maite dozuzan guztien artean, berariz kutuna Josu bakaŕik izan bekizu.

25. Guztiak Josu'aŕen maite egizuz; Josu, baŕiz, bera danagaitik.

26. Berebiziko maitasunaz Jesukristo bakaŕik maite izan bear da, adiskiderik onena ta zintzoena bera baño ez da-ta.



27. Nai adiskideak, nai arerioak Beragaitik eta Beragan maite izan egizuz, eta guztien alde otoitz egiozu, guztiak Bera ezagutu ta maite izan dagien.

28. Berariz goretsia edo maitatua izatea iñoz be ez egizu gura, ori antzekorik eztaukan Jaungoikoari bakaŕik dagokio-ta.

29. Zugazko ardureaz iñor bere biotzean arazotuterik ez egizu gura-izan, eta zeu be norbaitegazko maitasunaz etzaite arazotu,- baña bai zugan, bai gizon on guztietan Josu izan bedi.

30. írazaki bataren arazo barik baŕuz garbi ta azke egon zaite.

31. Jaungoikoagana biotz bilosa ta garbia eroan bear dozu, atsedendu ta Jauna gozo-gozoa dala gozartu gura ba-dozu.

32. Ta egiz, oŕa etzara elduko, bere eskeŕak auŕetiz gertu ta beraganatzen ezpa-zaitu,- onan biotzetik beste guztiak kendu ta jaurtita, bakaŕa bakaŕagaz batu zaitezan.

33. Jaungoikoaren eskeŕa yatorkonean, gizona danetarako altsua egiten da.

34. Eskeŕa yoakonean, baŕiz, ezeukia ta makala izango da, ta zigorkadak artzeko baño ezpa'litz lez.

35. Onangoetan ezta kikildu bear, eta itxaropena ezta galdu bear; Jaungoikoaren biotz baretsuaz Jaungoikoaren gurarípean iraun, eta yatorkozan guztiak jesukristo'ren aintzarako eroan baño,- negu-ostean ba udea, gau-ostean eguna ta ekatx-ostean baretasun andia dator.

## IX ATZAI.BURUA

### ATSECINIK-EZA

1. Jaungoikoagandiko atsegiña dagoanean, gizonakandik datoŕena ezestea ezta zaila.

2. Jaungoikoagandiko ta gizonagandiko atsegin barik egotea, ta Jaungoikoaren dedurako biotz - erbestetasuna gogoz jasatea, ta ezetan be norbere



buruaren biŕa ez ibiltea, ta norbere irabiziari ez begiratzea, andia 'baño andiagoa da.

3. Aŕigaŕi ete-da ba eskeŕa yatortzunean alai ta eraspentsu egotea?

4. Onango ordua guztiak gura dabe.

5. Jaungoikoaren eskeŕak daroana eŕaz dabil.

6. Eta zer dala ta aŕitu, Alguztidunak daroanak eta artezkari onenagaz doanak, zamarik oartzen ezpa-dau?

7. Edozer atsegingaŕi pozik artzen dogu,- baña nekez eranzten dau gizonak bere burua.

8. Laurentzi ziñopa (martiri) deunak azpiratu eban gizakeria ta bere Jauparíagazko zaletasuna,- luŕean atsegingaŕi irudiona guztiz ezetsi eban ba, ta maite-maite eban Sixto be, Jaungoikoaren Jaupari Nagusia, Kristo'ren maitasunaŕen beragandik kentzea eroapenaz artu eban.

9. Onetara gizonakanako maitasuna Egileaganako maitasunagaz garaitu eban,

eta gizonagandiko pozaren ordez Jaungoikoaren ondogurea aukeratu eban.

10. Zeuk be onantxe Jaungoikoaren senide edo adiskide maiteen bat izten ikasi egizu; ta adiskideak izten zaituenean etzaite asaŕatu, egunen baten bata besteagandik aldendu bearko dogula badakizu-ta.

11. Gizonak bere buruagaz buŕuka asko ta eten barik euki bear dauz, bere burua ondo garaitu ta bere maitasun guztia Jaungoikoaganatzen ikasi orduko.

12. Norbere buruagan ezaŕita dagoan gizona, giza-atsegiñetara eŕaz jausten da.

13. Baña Kristo'ren egizko maitatzale ta onoimenen jaŕaitzale arduratsuak, eztaujoten atsegiñetara, ta gorputzaren atsegin-eske be ezta ibilten,- ostera, iñarkun gogoŕak eta Kristo'aŕen neke gonak eroateko alegintzen da.

14. Jaungoikoak gogoko atsegiña emoten ba-dautzu, berari eskeŕak egiñaz artu egizu,- baña jakin egizu, Jaungoikoak zuk irabazi barik egiten dautzun eskeŕa dala.



15. Zeure burua ez egizu goratu, ez egizu laŕegi poztu, ez egizu uskeriz aŕotu, emon dautzunagaitik apalago izan baño,- ta zure egite guztietan arduratsuago ta bildurtiago ibili zaite, ordu ori igaro ta ziltzaldia etoŕiko da-ta.

16. Atsegiña kentzen dautzueneko bereala itxaropena galdu barik, apaltasun eta eroapenaz zerutiko ikertaldian itxaron egizu, Jaungoikoa zuri baŕiro atsegin andiago emoteko be altsua dozu.

17. Au ezta baŕia ta ezjakiña Jaungoikoaren bidea ezagutzen dabenentzat; deun andi ta aintziñako Igarleetan onango goraberak saŕitan jazo ziran-eta.

18. Augaitik norbaitek eskeŕa eukanean esaten eban: «Nik ugari neukanean esan neban : «nik iñoz be zirkiñik eztot egingo» (1).

19. Baña eskeŕa uŕindu yakonean berari jazoa adierazoten dau, diñola :

(1) Psalm. XXIX, 7,

«Nigandik zure arpegia aldendu dozu, ta artego gelditu naz» (1).

20. Baña onango jazoerakaz itxaropena galdu barik Jaungoikoari biziago otoitz dagitso, ta diño: «Zeuri, Jauna, deituko dautzut, eta nire Jaungoikoari otoitz egingo dautsat» (2).

21. Azkenean bere otoitzaren saria jadetsita, entzun dautsola ziñaltzen dau, esanik: «Jaunak entzun eustan eta nigaz eŕukitu,- Jauna nire laguntzaíe egin da» (3).

22. Baña, zetan? «Nire negaŕa, diño, atsegiñean biurtu zendun, eta pozez inguratu ninduzun» (4).

23. Onan egin ba-eban deun andiakaz, guk gaxo ta txiro ezeukiok, batzuetan gogo bero andiaz, eta beste batzuetan epel eta otz egon aŕen, ítxaropena eztogu galdu bear,- gogoa, bere ondogurea dan lez, etoŕi ta joan egiten da-ta.

fl) Psalm. XXIX, 8.

[3; Psalni. XXIX, 11.
(4) Psalm. XXIX, 11.



24. Augaitik Job zoriontsuak diño : «Egunsentian ikertzen dozu, ta batbatean azterkatzen» (1).

25. Zegan itxaron eta ustea nogan ipiñi neinke, Jaungoikoaren eŕuki andian eta goi-eskeŕaren itxaropenean baño?

26. Gizon on, anai eraspentsu ta adiskide zintzoen artean egoteak, eta irakurgai deunak irakurteak, edo abesti ta eresi gozoak entzuteak; oneik guztiok gitxi Iaguntzen dabe, eskeŕak itxi ta neure ezeukitasunean gelditzen nazanean.

27. Orduan osagaŕirik onena eroapena ta neure burua ukatuta Jaungoikoaren naipean iztea dot.

28. Nozbaiten eskeŕa kentzea, ta biotzeko beroa uŕitzea euki eztauan ain jaungoiko-zale ta eroapentsurik, egundo be eztot aurkitu.

29. Lenago edo geroago ziltzaldua izan eztan deun ain goratu ta argiturik ezta izan.

(I) Job, VII, 18.

30. Loŕen baten Jaungoikoaŕen oitu eztana, Jaungoikoaren gai gorengoak goznartzeko ezta. I

31. Auŕeko ziltzaldia, etoŕiko dan atsegiñaren ezaugaŕia izan oi da.

32. Ziltzaldipean erabiíiai zerutiko atsegiña eskintzen yake.

33. «Garaitzen dauanari, diño, bizitzako zugatzetik jaten eraongo dautsat» (1).

34. Jaungoikozko atsegiña, ba, gizona zoritxaŕak eroateko sendoago izan daiten emoten da.

35. Baña zorionaz aŕotu eztaiten, atzean yatorko ziltzaldia.

36. Txeŕenak (diabruak) eztau lorik egiten, eta oraindiño aragia be eztago ilda, ta gudarako gertzeari eten barik ekin egiozu, eskuma-aldean eta ezker-aldean iñoz atsedenik artzen eztaben arerioak dagoz-eta.

(1) Apoc.II, 7.



## X ATZALBURUA

### JAUNGOIKOARFN ESKRRRARI ZOR YAKON LiSKliR - ONA

1. Lanerako jayo ziñan ezkero, zer dala-ta zabiz atseden-bila?

2. Jasatera etoŕi zaite, gozartzera baño len; gurutzea eroatera, alaitasunera baño len.

3. Gogoko poztasuna ta alaitasuna, zein mundu-zalek eleukez pozik artuko, beti euki al ba'Jeikez?

4. Luŕeko poztasun guztiak eta aragikeriaren atsegiñak baño gogoaren poztasunak askoz andiagoak dira.

5. Luŕeko atsegin guztiak, ba, edo utsalak edo loyak dira.

6. Gogoarenak baŕiz, onoimenetatik erneak, eta biotz garbietan Jaungoikoak baŕenduak, alayak eta garbia"k dira.

7. Baña onango jaungoikozko pozaldietan beti norberak gura dauan lez iñor

be ezin gozartu leiteke,- ziltzaldiak luzarorako eztau izten-eta.

8. Gogo-nasaikeriak eta norbere buruan uste andia eukiteak, goiko ikertaldiari asko eragozten dautso.

9. Jaungoikoak ondo egiten dau atsegin-eskeŕa emotean,- baña gizonak txarto egiten dau, guztia eskeŕak emonda, Jaungoikoagandik lez ez artzean.

10. Augaitik Egileaganako esker txaŕekoak garealako, ta dana jatoŕizko ituŕiari ezarten eztautsagulako, eskaremaitzak gugan ugari eztira izaten.

11. Eskeŕak bear dan lez egiten dauzanari beti eskeŕa zor yako, ta apalari emon oi yakona aŕoari kenduko.

12. Biotz-damua kenduko daustan atsegiñik eztot gura.

13. Ta aŕokerira naroan goi-ikuspenik be eztot nai.

14. Goiko guztia be ba ezta deuna, ta gozo guztia ezta ona, ta gurari guztiak be eztira garbiak, eta kutun guztiak be Jaungoikoari etxakoz begiko.



15. Apalago ta bildurtiago, ta neure burua ukatzeko gertuago ipinten nauan eskeŕa pozik artzen dot.

16. Arturiko eskeŕaz irakatsia ta kendurikoaren astiñaldiaz jakin-azoa, bere buruari ezertxu ezarten ezta asartuko,- ostera, txiroa ta bilosa dala autortuko dau.

17. Jaungoikoarena dana Jaungoikoari emon egiozu, ta zeurea dana zeuretzat euki egizu,- au da, Jaungoikoari eskeŕagaitik eskaŕak egiozuz,- eŕua, baŕiz, zeurea dala-ta, eŕuari dagokion oben-nekea irabazi dozula jakin egizu.

18. Beti berengoan jaŕi zaite, ta gorengoa emongo yatzu,- gorengoa berengoa barik eztago.

19. Jaungoikoaren auŕean deun andienak diranak, euren eritxian txikienak dira.

20. Ta aintzatsuagoak diran neuŕiz, apalagoak be ba-dira.

21. Zeruko egiz eta aintzaz beteta dagoz, eta aintz utsalaren egaŕi eztira.

22. Jaungoikoagan sustartu ta sendotuta, ezetara be ezin leitekez aŕotu.

23. Ta arturiko on guztia Jaungoikoari ezarten dautsenak eztabez bilatzen alkaŕegandiko txaloak; ostera, Jaungoikoaren aintza baño eztabe gura, ta gauza guztien ganetik, bai euretan, bai deun guztietan Jaungoikoa aintzaldua izan dedila gura dabe, ta beti elburu oŕexetara zuzentzen dira.

24. Txikienean be esker-onekoa izan zaite, ta andiagoak artzeko gai izango zara.

25. Txikiena andiena dalakotzat, eta ezesgaŕiena berarizko etnokaritzat artu egizu.

26. Emolearen gaitasunari begiratu ezkero, ezertxu be txatxaŕa ta utsala danik eztirudi.

*27.* Goi-goiko Jaungoikoak emona ezta txikia.

28. Nekeak eta zigorkadak emongo ba'leuskuz be, eskeŕak egin bear geunskioz, berak laketuta guri jazoten yakun



dan-dana, beti gure osasunerako izaten da-ta.

29. Jaungoikoaren eskeŕa euki gura dauana, emon dautsanagaitik esker-onekoa, ta kenduagaitik eroapentsua izan bedi.

30. Biurtu daiten otoitz-egin bedi; ta galdu eztagian, arduratsua ta apala izan.

## XI ATZALBURUA

### KRISTO'liEN GURUTZ-7.ALi;AK CITXI DIRALA

1. Jesu'k orain zeruko bere bakaleŕiaren (eŕeiñuaren) maitatzale asko daukaz, baña gitxi bere gurutzea eroaten dabenak.

2. Atsegín-zale asko daukaz, baña atsekabe-zale gitxi.

3. Mairako lagun asko aurkitzen dauz, baña gitxi barau egiteko.

4. Beragaz guztiak poztu gura dabe, baña beragaitik zerbait gitxik jasan (sufridu) gura.

5. Ogia ebagi arte askok jaŕaitzen daut^e Jesu'ri, baña gitxik Nekaldiko (Pasiñoko) ontzitik edan arte.

6. Bere alatzak (mirariak) askok gurtzen dabez, baña gurutz-lotseari gitxik jaŕaitzen dautse.

7. Jesus askok maife dabe, baña ezbeaŕik eztatoŕen artean.

8. Bera askok goratu ta onesten dabe, beragandik atsegiñen batzuk artzen dagozan artean.

9. Baña Jesus ostenduten ba-yake, edo apur bateko izten badauz, murmu ka asi edo luŕa jota gelditzen dira.

10. Baña Jesu Jesu'gaitik eta ez norbere atsegiñagaitik maite dabenak, biotzeko atsekabe ta estualdi guztietan poztasunik andienean lez onesten dabe.

11. Ta bein be atsegiñik artuko ezpa' leukie be, beti goratu ta eskeŕak egin gurako leuskioez.

12. Ene, norberaren onuraz edo maitasunaz nastubako Josu'ganako maitasun utsak egingo leukena!



13. Beti atsegin-bila dabizanak, oŕeik danok ez ete díra benetan alogerekoak?

14. Beti euren onura ta írabazien atzean dabizanak, Kristo baño euren burua ez ete dabe maiteago?

15. Jaungoíkoari utsean (debalde) otsein-egin gura dautsana, non aurkitu geinke?

16. Gitxitan aurkituko da gauzaguztietatik biJostuta dagoan gizon gogozalea.

17. Gogoz benetako txiroa ta írazaki guztiak erantzita daukazana, nok aurkituko dau? «Uriñetatiko ta luŕaren atzenengo fokietako ondasun bikaña da ori» (1).

18. "Gizonak bere ondasun guztiak emongo ba'íeuz be» (2), oraindiño au ezta ezebe,- ta oben-neke andia beteko ba'Ieu be, au be gitxi da,- ta jakituri guztia euki aŕen be, oraindiño uŕin dago,- ta onoimen andia ta eraspen oso gartsua

fl) Prov. XXX, 10.
(2) C'aot. VJJI, 7.

eukiko ba'leu be, oraindiño uts andiak daukaz,- au da, beretzat bear-beaŕekoa dan bakaŕa eztauko.

19. Ta, zein da ori? Guztiak itxi, ta norbere burua be itxi, ta norberagandik urten, eta norbere buruagazko maitakeririk ez eukitea.

20. Ta egiteko guztia ezagutu dauanez eginda gero, berak ezertxu be eztauala egin siñistu begi,- anditzat edeŕetsi leikena ezpegi anditzat artu; baña benetan ezetarako eztan otseña dala esan begi, Jesukristo'k diñon lez: «Aginduta daukazuen guztia egin dagizuenean, esan egizue : otsein ezetarako-ezak gara» (1).

21. Orduan bai gogoz txiro ta azke izango al zara, ta Igarleagaz esan zeinke: «Bakaŕa ta txíroa nazalako» (2).

22. Baña bere buru ta enparauak itxi, ta berengo malan jartzen dana baño aberatsagorik, altsuagorik eta azkeagorik ezta iñor be.

(1) Luc. XVII, 10.
*(1)* Psalm. XXIV, 16.



XII ATZALBURUA

GUHUTZ DEUNAREN BIDE EDERRA

1. Askori gogoŕak deritxez itz oneik: «Zeure burua ukatu, artu zeure guŕutzea, ta Jesu'ri jaŕaitu egiozu» (I).

2. Baña askozaz be gogoŕago izango da azkenengo egunean itz oneik entzutea : «Nigandik uŕindu zaiteze, zorigaiztokuok, zoaze betiko sutara» (2).

3. - Ba orain gurutzearen itza gogoz enfzun eta jaŕaitzen dabenak, orduan betiko gaitzespen-itza (kondenaziñoa) entzuteko bilduŕik eztabe izango.

4. Jauna epaitzera etoŕi daitenean, gurutz-irudi au agertuko da zeruan.

5. Guruizean josiaren antzera bizi izan diran gurutzaren jopu guztiak, orduan Kristo epaikariagana uste andiaz uŕeratuko dira.

6 Zerura joateko bidea gurutzea da,

(1) Matth. XVI, 24.
(2) Matth. XVI, 41.

ta, zer dala-ta zara bildur gurutzea artzeko?

7. Gurutzean dago osasuna,- gurutzean dago arerioen aurka egiteko laguntasuna,- gtlrutzean dago goitiko samurtasunaren ituŕia,- gurutzean dago biotzaren sendotasuna,- gurutzean dago gogoaren poza,- gurutzean dago onoimenen ganburua,- gurutzean deuntasunaren ornitasuna?

8. Arimaren osasuna ta betiko bizitzaren itxaropena gurutzean baño eztagoz.

9. Zure gurutzea artu egizu ba, ta jaŕaitu Jesu'ri, ta betiko bizitzara elduko zara.

10. Bera (Jesus) auŕeratu zan bere gurutzea sorbaldan eroyala, ta zure alde gurutzean il zan; zuk be zeure gurutzea eroan, eta gurutzean iltea gura izan dagizun.

11. Beragaz batera ilten ba-zara beragaz biziko zara.



12. Ta bere neke-laguna izaten ba-zara, aintz-laguna be izango zara.

13. Gurutzean dago dana, ta gurutzean iltean aurkitzen da dana,- ta bízitzarako ta baŕuko egizko bakerako beste biderik eztago, gurutz deunaren eta egunoroko ilduraren bidea baño.

14. Zoaz nai dozun tokira, bilatu egizu gura dozuna,- ta gurutz deunaren bidea baño, ez goyan bide goragorik, ez bean eskieŕagorik, eztozu aurkituko.

15. Dana zeure gurariz eta eritxiz eratu ta atondu egizu, ta olan da guzti be, edo gura dozuna edo gura eztozuna jasan (sufridu) beaŕa baño eztozu aurkítuko,- ta onan beti gurutzea aurkituko dozu.

16. Edo gorputzean min eukiko dozu, edo ariman gogo-atsekabea izango.

17. Batzuetan Jaungoikoak itxiko zaitu, beste batzuetan urkoak jasanazoko dautzue,- ta au baño txaŕago dana, zett zeure buruarentzat nekegaŕi izango zara; ta ezetariko osagaŕi edo atsegiñaz

etzara azkatu edo arinduko, ta Jaungoikoak gura dauan artean. jasatea egoki yatzu.

18. Bere menpean jaŕi ta atsekabean apalago egin zaitezan, atsekabea atsegin barik jasaten ikasi dagizula, Jaungoikoak gura dau.

19. Kristo'ren antzekoak jasan dauzanak bestean, bere Nekaldia (Pasiñoa) onen biotzez inok be eztau nabaitzen (sentiduten).

20. Onelan gurutzea beti gertuta, ta edonon zuri itxaroten dago.

21. Edonora arin joanda be ezin zeinke iges-egin, naiz-nora ba-zoaz be zeure burua daroazulako, ta beti zeure burua aurkituko dozulako.

22. Zoaz gora, zoaz bera, zoaz aíera, zoaz baŕura, ta edonon gurutzea aurkituko dozu,- ta edonon be eroapena euki bearko dozu, baŕuko bakea euki ta betiko burestuna (koroia) irabazi gura ba-dozu.

23. Gurutzea gogoz ba-daroazu, berak eroan eta opa dozun elburura zuzenduko zaitu, ta eraen izan ez aŕen, antxe amaiEuko yatzu jasan-beaŕa.



24. Besterik eziñean ba-daroazu, leporatuko zamea astunago egiten dozu,- ta olan da guzti be eroan bearko dozu.

25. Gurutz bat baztertuten ba-dozu, ezbai barik, beste bat eta bear ba-da astunagoa aurkituko dozu.

26. ílkor batek be iges ezin egin izan dauanetik, iges egitea usle dozu?

*17.* Deunen artean nor egon zan luŕean gurutz eta lor barik?

28. Jesukristo gure Jaun berbera be bere bizitzaldian ordu baten etzan egon nekemin barik.

29. «Kristo'k (diño) nekea artu ta ilen artetik biztu, ta onan bere zeruan sartu bear izan eban» (!).

30. Gurutzaren bide edeŕa iŕxita, zer dala-ta zabiz beste bideen baten bila?

31. Kristo'ren bizitza osoa gurutzea ta nekea baño besterik etzan izan, eta zu zeuretzat atseden eta poz-bila zabiz?

(1) Luc.XXIV, 26.

32. Oker zabiz, oker zabiz loŕak jasatea barik beste ezeren bila ba-zabiz; biztaldi ilkor au zoritxaŕez beterik eta alde guztietatik gurutzez inguratuta dago.

33. Ta gogo-bidean norbait gorago igoten dan bestean, saŕitan gurutz astunagoak aurkituko dauz, erbesteko naigabea maitasunaz geitu egiten da-ta.

34. Baña onan era askotara atsekabetuta dagoana, atsegiñen batek arindu barik ezta egoten,- bere gurutzea eroanaz irabazi edeŕa geitzen yakola ba daki-ta.

35. Gurutzea gurez daroanari, loŕaren astuntasun guztia, jaungoikozko atsegiñaren itxaropenean biurtzen yako.

36. Ta aragia atsebakeakaz austen dan bestean, gogoa baŕuko eskeŕagaz sendotzen.

37. Ta batzuetan, Kristo'ren gurutzeaz bat eginda biziteko gurariak, atsekabe ta zoritxaŕak maite-azoaz, neke ta lor barik egotea gura ez izateraño sendo-



tzen dau; Jaungoikoaŕen neke geyago ta astunagoak jasan leikezan neuŕiz, Jaungoikoari begikoago yakola uste bai dau.

38. Eta egiten dauana eztau egiten gizonaren indaŕaz, aragi ausikoŕean onenbeste al dauan eta egiten dauan Kristo'ren indaŕaz baño,- gizonak berez goŕoto ebana ta iges-egiten eutsana esker oŕegaz orain gogo beroaz eldu ta maite dauala.

59. Gurutzea eroatea, gurutzea maite izatea,- gorputza ildurati ta menpetasunean ezitea; andikeríetatik iges-egitea, lotsagaŕiak pozik artzea,- norbere burua ezetsi ta besteak ezetsi dagiela gura izatea,- aurkakoak eta kaltegaŕiak jasatea ta luŕean zorionik ez gura izatea, gizonari etxako berezkoa.

40. Zuk zeure buruari begiratzen badautsazu, zeurez oŕelakorik ezingo dozu.

41. Baña ustea Jaungoikoagan badozu, berak sendotasuna zerutik bialduko dautzu, ta gizakeria (ínundua) ta aragia zeure menpean jaŕiko dira.

42. Ta siñismen-iskiluz jantzita, ta Kristo'ren gurutzeaz ezaugaŕituta ba-zagoz, zure etsai txeŕenari be bilduŕik eztautsazu izango.

43. Kristo'ren jopu on eta zintzo an-tzera, zu maite zinduzalako gurutzaldua izan zan Jaunaren gurutzea adoretsu eroateko.gertu zaite.

44. Biztaldi eŕukari onetan zoritxar eta neke asko eroateko gertu zaite; onan, edonora joan aŕen, Jesus zeugaz egongo da, ta edonon ostenduta be egal guztietan aurkituko dozu.

45. Onantxe izan bear be, ta gaitzen min eta naigabeetatik iges egiteko jasa-tea baño beste biderik eztago.

46. Jaunaren edontzitik gogotsu edan egizu, bere adiskide ízan eta bere zorio-nean zeure aldea euki gura ba-dozu.

47. Atsegiñak Jaungoikoaren eskue-tan ipiñi egizuz, eurokaz berak atsegin yakonez egin dagian.

48. Baña zu loŕak jasateko gertu zaite ta atsegin andiak diralakoan edeŕe-



tsi egizuz, neke guztiak zeuk jasan al ba'zenduz be, aldi onetako nekeak eure-kaz irabaziko dogun ain*t*zaren aldean ezer eztira-ta.

49. Kristo'aŕen a'tsekabea gozo ta atsegingaŕi yatzunean, ondo yoatzula siñistu zeinke, atsegin-tokia luŕean aur-kitu dozu-ta.

50. Jasatea astun yatzun artean, eta jasatetik igeska zabizan artean txarto yoatzu, ta edonora ba-zoaz be loŕak jaŕaituko dautzu.

51. Zure eginbeaŕa dan lez jasateko ta ilteko gertzen ba-zara, bereala obeto joango yatzu, ta bakea aurkituko dozu.

52. Ta Paul deunagaz irugaŕen zeru-raño jasoa, izango ba'ziña be, jasanbear barik ez zintzatekez izartgo.

53. «Neuk erakutsiko dautsadaz, diño Jesu 'k, neure izenaŕen jasan (suíridu) bear dauzanak» (1).

(1) Act. IX, 16.

54. Jesus maite izan eta beti berari otsein-egin gura ba-dautsazu, jasatea baño eztaukazu.

55. Kristo'ren izenaŕen zer edo zer jasateko gai ba'ziña, orixe bai zuretzat aintz andia izango litzakela, ta Jaungoikoaren deunentzat poz ugaria, ta urkolagunarentzat benetan jaŕaibide edeŕa!

56. Eroapena, danak ontzat emoten dabe, nai ta gitxik jasan gura dabela.

57. Bene-benetan Kristo'aŕen zeozertxu gogoz jasan bear zeunke, askok gizakeriagaitik astunagoak be jasaten dabez-eta.

58. Ilten bizitea egoki yatzula jakin egizu.

59. Ta norberentzat ilago, Jaungoikoarentzat geyago biziten asten da.

60. Kristo'gaitik zoritxaŕak eroateko eztana, zerukoak ulertzeko ezta gauza.

61. Bizitza onetan Kristo'aŕen pozik jasatea baño, Jaungoikoarentzat maitegaŕiagorik eta zuretzako osasungaŕiagorik eztago.



62. Ta zure eskuan ba'lego, Kristo' aŕen ezbeaŕak jasatea gurago izan bear zeunke, poztasun ugariakaz atsegindua izatea baño,- onelan Kristo'ren antzekoago ta deunen erakoago izango zintzake.

63. Gure irabazia ta gure bizitzaren auŕerakuntzea samurtasun eta atsegin askotan barik, neke ta lor andiak jasatean dago.

64. Gizonak zeru*r*a eroateko jasatea baño ezer osasungaŕiagorik eta onuragaŕiagorik ba'lego, Krísto'k benetan bere irakatsi ta egiñakaz erakutsiko euskun.

65. Bere ikasleai ta jaŕaitu gura dautsen guztiai, argiro gurutzea eroatera deitzen dautse, ta diño: «Norbaitek nire jaŕai etoŕi nai ba-dau, bere burua ukatu begi, ta bere gurutzea artu ta jaŕaitu beist» (1).

(1) Matth. XVI, 24.

66. Bein itzok irakuŕi ta ondo goznartu ezkero, azken-erabagia auxe izan bedi : «Jaungoikoaren bakaleŕian (eŕeiñuan) sartzeko, neke askoen artetik igaro bear dogula» (1).

(1) Act. XIV, 21.



# IRUGAŔEN IDAZTIA

## Barnko poztasunatzazkoa

### I ATZALBURUA

### ARIMA ZINTZOARI KRISTO'K BARRUAN DIRAUTSANA

1. «Nire Jaun eta Jaungoikoak nigan diñona entzungo dot» (1).

*1.* Jaunak itz egiten dautsala entzun eta Jaungoikoaren aotik pozezko Ítzak artzen dauzan arimea, zoriontsua da.

3. Jaungoikoagandiko suŕumuŕa entzun, eta luŕean ezetariko suŕumuŕai jaramonik be egiten eztautsen belaŕiak, zoriontsuak dira.

4. Atetik datoŕen abots-zaratea entzun ez, eta baŕuan irakasten dauan egiari entzuten dautsen belaŕiak, zoriontsuak dira.

(1) I'salin. LXXXIV, 9.

5. Atetikoentzat batuta, baña baŕutikoentzat zabalik dagozan begiak, zoriontsuak dira.

6. Baŕu-baŕuraño sartu, ta zerutiko egi ezkutuak jakiteko gertzen egunero ekin eta ekin daragoyenak, zoriontsuak dira.

7. Jaungoikoarenetan ekin, eta luŕeko eragozpenetatik uŕintzeko arduratzen diranak, zoriontsuak dira.

8. Oneik egiok, ene arimea, ondo goznartu ta aragi-ateak itxi egizuz, zure Jaun eta Jaungoikoak zugan diñoana etzun al dagizun.

9. Auxe diño zure maiteak: Zure osasuna, zure bakea ta zure bizitzea neu naz.

10. Neugaz egon zaite, ta bakea idoroko dozu.

11. Igeskoŕak itxi, ta betikoak biíatu egizuz.

12. Igeskoŕak zer dira ba, iruzurgaŕi batzuk baño?



13. Eta izaki guztiak zer on egingo dautzue, Egiíeak izten ba-zaitu?

14. Oŕegaitik guztiak itxita, zeure Egileaganako maitagaŕi *t*a zintzoa egin zaite, benetako zoriona jadetsi daikezun.

## II ATZALBURUA

### EGIAK GOGO-BARRUAN ÍTZ-ZARATA BARIK \TZ EGITEN DAUALA

1. GOGOZINTZOAK.—«Itz-egizu, Jauna, zure otseña-k entzuten dau-ta» (1).

2. «Ni zure jopu naz, adimena emon egidazu zure egiak jakin dagidazan» (2).

3. Nire biotza zure itzetara makurtu egizu,- zure itzak iñuntza lez jatsi bediz.

4. Bein baten Isŕael'go semeak Mois'eri esan eutsen : «Zeuk itz eiguzu ta entzungo dogu,- baña ez begisku itz egin Jaunak, bear ba'da ilgo gintzatekez-eta» (3).

5. Nik ez oŕelán, Jauna, nik ez oŕelan:

1) 1 Reg. III, 10.
*1)* Psalm. CXVIII, 125.
3) Exod. XX, 19.

Samuel igarleaz, ostera, apal eta biotz-biotzez daskatzut: «Itz egiztt, Jauna, zure otseñak entzuten dau-ta» (1).

6. Mois'ek ez beste igarleen batek ez begiste itz egin; zeuk, ostera, neure Jaun eta Jaungoikoa, iragarle guztien itz-eragile ta argitzale zarean ořek, itz egidazu,- aek barik zeuk bakařik irakatsi al daustazulako,- aek, bařiz, zu barik ezetarako be eztira.

7. Itz-zaratea bai egin leikie, baña gogoa eztabe emoten.

.8. Ederto-ederto itz egiteu dabe, baña zu ixildu ezkero, biotza eztabe ixiotzen.

9. Izkiak ba-dakařez, baña zer esan gura daben zuk azaltzen dozu.

10. Ezkutukiak (misterioak) ba-diño-ez, baña aditzea zuk irakasten dozu.

11. Aginduak bai ezarten dabez, baña aginduak beteten zuk laguntzen dozu.

12. Bidea erakusten dabe, baña ibil-teko zuk indartzen dozu.

13. Aek atetik bakařik egiten dabe,

(1) I Reg. III, 10.



baña zuk biotzean irakatsi ta argi egiten dozu.

14 Aek azala bustiten dabe, baña ugaritasuna zuk damozu.

15. Aek deadar egiten dabe, baña entzuleari adimena zuk damotsazu.

16. Ez beist ba, Mois'ek itz egin, zeuk baño, neure Jaun eta Jaungoiko, ta betiko egia zarean ořek; bařuz berotzen ezpa-nabe ta kanpotik baño irakasten ezpa-dauste, bear ba'da il eta onura barik gelditu enaiten,- eta itz entzuna ta eginbakoa, ezagutua ta maitatubakoa, siñistua ta betebakoa neure kalterako izan eztagidan.

17. «Itz egizu, ba, Jauna, zure otse-ñak entzuten dau-ta (1); betiko bizitzako itzak daukazuz-eta- (2).

18. Nire arimeari atsegiñen bat emon, eta bizikera osoa onduteko, ta zure betiko gorespen, aintz eta dedura-ko, ařen, itz egidazu.

(1) 1 Reg. III, 10.
(2) Joan. VI, 69.

## II ATZALBURUA

### JAUNGOIKOAREN ITZAK APALTASUNAZ ENTZUN BEAR DIRALA, TA ASKOK BEAR DAN BESTEAN EZTABEZALA GOZNARTZEN

1. JESUKRISTO'K. — Nire itz samur-samuŕak entzun egizuz, ene seme,- luŕeko jakitun eta ikastun guztien jakitea baño goragoko itzak. .

2. «Nire itzak gogoa ta bizitzea dira» (t), ta gizonen adimenaz eztira neurtu bear.

í. Atsegin utsaletan erabiltekoak eztira,- ixilean entzun eta apal-apal eta gurari biziakaz artzekoak baño.

4. GOGO ZINTZOAK. — Dabi'k esan eban : «Zorionekoa, Jauna, zeuk irakasten dautsazun gizona, ta zeure legearen jakitea zeuk emoten dautsazuna, egun txaŕetatik jaboten dozulako,- eta luŕean be bertanbera itxita ezta geldituko (2).

(1) Joan. VI, 64.
(2) Psalm. XCIII, 12.



5. JESUKRISTO'K.—Igarleai neuk, diño Jaungoikoak, irakatsi dautset asikalditik, eta oraindiño guztiai neuk itz egiten dautset; baña asko nire deya entzuteko sor eta gor dagoz.

6. Askok Jaungoikoari baño gizakeriari pozago entzun, eta Jaungoikoaren gurariari baño euren aragiaren iŕitsari pozago jaŕaitzen dautse.

7. Gizakeriak (munduak) aldikoŕak eta txikiak eskintzen dauz, eta ori ta guzti be poz-pozik otsein egiten yako; nik, ostera, sari bikain eta betikoak eskintzen dodaz, eta gizonenb iotzak nagi-nagi dagoz.

8. Gizarteari ta bertako jauntxuai otsein egiten yaken besteko ardureagaz, nok otsein eta men egiten ete daust?

9. «Lotsatu zaite, Sion, diño itxasoak» (1); eta zer dala-ta itaunduten badozu, entzun.

10. Sari uŕiagaitik bide Iuzea egiten

(1) Is. XXIII, *4*.

da,- betiko bizitzeagaitik, bafiz, askok oña baten be nekez jasoten dabe.

11. Irabazi zatafaren bila dabiz,- diru bat dala-ta batzuetan lotsagafizko auziak eukiten dabez,- uskeri bategaitik eta eskintza ziztriñagaitik gau ta egun nekatuta biziteko bildufik eztago : jbaña au lotsagafi! Ondasun iraunkofagaitik, bardiñik eztaukan sariagaitik, gorengo dedu (onore) ta azkenbako aintzagaitik apur bat nekatzeko be nagi dira.

12. Lotsatu zaite, ba, otsein alper eta zital ori; zu bizitzarako baño aek eriotzarako arduratsuagoak dira-ta.

13. Zu egiaz baño aek uskeriaz pozago dagoz.

14. Ta euren usteak batzuetan uts urten dautse,- baña nire eskintzak iñori be utsik eztautso egin, eta nigan ustea daukana ezer barik eztau izten.

15. Iñok azkeneraño ni maite nauala irauten ba-dau, agindu dodana emongo dot, esan dodana beteko dot.

16. Ni on guztien saritzalea ta jaun-



goiko-zalc guztien azteruale gogofa naz.

17. Nire itzak zure b.iotzean idatzi ta zoli goznartu egizuz,- ziltzaldian bear-beafezkoak izango yatzuz.

18. Irakurtean ulertzen eztozuna, ikustaldi-egunean ezagutuko dozu.

19. Nire autuak era bitara ikertu oi dodaz : Ziltzaldiz eta pozaldiz.

20. Ta egunoro irakaskizun bi daniotsedaz,- bata euren oitura gaiztoakaitik ag.raka egiñaz, eta bestea onoimenetan aufenatu-azoteko aolkatuaz.

21. Nire itzak entzun eta ezesten dauzanak, azken-egunean nok epaitu ba-dauko.

### F.RASPr.N-IíSKERRA F.SKATZBKO OTOITZA

1. GOGO ZINTZOAK.—Neure Jaun eta Jaungoikoa, nire on guztia zeu zara.

2. Ta nor ete naz ni zuri itz egiten asartzeko?

3. Ni zure otsein txiro-txiro ta ar ezesgafi bat baño enaz,- neuk dakidan

eta esaten asartzen nazan baño be ezeukiago ta ezesgaŕiago.

4. Gomutau zaite ba, Jauna, ezer enazala, ezer eztaukadala ta ezetarako enazala.

5. Zeu zara ona, zuzena ta deuna, ta beste iñor ez; zuk dana al dozu, dana emoten dozu, dana beteten dozu, utsik obendia (pekataria) izten dozula.

6. «Zure eŕukitasunak gogoratu egizuz» (1), eta zure eskeŕez biotza bete egidazu, zure egiñak utsik iztea eztozu gura-ta.

7. Bizitza negargaŕi onetan neure burua, zelan eroan al izango dot, zure eŕukiak eta eskeŕak sendotzen ezpa-nau?

8. Zure arpegia nigandik ez egizu aldendu, zure ikertaldia ez egizu belutu, zure atsegiña ez egidazu geroagutu, «nire arimea zure auŕean urbako luŕa lez egin eztaiten» (2).

9. «Jauna, zure naya beteten irakatsi

(1) Psalm. XXIV, 6.
(2) Psalm. CXLII, 6.



egidazu» (1), zure auŕean egoki ta apalki itz egiten irakatsi egidazu,- nire jakituria, ta benetan ezagutzen nozuna, ta ludia egin baño lenagctik, eta ni luŕean jayo auŕetik ezagutu ninduzuna, zeu zara.

## IV ATZALBURUA

### AUNGOIKOAREN AURREAN EGIAZ 6TA APAI.TASUNAZ ITZ EGIN BEAR DALA

1. JESUKRISTO'K. — Ene seme, nire auŕean egiaz ibili zaite, ta beti biotz bakunaz biíatu nagizu.

2. Nire auŕean egiaz dabilana jazoera txaŕetatik zaindua izango da, ta iruzurgiíe ta gaiztoen txarto-esanetatik egiak jabongo dau.

3. Egiak azkatu ba-zagiz, benetan azke izango zara, ta gizonen sustraibako esamesen ardurarik eztozu izango.

4. GOGO ZINTZOAK. —• Egia diñozu, Jauna.

(1) Psalm. CXLII 10.

5. Nigaz zuk diñozunez egin dagizula daskatzut. /

6. Zure egiak irakatsi beist, etaazkeneraño berak zainduko al nau.

7. Zalekeri ta maitakerietatik zure egiak azkatu ba-nadi, zugaz biotzeko azkatasun andiaz ibiliko naz.

8. JESUKRISTO'K. — Neuk irakatsiko dautzut, diño Egiak, nire auŕean zuzena ta atsegingaŕi dana.

9. Goŕoto ta damu andiaz gogoratu egizuz zure obenak, eta zure egite onakaitik ezer zareanik iñoz ez egizu siñistu.

10. Egiz obendia zara, ta griña askoen menpekoa ta eurakaz nastua.

11. Zu zeurez beti ezerezera zoaz; laster jausten zara, laster azpiratzen zaitue, laster artegatu ta kikiltzen zara.

12. Zure burua zer dala-ta goratu eztaukazu; baña bai zeure burua apalesteko zioak ba - daukazuz eta asko, ulertu zeinken baño askoz makalagoa zara-ta.



13. Egiten dozuzanetatik bat be ez egizu anditzat etsi.

14. Betikoa izan ezik, ezer be ez egizu euki anditzat, ez edertzat, ez aŕigaŕitzat, ezontzat, ez goikotzat, ez goragaŕitzat.

15. Guztien artean atsegingaŕien betiko Egia, ta gogaikaŕien zure zatartasun oso andia izan bekizu.

16. Zure griña gaizto ta obenai beste bildur-izan, ezetsi ta igesi bear dautsazunik eztaukazu; edozeren kalteak baño iguingaŕiago izan bear yatzuz-eta.

17. Batzuk eztabiz zintzo nire auŕeati; jakingura ta aŕokeriak eraginda nire ixilekoak jakin eta Jaungoikoaren baŕukoak ulertu gura dabez,- baña euren buruaren betiko bizitzeaz arduratu barik.

18. Oneik euren aŕokeri ta jakingureagaitik, ni euren aurka naukela, ziltzaldi ta oben andietan jausten dira.

19. Jaungoikoaren epayai bildur izan egiezu; Alguztidunaren asaŕeak ikaratu bezagiz.

20. Jaungoikoaren egiñak eztabaidaka erabiíi gura barik, ostera arakatu egizuz zure gaiztakeriak, eta egin dozuzanetako utsak, eta alperkeriz bete barik itxi dozuzan egite onak.

21. Batzuk euren eraspena idaztietan baño eztauke, beste batzuk irudietan,- norbaitzuek, bańiz, ezaugańi ta ikusgańi agirietan.

22. Batzuk aoan ba-nakańe, baña gitxik biotzean.

23. Beste batzuk, ostera, adimen argi ta biotz garbiaz betikoetara beti antziz biurtzen dira; lureko gora-berak entzutea nekegańi yake, gorputzaren beańizanen ardurea samintasunaz artzen dabe, ta egi utsak euren bańuan diñona aituten dabe,- egi ońek, lurekoak ezetsi ta zerukoak maite izaten, gizakeria (mundua) gońoto izan eta zerua gau ta egun gura izaten irakasten dautse.



## V ATZALOURUA

## JAUNGOIKOZKO MAITASUNAREN EGINTZA ARRIGARRIA

1. GOGO ZINTZOAK. — Onesten zaitut zeruko Aita, nire Jaun Jesukristo'ren Aita, ni txiro onetzaz gomutatzea gura izan dozulako.

2. Eńukitasunen Aita ta atsegin guztien emole ońi, eskeńik asko,- ni atsegin bat artzeko gai enazala, nozikpein zure atsegiñaz poztuten nozulako.

3. Zure Seme bakańagaz eta Goteun (Espiritu Santu) poztzaleagaz, amaibako egunetan beti onesten eta goresten zaitut.

4. Ene ba'da, nire Jaun eta Jaungoikoa, nire maitatzale deuna, zu nire biotzera etońiko zareanean, nire bańuak poztu egingo yataz.

5. «Zu zara nire aintza ta nire biotz-

aren poza (1); zu nire itxaropena taatse-kabe-aldirako igestokia» (2).

6. Baña maitasunean makala ta onoimenetan ornidubakoa nazalako, zeuk sendotu ta poztu bear nozu.

*7.* Augaitik saŕiago ikertu ta ikasbide onak irakatsi egidazuz; griña gaiztoetatik azkatu nagizu, ta bidebako zalekerietatik biotza sendatu egidazu, baŕuz osatuta ta ondo garbituta maite-izateko gayago, jasateko sendoago ta irauteko egonkoŕago izan naiten.

8. JKSLIKRISTO'K. —• Maitasuna gauza andia ta benetan ondasun on-ona da,- astuna dana berak baño eztau arintzen, eta gorabera guztiak bardin daroaz.

9 Zamea (kargea) zama barik daroa ba, ta gaŕatza dana eztitu ta gozotu egiten dau.

10. Jesu'ganako maitasun andikiak egite andietara bultzegin, eta beti orniduena gura izatera eragiten dau.

(1) Psalm. CXVIH, 111.
*(2)* Psalm, LVUI,



11. Maitasunak beti goyan egon gura dau, ta zataŕetan eztau gelditu gura.

12. Maitasunak azke ta luŕeko zalekeri guztíetatik uŕin egon gura dau, bere ikusmena lausotu barik, eta onura aldikoŕagaitik naspildu barik eta kalte bategaitik jausi barik irauteko.

13. Maitasuna baño ezer gozoagorik, ez indartsuagorik, ez jasoagorik, ez zabalagorik, ez atsegingaŕiagorik, cz beteagorik, ez oberik, ez*t*ago ez zeruan ez luŕean,- maitasuna Jaungoikoagandik jayo da, ta guztien ganetik Jaungoikoagan baño ezin atsedendu.

14. Maitatzalea egaz, ariñ eta pozik dabil; azke da, ta eztago lotuta.

15. Guztia guztiaren ordez emoten dau ta guztia guztietan dauko,- guztien ganetik on guztia darion eta guztia emoten dauan onik onenean atsedenduten da.

16. Emokariari begiratu barik, on guztienganetik emoíeagana biurtzen da.

17. Maitasunak saŕitan erarik eztaki,-

baña eia guztien ganetik irakitan egotei da.

18. Maitasunak zamarik (kargarik) eztau asmatzen, nekeak ezereztzat daukaz,- al dauana baño geyago gura dau, ezin leikenik eztiño,- dara al dauala ta egoki yakola uste dau-ta.

19. Danetarako da ona; ta maite eztauana kikildu ta jausten danetan, maitasunak bete ta egin oi dauz.

20. Maitasuna ernai dago, ta lotan lorik eztau egiten, nekatuta ezta neka-Izen, atsekabetuta ezla naigabetzen, ikaratuta ezta laŕitzen; gar bizi ta zuzi sutualezgcra igon eta eskier igaroten da.

21. Iñok maite ba-dau, itz onek esan gura dauana ba-daki : Jaungoikoaren belaŕietan deadar andia da arimearen gurari gartsu au: Neure Jaungoiko, neure maitasun ori, zu osorik neuretzat, eta ni osorik zeuretzat.

22 Goco ZINTZOAK. — Maitasunean zabaldu nagizu, maite izatea ta maitasunean urtu ta uger egitea gozo-gozoa



*gi*a ^ ko ** gozar t2en ikasi

23- Biotzaren *bem* r, • •
gandik urt en.eta 6ta' m °/a antas «"az neu-
dau st. ""'-asunal. *eutsiko* a,

8-antz z„rijaŕai, St- -bestu begit/
°*M* n-re ari mea *m* ^ 8 ' t Z U t > e"e n laite
****> goresp en UanaZ ***** dala

2e «gan maitei2an £* ma,te «ituenak
a^t **-datoŕe** nmait **t** g , da.a,a' 2^'ld'^
dauanl e2. Unn'e ea' g --!gintze-1

3°- *J'SUKRISTO'K* — M •
21'"doa, iaungoiko-zal. T aSUnabizko^

esk" - 2a balataadLe t V ' ZoaʼZUra'
ezta berekoya. 3da'taf ñoz be

^-a^^-noibadab,

ezta uskeriak bilatzen dauzana,- bafiz, eratsua, garbia, egonkofa ta baketsua da, ta zentzun guztiak zaintzen dauz.

29. Nagusiaren menpeko ta esanekoa da maitasuna; bere buruarentzat utsal eta ezesgafi, ta Jaungoikoarentzat eraspentsu ta esker - onekoa, beragan itxaron eta uste dauala Jaungoikoa gozo etxakonean be, maitasunean neke barik ezta biziten.

30. Edozer jasan eta maitearen guraria egiteko gertuta eztagoanak, maitatzale-izena be eztau irabazi.

31. Maitaleak maiteafen gogofak eta latzak gogoz eroan bear dauz, eta aurkazko jazoeretan be maiteagandik eztau alde egin bear.

## Vf ATZALBURUA

### BENETAKO MAITATZALLEAUENr EZAUBIDEA

1. JESUKRISTO'K.— Oraindiño etzara maitatzale sendoa ta zufa, ene seme.



2. GOGO ZINTZOAK.—Zegaítik ez, Jauna?

3. JESUKRISTO'K. — Ezbear txikafagaitik be asi dozuna bertanbera izten dozulako.

4. Maitatzale sendoa zíltzaldian gogor dago, ta arerioaren maltzurkeriak eztau siñisten-

5. Eta zorion-aldian atsegin nayakon lez, zoritxar-aldian enayako iguin.

6. Maitatzalearen emona baño ernoíearen maitasuna geyago obesten dau maitatzale zufak.

7. Emokaríari baño biotzarí geyago begiratzen dautso, ta emon dautsozanak maitea baño berago ipinten dauz.

S. Maitatzale andikia ezta atsedenduten emaitzean; emaitz guztien ganetik neugan baño.

9, Ofegaitik guztia ezta galdu, nai ni nai nire deunak zuk gurako zeunken lez gozo asmetan ezpa-gozuz be.

10. Nozíkpein zeugan nabaitzen dozun arako gurari on eta samufa, bafuan

daukazun eskeŕetik yatortzu, ta zeruko abeŕiaren auŕetiko milikadea da.

11. Baña oŕetan etzaite laŕegi jaŕi, joan eta etoŕi egiten da-ta.

12. Baña gogoko zirkin gaiztoen aurka gogor egitea, ta txeŕenaren (diabruaren) eragikunak baztertzea, onoimen eta irabazi ugariaren ezaugaŕia da.

13. Atetik yatortzuzan irudipenak, edozetzaz ba-dira be, etzagiela artegatu.

14. Zure asmoari gogor eutsi, ta Jaungoikoaganako asmo zuzena euki egizu.

15. Iñoz bat-batean gora jaso, ta bertatik biotzaren txatxarkerietara biurtzen ba-zara be, ori ezta izan ames utsa.

16. Oŕelakoen egiíea baño jasalea geyago zara-ta, naigabetzen zaituen artean eta gogor egiten dautsezun artean, eztozu galtzen, irabazi baño.

17. Jakin egizu aintziñako arerioak egiñalak egiten dauzala zuk onerako daukazun guraria eragozteko, ta eraspenaren egikizunetatik zuri alde-azoteko;



esaterako deunakazko eraspera, nireNekaldiaren (Pasiñoaren) gomuta biozkoŕa, obenen (pekatuen) damu onurakoŕa, biotza zaíntzea ta onoimen - bidean auŕeratzeko asmo sendoa kendu gura dautzuz.

18. Zu aspertu ta bildurtu zaitezan, eta otoítza ta irakurte deunak itxi dagizuzan, oldozpen zatar asko bururatzen dautzuz.

19. Iguin yako autortze apala, ta al ba'Ieu, Jaunartzea izterano eroango zindukez.

20. Oŕeri ez egiozu siñistu, ta ez egiozu jaramoník egin,- iruzur egiteko Jakirioa saŕitan ezarten ba-dautzu be.

21. Oldozpen zatar eta loyak dakartzunean, berari ezaŕi eŕua,

22. Esan egiozu : Ken emendik, gogo zikin ori, lotsatu adi zorigaíztoko ori; zikin-zikiña az benetan, belaŕira oŕeik diraustakazan ori.

23. Uŕin nigandik iruzurgile gaizto-gaizto ori: nigan zer - tkusirik eztok

izango,- nigaz Josu egongo dok gudari kementsu bat lez, eta i lotsatuta egongo az.

24. Iltea ta edozein neke eroan gura-go yoat, iri bayetza emon baño.

25. Ixildu adi ta tautik ez egik egin,- geyago eztoat entzungo, ziri ta ziri ekingo ba-daustak be.

26. «Nire argia ta nire osasuna Jaun-goikoa dok, ta nori izango yautsat bildur» (1). «Nire aurka gudarozteak ba'yatozak be, nire biotza eztok bildur izango (2). Jauna dok nire gaizkatzalea (Salbagilea» (3).

27. Gudari (soldadu) onaren antzera buŕukatu egizu,- ta alakoen baten zure makaltasuna dala-ta jausten ba-zara, ustea nire esker ugariagoan ezaŕita, lengoak baño indar sendoagoak artu egizuz, eta atsegin utsal eta aŕokeritik uŕindu zaite.

M\ D I VVW. '

(1) Psalm. XXVL, 1.
(2) Psalm. XXVL, 3.
(3) Psalm, XVLLL, 15,



28. Augaitik amaikatxuk bide zuzena galtzen dabe, ta batzuetan itsukeri osatu eziñeraño jausten dira.

29. Zoro aŕotzen diranen jauste au, betíko apaltasun eta ardura geyagorako izan bekizu.

## VII ATZALBURUA

### RSKERRA APALTASUNAREN ZAIPEAN BSTALDU BEAR DALA

1. JFSUKRISTO'K.-—Ene seme, eraspen-eskeŕa estaltzea, ta zeure burua ez gora-tzea, ta beratzaz laŕegi itz ez egitea, ta asko ez estea obe ta eskieŕago yatzu,- zeure burua, ostera, ezetsi egizu ta eskeŕa irabazi barik emon dautzuelako bildur izan zaite.

2. Biotzaren oŕelako zaletasunari laŕegi etxako eutsi bear, bestera be laster aídatu leike-ta.

3. Esker-aldian gogoratu egizu, esker barik oso gaxo ta ezeuki izaten zareala.

4. Gogo - bizitzaren auŕerakuntzea, atsegin-eskeŕaz zagozanean baño, esker

oŕen kentzea be apal, burua ukatuta ta eroapenaz eroatean obeto daukazu; ori gora-bera otoitz-ardurean nagitu barik, eta egunoroko egite onak egiten dozuzala, zuk al dozuna ta dakizuna alik gogorik onenaz egizu, ta gogoan legortasuna ta estutasuna nabaitu aŕen, etzaite alpertu.

5. Gauzak euren gogora jazoten etxakezanean beingoan artegatu edo nagitzen diranak, asko izan oi dira.

6. Gizonak eztauko beti bere bidea bere eskuetan,- Jaungoikoari dagokio berak gura dauanean, nai dauan neuŕian ta nai dauanari ta berak gura dauan lez poztutea.

7. Zentzunbako batzuk, euren txatxartasunaren neuŕia gogoratu barik eta adimenaren esanari barik biotzaren gurariari jaŕaituta, al eben baño geyago egin gura ebelako, eraspen-eskeŕagaitik euren burua galdu eben.

8. Ta Jaungoikoak gura eban baño



andiagoetarako asartu ziraJako, eskeŕa beingoan galdu eben.

9. Euren abia zeru goyan ipiñi ebenak, txiro ta matxargelditu ziran,- onelan apaletsita ta txirotuta, nire egapean itxaroten, eta ez euren egoakaz egaz egiten ikasi egien.

10. Oraindiño Jaungoikoaren bidean asibaŕiak eta ezjakiñak diranak, zuŕen esanakaz zuzendu ezik, bidea eŕaz galdu ta ondatu leitekez.

Jf. Dakienai baño norbere eritxiari jaŕaitu gurago ba-dautse, ta euren eritxitik alde-egin gura ezik, azken aŕiskutsua izango dabe.

12. Euren ustez jakitunak diranak, gitxitan eroaten dabe apakasunaz euren artezkari bestenorbait izatea.

13. ApaJtasunaz gitxi jakitea ta adimen uŕia eukitea obe da, aŕokeriaz jakiturizko ondasunak eukitea baño.

14. Aŕotuko zindukezan asko baño, gitxi eukitea óbe dozu.

15. Lengo ezeukitasuna ta eskiñiko

eskeŕa galtzeko Jaungoikoaren bildur garbiaz aiztuta, bere burua oso-osoan atsegiñari emoten dautsanak eztiardu bear dan zurtasunaz.

16. Edozein naigabe ta neke-aldian lasteŕegi kikildu, ta bear dan usteaz neugan itxaroten eztauanak, onoimen-gayetan eztaki gauza danik.

17. Bake-aldian eskieŕegi égon gura dauana, saŕitan guda-aldian (geŕa aldian) luŕa jota ta bildurtuta egon oi da.

18. Zure burua beti apal eta txikitzat eukiten, eta zure gogoa ondo ezi ta aztertzen ba'zenki, aŕisku ta obenetan oŕen laster ez ziñateke jausiko.

19. Argia aldenduko danean izango dana, gogo-bero aldian gogoratzea onu ona dozu.

20. *Au* jazoten danean, argia baŕiro be etoŕi leiketzula gogoratu egizu,- argi ori apur batean zure ardurarako ta nire aintzarako kendu neutzun-eta.

21. Oŕelako neke-aldia askotan onuragaŕiago da, gura dozun guztia beti zeure gogora eukiko ba'zendu baño.



22. Irabaziak eztira neurtu bear ikusketa edo gogo-atsegin asko eukiteaz, ezta Idazti deunean jakitunago izateaz be, ezta goragoko malan jarteaz be; baña egizko apaltasunean sustartuta, ta jaungoikozko maitasunez beteta badago, eta beti garbi ta danetan Jaungoikoaren aintzaren bila ba-dabil, eta bere burua ezerezízat ba-dauko ta biotzez ezesten ba-dau, ta goratzea baño besteak be ezetsi ta apaletsi-azo dagiela gurago izatean dira irabaziak,

## VIII ATZALBÚKUX

### IAUNGOIKOARE.N[1] AURRFAN NORBFRL BURUA ZATARTZAT ARTZUA

1. GOGO ZINT/OAK.—«Aulsa ta eŕautsa izan aŕen be, nire Jaunari itz egingo dautsat- (1).

(1) Gen. XVIIí, 27.

2. Zerbait geyago nazalakoan ba' nengo, oŕa or zu nire aurka zagoz, eta nire gaiztakeriak diñoen egizko ziñalpena ezin ukatu neinke.

3. Baña nire burua apaletsi ta ezereztu, ta izen andiko izatetik igesiko ba' neu, ta autsa nazan ezkero, neure burua austuko ba'neu, zure eskeŕa nire alde izango da, ta zure argia nire biotzari auŕeratuko yako,- ta andi - ustekeririk txikiena be, nire ezereztasunean ito ta betiko ilgo da.

4. Antxe erakusten daustazu zer nazan, zer izan nintzan eta zetara eldu nazan : ezer enazala, ta nik enenkian:

5. Ni neurearen jaube izten ba-nabe, ezereza ta makaltasun berbera naz.

6. Baña une batean begiratzen badaustazu, ber-bertatik indartu ta poz baŕiaz beteten naz.

7. Eta ni neurezko astuntásunaz beti berantza noan au, zuk oŕen bat-batean eragitea ta oŕen samur laztantzea, oso aŕigaŕi da.



8. Zyre maitasunak egiten dau au, auŕetiz esker-utsez gertu, ta bear-izan askotan lagundu, ta aŕisku andietatik zaintzen nauala,- ta egia esateko, zenbatu ezin beste gaitzetatik jaboten nauala.

9. Neure burua oker maite izanaz galdu naz ba, eta zeu bakaŕik bilatu ta garbi maite izanaz, neure burua, baita zeu be aurkitu dodaz, eta maitasunak eraginda sakonago ezereztu naz.

10. Zuk ba, biotz bigun-bigun oŕek, irabazi dodan baño geyago, ta nik itxaron eta eskatzen asartzen nazan baño geyago egiten dozu nigaz.

11. Onetsia izan zaitela, nire Jaungoiko ori, ni ezer onik artzeko gai enazala, zure esku-zabal eta azkenbako ondasunak, esker-gaiztokoai ta zugandik uŕin dagozanai be, eten barik on egiten dautse-ta.

12. Zugana biurtu gagizuz, esker onekoak, apalak eta jaungoiko-zaleak izan gaitezan : gure osasuna, indaŕa ta sendotasuna zeu zara-ta.

IX ATZAI.BUIÍUA

CAllZA GUZTIAK r.I.HURURA LETZ JAUNGOIKOA-GANA ZUZF.NDU lil-AR DIRALA

1. JESUKHISTO'K.—Ene seme ori, zure elburu nagusi ta azkenengoa neu izan bear nayatzu, benetan zorionekoa izan gura ba-dozu.

2. Asmo onegaz garbituko da, sańitan zure bururantz eta.jrazakietarantz txarto makurtu oi-dan zure guraria.

3. Ezetan zure buruaren bila ba-zabiz, beingoan kikildu ta legortzen zara.

4. Augaitik guztiak auŕenen neugana zuzendu egizuz, emon dodazana neu naz-eta.

5. Bakotxa onik onenagandik dariotzat euki egizu,- ta augaitik dan-danak, euren jatońia neu nazan ezkero, neuri ezańi bear yataz.

6. Txikiak eta andiak, txiroak eta aberatsak ituńi bizitik lez, ur bizia neugandik ateraten dabe,- ta niri euren gurez eta gogo onez otsein egiten daustenak, esker-ordez, eskeńa artuko dabe.

7. Baña neugan barik norbere burua goretsi, edo norberaren onen batean gozartu gura dauana, ezta sendotuko benetako poztasunean, ezta nasaituko bere biotzean- ostera, askotara eragotzi ta lańituko da,

8. Onik zuregandikoa danik ez egizu uste, ta gizon bateri be onoimenik ez egiozu ezańi,- guztia, ostera, bera barik gizonak ezebe eztaukan Jaungoikoari enion egiozu.

9. Dan-dana neuk emon neban, eta bańiro dan-dana euki gura dot,- eta eske-ńak egítea estu-estuan agintzen dot.

10. Ańopuzkeria uxatzen dauan egia au.xe da.

11. Ta zeruko eskeńa ta egizko maitasuna gogoan sartzen da-dira, ez bekaizkeririk, ez biotz-estutasunik, ez norberaganako maitakeririk ezta izango.

12. Jaungoiko-maitasunak guztia ga-

raitu, ta aŕimearen indar guztiak zabaldu egiten dauz.

13. Ondo aditzen ba-dozu, neugan baño etzara poztuko, neugan baño ez-tozu itxarongo : «Jaungoikoa izan ezik iñor be ona ez da-ta» (1). Bera da goral-gaŕiena ta guztietan onetsi bear dana.

## X ATZALISURUA

### GIZAKERIA (MUNDUA) EZETSI EZKERO, IAUNGOIKOARI OTSEIN EGITEA GOZO OALA

1. Goco ZINTZOAK.— Orain baŕiro, ene Jauna, itz egingo dot eta enaz ixilduko,- zeruan dagoan nire Jaungoiko-aren, nire Jaunaren eta nire Bakalduna-ren (eŕegearen) belaŕietan esango dot:

2. «Ene Jauna, zure bildur diranen-tzat ezkutatu zendun gozotasuna bai ba'dala ugaria» (Q).

(1) Luc. XVIII, 19.
(2) Psalm. XXX, 16.



3. Eta zer izango ete-zara inaite zai-tuenentzat, eta zer biotz-biotzez zure moŕoitzean daragoyoenentzat?

4. Zu maite zaituenai emon oi dautsezun zutzazko ikusketa, benetan esan-eziña da.

5. Onetan batezbere, erakutsi daus-tazu zure maitasunaren gozotasuna: enintzanean egin ninduzulako, ta zugan-dik uŕin bide barik nenbilala, zu otsein-tzeko zeuganatu ninduzulako^ ta zeu maite izateko agindu zeunstalako.

6. Betiko maitasunaren ituŕi ori! zutzaz zer esango dot?

7. Zutzaz zelan aiztu neinteke, galdu ta ondatu nintzanean be, nitzaz gomuta-tzeko on-ona izan ba-zayataz?

8. Uste neban baño eŕuki geyago izan dozu zure moŕoi onentzat, eta zure eskeŕa ta adiskidetasuna irabazi dodan baño geyago emon daustazuz.

9. Esker onen ordez, zuri zer biur-tuko dautzut?

10. Guztiai etxake einon ba guztiak

itxita, gizakeriari ukatu ta lekaide-bizitzea artzea.

11. Gauza andia ete-da ba, irazaki guztiak Otsein dozuzan oŕi otsein egitea?

12. Zu otseindu beaŕak enauaŕitzen; baña onen txiroa ta gai-eza nazan au, zuk otseintzat artu ta zure kutunakaz batzea bai da andi ta aŕigaŕi.

13. Ona emen daukadazan eta zuri otsein egiteko darabildazan guztiak zeureak dira.

14. Baña bestera jazoten da t zuk niri geyago otsein egiten daustazu, nik zuri baño.

15. Zuk gizonaren otsein izateko egin zcnduzan zeru ta luŕak gertu dagoz, eta agindu zeuntsena egunoro egiten dabe.

16. Baña au gitxi da, gotzonak (aingeruak) be gizonen moŕotzarako ipiñi zenduzan-eta.

17. Baña oneik askoz goitzen dauz, zeu zerori gizonaren moŕoi izan gureak, eta zure Gorputza berari emongo zeuntsala agintzeak.



18. Mila ta míla emokari onein ordez, zer emon daiketzut?

19. Nire bizitzako egun guztiak zure moŕoítzean iraungo ba'neuz!

20. Ene ba'da, gitxienez egun batean bear litzaken otseintzea egiteko gauza ba'nintz!

21. Benetan otseintze guztiak, dedu guztiak eta betiko gorespenak zeuri zor yatzuz.

22. Bene-benetan zeu zara nire Jauna,-ni baŕiz, indar guztiak zu otseindu bear zaituan, eta zu goresten iñoz be aspertu bear eneuken moŕoitxua naz.

23. Onantxe nai ta onantxe gura dot,-eta niri uts yatana, aŕen, zeuk bete egizu.

24. Zuri otsein-egitea ta gauza guztiak zure ordez ezestea, gorespen eta aintz andia da.

25. Egiz, esker ugaria eukiko dabe, euren burua zure joputz deun deunean jatten dabenak.

26 Zure maitasunaŕen aragiaren atseginkeri guztiak ezesten dabezanak,

Goteuna'gandiko (Espiritu Santuagandiko) atsegin gozo-gozoa idoroko dabe.

27. Gogoaren azkatasun andia jadetsiko dabe, zure izenagaitik bide estuan sartu ta luŕeko gauzen ardurea baztertzen dabenak.

28. Egiz gizona azke ta deun egiten dauan Jaungoikoaganako joputzea, bai ba-da atsegingaŕi ta eztitsua!

29. Lekaideen joputz edeŕa; zuk gizona gotzonen (aingeruen) antzeko, Jaungoikoarentzat otzangaŕi, txeŕenarentzat (diabruarentzat) ikaragaŕi ta kristiñau guztientzat jaŕaigaŕi egiten dozu!

30. Joputz laztangaŕi ta beti opagŕia,- zugaz onik gorengoena irabazi ta atnai barik iraungo dauan pozaeskuratzen da!

## XI ATZALBURUA

### BIOTZEKO GURARIAK AZTERKATU TA E7.1 BEAR DIRAI.A

1. JESUKRISTO'K. — Ene seme, ondo ikasi eztozuzan asko, ikasi bear dozuz oraindiño.



2. GOGO ZINTZOAK.— Zeintzuk dira oŕeik, Jauna?

3.—JESUKRISTO'K.—Zure gurariak oso-osorik neure gurean ezaŕi dagizuzala, ta zeurekoya barik nire gurarien egile zolia izan zaitezala.

4. Gurariak saŕitan berotu egiten zaitue ta indartsu eragin,- baña begiratu egizu nire gorespenagaitik ala zure onureagaitik igitzen ete zarean.

5. Nik eraginda ba-diarduzu, edozetara aginduta be, zu pozik egongo zara.

6. Baña zure asmoan zeure buruaganako maitakeri apuŕik ostenduko ba'litz, oŕa or zu eragotzi ta astuntzen zaituana.

7. Begira, ba,- neuri itandu barik etoŕi yatzun gurarian uste Iaŕegi ez ezaŕi, lenengoan atsegin emon eutzunaz, eta obea zalakoan gura izan zenduanaz, gero damutu ta atsekabetu etzaitezan.

8. Ona dirudian edozein gurariri etxako beingoan jaŕaitu bear, eta gurariaren aurkako dirudianetik be, lenengo ikusian, ezta igesi bear,

9. Batzuetan gogoa gurari ta biozkada onetan ezitea egoki da, batzuen eta besteen ekiñakaz gogo-batutasuna galdu eztagizun, eta zure zentzunbakokeriakaz iñori jausi-azo eztagiozun,- edo norbaitek aurka egiten dautzulako, bereala artegatu tajausi etzaitezan.

10. Nozikpein aragikeriarí gizonarauz gogor egin bear yako, ta aragiak gura dauanari edo gura eztauanari etxako jaramonik egin bear,- gura ezta be, gogoaren menpean egon daiten ardura geyago artu baño.

11-. Ta edozetarako gertu, ta gitxigaz asetu ta ezerezkeri batzukaz pozik egon, eta letorkioken edozein neke ixilik eroaten ikasi arte, zigortu ta joputzean erabili bear da.

## XII ATZAI.BURUA

### EROAPENARI EKITEA TA ARACI-IRRITSEN AURKAKO BURRUKEA

1. GOGO ZINTZOA'K.—Jaun eta Jaungoikoa, dakustanez eroapena bear-beaŕekoa yat, bizitza onetan zoritxar asko jazoten dira-ta.



2. Bakean biziteko edozetara jardun aŕen be, nire bizitzea guda ta min barik ezin daitekelako izan.

3. JESUKRISTO ' K. — Olantxe da, ene seme.

4. Baña zuk ziltzaldibako ta atsekabebako bakea bi'atzea eztot gura,- baña askotariko naigabeetan erabilia, ta zoritxar askotan egiztua izanda gero, benetako bakea idoro dozula uste egizu.

5. Asko ezin jasan zeinkezala esango ba'zendu,- gero garbitokiko (purgatorioko) sua, zelan jasango dozu?

6. Gaitz bien artean beti txikaŕena autu bear da.

7. Ekin, ba, oraingo nekeak Jaungoikoaŕen eroapenaz jasaten, gero betiko oñazeotatik igesi al dagizun.

8. Gizakeri-zaleak ezebez, edo gitxi baño eztabela jasaten uste dozu?

9. Guri - gurienen bizitzea arakatu aŕen be, olakorik eztozu. aurkituko-

10. Baña, diñozu i atsegin asko daukiez eta euren gurarien neuŕira bizi dira, ta origaitik daukiezan ezbeaŕai jaramon gitxi egiten dautse,

11. Oŕelan dala emon daigun; nai daberia euki begie. Baña, noz arte iraungo dautsela uste dozu?

12. Gizarteko ugaritasunetan dagozanak kea lez ondatuko dira, ta igaro diran pozaldien gomutarik be ezta izango.

13. Baña bizi diran artean be pozaldi oŕeitan samintasun, iguintasun eta bildur barik eztira bizi.

14. Atsegiña sartzen yaken berbertatik, saŕitan min-nekea be artzen dabe.

15. Zuzen egiten da eurakaz,- atseginbila ta jaŕai, oker dabizan ezkero, lotsa ta gaŕaztasun barik eztagiezala euki.

16. Ene, oso labuŕak, guzurtiak, bidebakoak eta zataŕak dira atseginkeri guztiak!

V7. Baña mozkortuta ta itsututa dagoz eta eztabe ulertzen,- eta zentzunbako abereak lez, bizitza ustelkor onen atsegin apuŕagaitik arimea iltera ioten dabe.



18. Oŕegaitik zuk, ene seme oŕek, «aragiaren iŕitsari ez egiozu jaŕaitu, ta zure gogotik egotzi egizuz» (1). «Jaunagan atsegindu zaite, ta zure frotzak eskatzen dauana berak emongo dautzu» (2).

19. Benetako atsegiña artu ta nik ugariago poztutea gura ba-dozu, ona emen : luŕeko gauza guztiak ezetsi ta atsegin erkin guztiak zugan ebagitean izango da zure zoriona, ta atsegin betea emongo yatzu.

20. Ta izakietatiko atsegin guztietatik uŕintzen zarean neuŕiz, nigan atsegin samuŕagoak eta indartsuagoak idoroko dozuz.

21. Baña onelako atsegiñetara etzara

(1) Eccli. XVIII, 30.

(2) Psalm. XXXVI, 4.

elduko atsekabe barik ta buŕukaren neke barik.

22. Oitura zaŕa aurka jagiko yatzu, baña oitura obeaz azpiratuko dozu.

23. Aragia mar - marka ibiliko da, baña gogo gartsuaz eziko dozu.

24. Aintziñako sugeak zirikatu ta gaŕaztuko zaitu,- baña otoitzak iges eragingo dautso, ta lan onutatsuaz atea itxiko dautsazu.

## XIII ATZALBURUA

### IESUKRISTO'KEN ANTZERA MENPBKO APALARUN ESANGINTASUNA

1. JESUKRISTO'K.—Ene seme, menpetasunetik aldenduteko alegin egiten dauanak, baita eskeŕetik alde egiten dau.

2. Ta beretzakoak euki gura dauzanak, guztienak galdu oi-dauz.

3. Bere burua nagusiari gogoz menperatzen eztautsanak, oraindiño aragia ondo azpiratu barik, eta mar-marka ta ostikoka darabilela erakusten dau.



4. Burua zure nagusiari bereala menperatzen ikasi egizu, zure aragia menperatzea gura ba-dozu.

5. Gizon-baŕua makalduta ezpadago, atetiko arerioa Iasteŕago garaitzen da-ta.

6. Zure gogoaz ondo alkar artzen eztozula, zeuretzako zeure burua baño arerio gogaikaŕi ta kaltegaŕiagorik eztago.

7. Aragia ta odola azpiratu gura badozuz, zeure burua benetati ezestea beaŕekoa dozu.

8. Oraindiño zeure burua okeŕegi maite dozulako, iñoren agindupean jarteko bildur zara.

9. Baña aŕigaŕi ete da, zu autsa ta ezereza izanda, Jaungoikoaren gizonaren agindupean jartea, nik guztiak ezerezetik irazan nebazan alguztidun eta Goiko Jaunak, zugaitik neure burua apal-apal gizonari menperatu ba'neutsan?

10. Guztien artean apalena ta txikiena egin naz, nire apaltasunaz zure aŕokeria garaitu dagizun.

11. Men-egiten ikasi egizu, auts oŕek; apala izaten eta guztien oinpean makurtzen ikasi egizu, lur eta lupetz oŕek.

12. Zure gurariak austen, eta edonoren agindupean jarten ikasi egizu.

13. Asaŕatu zaite zeure buruaren aurka, ta aŕopuzkeriari zugan biziten ez egiozu itxi; ostera, beste guztiak zure ganean ibiŕi ta bideetako lupetza lez zapaldu zagiezan, iñoren menpeko ta txiki agertu zaite.

14. Zer dala-ta zagoz ayeneka gizon ziztrin ori? Jaungoikoa oŕenbeste bidar iraindu ta saŕi askotan gaiztokia irabazi dozun obendi zatar oŕek, zer erantzun al zeunskioe zu iraintzen zaituenai?

15. Baña zure arimea edeŕa izan yatalako, nire begiak parkatu dautzue, nire maitasuna ezagutu gagizun, eta nire on-egiteakanako esker-oneko agertu zaitezan,- eta menpetasunari (a apaltasunari beti ekin, eta zure buruaren ezespena eroapenaz jasan dagizun.



## XIV ATZALBURUA

### ONDO EGITEN DOGUZANETAN ARROTU KZKAITEZAN, JAUNGOIKOAKEN EZKUTUKO EPAYAK GOZNARTU BEAR DIKALA

1. GOGO ZINTZOAK. — Jauna, zure epayak buŕunbaka darabilzuz nire ganean, eta nire azur guztiak bilduŕaz ta ikaraz dardaraka ipinten dozuz, eta nire arimea oso izututa gelditzen da.

*1.* Aŕituta nago ta zeruak be zure begietan eztiralagarbiak goznartzen dot.

3. Aingeruetan be gaiztakeria aurkitu ba-zendun eta parkatu ezpa-zeuntsen, zer izango ete da nigaz? Zerutik izaŕak jausi ziran, eta ni autsa izanik, zer ete nazala uste dot?

4. Euren egiñetan txalogaŕiak zirudienak be-berãno jausi ziran, eta gotzonen (aingeruen) ogia jaten ebenak, txaŕien ezkuŕakaz poztuten ikusi dodaz.

5. Eztago, beraz, deuntasunik, Jauna, zure eskua aldenduten ba-dozu; jakitu-

riak onik eztau egiten, zaintzeari izten ba-dautsazu,- sendotasunak be eztau laguntzen, zeuk eusten ezpa-dautsazu,- garbitasun eskíeŕik eztago, zeuk jaboten ezpa-dozu,-.norbere burua ondo zaintzeak onik eztakar, zure zaintze deuna bertantxe ezpa-dago.

6. Izten ba-gozuz, ondora goaz eta ito egiten gara,- baña zuk ikertu ezkero, jagi ta biztu egiten gara.

7. Egiz, geurez aldakoŕak gara,- baña zuk sendotzen gozuz,- epeldu egiten gara, baña zuk ixiotzen gozuz.

8. Nik bai neure buruatzaz apal eta ezesgaŕiro oldoztu bear dot; bai, ezereztzat euki bear dot, nigan ezer onik daukadala ba-dirudit be!

9. Ezereza ta ezereza baño besterik enazala ikusiko dodan zure epai ondobakoetara, ni sakon-sakoneraño jatsi bear nintzake!

10. Ori bai astuntasun neuŕibakoa, ori bai uger igaro-ezin leiken itxasoa,



nitzaz danean ezereza baño besterik enazala icloroten eztodana!

11. Non ete-dago ba nire aŕokeriaren ondapea, ta non nire onoimenetik sorturiko ustea?

12. Aŕokeri utsal dan-dana nitzazko zure epayen sakontasunean ito da.

13. Aragi guztia, zer da zure auŕean?

14. Eraltzalearen aurka aŕotuko eteda bustiña?

15. Biotza bene-benetan Jaungoikoarenazpianjaŕi dauana, zelan aŕotu leiteke itz utsakaz?

16. Egiak menperatzen dauana, ludi osoak eztau aŕotuko,- ta uste osoa Jaungoikoagan sendo ezaŕi daunari, itzetan goraka darabilenak zirkiñik bc eztautse eragingo.

17. Itz egiten dabenak eurak be ezer eztira, ta itzen otsaz batean ondatuko dira : «Jaungoikoaren egiak, baŕiz, beti iraungo dau» (I).

(4) l'salrn. CXVI, 2.

## XV

### CURA LEIKEZANETAN I.RAZ JARDUN F.TA ITZ EGIN B6AR DALA

1. JESUKRISTO'K. — Ene seme, gauza guztietan onantxe esan egizu: Jauna, zuri atsegin ba-yatzu, au onantxe egin bedi.

2. Jauna, au zure dedurako ba'litz, zure izenean egin bedi.

3. Jauna, niri egoki ta onuragaŕi yatala ba-deritxazu ta ikusten ba dozu, au zure aintzarako erabiltea emon egidazu.

4. Baña niretzat kaltegaŕi ta nire gaizkakunderako (salbaziñorako) eztala ona ezagutzen ba-dozu, kendu egidazu gurari au.

5. Edozein gurari ezta Goteunagandik (Espiritu Santua) etoŕia, gizonari zuzena ta ona dala ba-dirudie be.

6. Au edo a gura izatera gogo onak ala gaiztoak, a!a zure eritxiak zaroazan zuzen ebaztea zaila da.



7. Leriengoetan gogo onak eragiñak zírudien asko, azkenean iruzur-eginda gelditu ziran.

8. Oŕegaitik gogoari yatorkon bataren edo bestearen guraria, Jaungoikoaren biiduŕaz eta biotz apalaz gura ta eskatu bear da,- ta batezbere, buruari ukatuta, dana neuri otoiztu bear yat, esanaz : Jauna, zeuk dakizu ondoen dana,- au edo a, nai dozunez, egin bedi.

9. Gura dozuna, gura dozun beste ta gura dozunean emon egízu.

10. Nigaz dakizunez, atsegingat'ien yatzunez eta zure aíntzarako danez egizu.

11. Nai dozun tokian ipiñi nagizu, ta gauza guztietan nigaz zeuk gura dozunez egizu.

12. Zeure eskuetan nago,- erabííi ta irauli nagizu.

13. Ona emen zure otseña edozetarako gertu dago,- eztot bizi nai ba neuretzako, zeuretzako baño. Ondú ta be e-betean izango al da!

JAUNGOIKOAREN ONDOGUREA BETETAKO

OTOITZA

1. Zure eskeŕa emon egidazu, Jesu samur-samur oŕek, neugaz izan, neugaz lan egin, eta azkeneraño neugaz iraun dagian.

2. Beti zuri begikoen eta atseginga-ŕien yatzuna gura ta nai-azo egidazu.

3. Zure gurea neurea izan bedi, ta nire gureak beti zureari jaŕaitu beyo, ta beragaz oso-osoan alkartu bedi.

4. Neuk be zure gurea ta gura-eza izan bekidaz, eta zeuk gura dozuna ta gura 'eztozuna neuk gura dagidala edo gura-ezin dagidala.

5. Luŕeko gauzetarako ila, ta zure maitasunaŕen ludi onetan ezetsia ta aiztua izateko guraria, eraon egidazu.

6. Gurari guztien ganetik zeugan atsegintzea, ta biotza zeugan baketzea emon egidazu.

7. Zu zara biotzaren benetako ba-



kea,- zu atseden bakaŕa,- zugan izan ezik, guztiak gogoŕak eta artegagaŕiak dira.

8. Beragantxe (au da, zugan, gorengo ta betiko ontasun oŕetan) bakean lo egingo dot eta atsedenduko naz (1). Olantxe.

XVI ATZALBURUA

BGNETAKO POZA JAUNGOIKOAGAN BAÑO EZTALA filLLATU BEAR

í. Goco ZINTZOAK.—ÍSÍire atsegiñera-ko gura edo asmatu neiken edozer, emengo bizitzan barik, gerokoan izango dodala uste dot.

2. Luŕeko pozgaŕi guztiak neuk bakaŕik ba'neukoz, eta euren atsegin guztiak gozartu al ba'neuz be, jakiña da luzaroan ezin iraurigo leukiela.

3. Augaitik, neure arimea, ezin zein-teke guztiz poztu ez bete-betean alaitu, txiroen poztzalea ta apalen artzalea clan Jaungoikoagan baño.

(I) Psalm. IV, 9,

4. Apur batean itxaron egizu, neure arimea, itzaron Jaungoikoaren agintzan; eta on guztien ugaritasuna zeruan eukiko dozu.

5. Oraingo gauzok bide barik gura ba-dozuz, betikoak eta zerukoak galduko dozuz.

6. Aldikoak erabili, baña betikoak gura izan egizuz.

7. On aldikoŕakaz ezingo zara asetu, olakoak gozartzeko egiña etzara-ta.

8. Egindako on guztiak ba'zeunkoz be, ezin izango zeinteke zorionekoa ta asetua,- zure on betea, zoriontasun osoa, ostera, guztiak egin ebazan Jaungoikoagan dago,- ta ez lur-zaleak uste ta goratzen daben antzekoa, Kristo'ren jaŕaitzale onak itxaroten daben, eta euren izketak zeruetan daukiezan gogo ta biotz garbiak nozikpein oraindixe muxtatzen daben antzekoa baño.

9. Gizonakandiko pozaldi guztiak utsalak eta labuŕak dira.



10. Zoriongaŕia ta benetako poztasuna egiak baŕuan nabaitzen dauana da.

11. Gizon jaungoiko - zaleak bere poztzale Jesu edonora beragaz daroa, ta dirautso : Lagundu egidazu, Jesu Jauna, edonon eta beti.

12. Auxe izan begit nire poza : gizapoztasun barik egotea gogoz gura izatea.

13. Ta zugandiko pozak uts egiten ba-daust, pozik andiena zure gurea ta egiztabide zuzena izan begit: «Etzara ba beti asaŕe izango, ta beti zemaika be etzara eeongo (1).

## XVII ATZALOURUA

### ARDURA OSOA JAUNGOIKOAGAN IPIÑI BBAR DALA

1. JESUKRISTO'K. — Ene seme, zugaz gura dodana egiten itxi egidazu, egoki yatzuna neuk dakit-eta.

2. Zuk gizona zareanez ebazten

(l) Psalm. Clŕ, 9,

dozu,- giza-gureak bururatzen dautzuzan langoak dira askotan zure eritxiak.

3. GOGO ZINTZOAK.—Jauna, egia da zuk diñozuna.

4. Nik neure buruaren alde euki neinken ardurarik andiena baño andiagoa da zuk nire alde daukazuna.

5. Bere ardura osoa zugan ezarten eztauana, jausteko zori-zorian dago.

6. Jauna, nire guramenak zuzen eta sendo zugan dirauan artean, nigaz zeuk nai dozuna egizu.

7. Nigaz egingo zeunkena ona baño ezin izan leiteke-ta.

8. Ni ilunean egotea gura ba-dozu, onetsia izan zaite,- eta argitan egotea gura ba-dozu be, onetsia izan zaite.

9. Ni poztutea ontzat ba-daukazu, onetsia izan zaite; eta ni atsekabetu gura ba-nozu be, onetsia izan zaite.

10. JESUKRISTO'K.—Ene seme ori, oŕelan egon bear, nigaz ibili nai ba-dozu.



1). Atsegíñerako Iez atsekaberako gertuta egon bear dozu,

12. Ezeukia ta txiroa, asea ta aberatsa gogo bardiñaz izan.

13. GOGO ZINTZOAK.—Jauna, gogoz jasango dot zugaitik, zuk gura-ta etoŕi litzakidan edozer.

14. Zure eskutik ona ta txaŕa, gozoa ta gaŕatza, alaya ta ituna gogo bardiñaz artu gura dodaz; eta niri yazoko yatazan guztietan eskeŕak egingo dautzudaz.

15. Obenetatik zaindu nagizu, ta ez eriotzaren ez gaiztokiaren bíldur enaz izango.

16. Zugandik betiko jaurti ta bizitzako idaztitik kentzen ezpa-nozu, etoŕi leikedazan loŕak ka/terik eztauste egingo.

## XVIII ATZALBURUA

### BIZITZALDIKO ZORITXARRAK KRISTO'K LÉZ GOCO RARDIÑAZ JASAN BEAR DIRALA

1. JESUKRISTO'K.—Ene seme ori, ni zerutik zu gaizkatzeaŕen (salbeteaŕen)

jatsi nintzan; bear-izanak barik, maitasunak eraginda neugandu nebazan zure makaltasunak,- jasaten ikasi zengian eta bizitzako zoritxaŕak asaŕe barik eroan zengizan.

2. Jayo nintzanetik gurutzean il arteraño, ba, neke-min barik iñoz be enitzan izan.

3. Luŕeko gauzen bear-izan andia euki neban; nire aurka espak saŕitan entzun nebazan,- lotsakizun eta laidoak (irañak) otzan eroan nebazan,- on-egiteen ordez esker-gaiztakeria, aJatzen (mirarien) ordez biraoak, irakatsien ordez agirakak artu nebazan.

4. GOGO ZINTZOÁK.—Jauna, zure bizitzan jasanbera izan ziñan ezkero, oŕetan batezbere, zure Aitaren agindua beteten zendula; ondo da nik, obendi eŕukaŕi onek, zure gurea dan lez, neureak eroapenez jasatea, ta zeuk gura dozun artean, neure burua zeruratzeko, bizitza ustelkor onen zamea (kargea) eroatea.



5. Oraingo bizitzea astunadala dirudí, baña zure eskeŕaren bitartez oso irabazkoŕa egin da, ta zure eredu ta zure deunen oñatz-jaŕaigaŕiakaz gaxo inakalentzat eroankoŕagó ta argitsuago egin da; baña bein alako lege zaŕean zeruko atea itxita egoanean, eta zeruko bidea iíunago agertzen zanean, eta zeruko eŕia bilatzeko ardurea ain gitxík artzen ebenean baño, askoz pozgaŕiago da,- zure Nekaldi (Pasiño) eta eriotzaz zoŕa ordaindu baño len, onak eta gaizkatzeko (sa)betako) ziranak be zeruan ezin sartu eitekezan-eta.

6. iEskeŕetan zor dautzut, zure betiko bakaleŕirako (eŕeñurako) niri ta siñisle guztiai bide arteza ta ona erakutsi dauskuzulako!

7. Zure bizitzea gure bidea da, ba, ta eroapen deunaren bitartez gure saria zarean oŕegana goaz,

8. Gure auŕetik zeu joan eta irakatsi ezpa'zeunskun, zuri jaŕaitzeko ardurea nok artuko eban?

9. iAmaikatxu uŕin eta atzean geldltuko litzakez, zure jaŕaikide bikañak ikusiko ezpa'lebez!

10. Zure alatz eta irakatsi asko entzunda be epeltzen gareanok, zer egingo ete-geunke, zuri jaŕaitzeko oŕenbeste argi ezpa'geunko?

## XIX ATZAUSURUA

### IRAKI.TAN JASANLE TA BBNETAKO EROAPENTSU NOR AGIRI DAN

1. JESUKRISTO'K. — Zer diiíozu, ene setne?

2. Ken intziriok, nire ta beste deunen nekaldia goznartuta.

3. Oraindiño odola emon arterraño eztozu gogor egin.

4. Gítxi da zuk jasaten dozuna, ainbeste ta ain asko jasan ebenen ondoan; ain gogor ziltzalduak, ain astun lorpetu'ak, ainbeste eratara nekatu ta eragiñak izan ziranen ondoan.

5. Besteen neke gogoŕagoak gogora-



tzea egoki yatzu, zure neke txikiak eŕazago eroan al dagizuzan.

6. Eta txikiak dirala ezpa-deritxazu, zure eroan-ezagaitik ete-dan ikusi egizu.

7. Baña txikiak nai andiak izan, guztiak eroapenaz eroateko alegindu zaite.

8. Jasateko gertuko zarean neuŕiz, zuŕago diarduzu ta geyago irabazten dozu, ta oŕetarako gogoz ta oitureaz zoli gertu ezkero, eŕazago eroango zeunke.

9. Ez egizu esan: urliagandik onelakorik ezin jasan neinke, eta onangorik nik eztot jasan bear,- kalte andia egin eta iñoz gogoratu be etxatazan burukeriakaz iraindu nau-ta,- beste bategandik, ostera, jasan bear dodala deritxadanez, pozik jasango dot.

10. Tentelkcri utsa da asmo ori, eroapen-onoimena zer dan eta saria nok emongo dautsan begivatu barik, irañak eta iraintzaleak neurtzen dauz-eta.

11. Norberari deritxona ta norberak gura dauanagandik baño jasan gura eztauana, ezta benetako eroapentsua.

12. Benetako eroapentsuak eztau begiratzen nagusiak ala bardiñak, ala menpekoak, ala gizon on eta deunak, ala gízon gaizto ala zatafak, ala nok jasan-azoten dautsan; bafiz, irazakietatik eta edonozjazo leikeon edozein naigabe, Jaungoikoaren eskutik ba'letorkio lez, dana bardin eta eskefak emonda artzen dau ta irabazi joritzat dauko,- zer txikar-txikafena be, Jaungoikoafen jasaten bada, Jaungoikoaren aufean irabazi barik ezta geldituko-ta.

13. Bufukaldirako gertuta egon zaite ba, garaitza jadetsi gura badozu.

14. Bufuka barik ezin eldu zeinteke eroapen-sarira.

15. Jasan gura ezpa dozu, saririk be eztozu artuko.

16. Baña saria artzea gura ba-dozu, ekin bufukan gizon arauz, eta eroapenaz jasan egizu.

17. Atsedenera neke-bidetik baño ezta joaten, eta garaitzara be ezta eltzen bufuka barik.



18. Goco ZINTZOAK.—Ene Jauna, nire izatasunez eziña yatana, zure eskefak egin-efaz biurtu begist.

19. Zuk ba dakizu gitxi jasan daikedana, ta neke txiki bat jagi ordukoxe beia noala.

20. Zure izenafen edozelako lorpean erabilia izatea, guragafi ta maitegafi izan bekit,- neke ta atsekabeak zugaitik jasatea, nire arimeari oso osasungafi yako-ta.

## XX ATZAI.BURUA x

### NORBLRU MAKAI.TASLINA AUTORTZI-.A TA 8IZITZA ONETAKO ZORITXARRAK

1. GOGO ZINTZOAK.—-Nire gaiztakeria, ene Jauna, neure buruaren aurka auto'rtuko dot, nire argalkeria autortuko dautzut.

2. Safitan gauza txatxar bat da kikildu ta ituntzen nauana.

3. Gogor ekiteko asmoa artzen dot; baña ziltzaldi arin bat datorkidaneko, lafi-lafi gelditzen naz.

4. Batzuetan, egiz, ezerezkeri bat da ziltzaldi andia dakarstana.

5. Ta ezer nabaitzen eztodalako, zerbaiteskieŕago nagoala uste dodanean, putz arin batek luŕa jo - eraginda Iez aurkitzen naz.

6. Begiratu egiozu ba, Jauna, nire ezereztasunari ta ondo-ondo dazauzun nire jauskortasunari,- eŕuki zakidaz eta lupetzatik atera nagizu, bertan jausirik ta betiko etzanda gelditu enaiten.

7. Ni saŕitan kikilduta ta zure auŕean lotnatuta izten nauana, onen jauskoŕa ta griñai gogor egtteko onen makala izatea da.

8. Ta bayetzeraño ezpa-naroe be, nekegaŕi ta astun yat euren aurkako ekiñaldia, ta egunoro onan buŕukan bizitea iguin-iguin dot.

9. Irudipen iguingaŕiak alde egiten daben baño etoŕi eŕazago yatorkidaz, eta ondo ezagutzen dot makala nazala.

10. Begiratu egiozu, aŕen, arima zintzoen zaindari zarean Isŕael'go Jaungoiko oso indartsu oŕek, zure otseñaren neke ta miñari, ta egikizun guztietan lagun zakioz.



11. Zeruko indaŕez sendotu nagizu, gizon zaŕak ez aragi zataŕak, au oraíndiño gogoari ondo menperatua eztagota, azpiratu enagian,- eta aragiaren aurka ekin bearko da, bizitza zoritxartsu onetan arnasea artzen dan artean.

12. ¡Au da bizitzea! naigabe ta neke barik ezin bizitea, ta alde guztietan lakirio ta arerioak daukazana.

13. Lor eta ziltzaldi bat doaneko, beste bat dator,- eta otaindiño lenengo buŕukaldiak dirauala, beste asko ta uste barik datoz.

14. Ta onenbeste samintasunez betetа, ta onenbeste zoritxar eta nekez josita dagoan bizitzea, zelan maite izan leike?

15. Ta zer dala-ta deritxo bizitzea, onenbeste eriotz eta izuŕite (peste) sortzen dauzanari?

16. Ta au ta guzti be maite da, ta asko dabiz bizitza onen atsegin bila.

17. Gizartea (mundua) guzurtia ta utsala dala ta zer-esana ba-da : baña aragi-iŕitsak Iaŕegi agintzeu dau-ta, ezta eŕaz izten.

18. Baña zerbaitzuek gizartea maite izatera ba - garoez, beste zerbaitzuek ezestera garoez.

19. Aragi-iŕitsak, begi-iŕitsak, bizitz aŕokeriak gizakeria maitatzera daroe; baña onei zuzen jaŕaitu oi-dautsen atsekabe ta nekeak gizakeriaganako goŕotoa ta gogaitasuna sortzen dabe

20. Baña jau da samiña! gizakeriari emondako arimea atsegin zataŕak azpiratzen dau, ta gorputzaren menpean egotea atsegin yako; Jaungoikoaren gozotasuna ta onoimenagandiko ta baŕutiko joritasuna eztau ikusi ez muxtatu-ta.

21. Baña gizartea ondo-ondo ezesten, eta lege-bide deunean Jaungoikoarentzat biziten ekin oi-dabenak, oneik benetako buru-ukatzaleai eskiñiko jaungoikozlo



gozotasuna ezagutzen dabe ta gizartea oker dabilela ta askotan iruzur egiten dauala argiroago ikusten dabe.

## XXI ATZALBURUA

### ON BTA EMOKARI GUZTIEN GANF.TIK JAUNGOIKOAGAN ATSEDENDU BEAR DAI.A

1. GOGO ZINTZOAK.—Gauza guztien ganetik eta gauza guztietan, Jaunagan atsedendu zaite beti, ene arimea, deunen betiko atsedena bera da-ta.

2. Josu laztan-Iaztan eta maite-maitegaŕi, izaki guztien ganetik zeugan atsedendutea emon egidazu: osasun eta edertasun guztien ganetik, ospe ta dedu guztien ganetik, altasun eta gaitasun guztien ganetik, jakituri ta adimenzoŕoztasun guztien ganetik, aberastasun eta ederti guztien ganetik, alaitasun eta pozaldi guztien ganetik, izen-on eta gorespen guztien ganetik, samurtasun eta atsegín guztien ganetik, itxarokixun eta agintza guztien ganetik, irabazi ta

gurari guzfien ganetik, emon eta isuri zeinkezan opari ta emokari guztien ganetik, gogoak artu ta nabaitu leiken poz etra atsegin guztien ganetik; azkenez, aingeru ta goiangeru guztien eta zeruko gudarozte guztien ganetik, ikuskor eta ikusi-ezin guztien ganetik eta zeu, neure Jaungoikoa etzarean guztien ganetik.

3. Zeu zara ba, neure Jauna eta Jaungoikoa, onik onena, zeu bakaŕik gorengoena, zeu bakaŕik altsuena, zeu bakaŕik naiko ta beteena, zeu bakaŕik eztitsu ta atsegingaŕiena, zeu bakaŕik edeŕena ta maitegaŕiena, zeu bakaŕik gauza guztien ganetik andiki ta aintzatsuena,- zugan on guztiak batera ornidu-ta dagoz, beti egon dira ta egongo dira; augaitik gitxi ta uŕi da zeu barik emoten daustazun edozer, zeu ikusi ta bete-betean jadetsi ezik.

4. Augaitik uire biotza ezin leiteke benetan atsedendu, ezta osoro asetu be, emokari ta izaki guztiak goituta, zugan atsedendu ezik.



5. Ene ezkontide laztan-laztan Jesukristo, maitatzale garbi - garbia, izaki guztien jaubea, nok emongo al-daustaz benetako azkataíun-egoak zugana egazegin eta zugan jarteko?

6. Noz egongo ete-naz beste arazo barik, zu nire Jaun eta Jaungoiko ori, oso gozoa zareala ikusi ta gozartzeko?

7. Noz batuko ete-naz oso osorik zugan, zuganako maitasunaz, bere buruaren bape ardura barik, zentzun eta neuŕi guztien ganetik, . eta guztiak eztakien eraz zeu bakaŕik nabaitu zaikedazan?

8. Orain, baŕiz, saŕitan zottnka nago, ta nire zoritxaŕa samintsu daroat.

9. Zoritxar-erbeste onetan saŕitan laŕitu, itundu ta iluntzen naben gaitz asko jazoten dira-ta, saŕitan eragotzi, zabartu, zirikatu ta naspiítzen nabe,- zuganako atea zabalik euki eztagidan, eta gogo zoriontsuak beti aukeran daukiezan zure laztan zoragaŕiakaz poztu enaiten.

10. Nire antziak eta luŕean diran askotariko zoritxaŕak bigundu zagizela,

ene Jesu, betiko aintzaren argia ta arima erbestetuaren poza.

11. Zure auŕean itzik barik dago nire aoa, ta nire ixiltasunak itz egiten dautzu.

12. Nire Jaunak noz arte belutuko ete-dau bere etoŕerea?

13. Betor bere eŕukaŕi onegana, ta alaitasuna emon beyo.

14. Bere eskua luzatu, ta gaxo au laŕialdi guztietatik atera begi.

15. Erdu, erdu,- nire poza zeu zarean ezkero, zu barik ez egun ez ordu alairik izan leike; zu zara ba nire alaitasuna, ta zu barik utsik dago nire maya.

16. Eŕukaŕi naz eta espetxeratua (kartzelatua) ta oiñ-burdiñakaz lotua lez, zure arpegiaren argiaz indartu ta azke egingo nozun artean, eta adiskidetasunaren arpegia erakutsiko daustasun artean.

17. Besteak zure ordez nai dabena bilatu begie,- baña niri etxat atsegin eta eztot izango be atsegiñik, nire itxaropena ta betiko osasuna zarean nere Jaungoiko ori baño.



18. Zure eskeŕa nigana biurtu arte, ta zuk niri baŕuan itz egin arte, enaz ixilduko ta deadar egiteari eztautsat itxiko.

19. JF.SUKRISTO'K.—Emen naukazu, emen nayatortzu, deifu egin daustazu-ta.

20. Zure negar-malkoak, zure arimaren gurariak, zure apaltasun eta biotzdamuak, zugana makurtu ta ekaŕi nabe.

21. GOGO ZINTZOAK—Eta esan neban: Jauna deifu neutzun, eta zugan poztu gura izan dot, zugaitik dana ezesteko gertu nagoala.

22. Lenengo zeuk itxartu ninduzun, zure bila ibili nendin.

23. Onetsia izan zaite ba, Jauna, zure eŕuki ugariari dagokionez, zure jopu oneri onegite au egin dautsazulako.

24. Zurejopu onek, zer dauko zuri zer esan-beaŕik, bere gaiztakeri ta zatarkeriak beti gogoan dauzala, bere burua zure auŕean apal-egin baño?

25. Ez zeruko ez luŕeko aŕigaŕien artean zure antzekorik eztago.

26. Zure egiñak on-onak dira, zure epayak egizkoak, eta luŕa ta gauza guztiak zure ardureak zuzentzen dauz.

27. Oŕegaitik zuri, Aitaren jakituria zarean oŕi, gorespena ta aintza; nire aoak, nire arimeak eta gauza guztiak batera goretsi ta onetsi zagiela.

## XXII ATZALBURUA

### IAUNGOIKOAGANDIK ARTURIKO ON-EGITE UÇARIEN COMUTEA

1. GOGO ZINTZOAK.—Jauna, zabaldu egizu nire biotza zure legean, eta zure aginduetan ibilten irakatsi egidazu.

2. Zure gurea ezagutzea, ta zure mesedeak itzal andiaz eta gogarte arduratsuaz, bai danak batera bai banaka, goratzea emon egidazu,- gaurtik auŕerantz bear dan lez eskeŕak egin daiketzudazan.

3. Zure on-egiterik kaskaŕenagaitik be bear añako esker-gorespenak egiteko, gauza enazala ba dakit eta autortzen dot.



4. Egin daustazuzan on guztiak baño txikiagoa naz, eta zure andikitasunari begiratzen dautsadanean, oŕen andi-andia dala ikusiaz, nire arimea indar barik jausten da,

5. Ariman eta gorputzan daukaguzan guztiak,- eta baŕuan nainzalean, geurez nai goi-eskeŕez daukaguzan guztiak, zure on-egiteak dira ta zu eskuzabal, samur eta ontzat goresten zaitue, on guztiak zugandik artu doguz-eta.

◇. Batek geyago, besteak gitxiago artu ba-dauz be, danak zureak dira ta zu barik txikar-txikar bat be ezin jadetsi leike.

7. Andiagoak artu dauzanak be berak irabazi daualakoan bere burua ezin aŕotu lei, ta besteak baño gorago ezin igon lei, ta gitxiago artu dauanari isekarik ezin egin leyo,- norbere buruari gitxiago ezaŕi, ta esker-egitean apalago ta eraspentsuagoa dana, andiagoa ta obea da.

8. Ta iñor baño norbere burua za-

tarragotzat daukana ta gaiztoena dala deritxona, andiagoak artzeko gertuago dago.

9. Baña gitxiago artu dauanak ifundu barik eta asarratu barik, eta geyago daukazanari bekaizkeririk izan barik, zure on-egiteak nor-nor dan begiratu barik orren ugari, orren urririk eta esku-zabalez emoten dozuzalako, zugana biurtu ta zure ontasuna al dauan beste goratu bear dau.

10. Guztiak zugandik datoz, augaitik guztietan goretsia izan bear dozu.

11. Zeuk dakizu bakotxari emon bear yakona,- eta onek zer dala-ta gitxiago ta ak geyago daukan ebaztea ezta gure egikizuna, zeurea baño, bakotxaren irabaziak zeatz-zeatz dakizuz-eta.

12. Augaitik Jaun eta Jaungoikoa, azalez eta gizonen eritxiz goretsigarri ta aintzagarri diran asko ez eukitea, on-egite andia dala deritxat; onelan norbere txirotasuna ta kaskartasuna ikusita, astun



eta itun eta kikil gelditu barik, poz eta alaitasun andia artu dagtan,- zuk Jaungoiko orrek, txiroak eta apalak eta gizakeriaren ezesgarriak, adiskide ta etxeko izateko autu zenzuzan.

13. Ziñaldari (testigu) dira lur guztian agintzeko ipiñi zenduzan zure Bialduak (Apostoluak).

14. Gizonen artean espaka (kexa) barik itz egiten eben, gaiztakeri ta maltzurkeri bakoak ziran, eta biotz apala ta garbia euken; zure izenarren irañak jasatea be atsegin eben, eta gizakeriak gorroto dauzanak eurak gogoz laztantzen ebezan.

15. Augaitik zu maite zaituana ta zure mesedeak dazauzana, zure gurea ta zure betiko erabagia beragan beteteak geyen poztu bear dau,- ta beste norbaitek andiena izatea gura dauan bestean, bera txikiena izan gureaz asetu ta poztuko da, ta azkenengo tokian lenengoan lez baketsu ta pozik egongo da,- ta ezetsia, ta baztertua ta entzute ta ospe bakoa

izanaz, besteak baño ospetsuago ta andiago ba'litz Iez, pozik egongo da.

16. Zure gureak eta zure deduaren maitasunak gauza guztien ganetik izan bear dabelako, ta artu dauzan eta artuko dauzan on-egiteakaz baño oŕeikaz geyago poztu ta atsegindu bear dalako.

## XIII ATZALBURUA

### KAKE ANDIA DAKARREN LAU GAUZA

1. JESUKRISTO'K.—Ene seme, bakerako benetako azkatasunerako bidea oraintxe erakutsiko dautzut.

2. GOGO ZINTZOAK. — Egizu diñozun ori, Jauna, au entzutea atsegin yat-eta.

3. JESUKRISTO'K.—Ene seme, zure naya baño iñorena obeto egiteko alegindu zaite.

4. Ugari eukitea barik beti uŕi eukitea autu egizu.

5. Zeuretzat beti azkenengo tokia ta guztien menpean egotea bilatu egizu.'

6. Jaungoikoarcn guraria zugan beti



ondo-ondo betetea, gura izan eta eskatu egizu.

7. Onan diarduan gizona bake ta atseden-mugetan sartzen da.

8. GOGO ZINT/OAK. — Jauna, zure itzaldi labur onek ornitasun andía dauko.

9. Itzez labuŕa, baña esan-gurez mamintsua ta igaliz betea da.

10. Nik zintzo-zintzo bete al ba'neu, onen laster eneuke artegatu bear.

11. Artega ta astun nagoan bakotxean, ikasbide onetatik uŕindu nazala dakust.

12. Baña zuk, dana al dozun ela beti arimearen auŕerakuntzea gura dozun oŕek, esker ugariagoa emon egidazu, zure esan au bete ta nire gaizkakunderako (salbaziñorako) dana egin dagidan.

### OLDOZKUN! GAIZTOEN AURKA OTOIT7.A

1. «Nire Jaun e,ta Jaungoikoa, nigandik etzaite uŕindu: nire Jaungoiko ori, er-

du niri laguntzera> (1), nire arimea atsekabetzeko askotariko oldozkunak eta bildur-ikara andiak jagi dira nire aurkata.

2. Zelan igaroko ete-naz kalterik artu barik?

3. Zelan biŕinduko ete-dodaz?

4. «Neu joango naz zure auŕetik, diño Jaunak, eta luŕeko aŕoak apalduko dodaz» (2).

5. Espetxeko (kartzelako) ateak edegiko dodaz, eta ezkutuko gauzak agertuko dautzudaz.

6. GOGO ZINTZOAK. —Jauna, egizu diñozun lez, eta oldozkun zatar guztiak zure auŕetik igesi begie.

7. Nire itxaropen eta atsegin bakaŕa auxe da.- atsekabe-aldi guztietan zure magalpera joatea,- ustea zugan ipintea,- biotz-biotzez zuri deitzea,- ta eroapenaz zugandiko atsegiñaren begira egotea.

(1) Psalm. LXX, 13.
(2) Is. XLV, 2.



ADIMENA ARGITZEA ESKATZF.KO OTOITZA

1. Baŕuko argkasunaz argitu nagizu, Jesu ona, ta nire biotz-baŕutik iluntasun guztiak atera egizuz.

2. Nire saŕitako zabarkeriak ezi, ta laŕi narabilen ziltzaldiak kendu egidazuz.

3. Buŕukatu egizu gogor nire alde, ta pizti zataŕak, au da, ir'its lizunak uxatu egiziiz,- zure onoimena bide dala, nigana bakea etoŕi ta jauregi deuna dan biotz garbian zure gorespen-durundia saŕitan entzun daiten.

4. Agindu aize ta ekaitzai; itxasoari esan egiozu: geldi adi, ta ipar-aizeari, ez egik putzik egin,- eta baretasun andia izango da.

5. Lur-ganean argi egin dagien, bialdu egizuz zure argia ta egia; ni zuk argitu arte lur soil ta utsa naz.

6. Goitik zure eskeŕa isuri egidazu, biotza zeruko iñontzaz busti egidazu,- eraspen-ura emon egidazu, luŕa onduta igali on eta edeŕak ekaŕi dagizan.

7. Oben - piloak zapalduta dauken gogoa eragi egizu, ta nire gurari guztia zerukoetan ezaŕi egizu,- bein zeruko zoriontasunaren samurtasuna aoratu ezkero, luŕekoak gogoratzea iguin izan dagidan.

8. tzaki arteko atsegin igeskoŕetatik kendu ta atera nagizu,- nire guraria guztiz asetu ta poztu leiken izakirik eztago-ta.

9. Lotu nagizu zeugaz maitasunaren marapiío azkatu-eziñaz,-maite zaituenentzaf zeu bakaŕik be naiko zara ta,- guztiak zu barik zirtzilak dira.

## XXIV ATZALBURUA

### [ÑOREN BIZITZA-BARRIAK JAKINGURETIK [Gr-.S-L.GIN' BEARRA

1. JKSUKRISTO'K.—Ene seme, etzaite izan begi-luze, ta alpeŕiko ardurak ez egizuz erabili.

2. Au naiz bestea dala-ta, zuri zer ardura dautzu? Zuk nçuri jaŕaitu egidazu-



3. Urlia olangoa nai alangoa izan, nai berendiak onan nai alan bizi ta itz egiten dauala-ta, zuk zer daukazu zer ikusirik?

4. Zuk iñoren ordez erantzun beaŕik eztaukazu; baña zeugaitik erantzun bearko dozu.

5. Ta zer dala-ta naspiltzen zara?

6. Nik guztiak ezagutzen dodaz,- ela eguzkipean jazoten dan dana dakust, eta bakotxa nor dan ba dakit, zer asmatu ta zer gura dauan, eta bere asmoak zetara joten dauan be bai.

7. Augaitik guztiak neure ardurapean ezaŕi bear dira; baña zuk bake onean iraun egizu, ta artegatzalcari gura dauan bestean artegatzen itxi egiozu.

8. Esan nai egingo dauan dana bere ganera jausiko da, niri ezingo daust ziria sartuta.

9. Kerizpe andiko izenaren, ez askoren kutuna izatearen, ez gizonen berebiziko maitasunaren ardurarik ez egizu izan.

10. Oneik biotzean zabarkeri ta ilutv-tasun andia sortzen dabez.

11. Nire 'ttza pozik esango neuskizu ta nire eskutukoak agertu be bai, nire etoŕeraren begira arduraz ba'zengoz, eta biotzeko atea edegiko ba'zeunskit.

12. Zoli egon eta otoitzean ernai zaite, ta danetan zeure burua apaletsi egizu.

## XXV ATZALBURUA

### BIOTZEKO BAKE SENOOA TA BEK'ETAKO AURRERAKUNTZA

1. JESUKRISTO'K.— Ene seme, nik esan neban: «Bakea rzten dautzuet, neure bakea emoten dautzuet, eta eztautzuet emoten gizakeriak (munduak) emon oi dauan lez» (1).

2 Bakea guztiak nai dabe,- baña benetako bakeari dagokiozanen ardurea eztaukie guztiak.

(1) joan, XIV, 27.



3. Nire bakea biotzez apalak eta otzanak diranakaz dago.

4. Zure bakea eroapen andian aurkituko dozu.

5. Niri entzun eta nire deyarijaŕaitzen ba-dautsazu, bake andian bizi zeinteke.

6. GOGO ZINTZOAK. — Zer egingo dot?

7. JI;SUKRISTO'K. — Egin eta esaten dozun guztian adi egon zaite, ta zure asmoa beti neuri baño ez emon, eta neu izan ezik, ezer ez gura ez bilatzea izan bedi,- ta besteen esanak eta egiííak ariñegi ez egizuz apaitu, ta zure ardurapekoak eztiranetan etzaite nastu,- eta ba-leiteke gitxi edo banaketan baño ez artegatzea.

8. Baña kezkarik iñoz ez nabaitzea,- ez biotzeko ez gorputzeko nekerik ez jasatea, oraingo bizitzari barik, betiko atsedenekoari dagokiona da.

9. Atsekaberik eztaukazulako ez uste bakea idoro dozunik, eta areriorik eztaukazunean edozer ez egizu ontzat euki, ta guztiak zure gurearen neuŕira ya-

tortzuzalako be ondo-ondo zagozala ez egizu uste,- ta eraspen eta gozotasun andia zeugan oartu aŕen, ez egizu uste izan andia zareala edo maite-maite zaituela,- onoimenen benetako maitatzalea eztalako ezagutzen onangoetan, eta gizonaren auŕerakuntzea ta ornitasuna be eztago onangoetan.

10. Goco ZINTZOAK. — Zetan dago ba, Jauna?

11. JESUKRISTO'K.—Zeurerik, ez txikian ez andian, ez aldian ez betikotasunean bilatu barik, zareanez zeure burua biotz-biotzez Jaungoikoaren gureari eskintzean; guztia aztakin bategaz astunduta, nai zorion - aldian nai zoritxar - aldian Jaungoikoari eskeŕak arpegi bardiñaz emoten dautsazuzala.

12. Baŕuko poz-aldia kendu aŕen, nekemin astunagoak jasateko zure biotza itxaropen indartsu ta sendoan gertuta egon ba'litz, oneik eta onenbeste eztozula jasan bear-eta, zeure burua zurikatu barik, nire erabagi guztietan ni zu-



zentzat euki ta deuntzat goresten banozu, orduantxe zabiz bakearen bide egizko ta zuzenean, eta baŕiro nire arpegia atsegin artean ikusteko uste ziuŕa euki zeinke.

13. Ta zeure burua oso ezesterano eltzen ba-zara; jakin egizu atzeŕi onetan euki leiken besteko bake ugariaz poztuko zareaJa.

## XXVI ATZALBURUA

### IRAKURTEAZ HAÑO OTOITZ APALAZ OBBTO IRABAZTBN DAUAI.A GOGOAK BERE AZKATASUNA, TA AZKATASUN ONEN ISIKAINTASUNA

1. GOGO ZINTZOAK,—Jauna, auxe da gizon orniduaren egikizuna: zerukoetarako asmoan ez otzitutea, ta ardura askoren artetik ardura barik lez igarotea,- ez nagiaren antzera, gogo azkearen eskubideaz izaki bateri be zalekeri okeŕez eutsi barik baño.

2. Neure Jaungoiko samur - samuŕa, laŕegi nastu enaiten, bizitza onetako ar-

duretatik jabon nagizula daskatzut: gorputzaren bear-izan askotatik, atseginkeriak atzitu (aŕapau) enagian,- arimaren eragozpen guztietatik, loŕez ausita jauíi enaiten.

3. Eztiñotzut giza - uskeriak biotzgoseaz gura dauzan gauzetatik jabcn nagizula, baña bai nai leukenean baŕuko azkatasunera ezin sartu al daiten, zure otseñaren gogo au, il bear dogun guztioen zoritxaŕak neketsu astundu ta atzeratzen dabenetatik zaindu nagizula.

4. Neure Jaun eta Jaungoikoa, gozotasun esan-eziña,- betikoetzazko maitasunetik aldendu, ta oraingo edozelako atsegiñen gaizto baten itxaropenaz beraganatzen nauan aragi-atsegiña gaŕaztu egidazu.

5. Ezpenagi garaitu, ene Jaungoikoa, aragi ta odolak ezpenagi garaitu,- gizakeriak (munduak) eta bere aintz labuŕak ezpeist iruzur-egin,- txeŕenak eta bere maltzurkeriak ezpenagi oinperatu.

6. Jarkiteko indaŕa emon egidazu,



iasateko eroapena ta irauteko sendotasuna.

7. Luŕeko atsegín guztien ordez zure gogoaren igortze bat emon egidazu, ta aragi-maitakeriaren ordez zure izenagazko maitasuna isuri,

8. Janaria, edaria, jantzia ta gorputzari eusteko bear diran beste enparauak be, gogo gartsuari astunak yakoz.

9. Gurari laŕegiaz arazotu barik, beaŕezkoak neuŕiz erabiltea emon egidazu.

10. Guztiak iztea ezta zuzen, gorputza janaritu bear da-ta.

11. Baña gañerakoak eta atsegingaŕienak bilatzea lege deunak galazoten dau,- bestela aragia gogoaren aurka jagiko litzake. Onangoen artean, Jauna, zure eskuak arteztu ta irakatsi begiste, geyegikeririk egin eztagidan.

## XXVII ATZALBURUA

### NORBERAZKO MAITAKERIAK BHTIKO ONKTIK ASKO ATZERATZKN DAUAI.A

1. JESUKRISTO'K.—Ene seme, danaren ordez dana emon egizu, ta zeure buruarena ezetan be etzara izan bear.

2. Zure buruaganako maitakeriak luŕeko edozek baño kalte geyago egiten dautzula, jakin egizu.

3. Zeuk dautsezun maitasun eta zaletasunaren neuŕiz, eurakaz geyago edo gitxiago batuta egongo zara.

4. Zure maitasuna garbia, bakuna ta zuzena ba'litz, ezek be etzindukez Iotuko.

5. Eukitea legeko etxatzunik ez egizu gura.

6. Baŕuko azkatasuna eragotzi ta kendu leiketzumik ez egizu euki gura.

7. Gura edo euki zeinkezan guztiakaz zure buru oii biotzaren baŕu-baŕutik neuri ez emotea, aŕitzekoa da.



8. Zegaitik argaltzen zara alpeŕiko ituntasunakaz? zegaitik nekatzen zara ganezko ardurakaz?

9. Zagoz neure naira, ta kalterik eztozu izango.

10. Zeu erosoago ta gogozago egoteaŕen, onen edo aren bila ba-zabiz, nai emen nai an egon nai ba-dozu, bakean eta ardura barik. bein be etzara egongo; utsen bat gauza guztietan eta aurkarien bat edonon aurkituko dozu-ta.

11. Ra atatik jadetsi ta ugarituak barik, ezetsiak eta biotzeko sustaŕetik ateraten danak on egiten dau.

12. Ta ori diru ta ondasunetzaz, baita andi-gura ta txaloak entzun gureaz be aditu bear da, oneik danok Iudiagaz igaroten dira-ta.

13. Gogoa bero euki ezik, tokiak gitxi zaintzen dau.

14. Ta kanpoan bilatuko bakean luzaroan eztau iraungo, biotzaren benetako euskaŕirik ezpa - dauko, au da,

neugan ezpa-zagoz,- ni barik aldatu zeintekez, baña obetu ez.

15. Bein garaya eldu ta artu ezkero, iges-egin zeuntsana ta geyago aurkitu dozu-ta.

### BIOTZ-GARKIKUNTZA TA ZERUTIKO JAKITURIA ESKATZEKO OTOVTZA

1. GOGO ZINTZOAK. — Goteunaren (Espiritu Santuaren) eskeŕaz sendotu nagizu, ene Jaungoikoa.

2. Baŕuz sendotzeko ta nire biotza alpeŕiko ardura ta laŕi-aldietatik utsituteko, ta nai zataŕa nai edeŕa dan edozeganako askotariko zalekeriak eroan enagien, indaŕa emon egidazu i guztiak badoazala ta neu be eurakaz noala ikusi dagidati; eguzkipean eztago, ba, ezer iraunkoŕik; uskeriak eta gogo-atsekabeak baño eztagoz.

3. Onan goznartzen dauna, auxe da jakituna.

4, Jauna, zerutiko jakituria emon



egidazu, gauza guztien ganetik zeu bilatu ta aurkitzen, ta zeu gozartu ta maite izaten; eta enparauak zure jakiturian diran lez ezautzen ikasi dagidan.

5 Zurikatzaleagandik alde egiteko zurtasuna, ta aurkariari jasateko eroapena emon egidazu,- edozein itzen aizeboladagaz zirkiñik ez egitea, ta zurikatzale gaiztoari belaŕirik ez ezartea jakituri andia da-ta; onan zeruko bidetik eskier jaŕaitzen da.

## XXVIII ÁTZALBURUA

### MI.\ rXARTO'ESALHEN AURKA

1. JESUKRISTO'K.—Ene seme, norbaitzuek eritxi txaŕean ba-zaukiez, eta entzun gurako efzeunkena ba-diñoe be, etzaite asaŕatu.

2. Zuk zeure buruatzaz oraindiño txaŕagoak siñistu bear dozuz, eta beste iñor baño zeure burua makalagotzat euki egizu.

3. Zeure baŕuan ba-zabiz, egaz doa-

zan itzai jaramon andirik eztautsezu egingo.

\. Aldi txaŕean ixilik egotea, ta nigana biotzez biurtzea, ta giza-eritxiagaitik ez artegatzea, ezta zurtasun txikia.

5. Zure bakea ezpedi egon gizonen aoetan.

6. Zutzaz nai ondo nai txarto etsi, beste gizon bat etzara.

7. Non dago ba benetako bakea ta benetako aintza? neugan ez ete?

8. Ta gizonen begiko izan gura eztauana, ta oŕein iguin izateko bildur eztana, bake andian biziko da.

9. Biotzaren kezka ta zentzunen nasaikeri guztiak bidebako maitakeri ta alpeŕeko bilduŕetik sortzen dira.

## XXIX ATZALBURUA

### I.ORKALDIAN JAUNGOIKOAUl OEITU TA BERA ONETSl 8L.ARRA

1. GOGO ZINTZOAK.—Zure izena beti, beti onetsia izan bedi, Jauna : ziltzaldi ta lor au nlri etortea gura izan dozulako.



2. Ezin neyo iges-egin,- zugana baŕiz, jo bear dot, niri lagundu ta nire onerako biurtu dagistazun.

3. Jauna, lorpean nago orain, eta nire biotza laŕi dago,- ta estu-estu narabil min onek.

4. Ta orain, Aita laztana, zer esango dot? Kezkaz inguratua nago. Estualdi onetatik atera nagizu.

5. Ni oso apalduta gero, zeuk azkatu nagizunean, zeu goratua izan zaitezan eldu tiaz ni estu-aldi onetara.

6. Atsegin izan begitzu, Jauna, ni azkatzea,- nik ba gixaxo onek zu barik zer egingo dot, eta nora joango naz?

7. Oraingoz bc eroapena emon egidazu, Jauna.

8. Lagundu egidazu, neure Jaungoikoa, ta lor astunak azpian eukiko banabe be enaz bildurtuko.

9. Hta orain onelako estu-aldian zer esango dot?

10. Jauna, zure naya egin bedi. Loŕak eta zoritxaŕak ondo irabazita daukadaz.

11. Oraindiño egoki yat jasatea, ta eroapenaz jasango al dot, ekaitza igaro ta baretuko dan artean.

12. Guztiz luŕa jo eztagidan ziltzaldi auxe be niri kentzeko, ta bere indaŕa gitxiagotzeko zure esku alguztiduna indartsua da,- orain artean be saŕitan egin daustazunez, nire Jaungoiko eŕukitsu oŕek.

13. Ta Goikoaren eskumaren aldakuntza au, niri zailago yatan bestean, zuri eŕazago yatzu.

## XXX ATZALBUBUA

### JAUNGOIKOZKO LACUNTASUNA ESKATU, TA ESKERRA BARRIRO BE EUKIKO DOGULA USTE BEAR DOGU

1. J.ESUKR[STO'K.—Ene seme, «neu naz !or-egunean sendotzen dauan Jauna».

*1.* Ondo ez yoatzunean, erdu neugana.

3. Otoitzera beluegi biurtzen zarealako, geyenez, eragozten yatzu zerutiko atséugiña.



4. Niri gogoz otoitz egin baño len, atsegin askoren bila ibili ta poza atatikoetan artzen dozu.

5. Augaitik nigan itxaroten dabenak zaintzen dodazana neu nazala, ta ni barik ez gauzazko laguntasunik, ez onu onuratsurik, ez osagaŕi iraunkoŕik dagoala ikasi artean, zuri danak be on gitxi egiten dautzue.

6. Baña bein ekaitz ostean arnasea artu ezkero, sendotu zaite nire eŕuki argitan,- gauza guztiak osorik baita ugariz eta gonburuz lengoratzeko ur nago ta, diño Jaunak.

7. Niretzat gatxa danik ete- dago ba? ala esan, baña egiten eztauanaren antzekoa ete-naz ba?

8. Non dago zure siñismena?

9. Zagoz sendo ta iraun egizu.

10. Gizon sendo ta adore andikoa izan zaite, ta atsegiña bere orduan elduko yatzu.

11. ttxaron egidazu, itxaron,-etoŕiko naz eta osatuko zaitut.

12. Ziltzaldia da laŕitzen zaituana, ta bildur utsala, ikaratzen zaituana.

13. Zetarako yatzu jazo leikezanen ardurea, iluntasunaren.ganera iluntasuna izateko baño? «Egun bakotxari naiko yako bere zoritxaŕa». (1)

14 Bear ba-da iñoz jazoko eztiran etortekoakaitik, laŕitu edo poztutea uskeria da ta onik eztakar.

15. Baña onango asmakeriakaz norbere burua atzipetzea giza-makaltasunari dagokio, ta arerioari oŕen eŕaz iŕi egiten iztea, adore uŕiaren ezaugaŕia.

16. Berari eztautso ardura egíakaz ala guzuŕakaz norbaiteri iŕi ta iruzur egiten dautsan,- ezta nai oraingoen maitasunaz nai gerokoen bilduŕaz Iuŕajoazo tzkero.

17. Beraz, zuen biotza ezpedi laŕitu, ezta bildurtu be.

18. Neuri siñistu, ta nire eŕukian ustea euki egizu.

(1) Matth., 6, 34.



19. Nigandik uŕiñago zagozala uste dozunean, saŕitan uŕago naukazu.

20.. Zuk dan-dana galdutzat Iez daukazunean, saŕitan orduantxe uŕean dozu asko irabazteko erea.

21. Ezta dana galdu, zerbait zure aurka jazoten yatzunean.

22. Orain eretxi yatzunez eztozu ebatzi bear, eta edonondik datoŕen loŕari be eztautsazu eutsi bear, bere azpitik urteteko usterik ezpa-lego lez.

23 Apur baterako Ioŕen bat bialdu edo gura izan dozun atsegiña kentzen ba-dautzut be, ez uste bertanbera itxita zaukadazanik. .

24. Zeruko jaureŕira (eŕeñura) onantxe eltzen da.

25. Ta benetan zuri ta nire otsein guztiai obe yatzue naigabeakaz eragiñak izatea, dana zeuoen gogora eukitea baño.

26. Oldozkun ostenduak nik ba dazaudaz, eta ba dakit zure onerako ondo yatzula nozik-pein atsekabetuta iztea,

zorion-aldian ařotu etzaitezan, eta etzareana zarealakoan zeure burua edertzat euki eztagizun.

27. Emon dodana kendu, ta atsegin yatanean ostera be emon dagiketzut.

28. Emoten dautzudanean neurea da; ta bařiro kentzen dautzudanean zurerik eztautzut artu,- emoniko onak eta emokari orniduak neureak dira-ta.

29. Neke edo naigabeen bat bialtzen ba-dautzut, ezpedi asařatu, ta ezpegi luřa jo zure biotzak: nik bereala eragi ta edozein lor pozera aldatu dagiketzut.

30. Baña zugaz onetara diardudanean, zuzena ta oso txalogařia naz.

31 Zuzen ebatzi ta egiaren arauz eristen ba-dozu, naigabeakaitik bein be ořen laři etzara itundu bear, poztu ta niri eskařak egin, eta pozgaři bakařa auxe izan dagitzula: samiñez astindu ta eřuki barik joten zaitudala.

32. «Aitak maite izan nauan lez, neuk be zuok maite zaituet» (1), esan neutsen

(1) Joan.XV, y.



nire ikasle kutunai; eta eurok pozaldi aldikořetara barik, benetan buřuka gogořetara bialdu nebazan,- gorespenetara barik, ezespenetara,- alpeřerira barik, lanera; atsedenera barik, eroapenaz igali (řrutu) asko ekartera.

33. ítz oneitzaz gomutatu zaite, ene seme.

## XXXI ATZALBURUA

### IZAKI GUZTIAK EZBTSITEA, ISGILLEA AURKITU AL (ZÁTEKO

1. GOGO ZINTZOAK.—Jauna, oraindiño oso beařa yat esker ugariagoa, ez iñok ez ezek ezin eragozteko bestean gora eldu bear ba-dot.

2. Ezek lotuta naukan ar.tean, zugana azke ezin dot egaz-egin.

3. Egaz azke egin gura eban iñoanak: «Usoaren antzeko egoak nok emongo daustaz, egaz egin eta atsedendu naíten» (í).-

(1) Psalm. LIV, 7.

4. Asino garbia baño garbiagorik, zer?

5. Eta luŕean ezer gura eztauana baño azkeagorik, nor?

6. Oŕegaitik izaki guztien ganera igon eta norbere buruaz aiztuta, gogoa goratu ta geldi begiratu bear da, zuk, guztien Egile oŕek, izakiakaz antzik eztaukazula ikusteko.

7 Ta burua izaki guztietatik utsituten eztauanak, Jaungoikoarenetan azke ezin jardun leike.

8. Augaitik ikuskor eta izaki guztietatik alde egiten dakienak gitxi diralako, gogo-ikusketarako gitxi aurkitzen dira.

9. Arimea jaso ta bere ganeraño eragiteko, esker andia bear da.

10. Ta gizona guztiz goratuta, ta izaki guztietatik azkatuta, ta Jaungoikoari oso batuta ezpa-dago, dakian eta daukan guztia be ezta anditzal andiesteko.

11. Luzaioan txiki ta luŕa joa izango da, neuŕibako ta amaibako on bakaŕa barik beste ezer anditzat daukana.



12. Ta Jaungoikoa eztana ezebe ezta, ta ezereztzat euki bear da.

13. Gizon goi-argitu ta eraspentsuaren jakituri, ta eleiz-gizon ikastun zoliaren jakituri artean alde andia dago.

14. Ekiñaren ekiñaz gizonak bere indaŕez lortzen dauan jakituria baño, jaungoikozko eragikunaz goitik dariona askoz be bikañagoa da.

15. Ikuskera-zale asko aurkitzen díra, baña atarako bear diranetan jarduteko ardurarik eztauke.

16. Benetako ildurea baztertuta, irudi ta agirikoetan gelditzea eragozpen andia da.

17. Eztakit zek ez zein asniok garoazan, ez zer gura dogun gogo-zaleak gareala diñogunok: igeskoŕak eta zirtzilak eskuratzeko onenbeste neke ta ardura asko gej'ago artzen dogula, goznartzeko geure baŕura nekez eta belu batzen gara-ta.

18. Au da samiña! apurtxu bat baŕuratu ordukoxe, bereala urteten gara

kanpora, ta gure egiñak zeatz eztoguz arakatzen.

19. Gure zaletasunak non daukaguzan eztogu begiratzen, eta gure biotza galduta dagoalako negaŕik eztogu egiten.

20. «Aragi osoak bere bidea usteldu eban» (1), eta oŕegaitik etoŕi zan uriyola andia.

21. Gure biotza askoan usteldura dagoan ezkero, baŕuko indar-ezaren ezaugaŕi diran egiñak be ustelduak izango dira.

22. Biotz garbitik dator bizitza onaren igalia.

23. Norbaitek asko egin dauan itanduten da, baña onoimenaz egin etedauan, oŕen arduraz ezta begiratzen.

24. Indartsua, aberatsa, galanta, idazle azkaŕa edo ona, abeslari ona, langile ona nor dan aztertzen da,- baña gogoz txiro, eroapentsu, otzan, eraspentsu ta baŕu-zale ba-ete dan askok eztabe aifatu gura.

(1) Gen. VI, 12.



25. Gizatasunak gizonaren atetikoetara begiratzen dau,- eskeŕa, baŕiz, baŕukoetara biurtzen da.

26. Ari saŕitan iruzur egiten (engañetan) dautse; baña onek Jaungoikoagan itxaroten dau, iruzur egin eztagioen.

## XXXII ATZAI.BURUA

### NORBr.RE BURUA UKATZEA TA IRRITS GUZTIAK IZTEA

1. JESUKRISTO ' K. — Ene seme, zeure buruari osoro ukatu ezik, benetako azkatasuna ezin euki zeinke.

2. Jaubeak, norbere buru-zaleak, griñatsuak, geyegi jakin-zaleak, eta beti bigunkerien bila ta ez Jesukristo'ren bila dabizanak, eta iraungo eztauana saŕitan asmatzen eta eratzen daragoyoenak lotuta dagoz.

3. Jaungoikoagandik eztatoŕen dandana ondatuko da.

4. Esakun labur eta mamintsu oneri eutsi egiozu.

5. Guztiak itxi egizuz, eta guztiak aurkituko dozuz,- iŕitsa itxi egizu, ta atsedena idoroko dozu.

6. Auxe gogoan erabilzu : ta 'oeteten dozunean, dana ulertuko dozu.

7. GOGO ZINTZOAK.—Jauna, au ezta egun baterako lana, edo ume-olgetea,- baŕiz, oŕen esakun labuŕean lekaideen ornitasun osoa sartzen da.

8. JESUKR.STO'K.—Ene seme, osotasunerako bidea zein dan entzunda atzera eginbeaŕik edo kikildubeaŕik eztaukazu,- goragoetarako alegindu, edo gitxienez igoteko gurariakaz bizi zaite.

9. Zeure buru-zale ezpa'ziña, ta bakaŕik neure gurarira ta emon dautzudan nagusiaren naitara osoro ba ' zengoz,- orduan bai neure begikoa izango zintzake, ta zure bizitza osoa poz eta atsegiñetan igaroko litzake.

10. Oraindiño iztekorik asko daukazu, ta oŕek guztiok oso-osoan neuretzat itxi ezik, eskatzen dozuna eztozu jadetsiko.



11. Aberals izateko sutan garbituko uŕea,- au da, beko guztiak ostikopetzen dauzan jakituri zerutaŕa neuri erosi dagistazula biotzez dirautzut.

12. Luŕeko jakituria ta gizarteko ta zure atsegingaŕi guztiak atzeratu egizuz.

13. Gizonen eritxian edeŕak eta goikoenak diranen ordez, zeuretzat zataŕenak erosteko esan dautzut; oso zataŕa, txatxaŕa ta aiztua dala dirudi zerutiko benetako jakituria: au ezta aŕopuztuten eta eztaki luŕeko andikeri-bila ibilten; berau askok eta askok irakasten dabe, baña egiñetan uŕin daukie,- ta berau da bitxi eder-edeŕa, askorentzat ostendua.

## XXXIII ATZALBLIRUA

### BIOTZAREN ALDAKORTASUNA, TA GURE AZKEN-ASMOA JAUNGOIKOAGANA ZUZENDU BEARRA

1. JESUKRISTO'K.—Ene seme, ez egiozu siñistu zure gurariari; orain dana Iaster besteratuko yatzu-ta.

2. Bizi zarean artean, gura ezta be, al-

dakoŕa izango zara, batzuetan pozik, beste baztuetan itun,- batean baretsu, bestean artega,- orain bero, gero epel,- orain langiíe, gero alper; orain astun, gero arin aurkituko zara. Baña gogotzazkoak ondo aditzen dauzan jakituna, gorabera onein goitik dago; bere baŕuan nabaitzen daunari, ta aldakortasun aizeak nondik putzegiten dauan begiratu barik, beré a'smo osoa bear eta gura dauan elburura zuzendu dedin arduratzen dala.

3. Ainbeste jazoeren artean asmo bakunaz, aspertu barik niri begira egoten dana, beti bat eta zirkin barik iraungo dau.

4. Ta asmo - begia garbiago izan, ekaitz askoren artean geldiago iraungo dau.

5. Baña datoŕen edozelako atsegingaŕira eŕaz begiratzen da-ta, askotan asmo garbiaren begia lausotu egiten da, norberekoitasunaz orbandubakoak gitxi baño eztira-ta.

6. Onelan judataŕak bein Betania'ko



Marte ta Miren'enera joan ziran Jesu' gaitik, baita Elazar ikusteaŕen be.

7. Asmo - begia bakuna ta zuzena izan, eta bitarteko guztiak itxita nigana zuzendu dedin, garbitu egin bear da

## XXXIV ATZALBURUA

### MAITATZAI.I.E.tKI GUZTIAK liAÑO CHYACO TA GLIZTIETAN JAUNGOIKOA VAKOI.A GOZOGAHIiir.MA

1. GOGO ZINTZOAK.—Ona emen neure Jaungoikoa ta guztiak.

2. Zer geyago gura dot; eta zer zoriontsuagorik gura nengike?

3 Auxe dan itz eztitsu ía samuŕa, baña Jauna maite dauanarentzat; eta ez luŕa ta luŕekoak maite dauzanentzat.

4. Neure Jaungoikoa ta guztiak.

5. Ulertzen daunari naiko esan yako, ta saŕitan esatea atsegin yako maitaleari.

6. Zu berton egon ezkero, dana atsegingaŕi,- baŕiz, zu uŕin egon ezkero, guztiak gogaikaŕi.

P

7. Zuk biotz baretsua, bake andia ta poz alaya sortzen dozuz.

8. Zuk edozetzaz ondo eritxi ta guztietan zeu goretsiazo dagizu, ta zu barik (uzaroan atsegingaŕi ezer ezin izan leike,- ostera, zerbait atsegingaŕi ta gozogaŕi izateko, zure eskeŕak antxe egon, eta zure jakituriak eztitu bear dau.

9. Zu gozo zayakezanai, zer etxake gozo izango?

10. Ta gozo etzayakezanai, atsegiñik zek emongo dautse?

11. Baña munduko jakitunak eta aragi-zaleak zure jakituria eztazaue,- aetan aŕopuzkeri andia ta oneitan eriotzea aurkitzen da-ta.

12. Baña luŕekoak ezetsi ta aragia ilduratuta zuri jaŕaitzen dautzuenak, uskeritik egira ta aragitik gogora igaroten dira-ta, benetako jakitunak dirala agiri da.

13. Onei Jaungoikoa gozo yake, ta izakietan dagoan on guztia Egiíearen aintzarako artzen dabe.



14. Baña Irazale ta izakiaren, betikotasun eta aldiaren, irazanbako argi ta argituaren gozotasuna oso bestelangoak dira.

15. Irazanbako argi guztiak goitzen dozuzan betiko argi oŕek, nire biotz baŕuraño sartuko dan tximista dizdiratzaíea goitik bialdu egizu.

16. Garbiŕu, poztu, argitu ta biztu egizuz nire gogoa ta beronen almenak, pozaren pozezko laŕegitasunean zuri batu nagizun.

17. Ene, ta ordu zoriontsu ta guragaŕi au noz etoŕibo ete-da, zure arpegiz asetu nagizun, eta guztietan guztia izan zakidazan?

18. Au emongo daustazun artean poz osorik eztot izango.

19. Baña au da samiña! oraindiño gizon zaŕa nigan bizirik dago; oraindiño eztago guztiz gurutzean josita, eztago osoro ilda; oraindiño gogoaren aurka gogorjagiten da,- baŕuko gudak dauzala, arimaren agintzeaŕí bakean eztautso izten.

20. Baña zu, «itxasoaren indaŕa ezi ta ureska-asaŕea ibitzen dozun ori» (1), jagi zaite ta lagundu egidazu. «Eŕi gudazaleak ondatu egizuz» (2) zure indaŕez biŕindu egizuz, zure alatzak (mirariak) erakutsi egizu2, eta 2ure eskumea aint2atua Í2an bedi,- zugan neure Jaun eta Jaungoiko oŕegan izan ezik, niretzat ez itxaropenik ez estalperik eztago-ta.

## XXXV ATZALBURUA

### IjlZITZA ONETAN ZILTZALDIAK EZ IZATEKO ESKIEKTASUNIK l.ZTAGOALA

1. JESUKRISTO'K. — Ene seme, bizitza onetan bein be etzagoz eskier (seguru), eta bizi zarean artean gogo-iskiluak beti be beaŕekoak dozuz.

2. Arerioen artean zabiz, eta eskumatik eta ezkeŕetik ekiten dautzue.

3. Beraz, babeskintzat (eskudotzat)

(1) Psalm. LXXXVIU, 10.
(2) Psalm. LXVII, 31.



eroapena ezpa-darabil^u, zauri barik luzaroan etzara egongo.

4. Onetzaz gañera, datoŕen guztia egizko asmoaz neure edeŕagaitik jasateko (sufriduteko) 2ure biot^a neugan sendoro ezarten ezpa-dozu, buŕuka gogor oŕi ezingo dautsazu eutsi, ta zoriontsuen sariraño be ezirgo zara eldu.

5. Beraz, zoaz auŕera gizon-arauz, eta datoŕena datoŕela, gogor buŕukatu egizu.

6. Garaitzaleari mana emoten yako ba,- alpeŕentzat, baŕiz, zoritxar andia gelditzen da.

7. Bizitza onetan atseden-bila ba-zabiz, gero betiko atsedenera zelan elduko zara?

8. Atseden asko barik, eroapen andia eukiteko alegindu zaite.

9. Benetako bakea zeruetan bilatu egizu ta ez luŕean,- ez gizonetan, ez beste izakietan, Jaungoikoagan baño.

10. Jaungoikoaŕen zoriixar guztiak: nekeak eta miñak, ziltzaldiak, loŕaldiaki beartasunak, gaxotasunak, irañak, esa-

meseak, agirakak, apalaldiak, lotsaldiak, zuzentzeak eta ezespenak pozik jasan bear dozuz.

11. Oneik gauzok onoimenerako laguntzen dabe; oneik Kristo'ren ikaslea egiztuten dabe. oneik egiten dabe zeruko burestuna (koroia).

12. Nik neke labuŕaren ordez betiko saria, ta lots igeskoŕaren ordez amaibako aintza emongo dot.

13. Gogozko atsegiñak beti zeure gurarira eukiko dozuzala uste zozu?

14. Nire deunak be beti ez ebezan eukiten,- eta bai neke astunak, askotariko ziltzaldiak eta atsekabe goŕiak.

15. Baña eroapenaz jasan ebezan, eta euren burua baño Jaungoikoagan uste andiagoa eben: «aldi onetako nekeak eurekaz irabaziko dogun geroko aintzaren aldean ezer eztirala» (1) ba ekien-eta.

16. Askok negaŕen negaŕez eta nekeen nekez oztaz jadetsi ebena, zuk bereala euki gura dozu? 'f

(1) Rom. VIII, 18,



17. Jaungoikoagan itxaron egizu, gizon-arauz ekin egizu ta sendotu zaite; ta ustea galdu barik eta igesi barik, gorputza ta arimea beti-beti Jaungoikoaren aintzarako eskiñi egizuz.

18- Nik bete-beteanordainduko dautzut: loŕaldi guztietan ni zeugaz egongo naz.

## XXXVI ATZALBURUA

### GIZONL.N HRITXI UTSAI.l.N AUUKA

1. JKSUKRISTO'K.—Ene seme, zure biotza Jaunagan sendo ezaŕi egizu, ta zure baŕuak on eta eŕubako ebazten zaituanean, gizonen eritxiari bilduŕik ez egiozu izan.

2. Oŕelan jasatea on eta zorionekoa da,- eta biotz apalari ta ustea norberagan baño geyago Jaungoikoagan daukanari etxako astun egiten.

3. Askok laŕegi itz egiten dabe-ta, gitxi siñistu bear yake.

4. Baña guztien gogoko izatea be eziña da.

5. Paul deunak Jaunagan guztiai atsegin izaten ekin aŕen, eta guztientzat guztia egin aŕen, bera gizonak epaitzea ezereztzat etsi eban.

6. Besteen onbiderako ta gaizkakunderako (salbaziñorako) beragan egoana ta al eban guztia egin eban,- baña onan be batzuen nozean-beingo eritxi ta ezespenetatik azke etzan bizi.

7. Augaitik dana ezagutzen dauan Jaungoikoaren eskuetan itxi eban dan-dana, ta min zitalen aurka, baita uskeri ta guzuŕak asmatu ta gura-aña esaten dabezanen aurka, apaltasun eta eroapenaz zaindu eban bere burua.

8. Baita batzuetan erantzun be egin eban, bere ixiltasuna zala-ta makalak jausi ez eitezan.

9. Nor zara zu gizon ilkoŕaren bildur izateko?

10. Gaur ba-da, ta biar ezta agiri.

11. Jaungoikoaren bildur izan zaite, ta gizonen dardareaz etzara ikaratuko.



12. Gizonak itzez nai iraííez zer egin leiketzue?

13. Zuri baño bere buruari kalte geyago egingo dautso, ta naiz-nor dala be Jaungoikoaren epaitik ezingo dau igesik egin.

14. Jaungoikoa gogoan erabilzu, ta itz mingaŕiak dirala-ta etzaite ibili eztabaidaka.

15. Ta orain azpira jausten bazara, ta irabazi eztozun lotsea jasaten ba-dozu, oŕegaitik etzaite asaŕatu,- eroapenezaz zeruko zure saria ez egizu gitxitu,- baŕiz, zerura neuri begiratu egidazu, lots eta iraiñ artetik atera ta bakotxari, bere egiñen neuŕiz,zoryakonaemoteko altsua naz-eta.

## XXXVII ATZALBURUA

### BIOTZAREN AZKATASUNA JADESTEKO NORBERO BURUAREN UKAPEN GARBI TA OSOA

1. JESUKRISTO'K.—Ene seme, zure burua itxi egizu, ta aurkituko nozu.

2. Ezer gura barik ta zeuretu barik zagoz, eta beti irabaziko dozu.

3. Bein zeure burua itxi ta bańiro artu ezik, ber-bertatik esker joriagoa emongo yatzu.

4. GOGO ZINTZOAK. — Jauna, zeinbat bidar burua ukatu, ta zeintzuetan itxi bear dot?

5. JESUKISTO'K.—Beti ta ordu guztietan, txikian lez andian be.

6. Ezebe eztot beresten, guztietatik erantzita aurkitu gura zaitut-eta.

7. Bestelan, zu nirea ta ni zurea zelan izan gintekez, zure gura osoa bańutik eta azaletik eranzten ezpa dozu?

8. Eranzte ori lasteńago egifiaz obe izango yatzu,- eta osoago ta biotzetikoago egiten dozun neuńiz, niri atsegingańiago izango zakidaz, eta geyago irabaziko dozu.

9. Batzuk euren buruari ukatzen dautse, baña ez guztietan,- Jaungoikoagan eztabe itxaroten uste beteaz, eta augaitik euren buruaz arduratzen dira.



10. Beste batzuk, bańiz, fenengoan dana eskintzen dabe,- baña gero, ziltzaldiak eraginda, eurenetara itzultzen dira, ta onbidean ezebe eztira auńeratzen,

11. Oneik euren buruari ukatu ta norberaren egunoroko eskintzea egiten ezpa-dabe, biotz garbíaren benetako azkatasmiera la nire adiskidetasun atsegingańira eztira elduko,- ori barik batze pozkońik eztalako ta ezin izan leikelako.

12. Sańi - sańitan esan dautzut eta orain bańiro dirautzut : burua itxi, buruari uko egiozu, ta bańuko bake ugaria gozartuko dozu.

13. Guztíaren ordez guztia emon egizu: ezer ez egizu bilatu, ezer ez egizu eskatu,- neugan zintzo ta ezbai barik zagoz, eta eukiko nozu.

14. Biotza azke izango dozu, ta iluntasunak etzaitue ostikopetuko.

15. Onetarako izan bediz zure ekiñak, onetarako zure gurariak, jaubetasun guztia erantzita Josu bilosarí bŕíosik

5. Auxegaitik Josue'ri ta Isŕaeldat'ai Gabaondaŕak ziria sartu eutsela irakurten dogu; lenengo Jaungoikoaren erantzuna ifandu beaŕean, itz labanai ariñegi siñistu eutselako, eŕuki kirtenak iruzur-egin eutsen.

VV V I V A

AAAIA ATZALBURUA

CIZONAK ARAZOETAN [Í7.TAUAI.A IZAN' BEAR ARDURATSUr.GIA

1. JESUKRISTO'K.—Ene seme, beti neuri ardurapetu egidazu zure auzia, bere aldian neuk ondo atonduko dautzuteta.

2. Nire erabagiaren zain zagoz, eta onurea nabaituko dozu.

3. GOGO ZINTZOAK. — Jauna, guztiak oso pozik ardurapetzen dautzudaz, nire asmaketak gitxi auŕeratu leike-ta.

4. Etorteko diran jazoerai asko itsatsiko ezpa'nintzakie,- ostera, ber-bertatik nire burua zure ondo-gurerako eskiñiko ba'neu!



5. JESUKRISTO'K. — Ene seme, gizonak saŕitan gura dauan zerbaitera eltzeko alegiñak egin daroaz,- baña bein beraganatu ezkero, beste era batera eristen asten da; zerbaitganako gure zaletasunak eztira izaten iraunkoŕak, batetik bestera bultzatzen gaitue-ta.

6. Ezta ba txikia txikaŕenetan be norbere buruari ukatzea.

7. Gizonaren égizko auŕerakuntzea bere buruari ukatzea da.

8. Ta buruari ukatu dautsan gizona oso azke ta eskier dago.

9. Baña aintziñako etsayak on guztiak zirikatzeari eztautso izten,- ostera, egunez eta gabaz maltzurkeri andiak asmatzen diardu, ardurabakoen bat bere sareetan artu al ba'leu.

10. «Ziltzaldian jausi etzaitezen itxaŕik egon eta otoitz egizue», diño Jaunak (!)•

(1) Matth. XXVI, 41.

## XL ATZALBURUA

### GIZONAK BEREZ ONIK BAT BE EZTAUKALA TA ARROTZEKORIK BEZ

1. GOGO ZINTZOAK.—Jauna, zer ete-da gizona, zu beraz gomutatzeko; edo zer ete-da gizasemea zuk ikertzeko? (1).

2. Zer irabazi dau gizonak, zuk berari zure eskeŕa emoteko?

3. Jauna, izten ba-nozu be, zer dala ta eŕemuska ibiliko naz? ta eskatzen dautzudana egiten ezpa-dozu be, espa zuzenik esan neuskitzu?

4. Benetan egiz auxe oldoztu ta esan daiket:

5. Jauna, enaz ezer, ezin dot ezer, neurez eztaukat ezer onik; ostera, edozetan txulut egiten dot, eta beti ezerezera noa.

6. Ta zeuk lagundu ta baŕuz irakatsi ezik, oso epela ta lizuna egiten naz.

7. Zu baŕiz, Jauna, beti bat zara ta beti bat irauten dozu; beti ona, zuzena

(1) Psalm. VIH, 9.



ta deuna,- gauza guztiak ondo, zuzen eta deunkiro egin eta jakituriaz atontzen dozuzana,- baña nik, auŕeratzeko baño atzeratzeko makuŕago nazan onek, beti egoera batean eztot irauten, egunoro zazpi gogaldi izaten dodaz-eta.

8. Baña zuk nai dozunean eta zure esku Iaguntzalea luzatzen daustazunean, beingoan egiten naz obera,- gizonakandiko laguntasun barik zeuk bakaŕik lagundu ta sendotu nengikezulako, nire arpegia askolara aldatu eztaiten, eta nire biotza zugana ta ez beste iñogana biurtu ta zugan atsedendu daiten.

9. Augaitik, nai eraspena jadesteko, nai gizonen artean nok poztu eztaukadalako, zugana joateko daukadan beartasunaz giza-atsegin guztiak alboratzen ondo ba'nenki, onetara bai zure eskeŕean bidez itxaron, eta atsegin baŕiaren emokunagaz poztu ninteke.

10. Eskeŕak zuri, Jauna, ondo jazoten yatan guztia zugandik datorkit-eta.

11. Ni, baŕiz, zure auŕean uskeria ta

ezereza, gizon aldakoŕa ta malaka naz.

12. Beraz, zer dala-ta aŕotu ninteke? edo zer dala-ta ospetsua izan gura dot? Ezerezagaitik ala? Baña ati uskeri utsa da.

13. Benetan aŕopuzkeria izuŕite (peste) txaŕa ta uskeri oso andia da,- benetako aintzatik aldendu ta zeruko eskeŕa kentzen dau-ta.

14. Gizona bere buruari aísegin yakonean, zuri iguingaŕi yatzu, ta gizonen txalo-gose dan artean, benetako onoimenak kendu egiten yakoz.

15. Benetako aintza ta poz deuna norberagan barik, zugan aintzaldutean dago,- norberaren onoimenean barik, zure izenaŕen poztutean,- eta zeugaitik izan ezik izaki batxu batean atsegiñik ez artzean.

16. Goretsia izan bedi zure izena ta ez nirea,- andietsiak izan bediz zure egiñak eta ez nireak; onetsia izan bedi zure izena, ta niri gizonen gorespenen apt ŕik ez begíste ezaŕi.

17. Zu zara nire aintza, zu nire biotzaren pozkiña,- egun osoan zugan aintzaldu ta poztuko naz; nitzaz baŕiz, ezetan bez, neure makaltasunetan izan ezik.

18. Judataŕak afkaŕegandiko aintza bilatu begie,- nik Jaungoikoagandikoa dana baño eztot biíatuko.

19. Giza-aintzak eta gorespen aldikoŕak eta luŕeko goitasunak, zure betiko aintzaren ondoan uskeria ta zorakeria baño eztira.

20. Ene neure egi, ene! neure eŕuki-ene! neure Jaungoiko ori, Irutasun zoriontsu ori, zeuri ta beste iñori ez gorespena, dedua (onrea), onoímena ta aintza amaibako egunetan.



## XLI ATZALBURUA

### ALOIKOR DEDU GUZTIAK EZESTEA

1. JESUKUISTO'K. — Ene seme, besteak txalo la gorespenen artean eta zeure bi - rua, baŕiz, ezespen eta apalespenen azpian ikusi aŕen, etzaite mindu.

2. Zure biotza nigana zerura jaso egi-

zu, ta Iuŕean gizonen ezespenak etzaitue itunduko.

3. GOGO ZINTZOAK. — Jauna, itsukerian gagoz, eta uskeriak laster atzipetuten gaitu.

4. Neure buruari zuzen begiratzen ba-dautsat, izaki batek be iñoz irañik eztaust egin, eta zure aurka zer dala-ta eŕemuskadaka ibili eztaukat.

5. Baña saŕitan eta oben astunakaz iraindu zaitudalako, izaki guztiak nire aurka bidezjagiten dira.

6. Lotsea eta ezespena zuzen zor yataz ba, ta zuri gorespena, dedua ta aintza.

7. Edozein izakik ezetsi, baztertu ta ezereztzat eukitea pozik gura izateraño gertzen ezpa-naz, baŕuz ezin baketu ta sendatu ninteke, ta gogoz argitua izan bez, eta zugaz guztiz batu bez.



## XLII ATJZALBURUA

### BAKEA GIZONAKAN EZTALA ÍPIÑI BEAH

1. JESUKRISTO'K.—-Ene seme, zure bakea zure gogokide ta lagunen batean ezarten ba-dozu, urduri ta nastuta aurkituko zara.

2. Baña beti bizi ta diraun egiagana itzultzen ba-zara, doan edo ilten dan adiskideagaitik etzara itunduko.

3. Adiskideganako maitasuna neugan ezaŕi bear da, ta bizitza onetan on eta maitagaŕi dirudizuna, neugaitik maite-izan bear dozu.

4. Ni barik, adiskidetasuna ezetarako be ezta, ta eztau iraungo,- ta rik alkartzen eztodan maitasuna ezta maitasun garbia ta benetakoa.

5. Zeurez adiskideakanako zaletasunetan iñogaz artu-emonik barik bizitea gura izateraño, ilda egon bear dozu

6. Gizona luŕeko atsegiñetatik uŕintzen dan bestean, Jaungoikoari uŕeratzen

yako. Baita, beraga sakonago jatsi ta ezereztuten dan neuŕiz, Jaungoikoagana gorago igoten da. s

7. Norbere buruari ezer onik ezarten dautsanak, Jaungoikoaren eskeŕari beragana etortea eragozten dautso,- Goteunaren (Espiritu Santuaren) eskeŕa beli biotz apalaren bila dabil-eta.

8. Burua osoro ezereztuten eta egindakoen maitakeritik aldenduten ba'zenki, orduan zuri esker ugaria isuri bearko neuskizu.

9. Zuk izakiari begiratzen dautsazunean Egilea ikustea kentzen yatzu.

10. Egileaŕen zeure burua beti azpiratzen ikasi egizu,- ta orduan bai Jaungoikoa ezagutzera eldu al izango zara.

11. Txatxar-txatxar edozer oker maite izan edo begiratzen ba'yako, on osotik uŕindu eta kalte egiten dau.



## XLIH ATZALBURUA

### GIZARTBKO JAKITLíRl UTSAI.AREN AURKA

1. JESUKRISTO'K.—Ene seme, gizonen esate eder eta zoŕotzak ez begitzue zirkiñik eragin.

2. «Jaungoikoaren jaureŕia (eŕeiñua) eztagoalako itzetan, onoimenetan baño» (1).

3. Biotzak ixiotu, ta adimenak argitu, damua biztu ta atsegin asko dakazan niie itzai adi zagoz.

4. Izkirik bein be ez egizu irakuŕi, burua ikastun eta jakitunagoa agertzeaŕen.

5. Oitura gaiztoak ilduratzen ikasi egizu, onek gai zail asko jakiteak baño on ge)'ago egingo dautzu-ta.

6. Asko irakuŕi ta ezagutzen dozuzanean, beti sorburu bakaŕera jo bear dozu.

7. Neu naz gizonari jakituria erakus-

(1) Korint. l.'MV, 20.

ten dautsana, ta gizonak irakatsi leikean baño umeai adimen argiagoa emoten dautsena.

8. Nik itz egiten dautsadana laster izango da jakitun, eta gogoarenetan asko auŕeratuko dau.

9. Niri otsein egiteko oso gitxi arduratu, ta gizonen baŕikeriak jakin gura dabezanak, bai ba-dirala eŕukaŕi!

10. Egunen batean irakasleen irakasle ta aingeruen Jauna dan Kristo, guztioen irakaskizunak entzutera,- au da, bakotxaren baŕua aztertzera etoŕiko da,- ta orduan Jerusalen zuziakaz azterkatuko dau, ta ilunpekoak agirian ipiñiko dira, ta min-zurikeriak ixilduko dira.

11. Neu naz adimen apala bat-batean jasoten dodana, ikastolan amar urte eginda baño betiko egiaren bideak obeto ulertu dagizan.

12. Nik itz-zarata barik, eritxi naáte barik, deduaren orbal barik eta egiztabidean buŕuka barik irakasten dot.

13. Neu naz luŕekoak ezetsi, oraingoen iguin-izan, betikoak bilatu, betikoak gozartu, deduetatik iges-egin, eragozpenak jasan, uste osoa nigan ezaŕi, ta neu eztanik gura ez izan, eta biotz-biotzez eta gartsu neu maite izaten irakasten dodana.



14. Norbaitek ni biotz-biotzez maite ninduala, jaungoikozkoak ikasi ta irakatsi ebazan-eta.

15. Guztiak itxiaz geyago auŕeratu zan, gai sakonak ikasiaz baño.

16. Batzuei guztietarikoak irakasten dautsedaz, beste batzuei berebizikoak; batzuei ezaugaŕi ta irudipen artean samur agertzen nayake, beste batzuei argi-argitan agertzen dautsedaz eskutapenak.

17. Idaztien otsa bat da, baña ots oŕek guztiai bardin eztautse irakasten,- egiaren baŕuko irakasle, biotz-arakatzale, oldozkun ezaule ta egiñen eragilea neu nazalako, ta zuzen deristanez bakotxari berea enioten dautsat-eta.

•

## XLIV ATZALBURUA

### ATliTIKOAK EZITRAI.A NORBERAGANDU BEAR

1. JESUKRISTO'K.— Ene seme, gauza askotan ezjakiña izatea, ta zeUre burua lur-ganean iltzat eta ludi osoa zuretzat gurutzaldutzat eriztea beaŕekoa dozu.

2. Baita gauza askotan belaŕi-goŕa izan zaite, ta zure bakerako diranak geyago gogoratu egizuz.

?. Iguin yatzunetik begiak aldendu ta bakotxa bere eritxian iztea onuragaŕiago da eztabaidaka ekitea baño.

4. Jaungoikoagaz ondo ba-zagoz eta bere epayari begiratzen ba-dautsazu, garaitua izatea eŕazago eroango dozu.

5. GOGO ZINTZOAK.—Jauna, noraño eldu gara? Luŕeko kalteen bategaitik negar egiten da; irabazi apuŕagaitik lan-egin eta arin-arinka ibili gabiz; eta gogo-kaltea baŕiz, aiztuta daukagu ta nekez eta berandu dator gogora.

6. Gitxi edo ezetarako eztanagaitik asko arduratu, ta beaŕik beaŕena jaramon barik izten da,- gizona oso-osoan atetikoetara doa, ta laster datnutzen ezpa-da atetikoetan etzunda pozik dago.



## XLV ATZAI.BURUA

### GUZTIAI HTXAKEI.A SINISTLI BEAR, DTA ITZETAN ERRAZ LABAN-EGIN OI'DALA

1. Goco ZINTZOAK —«Jauna, naigabe-aldian Iagundu egidazu, gizonakandiko laguntzea utsala da-ta» (1).

2. Zenbat bidar zintzotasuna aurkituko nebalakoan, eta eztot aurkitu?

3. Baita, zeinbat bidar gitxien uste nebanean bertan aurkitu dot?

4. Utsala da beraz gizonakandiko ustea,- baŕiz, zugan dago Jauna, zuzenen osasuna.

5. Onetsia izan zaitez, neure Jaun eta Jaungoiko ori, guri jazoten yakuzan guztietan.

6. Makalak eta aldakoŕak gara,- ziria

(1) I'salm. LIX, 13.

beingoan sartzen dauskue ta aldatzen gara.

7. Alangoen batean iruzur edo zalantzen batean ez jausteko bestean, bere burua arduraz eta zur zaintzen dauan gizonik ete-dago ba?

8. Baña, Jauna, zugan itxaron eta biotz bakunaz zure bila dabilanak, onen eŕaz eztau laprast-egiten.

9. Ta loŕen batera jausita, ta edozelan naskilduta egon aŕen be, zuk laster atera edo poztuko dozu,- zugan itxaroten dauana betiko eztozu izten-eta.

10. Adiskidearen estualdi guztietan zintzo irauten dauan adiskideak, banakak izaten dira.

11. Zeu, Jauna, zeu zara bakaŕik guztietan zintzo-zintzoa, ta zeu izan ezik olangorik eztago.

12. «Nire arimea Kristo'gan sendotu ta sustartuta dago», esan eban arako gogo deunak, bai ondo ulertu ebala (1).

13. Neu be onan ba'nengo, gizonen-

(1) Agate deunak,



kandiko bilduŕak onen eŕaz eninduke ikaratuko, ta itz iraingaŕiak be eleuskide zirkiñik eragingo.

14. Dan-dana auŕez nok ikusi leike? ta etorteko gaitz guztiai bidea nok eragotzi leyoe?

)5. Auŕez ikusiak be saŕi askotan' kalte egiten ba-dabe, auŕez ikusi-ezak eztabez egingo zauri andiak?

16. Baña ni eŕukaŕi au, zegaitik auŕez obeto enintzan gertu?

17. Ta besteai zer dala-ta onen eŕaz siñistu- neutsen?

18. Baña gizonak eta gizon auskoŕak baño ezkara, askoren eritxiz eta esanez aingeruak ba-gara be.

19. Jauna, nori siñistuko dautsat?

20. Nori, zuri izan ezik?

21. Zu, atzipetuten (engañetan) eztozun eta atzipetu ezin zaitekezan egia zara.

22. Gizona, baŕiz : guzurtia, makala, aldakoŕa ta labana da, batezbere itzetan,-

ta augaitik lenengo ikusian zuzena diru-' diana be gitxitan siñistu bear da.

23. Benetan ederto írakatsi euskuzun gizonagandik zaintzeko,- ta gizonaren arerioak bere etxekoak dirala,- ta norbaitek ona emen, ara an dirauskunean ez siñistuteko esan zenduanean.

24. Neure lepotik ikasi dot, eta tentelago barik zuŕago jarduteko izango al yat.

25. Zuŕa izan zaite, diraust urliak, zuŕa izan zaite; ta dirautzudana zeure baŕuan jabon egizu.

26. Ta nik ixilik daukadala, ta ori estalduta dagoalakoan, berak niri ixilik eukiteko eskatu eustana ixilpean eukí ezinda, bai ni, bai bere burua salduta, joan zan.

27. Olango baŕikeri ta gizon min luzeetatik zaindu nagizu; Jauna,- oŕein eskuetan jausi enadin, eta olangorik egin eztagidan.

28. Nire aoan itz egizkoak eta zin-



tzoak ipiñi egizuz; eta nigandik min zitalak uŕin eroan egizuz.

29. Jasan nai eztodana ezetara be eztot egin-bear.

30. Beste iñortzaz ixilik egotea, ta itsumustuan edozer ez siñistutea, ta buru ariñagaz itz ez egitea, ta baŕua gitxiri zabaltzea, ta zu, biotza ikusten dozun ori bilatzea, ta edonondiko itz-aizez batera ta bestera ez ibiltea, ta baŕuko ta atetiko guztiak zeure gu ea dan lez egin daitezala gura izatea, oso ona ta bake andikoa da.

31. Zeruko eskeŕari iraun-azoteko giza-azalekoetatik iges-egitea, ta aragiz aŕigaŕi dirudienak gura barik, baŕu beroa emon eta bizikerea onduteko diranetan artlura guztiaz ekitea, da bide eskieŕa.

32. jArnaikatxuri kalte egin dautso onoimen jakiñak eta lasteŕegi txalotuak; eta ziltzaldia ta gudaldia baño eztan bizitza auskor onetan, amaika on-egin dau eskeŕa ixilpean zaintzeak!

## XLVI ATZAI.BURUA

### ÍTZ MINGARRIAK ZAURITZEIM GAITUENIÍAN JAUNGOIKOAGAN ITXARON BHARRA

1. JIÍSUKRISTO ' K.— Ene seme, zagoz sendo ta neugan itxaron egizu.

2. Itzak zer dira ba itzak baño?

3. Aizeaz zear egaz doaz, baña aŕia eztabe zulotzen.

4. Eŕudun ba-zara, onduteko asmoa gogoz artu egizu.

5. Baña ezetariko eŕurik ezpa-daukazu, Jaungoikoaŕen gogoz jasan gura dozula, gogoratu egizu.

6. Zigorkada gogoŕak artu ezin dozuzan ezkero, nozikpein itz mingaŕiak jasanaz naiko gitxi egiten dozu.

7. Ta ezerezkeriok zegaitik biotzeraño sartzen yatzuz, oraindiño aragikerizale izan, eta gizonai jaramon laŕegi egiten dautsazulako baño?

8. Ezespenaren bildur zarealako zure geyegikeriakaitik agirakarik eztozu



entzun nai, ta aitzakiaren kerizpe-biía zabiz.

9. Baña zure baŕua obeto azterkatu egizu, ta oraindiño zugan gizakerizaletasuna ta gizonai begiko izateko gurari utsala bizi dirala ikusiko dozu.

10. Zure okeŕakaitik zcure burua apaldu ta lotsatzetik iges egiten dozunean, argiro ikusten dana da etzareala apala, ta gizakeriarentzat eztagozala ilda, ta gizakeria (mundua) zuretzat gurutzalduta eztagoala.

11. Baña nire itza entzun egizu, ta gizasemeen amar-mila itzai jaramonik eztautsezu egingo.

12. Ara, asmatu leikezan guztiak zure aurka asmorik gaiztoenaz esango ba'lebez, baña zuk igarofen itxiko ba' zeunskioe ta galtsu bat baño geyagotzat eukiko ezpa'zenduz, zer kalte egingo leuskitzue?

13. Ule batxu bat atera al eteleuskitzue?

14. Bafta biotzaren baŕuan eztagoana

ta begien auŕean Jaungoikoa eztaukana, itz iraingaŕi batek laster minduten dau.

15. Baŕiz, ustea nigan daukana, ta bere erítxian jezaŕi gura eztauana, gizonen bildur-ikara barik egongo da.

16. Neu naz baŕu-baŕukoen epaikari ta ezagutzalea,- nik ba dakit jazo dan-dana,- nik iraintzalea ta iraín-jasanlea ezagutzen dodaz.

17. Itz au neugandik urten da. neuk itxitajazo da au, biotz askoen asmoak agertu daitezan.

18. Eŕuduna ta eŕubakoa neuk epaituko dodaz,- baña biak auŕetiz epaiixilagaz egiztu gura-izan dodaz.

19. Gizonen ziñalpenak saŕitan utsegiten dau, baña nire epaya egitsua da, sendo egongo da ta ezta kenduko.

20. Saŕitan estalduta dago ta ondo-ondo gitxik ikusten 'dabe; baña utsik iñoz be eztau egiten, eta ezin egin leike, zentzunbakoen begiai zuzen ezpadirudie be.

21. Ustea norbere jakiturian ezaŕi barik, edozein eritxian neugana etoŕi bear da.



22. «Zuzena ba Jaungoikoaren eskutik letorkikeon edozegaitik be ezta artegatuko» (1).

23. Ta bere aurka bidebakokerien bat esaten ba-dabe, jaramon andirik eztautso egingo.

24. Ta beste batzuk bere alde zuzen egingo ba-dabe be, ezta aŕotuko.

25. Biotzen eta oldozkunen arakatzalea neu nazala-ta, gizonen arpegi ta antz arauz eztodala ebazten badaki-ta.

26. Gizonen eritxian txalogaŕi dana, saŕitan nire begietan eŕudun aurkitzen da.

27. GOGO ZINTZOAK.—Gizonen auskortasuna ta gaiztakeria ondo ezagutzen dozuzan, Jaungoiko Jauna, epaikari zuzena, sendoa ta eroapentsua; niri indaŕa ta itxaropen osoa izan zakidaz, nire baŕua etxat naiko-ta.

28. Nik eztakidana zuk badakizu, ta

(1) Prov. XII, 21.

augaitik agiraka-aldi guztietan burua apaletsi ta otzan jasan bear neban.

29. Baña onan egin eztodanetan azketsi (parkatu) egidazu, ta jasateko esker ugariagoa baŕiro emon egidazu.

30. Ba, azkespena jadesteko obe yat zure eŕuki andia, nire usteko zuzentasuna nire baŕu ostenduaren alde egiteko baño.

31. Nire baŕuan obenik oartu ezaŕen, au gora-bera neure burua ezin neinke zuzentzat euki: zure eŕukia kendu ezkero, bizi danik zure begietan deunduta ezta agertuko-ta.

## XLVK ATZALBURUA

### NEKE ASTUN DANAK BETIKO BIZITZEAGAITIK JASAN BEAR DIRALA

1. JESUKRISTO'K. — Ene seme, neugaitik leporatu dozuzan nekeak, ezpegitzue luŕa jo eragin, loŕak be ezpegitzue kikildu-azo; ostera, edozelango gertakizunean nire agintzak sendotu ta poztu zagiezala.



2. Era ta neuŕi guztien ganetik ordaintzeko neu naz naiko.

3. Emen eztozu luzaroan lan-egingo, ezta etzara beti nekeminpean egongo.

4. Pizkatxu bat itxaron egizu, ta nekeen amaya laster ikusiko dozu.

5. Neke ta kezka guztiak gelditukо diran ordua etoŕiko da.

6. Aldiagaz igaroten dana gitxi ta labuŕa da.

7. Zure zeregiñari ekin egiozu,- nire mastegian zin.tzo lan egizu: zure saria neu izango nayatzu-ta.

8. Idatzi, irakuŕi, abestu, negar-egin, ixildu zaite ta otoitz egizu, ta zoritxaŕak gizon-arauz eroan egizuz; betiko bizitzea onango ta buŕuka andiagoen gai bada-ta.

9. Bakea Jaunak dakian egunean etoŕiko da,- ta orduan ezta izango, orain lez, gau-egunik: betiko argia, amaibako

argitasuoa, bake sendoa ta atseden eskieŕa baño.

10. Orduan eztozu esango, «nok aterako ete-nau gorputz ilkor onetatik» (1); eztozu deadar egingo: «ni bai eŕukaŕi, erbeste-aldia luzatu }'at-eta» (2); eriotzea ondatu ta akatzbako osasuna etoŕiko data, kezka bat be ezta izango, alaitasun zoriontsua, ta lagundi gozo ta adeŕa baño.

11. Deunak zeruan daukezan burestunak (koroyak), eta emen gizadiarentzat ezesgaŕi ta biziteko lain be eztirala dirudienak, aintz edeŕaz poztuta dagozala ikusiko ba'zenduz, benetan zure burua luŕeraño apaletsiko zeunke, ta batxuren nagusi izatea baño guztien menpean egotea gurago izango zeunke,- ta bizitza onetako poz-egunen gose ez ziñateke izango: Jaungoikoaŕen lorpean izanaz poztuko zintzateke, ta gizonak zu ezereztzat estea irabazi anditzat artuko zeunke.

(1) Rom.VlI.Q4.
(2) Psalm, CXIX.5.



12. Oneik egiok gozartuko ba'zenduz, eta biotz-baŕuraño sartuko ba'litzakizuz, baten be asartuko zintzake eŕemuskadaka asten?

13. Betiko bizitzeagaitik, ez ete-dira jasan-bear nekegaŕi guztiak?

14. Ezta gauza txikia Jaungoikoaren jaureŕia (eŕeñua) galdu edo irabaztea.

15. Jaso egízuz ba zure begiok zerura; ona emen ni, 'ta nigaz luŕean buŕukaldi goŕiak euki ebezan deun guztiak.

16. Orain poz-pozik dagoz, orain eskier dagoz, orain atsedenean dagoz,- eta nire Aitaren jaureŕian (eŕeiñuan) amai barik inugaz iraungo dabe.

## XLVIII ATZALIÍURUA

### RETIKO UCUNA TA BIZITZA ONETAKO I.ARltlAI.DIAK

1. Goco ZINTZOAK, —Zeruko biztoki zoriontsu-zoriontsua!

2. Betiko egun argi-argia,- gabak iíundu ez eta beti Egi uts-utsak argi-egiten

dauana,- beti tgun pozgaŕia, egun eskieŕa ta iñoz besteratzen eztana!

3. Ene! egun oŕek argi-egingo ba'leu ta aldakor oneik amaituko ba'lira!

4. Deunai benetan betiko argi bizi-biz'taz argi-egiten dautse; ostera, luŕeko atzeŕi onetan bizi diranai uŕiñetik eta 'ispilutik lez.

5. Egun ori oso pozoŕa dala zeru-taŕak dakie; Eba'ren nme erbestetuak egun au gaŕatza ta gogaikaŕia dala-ta zotinka dagoz.

6. Bizitza onetako egunak gitxi ta txaŕak, min eta laŕialdiz beteak dira,- euroetan gizona oben askogaz lo'ttu, griña askogaz lotu, bildur askogaz laŕitu, ardura askotan arazotu, baŕikeri askogaz oyertu, uskeri askotan nastu, oker askogaz tnguratu, lor askogaz ausi, ziltzaldiakaz astuhdu, atseginkeriakaz indargetu ta txirotasonagaz oñazetua da.

7. Ene! gaitz oneik noz amaituko ete-dira? griña gaiztoen menpetasun eŕukaŕitik noz urtengo ete-naz?



8. Jauna, noz gomutauko ete-naz zutzaz bakaŕik? zugan noz poztuko ete-naz?

9. Noz egongo ete-naz eragozpen bat be barik, benetako azkatasunean, gogo ta gorputzean astuntasun bat be barik.

10. Noz izango ete-dot bake sendoa, bake aldatu-eziña ta eskieŕa,- bakea baŕittik, bakea atetik, bake oso iraunkoŕa?

11. Josu ona, noz jagiko ete-naz zu ikusteko? zure jaureŕiko aintza, noz ikusiko ete-dot? guztietan guztia niretzat noz izango ete-zara?

12. Noz egongo ete-naz zugaz, zure maiteai betikotasunetik gertu zeuntsen ztire jaureŕian (eŕeñuan)?

13. Eguneroko buŕukak eta zorigaitz andiak diran arerio-eŕian txiro ta erbestetuta itxi nabe.

14. Nire erbeste au poztu egiztt, nire miii au ibitu egizu,-nire gurari osoa zure antziz dago-ta.

15. Gizakeriak atsegiñerako eskintzen daustan guztia nekegaŕi yat.

16. Zeu baŕu'baŕuan gozartu gura zaitut, baña ezin zaitut artu.

17. Zerukoai batu guta-ta nabil; baña aldikoŕak eta griña ezibakoak luŕeratzen nabe.

18. Gogoaz gauza guztien ganetik igon gura dot; baña aragiak, gura ezta be, azpian nauko.

19. Ona ni gizon gaxo au neure buruak buŕuka nabil eta neure buruarentzat nekegaŕi egiten naz, gogoak gorantza ta aragiak berantza egiten daustala.

20. Ene Jauna, zerukoak gogartzen dodazala nik baŕuan jasaten dodana, otoitzaldian bat-batera aragikeri piloak gogora datorkidazanean!

21. Nigandik etzaite uŕindu, Jauna,- zure jopu onegandik etzaite asaŕez aldendu,- zure tximisteari txist eragiozu, ta odeyok ezereztn egizuz,- zure azkonak jaurti egizuz eta arerioen asmakeri guztiak laŕitu beitez.



22. j\[l]ire asinamen (sentidu) guztiak zeugan batu egizuz, luŕeko guztiak aiztuazo egidazuz, eta irudikeri zataŕak nigandik ainbat Jasteŕen uxatu ta ezesteko indaŕa enion egidazu.

23. LaguiKĺu egidazu, betiko egia zarean oŕek, eta uskeriak ez beist zírkín eragin,- etoŕi zakidaz, zeruko samurtasuna, ta zikínkeri guztiak igesi begie zure auŕetik.

24. Otoitzean zu barik beste zerbait gogoan darabilifan bakotxean, azketsi (parkatu) ta eŕukiz begiratu egidazu.

25. Ik-nefan oso oyei íuta egoten izan nazala autortzen dot.

26. Askotan ba, niregorputzazutunik edojezanta daukadan tokian barik, oldozkunak naroan tokian nago.

27. Nire oldozkuna (pentsamentua) dagoan tokian nago *neu be.* Ta nire oldozkuna, saŕitan, inaite dodan atantxe dago.

28. Berez atsegin emon edo poztuten nauana yatorkit lenen gogora.

29. Augaitik egia zarean ořek, argiro esan zendun. «Zure ondasuna non, zure biotza be antxe». (1")

30. Zerua maite ba-dot, zerukoetzaz pozik oldozten dot.

31. Luřa maite ba-dot, luřeko zoriontasunakaz poztu, ta bertoko zoritxařakaz itundu egiten naz.

32. Aragia maite ba-dot, aragikeriarenak iruditzen yataz sařitan.

33. Gogoa maite ba-dot, gogozkoak asmetan dago nire atsegiña.

34. Maite dodazan guztietzaz pozik itz-egin eta entzun daroat; eta euroen irudiak neugaz etxera dakadaz.

35. Baña zorioneko da, Jauna, zure edeřagaitik ikazi guztiai alde eg'ucko baimena emoten dautsena, norbere buruari gogor egiten dautsana, ta aragi-iřitsak gogo beroaz gurutzean josten dauzana,- bein bařua baretu ezkero, zuri otoitz garbia eskiñi dagitzun, eta luřeko

(1) Matt. VI, 21.



guztiak bere bařu ta atetik uřinduta, aingeru-talde artean egoteko gai izan daiten.

## XLIX ATZALBURUA

### BliTIKO BIZITZEA GURA IZATHA, TA BURRUKALARrENTZAT ACINDUTA DAGOZAN ONAK ASKO-ASKO DIRALA

1. JESUKRISTO'K.—Ene seme, betiko zoriontasunaren guraria isuritzen yatzula nabaítzen (sentiduten) dozunean, ta nire argitasuna aldakuntzetako kerizpe barik ikusteko gorputz-bařutik urten gura dozunean, zure biotza zubaldu egizu, ta gogargi deun au biotz-biotzez artu egizu.

2. Zure astuntasunaz luřekoetara Iabandu etzaitezan, zugaz ořen adeitsu jardun, ořen eřukiz ikertu, ořen gartsu eragin, eta ořen indartsu jasoten zaitualako, esker ugariak egtozuz goiko ontasunari.

3. Ori zure ardura ta alegiñez barik,

zeruko eskeŕaren eta Jaungoikoar.cn on-tasunaren bidez baño eztozu artzen,- on-bidean eta apaltasun apalagoan auŕcratu dagizun, eta geroko buŕukaldietarako gertuta egon zaitezan,- eta biotz-biotzez niri batu zakidazan, eta nire otseinlzean gogo sutsuaz ekin dagiznn.

4. Ene seme, saŕitan sua gaŕetan dago,- baña ke barik gaŕa ezta igoten.

5. Onan batzuen gurariak zcrukoetzaz gaŕez dagoz, baña au ta guzti be aragiaren ziltzaldi barik eztagoz.

6. Augaitik Jaungoikoagandik ain gogotsu eskatzen dabena be, Jaungoikoaren dedurako asmo garbi - garbiaz eztabe egiten.

7. Onangoa da saŕitan bear ba-da, oŕen era barik agertzen dozun zure guraria.

8. Ezta ba garbia ta bikaña, norbere onureagaz nastua dagoana.

9. Niri atsegín eta dedugaŕi yatana eskatu egizu, ta ez zure atsegin eta onerako yatzuna: zuzen ebazten ba-dozu,



nire erabngia zure gurari ta gura dozuzan guztiak baño geyago obetsi fa jaŕaitu bear dozu.

10. Ba-dakit zure guraria, ta zure saŕitako negar-zotiñak entzun dodaz.

11. Oraindixe Jaungoikoaren semeen aintzazko azkatasunean egon gura zeunke,- betiko etxeak eta atsegiñez beteriko zeruko abeŕiak oraindixe poztuten zaitu,- baña ori oraindiño ezta eldu, beste aldi bat dozu oraingoa: guda, neke ta ekinaldia.

12. Guren-gurenagaz asetzea nai dozu; baña oraindiño ori ezin jadetsi zeinke.

13. Neu naz, diño Jaunak; itxaron egidazu Jaungoikoaren jaureŕia elduko dan artean.

14. Oraindiño luŕean egiztua ta, gauza askotan, eragiña izan zear dozu.

15. Nozikpein atsegiña emongo yatzu; baña asetasun beterik ez.

16. liizkortu ta sendotu zaite, izatasunaren aurkakoak egin eta jasateko.

17. Gizon-bafiz jantzi-bear zara, ta beste gizon batera aldatu.

18. Safitan nai eztozuna egin, eta nai dozuna itxi bear dozu.

19. Besteai atsegin yakena ondo joango da; zuri atsegin yatzuna ezta egingo.

20. Besteak diñoena entzungo da,- zuk diñozuna ezereztzat artuko dabe.

21. Besteak eskatu ta artuko dabe,- zuk eskatuko dozu, baña eztozu jadetsiko.

22. Besteak gizonen aoetan andiak izango dira,- zutzaz, bafiz, ezer ezta esango.

23. Besteai ardura au edo bestea emongo yake; zu, bafiz, ezetarako be etzaitue artuko,

24. Au dala-ta, izatasuna batzuetan ifunduko yatzu, ta ezta gitxi izango ixilik ba-daroazu.

25. Jaungoikoaren otsein zintzoak bere burua ukatu ta guztietan austen ba-ete-dakian, onango ta antzekoetan ezautzen da.



26. Beste gauzetan baño zure gurariaren aurkakoak ikusi ta jasatean iltea beafako dozu,- batezbere, bidebako ta egoki-ezak agintzen yatzuzala dirudizunean.

27. Ta zu menpeko izan eta nagusiari ezer esaten asartzen etzarealako, iñoren naitara ibili ta zure eritxia osoan eranztea gogoŕa dala dirudizu.

28. Baña goznartu egizu, ene semej neke onein lasteŕeko amaya ta sari andi-andia, ta etxatzuz astun egingo,- ostera, zure eroapenaren pozgafi sendoenak izango yatzuz.

29. Orain gogoz izten dozun gura-men apur onen ordez, zeruan zure *cjuraria* beti egingo dozu.

30 Antxe ba gura dozun guztia ta gura zeunken guztia idoroko dozu,- antxe ondasun guztia, galtzeko bildur barik, zeure eskuc:an eukiko dozu.

31. Antxe zure gurea nireagaz bat izango da, ta ez besterik ez beretzakorik eztau gurako. An iñok be eztautzu go-

gor egingo, zutzaz iñor be eŕemuska ez-ta ibiliko, iñok be eztautzu cragotziko, ezek be etzaitu arazotuko; baŕiz, gura diran guztiak eukiko dozuz, eta gurari osoa ganeraño asetu ta beteko 3'atzu.

32. An, jasandako lotseaten ordez aintza emongo dot, atsekabearen ordez aintzazko jantzia, azkenengo tokiaren Qrdez betiko jaureŕiko aulkia.

33. Antxe agertuko da esangintzaren igaíia, garbayaren nekea poztuko da, ta menpetasun apala aintzagaz burestunduko da.

34. Orain, beraz, guztien cskupean apal makurtu zaite, ta au nok esan edo agitidu dauan jakiteko ardurarik ez egizu artu,- baña onexeu ardura andia bai euki bear clozu: Kai nagusiak, nai gazteagoak, nai idekoak zerbait eskatu nai adierazoko ba'leutzu, guziia ontzat artuta, gogo zintzoaz beteteko alegin egizu.

35. Batak au, besteak ori bilatu bedi;



urlia atan, berendia onetan aintzalduak eta mila bidar goretsiak izan bediz,- zu baŕiz, ez onetan, ez atan etzaite poztu, zure burua ezestean eta nire ondogura ta deduan baño.

36. Zuk, nai bizitzan nai eriotzan, auxe gara izan bear dozu: zugan beti Jaungoikoa goretsia izan daitela.

## L ATZAI.IUIRUA

### CIZON ATSr.KABP.TUA JAUNGOIKOAREN ESKUETAN JARTEKO ERA

1. Goco ZINTZOAK.—Jaun eta Jaungoikoa, Aita deuna, orain eta beti onetsia izan zaite, gura dozun lez egin dalako, ta zuk egiten dozuna ona dalako.

2. Zugan alaitu bedi zure otsein au ta ez bere buruagan, ez beste iñogan; benetako alaitasuna, Jauna, zeu baño etzara-ta, zeu zara nire itxaropena ta nire burestuna, zeu zara nire poza ta nire aintza.

3. Zure otseñak zer dauko zugandik

artu dauna baño, ta auxe be irabazi barik?

4. Emon eta egin daustazuzanak dan-danak zeureak dira.

5. «Txiroa naz eta gaztetatik neke artean azia» (1) ta batzuetan arimea negar egiteraño ifuntzen yat; eta beste batzuetan, griñak joten dabelako, artega daukat.

6. Bakearen poza gura dot, atsegin-argitan janaritzen dozuzan semeen bakea eskatzen dot.

7. Bakea emon eta poz deuna isuriten ba-daustazu, zure otseñaren arimea alaitasunez beteta eraspentsu egongo da zu goresteko.

8. Baña saŕi-saŕitan egin oi dozunez, alde egiten ba-dozu, zure agindu-bidean ariñeketan ibili ezinda, bere bulaŕa joteko belaunbikotuko da; etxoako ba, atzo ta aranegun bere buru-ganean zure argiak dizdiratzen eutsanean, eta zure egoen

(1) Psalm. LXXXVII, 1G.



itzalpean ziltzaldien uriolatik bere burua zaintzen ebanean lez.

9. Aita zuzen eta goragaŕia, zure otseña egiztuteko ordua eldu da.

10. Aiía maitagaŕia, ordu onetan zure otsein onek zugaitik zer edo zer jasatea ondo da.

11. Aita gurgaŕia, ztik betikotasunetik ba-zenkian ordua eldu da, apur batean zure otseiia, agiriz beintzat, jausita egongo zana, baña baŕuz bcti zugaz bizi dedin. Gizonen auŕean apur bat beratu, apaletsi ta kikildu bedi; griñak eta gaxoak apurtu begie, gero argi baŕiaren eguntsentian zugaz biztu ta zerukoetzaz irakatsia izan 'dedin.

12. Aita deuna, zuk olantxe erabagi dozu, ta olantxe gura izan dozu, ta zeuk agindu zendun auxe egin da.

ÍB. Zure adiskideentzako eskeŕa auxe dozu ba: zure edeŕagaitik zuk izten dozun bakoitxean eta edonogandik, ludi onetan min eta loŕak jasatea. Zure era-

bagi ta ardura barik eta zio barik luŕean ezertxu be ezta egitcn.

14. «Nire onerako, Jauna, apaletsi nozu, zure zuzenbideak ikasi dagidazan» (1); ta biotzeko aŕokeri ta ustekeri guztiak jaurti dagidazan.

15. Lotsa goŕiak nire arpegia estaltzea ederto etoŕi yat, poztuteko, gizonak barik, zeu bilatu zagidazan.

16. Onetan zure epai igaŕi-eziñaren bildur-ikara izaten be ikasi dot: zuzena gaiztoagaz batera atsekabetuten dozula, baña ez bide ta zuzentasun barik,

17. Eskeŕak zuri, zoritxaŕak uŕitu barik, oñazez josita atetik eta baŕutik laŕi' tasunakaz itota, zigorkada gaŕatzakaz biŕindu nozulako.

1-8. Zerupean dagoan bat be ezta ni poztu nengikenik, «zauritu ta sendatu, gaiztokietaraño eratsi ta baŕiro jasoten dozun» (2) nire Jaun eta Jaungoiko, arimen zeruko osagile ori izan ezik.

(1) Psalm. CXVIH, 71.
(2) Tob, Xlll, 2.



19. Zure ikasbidea nire ganean izan bedi, ta zure zigoŕak berak irakatsiko daust.

20. Ene aita maitea, zure eskuetan naukazu, zure agirakaren zigorpean makurtzen nayatzu,- astindu egizu nire sorbalda ta lepo au, nire okertasuna zure gurara makurtu dagidan.

21. Ederto egin oi dozunez, ikasle eraspentsu ta apala egin nagizu, zure gogora ibili naiten.

22. Nazan au ta daukadazan guztiak zeuri damotzudaz, artezlu dagizuzan; zigorkadak gero baño orain artzea obe da-ta.

23. Zuk guztiak eta bakotxa ba-dazauzu, ta gure baŕuan ezer etxatzu ostentzen.

24. Etorkizunak jazo baño lenagotik dakizuz: eta luŕean jazoten diranak iñok irakatsi edo aifatu beaŕik eztaukazu.

25. Zuk ba-dakizu auŕeratzeko egoki yatana, ta oifura gaiztoen ugeŕa kentzeko Ioŕa berebizikoa dala.

26. Nigan gura ta atsegin yatzuna egizu, ta iñok baño obeto ta argiago ezagutzen dozun oŕek, nire bizitza obentsua ez egizu ezetsi.

27. Jakin bear dana jakin-azo egidazu, Jauna,- maite-izan bear dana matteazo, ta zuk atsegiñen dozun áxe goretsi, ta zuri edeŕa yatzuna aintzat artu, ta zure begietan zataŕa dan axe laidotu-azo egidazu.

28. Ez egidazu itxi aragi-begiok dakusenez ebazten, ezta gizon kirtenai entzunaren arauz epaitzen be; baŕiz, ikuskor eta gogokoŕak egizko epayan banatu, ta gauza guztien ganetik beti zure gurearen hila ibiltea emon egidazu.

29. Epaitzean, giza-asmamenak saŕitan uts egiten dabe,- baita tnundu-zaleak be, ikuskoŕak bakaŕik maite-izanaz, iruzur edeŕak artu daroez.

30. Gizonak gizona andietsi aŕen, zetan obe egiten da?

31. Guzurtiak guzurtiari, aŕoak aŕoari, itsuak itsuari, makalak makalari iruzur dagitso goresten dauanean,- eta egiz, geyago lotsatu baño eztau egiten, zentzun barik goresten dauanean.

32. Norbait zure begietan dana oŕenbeste da, ta ez geyago, diño Pantzeska deun apalak.



## Ll ATZALBURUA

### EG1KI7.UN AI'ALETAN EKIN BEAR DAI.A GOI-GOHATLIETARAKO ADORERIK EZTAGOANEAN

1. JESUKRISTO'K.—Ene seme, ezin egon zinteke beti onoimentzazko gurari bizi-biziakaz, ezta ezin iraun zeinke ikusketako gorengo malan be; ostera, jatoŕizko makaltasuna dala-ta, nozikpein apalagoetara jatsi, ta bizitza ustelkor onen zamea, nai ta nai ez etá iguiñez, eroan bear dozu.

2. Gorputz ilkoŕa daroazun artean, gogaitasunak eta biotzeko kezkak izango dozuz.

3. Aragian bizi zarean artean, aragiaren zameaz saŕitan negar egin bearko

dozu,- gogoaren egikizunetan eta jaungoikozko ikusketan eten barik jarduteko etzara-ta.

4. Orduan apaletara ta atetikoetara jo, ta zure biotza egite onakaz atsegindu, ta nire etoŕeran eta goitiko ikertaldian uste sendoaz itxaron, eta zure erbestetasuna eroapenaz jasan bear dozu; neuk baŕiro ikertu ta kezka barik itxiko zaitudan artean.

5. Nik ba, nekeaaiztu ta baŕuko atsedena gozartu-azoko dautzut, eta idazti deuneko landak zure auŕean zabalduko dodaz: biotz nasayaz nire aginduen bideetatik arin ibilten asi zaitezan.

6. Eta esango dozu: «Guri gero agertuko yakun aintzaren aldean, oraingo nekeak ezer eztiralakoan nago». (1)

(I) Rom, VIII. 18.



Lll ATZALBURUA

POZAI.DIAK BAÑO ZIGOUKADAK OBETO IRABAZI DAUZALA SINISTU BOAR DAUALA GIZONAK

1. GOGO ZINTZOAK.—Jauna, zugandiko atsegin eta gogo-ikertaldirako enaz gai.

2. Eta augaitik zuzen diarduzu nigaz, lander eta atsekabetuta izten nozunean.

3. Itxasoa beteteko beste negar malko isuri al ba'neuz be, oraindiño zuk poztuteko gai enintzake izango.

4. Augaitik saŕitan eta oben astunakaz iraindu zaitudalako, ta askotan oben andiak egin dodazalako, atsekabeak eta zigorkadak baño eztodaz irabazi.

5. Beraz, ondo begiratú ezkero, poztasunik txikaŕena be eztot irabazi.

(<• Raña zuk egindakoen oiulatzerik gura eztozun Jaungoiko ontsu taeŕukior oŕek, eŕukizko ontzietan zure onberatasunaren aberastasunak erakusteko, zure

otseña, nai ta beronek ezer irabazi ez; giza-neuŕitik ganez poztu gura dozu.

7. Zugandiko poztasunak eztiralako gizonen autuetakoak lez.

8. Zer egin dot, Jauna, niri zeruko atsegiñen bat emoteko?

9. Ezer onik egin dodanik enaz gomutetan,- beti oitura gaiztoetara makurtua ta onduteko nagia izan nazala baño.

10. Egia da ta ezin ukatu neinke.

11. Besterik esango ba'neu, zu nire aurka egongo zintzakez, eta nire alde egitekorik elitzake izango.

12. Nire obenakaz zer irabazi dot, gaiztokia ta betiko sua baño?

13. Egiz, iŕi ta ezespen guztiak zor yatazala, ta zure maiteen artean egoteko enazala autortzen dot.

14. Ta au entzutea gaŕatza ba-yat be, nire obenak neure buruaren aurka ta egiaren alde autortúko dodaz, zure eŕukia jadestea eŕazago irabazi dagidan.

15. Zer esango dau eŕudun eta lotsaz bete onek?



16. Aoa itz bakar auxe esateko baño eztaukat: Oben egin dot, Jauna, oben egin dot: eŕuki zakidaz, azketsi (parkatu) egidazu.

17. «Itxi nagizu apur batean, iíuntasun eta eriotz-lañoaz estalduko luŕaldera joan orduko, neuk oñazeagaitik negar-egin dagidan» (1).

18. Eŕedun eta obendi eŕukaŕiari bere obenakaitik damutu ta burua apaldu dagiala baiio besterik, zer eskatzen dautsazu ba?

19. Azkespenaren itxaropena egizko damu ta biotzaren apaltasunean sortzen da, baŕu artegatua baketu egiten da, galdu zan eskeŕa biurtu oi da, etorteko asaŕetik gizonak bere burua jaboten dau, ta Jaungoikoa ta garbaidun arimea, mun deunaz alkarganatzen dka.

20. Obenetzazko damu apala opari begikoa yatzu, Jauna, zure auŕean kedatsaren luŕunak baño askoz usain gozoagoa emoten dau-ta.

(1) Job, X, 21.

21. Auxe da zure oiñ deunai isuritea gura izan zendun arako igurzki atsegingaŕia : biotz damutua ta apaletsia iñoz be eztozu ezetsi-ta.

22. Antxe dago arerioaren asaŕetik iges egiteko aterpea,- beste batean txarto-egin eta loifu zana, antxe ondu ta garbitzen da.

## Llll ATZALBURUA

### I.URREKOAK COZO DABEZANAKAZ IAUNGOICO-AIÍEN I.SKKRKA EZTAI.A NASTUTEN

1. JP.SUKUISTO'K. — Ene seme, nire eskeŕa bikaña da; beste gauza ta luŕeko pozkeriakaz r.asterik.eziau artzen.

2. Eskeŕaren eragozpen guztiak egotzi bear dozuz, esker ori zuri baŕendutea gura ba-dozu.

3. Zuretzat toki eskutu bat bilatu egizu, zeure buruágaz bakaŕik bizitea maite-izan egizu, iñogaz be itz egitea ez egizu eskatu,-Jaungoikoari, ostera, eskari



gogotsua egiozu, biotz damutua ta baŕu garbia euki dagizun.

4: Ludi osoa ezereztzat euki egizu, ta atetiko guztiak baño len Jaungoikoaren deya obetsi egizu.

5. Nigaz jardun eta batera igeskoŕakaz poz-artzea ezin alkartu leitekez.

6. Ezagun eta adiskideakandik uŕintzea, tá atsegin aldikoŕetatik gogoa utsituta eukitea, ondo da,

7. Onantxe Kepa bialcluak (apostoluak, «ludi onetan Kristo'ren jaŕaitzaleak aŕotz eta bidaztiak bailíran jarduteko diño» (1).

S. Ene! luŕeko ezeganako gurariak lotzen eztauanak, íl-zorian eukiko dauan uste andia!

9. Baña biotza onelan gauza guztietatik aldenduta eukitea, oraindiño gogo argalak eztau ulertzen, eta abere antzeko gizonak be gogoaren azkatasuna eztazau.

10. Baña iñok gogokoya izan gura

(I) IPetr. 11,11.

ba-dau, bai uŕiñekoak bai urkoak itxi bear dauz, eta iñogandik baño geyago bere buruagandik zaindu.

11. Zeure burua ondo garaitu ezkero, besteak eŕezago azpiratuko dozuz.

12. Norbere burua garaitzea gurenda bikaña da.

13. Aragiak adimenari ta adimenak guztietan niri men-egin dagisŕan, norbere burua menpean daukana, Ori bai benetan bere buruaren garaile ta ludiaren jaube dala.

14. Mendi-galur oŕaño eldu gura badozu, gizon-arauz asi ta aizkorea sustrayari ezaŕi bear dautsazu,- zureganako, zuretzako ta lurkoŕentzako daukazun zalekeri makuŕa sustraitik atera ta ondatzeko.

15. Gizonak bere burua okeŕegi ta griñatsu maite izatean dago sustrai-sustraitik garaitu bear dana.

16. Ta bein au azpiratu ta buztarpetu ezkero, bake andia ta betiko baretasuna izango dira.



17. liaña norbere buruarentzat ilteari gitxik ekin eta eurakandik osoan urteten eztiralako, naspilduta gelditzen dira, ta ezin dira gogoaz euren ganera igon.

18. Baña nigaz azke ibili gura dauanak, bere gurakeri ta oker guztiak ildu-ratuta, izaki bateri be biotza berekoikeriz eztautso itsasi bear.

## LIV ATZALIJURUA

### IZATASUNAREN BTA ESKERRAREN ERAGIKUN BASDIN-EZAK

1. JESUKRISTO'K.—Ene seine, izatasunaren eta eskeŕaren eragikunak arduraz begiratu egizuz,- alkaŕen aurka ta zoŕotz dabiz ba, ta gizon gogokoi ta baŕuz argituak be gaitz igarten dabez.

2. Egiz, guztiak dira on-zaleak, eta euren esan eta egiñetan onaren bila dabiz,- eta on-antzaz asko atzipetzen dira.

3. Izatasuna azeri da-ta, asko beragandu, sarean artu ta atzipefzen dauz

eta, bere elburutzat beti berbera jarten da; eskeŕa, baŕiz, laun-laun dabil, edozeren txar-antzetik alde-egiten dau; maltzurkeririk eztau gura, ta egiten dauana Jaungoikoaŕen bakar-bakaŕik egin daroa, ta Beragan, bere elburuan lez, atsedentuten da.

4. Izatasunak ez ilduratzerik, ez estututerik, ez azpiratzerik, ez menperatzerik, ez gogoz buztarpetzerik eztau artu gura izaten; eskeŕak, baŕiz, norbere buruaren ildurari daragoyo, aragikeriari gogor egiten dautso, menpean egotea bilatzen dau, azpiratua izan gura dau, bere aukeran eztau bizi gura, legepean bizi-beaŕa maite dau, ta batxuren nagusia eztau izan gura, beti Jaungoikoaren menpean bizi, iraun eta egon baño; ta Jaungoikoaŕen edozein izakiri apal makurtzeko gertuta dago.

5. Izatasunak norbere lasaitasunerako diranetan daragoyo lanean, eta besteakandik onurarik ete - yatorkon begiratzen dau,- eskeŕak, ostera, beretzat



onuratsu ta eskura datoŕenari baño, askori on egiten dautsanari geyago begiratzen dautso.

6. Izatasunak dedua ta itzala pozik artu daroaz,- eskeŕak, baŕiz, dedu ta aintz guztia zintzo-zintzo Jaungoikoari ezarten dautso.

7. Izatasuna lotsaren eta ezespenaren bildur da,- eskeŕa, baŕiz, Josu'ren izenaŕen irañak jasateaz poztu egiten da.

8. Izatasunak opor ta gorputz-atsedena maite dauz,- eskeŕa, ostera, alpeŕerian ezin da egon, eta lana gogoz artzen dau.

9. Izatasunak txukun eta edeŕak euki gura dauz, eta zatar eta zakaŕak goŕoto dauz; eskeŕa, baŕiz, gauza bakun eta apalakaz poztu egiten da, latzak etxakoz iguin, eta oyal zaŕakaz janzteko eztau ezetz esaten.

10. Izatasunak aldikoŕai begiratzen dautse, luŕeko irabaziakaz poztu egiten da, ta kalteagaz ifundu, ta edozein itz iraingaŕi arin batek asaŕean ipinten daui

baña eskeŕak betikoai begiratzen dautse, aldikoŕai etxake ksasten, eta gauzak galdu aŕen ezta artegatzen, eta itzik gogorenakaz be ezta samintzen,- bere ondasun eta poza ezer galtzen eztan zeruan ipiñi eban-eta.

11. Izatasuna zekena da, ta etnon baño artu pozago egiten dau, ta bereak eta beretzakoak maite dauz,- eskeŕa, baŕiz, biotz - zabala ta danentzako da,- berenetik iges egiten dau, gitxigaz ase da, ta «artzea baño emotea zori obetzat dauko» (1).

12. Izatasunak izakietara, norbere aragira, uskeri ta baŕiketara makurtzen dau,- eskeŕak, ostera, Jaungoikoagana ta onoimenetara daroa, izakiai uko egiten dautse, gizartetik iges egiten dau, aragiaren gurariak goŕoto dauz, ibilte utsalak ezi egiten dauz eta agirian agertzeko lotsa da.

13. Izatasunak bere zentzunak atsegintzen dauzan edozelango poza gogoz

(I) Act. XX, 35.



attzen dau,- eskeŕak, baŕiz, Jaungoikoagan bakaŕik poztu ta gauza guztien ganetik on gurenean atsegindu gura dau.

14. Izatasunak egiten dauana bere irabazi ta onerako egiten dau, uŕirik ezin dau ezer egin,- berak egin dauanagaitik beste oŕenbeste edo geyago, edo gorespena, edo laguntasuna artzeko ustea dauko, ta bere egiteak eta emokariak asko goratzea gura dau,- eskeŕak, ostera, ezer igeskoŕik eztau bilatzen,eta on-egitearen ordaingaŕitzat Jaungoikoa baño beste saririk eztau eskatzen eta beaŕeko aldikoŕetatik betikoak lortzeko lagundu leyoenak baño eztauz euki gura.

15. Izatasuna adiskide ta senide askogaz poztu egiten da, jayoteŕi ta jatoŕi argian aintza artzen dau,- altsuentzat labana, aberatsentzat koipetsua ta bardiñentzat txalokaria da,- eskeŕak, baŕiz, arerioak be maite dauz, adiskide piíogaitik ezta aŕotzen, jayoteŕi tajatoŕíari jaramonik eztautso egiten, oŕetan onoimen andiagotik ezpa-dago,- aberatsaren baño

txiroaren alde geyago egiten dau, altsuari baño eŕubakoari eŕuki geyago dautso, egitsuagaz poztuten da ta ez guzurtiagaz; onai beti goi-emokarietarako arduratzeko ta onoimenen bitartez Jaungoiko-Semearen antza artzeko dirautse.

16. Izatasuna, beartasuna ta nekea dirala ta, laster dago erostaka; baña eskerak txirotasuna gogotsu daroa.

17. Izatasunak dana beraganatzen dau, ta norbere alde buŕuka ta eztabaidaka daragoyo,- eskeŕak, baŕiz, dana guztien iturburu dan Jaungoikoagana biurtzen dau, bere buruari onik ezertxu be eztautso ezarten, berea danik eztau sinisten, eztiardu eztabaidaka, bere eritxia besteena baño obetzat eztauko,- bere eritxi ta jakite guztietan, ostera, betiko jakituri ta jaungoikozko azterpenaren azpian ipinten dau.

18. Izatasunak eskutukoak jakin eta baŕiak entzun gura dauz, besteen auŕean agertu ta asmamenakaz asko oartu gura dau,- ezaguna izatea ta gorespena ta os-



pea ekaŕi al leyoenak egin gura dauz; eskeŕa, ostera, eztnbil baŕi ta zorakeriak jakin gurarik, au dana aspaldiko ustelkeritik sortzen dalako, ta lur-ganean baŕi rik eta ira.mkoŕik eztago-ta.

19. Baita zentzumenak batzen, aŕopuzkeri ta agiritik iges egiten, eta goragaŕi ta aŕigaŕiak apaltasunean ostentzen, eta edozetan eta jakiturietan onuraren igaliak, cta Jaungoikoaren gorespen eta aintza bilatzen irakasten dau.

20. Bera ez bererik zarataka iragarterik eztau gura; ostera, dan-dana maitasun utsez emolen dauan Jaungoikoa, bere emokarietnn onetsia izan daitela opa dau.

21. Esker au goítiko argia ta Jaungoikoaren berebiziko emokuna da, ta zerurakoen ezaugaŕa ta betiko gaízkakunderako kutuna,- ta gizona luŕekoetatik zerukoak maite-izatera eragi, ta aragi-zaiea gogo-zalean biurtzen dauana da.

22. Onan izatasuna geyago estutu ta garaituaz esker joriagoa isuriten da; ta

egunean-egunean ikertaldi bańiakaz gizon-bańua Jaungoikoaren antzera bańiztu oi-da.

## LV ATZAI.HURUA

### [ZATASUNAREN USTEI.TASUNA TA JAUNGOIKOZKO ESKERRAREN BRAGINTASUNA

1. GOGO ZINTZOAK.—Zure irudi*r*a ta antze*r*a egin ninduzun nire Jaun eta Jaungoiko ońek, zeruratzeko onen andi ta beańekoa dala esan zendun esker au emon egidazu,- obenetara (pekatuetara) ta galbidera naroan nire izatasun gaizto-gaizto au garaitu dagidan.

2. Nire aragian, ba, oben-legea nire gogo-legearen aurka buńukan eta askotan aragiari men egitera lotuta naroala asmatzen dot; eta zure eskar deun-deuna nire biotzean biziro isurialagun ezpa-yat, aragiaren griñai ezin neinkie gogor-egin,

3. Zure eskeńa ta esker andia bear da benetan gaztetatik makurtuta dagoan izatasuna garaitzeko.



4. Lenengo gizon Adan'egan jausita, ta obenagaz gaiztotuta dago-ta, orban onen zigońa gizaseme danetara jasten da, ta zuk ona ta zuzena egindako izatasuna, berez txa*r*era ta bekoetara egtten daualako, orain izatasun ustelaren gaitza ta makaltasuna dirudi.

5. Gelditu yakon indar apuńa, autspean estalduko txingartxua langoxea da-ta.

6. Auxe da berezko adimena, odei andiak ingutatuta daukena,- baña oraindiño ona ta txańa epaitu ta egia ta guzuńa banandu leikez, nai ta ontzat emoten dauana beti-ezin, eta egiaren argi osoa ta zaletasunak zindo euki ez ańen *be*.

7. Emetik datorkit, ene Jaungoikoa, «bańuko gizonari dagokíonez zure Iegean atsegin izatea» (1); zure agindua ona, zuzena ta deuna dala, ta gaiztakerí ta oben guztietatik iges-egin bear dala ba-daki ba,- baña aragiagaz aragi-legeari otsein

(IJ Rom. Víl, 22.

dagitsot, adimenari baño aragikeriari geyago men-egiten dautsadala.

8. Onan «ona gura izatea neugan daukat, baña zelan bete eztot aurkitzen» (1).

9. Au daia-ta, amaikatxu bidar ondo egiteko asmoa artzen dot; baña nire makaltasunari laguntzeko eskeŕa eztaukat-eta, eragozpen ezerez bategaitik atzera noa ta kikilduta gelditzen naz.

10. Augaitik ornitasunerako bidea ezagutzen dot,eta zelan jardun bear dodan naiko argiro ikusten dot; baña nire usteltasunaren astuntasunaz zapalduta orniduagoetara enaz igoten.

11. Benetan, Jauna, onean asi,jaŕaitu ta ondo amaitzeko zure eskeŕa bearbeaŕa yat; bera barik ezer be ezin dot-eta,- baña zugan, zure eskeŕaz sendotuta dana al dot.

12. iEne zerutiko eskeŕa, zu barik norbere irabaziak ezer be eztira, ta iza-

(1) Rom.VII, 18.



tasunaren berezko onak eztira andietsi bear!

13. Eskeŕa barík ezertxu be eztira, Jauna, zure auŕean,- ez edertiak, ez aberastasunak, ez edertasuna, ez sendotasuna, ez adimen zoŕotza, ez itz-etoŕia.

14. Izatasunaren emokariak onentzat eta gaiztoentzat dira,- baña eskeŕa edo maitasuna autuen emokaria da, ta beronegaz betiko bizitzarako gai egiten dira.

15. Eskar au barik ezta ezertzat euki bear ez igarteko emaitza, ez aŕigaŕiak egitekoa, ezjakituririk gorengoena,-ionen bikaña da eskeŕa!

16. Ez siñismena, ez ítxaropena, ez beste onoimenak be etxatzuz gogoko maitasun eta esker barik.

(7. Enc, esker zorion-zoriongaŕia, gogoz txiroa dana onoimenez aberastu, ta ondasunetan aberatsa danaren biotza apalesten dozun orí: erdu, jatsi zaite nigana, len-bait-len zure pozez bete nagizu, nire biotza gogoaren neke ta legortasunaz lantuta jausi eztaiten.

18. Zure begietan, aŕen, Jauna, eskeŕa aurkituko al dot, nire izatasunak gura leukezan enparauak euki ez aŕen be, zure eskeŕa naiko yat-eta.

19. Loŕaskok zirikatu ta oñazetuko ba-nabe be, zure eskeŕa neugaz dagoan artean, kaitearen bildur enaz izango.

20. Bera da nire indaŕa, berak emoten daust onu (consju) ta laguntasuna.

21. Arerio guztiak baño indartsuagoa, ta jakitun guztiak baño jakitunagoa da.

22. Egia irakatsi, lege-bidea erakutsi, biotza argitu, estu-aldian poztu, ituntasunari igesi-azo, bilduŕa kendu, eraspena indartu ta negar-eragiten dau.

23. Bera barik, zer naz egur igeŕa, ta ezetarako eztan mukuŕa baño?

24. Beraz, Jauna, zure eskeŕa beti nire auŕe-atzetik bebil, eta beti-beti egite onai arduraz ekitea emon beist, zure Seme Jesukristo'aŕen. Olantxe.



### I.VI ATZALBURÍU

### GUHli IIUUUA UKATU TA GURUTZARKN liITAUTT.Z KRISTO'RUN ANTZA AKTU *HliAR* DOGULA

1. JnsuKRiSTo'K.—Ene seme, zugandik urten zeinken bestean nigana etoŕi zeintekez.

2. Atetikoak ez gura izateak baŕuko bakea dakaŕan Iez, norbere burua baŕuz izteak Jaungoikoagaz batzen dau.

3. Ezezkorik eta espa barik, zure burua nire gurarira oso-osoan ukatzen ikasi dagizula gura dot.

4. 'fjaŕaitu nagizu: Neu naz bidea, egia ta bizitzea» (1).

5. Bide barik ezta joaten, egi barik ezta ezagutzen, eta bizitza barík ezin bizi leiteke.

6. Neu naz jaŕaitu bear dozun bidea, siñistu bear dozun egia, ta itxaron bear dozun bizitzea.

(1) Joan. XIV, *(,.*

7. Neu naz bide ausi'eziña, egi uts-eziña, bizitza amaitu-eziña.

8. Neu naz biderik zuzenena, egirik gorengoena, egizko bizitzea, bizitza zoriontsua, irazanbako bizitzea.

9. Nire bidean ba-dirauzu, egia ezagutuko dozu, ta egiak azkatuko zaitu, ta betiko bizitzea lortuko dozu.

10. «Bizitzara sartu nai ba-dozu, nire aginduak bete ag'tzuz» (1).

11. Egia jakin gura ba-dozu, neuri siñistu egidazu.

12. -'Ornidua izan nai ba-dozu, gauza guztiak saldu egizuz» (2).

13. Nire ikasle izan gura ba-dozu, zeure burua ukatu egizu.

14. Bizitza zoriontsua euki gura badozu, oraingo bizitzea ezetsi eg'tzu.

15. Zeruan goratua izan gura ba-dozu, luŕean zeure burua apaletsi egizu.

16. Nire agintza-lagun .izan nai badozu, gurutzea neugaz eroan egizu.

(1) Matth. XIX, 17.
(2) Matth. XIX, 21.



17. Zorionerako ta egizko argirako bidea gurutzaren otseñak baño eztabe aurkitzen.

18. Goco ZINTZOAK.—Josu Jauna, zure bidea estua ta gizartean ezetsia dalata, gizakeria (mundua) ezesten zure antzeko izatea emon egidazu.

19. «Otseña, ba, ezta bere ugazaba baño andiago ta ikaslea bez bere irakaslea baño geyago» (1).

20. Zure otseñak zure bizitzari beragoyo, nire osasuna ta benetako deuntasuna ortxe dago-ta.

21. Zutzaz eztana irakuŕi edo entzuten ba-dot, ez pozik ez atsegin beterik eztaust emoten.

22. JESUKRISTO'K.—Ene serae, oneik guztiok jakin eta irakuŕi dozuzan ezkero, eurok egiten da-dozuz zorionekoa izango zara.

23. «Nire aginduak euki ta beteten dauzana, orixe da ni maite nauana, ta neuk be maite izango dot, eta oŕeri ager-

(I) Matth. X, 24.

tuko nayako» (1) eta nire Aitaren jaurеŕian neugaz yezaŕiko da.

24. GOGO ZINTZOAK. — Josu Jauna, esan eta agindu dozunez egin bedi, ta ori irabaziko al dot.

25. Zure eskutik artu dot gurutzea, eroan dot eta il arterаño, ipiñi daustazun lez, eroango dot.

26. Egiz, lekaide zintzoaren bizitzea gurutzea da, baña zeru-bidea dana. Arloa asita dago, ezta biurtu bear atzera, ta iztea be ezta egoki.

27. Ta ba, anayok, goazen batera,- Jesu geugaz izango da.

28. Gurutz au Jesu'gandik artu dogu, gurutzean Jesu'aŕen iraun daigun.

29. Gure biderakusle ta autelari dana, gure laguntzale izango yaku.

30. Ara, gure auŕetik doan gure bakaldunak (eŕegeak), gure alde buŕukatuko dau.

31. Gizon antzera jaŕaitu dayogun,- iñor be ikaraŕien bildur ezpedi izan.

(1) Ioan XIV, 1.



gudan adoretsu ilteko gertu egon gaitezan, gurutzatik iges eginda gure aintzari lotsarik eztayogun ezaŕi.

## LVII ATZALBU.ÍUA

### [JTSBN BATZUETAN JAUSTEN OANA I.ZTALA I ARItl Gl KIKIl.lHl BLAR

1. ILSUKRISTO'K.—Ene seme, zorionaldian poztasun andia ta eraspena baño," naigabe-aldian eroapena ta apaltasuna atsegiñago yataz.

2. Zure aurka ezerezkeri bat esateak, zegaitik ituntzen zaitu?

3. Geyago izan ba'litz be, etzintzakez artegatu bear.

4. Baña orain igaroten itxi egiozu.

5. Ezta lenengoa izango, ta baŕia bez, eta azkenengoa bez, luzaroan biziko ba-zara.

6. Zure aurka ezer jazoten etxatzunean naiko adoretsu izaten zara.

7. Onu (konseju) onak emoten eta

besteak itzez indartzen ba-dakizu,- baña zure atera ustebako loŕak jo dauanekoxe, onu ta indar barik gelditzen zara.

8. Saŕitan gauza txikietan nabaitzen dozun zure makaltasunari begiratu egiozu.

9. Baña oneik eta onangoak datozanean zure onerako izaten dira.

10. Zure biotzetik dakizun ondoen kendu egizii; baña ikutu ba-dautzu, luzaroan kikiltzen eta naspiltzen ez egiozu itxi.

11. Pozik ezin ba-dozu, eroapenaz beintzat jasan egizu.

12. Gura eztozuna entzun eta asaŕatuta izten ba zaitu be, ezi egizu asaŕe ori, ta umeentzat jauspidea izan leiken itzik zure aotik ez egizu atera.

13. Sortu yatzun asaŕea laster baretuko yatzu, ta baŕuko samiña eskeŕaren biurtzeagaz eztituko yatzu.

14. Oraindiño bizi naz, diño Jaunak, zuri lagundu ta besteetan baño geyago poztuteko gertuta, zure ustea nigan



ezaŕi ta eraspenaz neuri deitzen badaustazu.

15. Kementsuago egon eta geyago jasateko gerlu zaite.

16. Saŕitan lor eta ziltza andiakaz atsekabetutaaurkitzen ba-zara, oŕegaitik dana ezta galdu.

17. Gizona zara, ta ez Jaungoikoa.

18. Aragia zara, ta ez aingerua,

1>. Zuk zelan iraun zeinke onoimenean beti bat, zeruan aingeruak eta atsedentokian lene.igo gizonak iraun ezpaeben'?

20. Neu naz negartiak gora jasoten dodazana, ta euren makaltasuna ezagutzen dodala nire jaungoikotasunera dakardazana.

21. GOGO ZINTZOAK.—Jauna, onetsia izan bedi zure itza, nire aoarentzat abaraska ta eztia baño gozoagoa.

22. .Nik oŕenbeste lor eta laŕiaidi artean, zer egingo neuke, zuk zeurc itz deunakaz indartuko ezpa'ninduzu?.

23. Azkenean zeruko kaira (portura)

elduko ba'nintz, zer ardura daust, zertzuk eta zeinbat jasan dodazan?

24. Atzen ona emon egidazu, ludi (mundu) onetatik urteera zoriontsua emon egidazu.

25. Nitzaz gomutau zaite, nire Jaungoiko ori, ta bide artezetik zure jaureŕira zuzendu nagizu. Olantxe.

## LVIII ATZALBURUA

### GOIKOENAK ETA JAUNGOIKOAREN ERARAGI ESKUTUAK EZTIRALA AZTERKATU BEAR

1. JESUKRISTO'K.—Ene seme, goitiko gayak eta Jaungoikoaren erabagi eskutuak eztabaidaka ez egizuz erabili; zer dala-ta urlia itxi, ta berendia ainbesteko eskaŕerako artu dan,- ezta zer dala-ta au onenbeste atsekabetu, ta bestea ain gora jasoten dan be.

2. Oneik guztiok gizonen adimena goitu egiten dabe, ta Jaungoikoaren era-



bagia igarteko, ez ulermena ez eztabaidak eztira gauza.

3. Beraz, onetarikoen bat arerioak belaŕiratzen dautzunean, nai gizon jakintzaleen batzuk iŕanduten dabenean, Igarlearena erantzun egiozu: «Zuzena zara, Jauna, ta zure erabagia arteza da» (1).

4. Baita «Jaunaren erabagiak egitsuak dira, ta berez zuzenak» (2).

5. Nire epayak bildur izateko dira ta ez eztabaidaka erabilteko, giza-adimenaz eztira ulertzen-eta.

6. Etzaite asi deunen irabaziak arakatzen ez eztabaidakatzen,- nor ete-dan geyago, ala zeruko jaureŕian nor ete-dan andiago.

7. Onangoak saŕitan alpeŕiko auzi ta buŕukak sortu, ta aŕokeria ta andipuzkeria geitu egiten dabez, eta ortik bekaizkeriak eta asaŕeak ernetan dira: batak deun bata, ta besteak beste bat, aŕokeriz auŕenetsi gurarik.

(1) Psalm. CXVIII, 137.
(2) Psalm. XVIII, 10.

8. Onangoak jakin gura ta arakatu gureak onik eztakaŕe, ta deunak iguin dabez: enaz ba Jaangoiko buŕukalaria, baketsua baŕio; ta bake au norberaren gorespenean barik benetako apaltasunean geyago dago.

9. Batzuek inaitasun-leraz deun batzuekanako geyago zaletzen dira, besteakanako baño, baña giza-zaletasunaz eta ez jaungoikozko zaletasunaz.

10. Neu naz deun guztien egilea; neuk emon neutsen eskeŕa; ta aintza be neuk emon dautset.

1 1. Nik bakotxaren irabaziak ba-nenkizan,- nire gozotasunaren onespenakaz auŕez neuk gertu nebazan,- nik neure maiteak, eunkiak baño lenagotik ezagutu nebazan.

12. Neuk autu nebazan gizartetik, eurak eninduen neu autu,- neuk eskaŕez deitu ta eŕukitasunez neugandu nebazan.

13. Ziltzaldi asko artetik neuk igaroazo neutsen, neuk isuri neutsezan atsegin zoragaŕiak, neuk emon neutsen iraupena, ta neuk saritu neban euren eroapena.



14. Nik lenengoa ta azkenengoa ezagutzen dodaz,- eta igaŕi ezin besteko maítasunaz Jaztantzen dodaz.

15. Nire deun guztietan neu aintzaldu ta gauza guztien ganetik neu goratu bear nabe, ta neu goretsi bearnabe deun bakotxagan,-euren auŕetiko irabazi barik aintzarako eregi ta autu nebazalako.

16. Augaitik nire txikienen bat ezesten dauanak, andia be eztau goresten,- txikia ta andia neuk egin nebazan-eta» (1).

17. Ta deunen bat beratzen daunak neu be beratzen nau, ta zeruko jaureŕian dagozan enparauak be bai.

18. Maitasunezko korapiíoz danak bat dira; danak eritxi ta gurari bat claukе, ta danak alkar maite dabe.

19. Ta geyago dana, ni euren burua ta irabaziak baño be maiteago nabe.

20. Euren ganera jagi ta euren buruaganako maitakeritik azkatuta, niga-

(1) Snp. VI, 8.

nako maitasunera igaro ta antxe gozo-gozo atsedenduten dira.

21. Andik kendu edo eratsi leikezan'tk eztago,- betiko egiak beterik eta maitasun itzali - eziñan su - gaŕetan dagozeta.

22. Ixildu beitez, ba, ta deunen izakeratzaz eztabaidaka ez begie jardun gizon aragikeri-zale ta aberetiak, euren atsegiñak maite izaten bañ.o eztakie-ta.

23. Eurai dirudienez kendu ta geitzen dabe, ta ez betiko egiak atsegin dauanez.

24. Askotan ez-jakitea da, batezbere, gitxi argituta norbait maitasun oso gogokoŕaz gitxitan maite izaten dabenetan.

25. Oraindiño batzuekana edo besteekana asko berezko zaletasunak eta giza-adiskidetasunak daroez, eta luŕekoetan diarduen lez zerukoetan be izango dala uste dabe.

26. Baña gizon oso-ezak asmatu, ta goitiko agerkundez argituak ikusten dabenen artean alde Iuze-luzea dago.



27. Begira, ba, ene seme, etzaitez ibili zure jakituriaren ganetikoak jakin guraka; baŕiz, ekin eta alegiñak egizuz Jaungoikoaren jaureŕian, txikiena izanda be, egon al zaitekezan.

28. Ta norbaitek deunago nor dan edo zeruko jaureŕian andiago nor dan ba'leki be, jakite onek onik egingo leuskio, ezagutze onen bitartez, nire auŕean bere buruaap aletsi ta nire izenaren gorespen andiagorakojagiko ezpalitz?

29. Deunen artean andiago edo txikiago nor dan jakiteko eztabaidaka dabilana baño, norberen obenen astuntasuna ta onoimen gitxi daukazala, ta deunen ornitasunetik uŕin dagoala gogoratzen dauana atsegiñago dau Jaungoikoak.

30. Deunai eraspentsu ta negaŕez otoitz egitea, ta euren bitartekolasun andiari gogo apalaz deitzea obe da, euren ixilekoak alpeŕiko jakingureaz azterkatzea baño.

31. Deunak ondo ta ederto asetuta dagoz, gizonak asetzen eta bańikeriak eziten ba'lekie.

32. Euren irabaziakaitik eztira ańotzen.euren buruari onik bat be eztautse ezarten, dana neuri baño,- dauken on guztia neuŕibako maitasunaz neuk emon neutsen-eta.

33. Jaungoikoaganako maitasunez eta ganezko pozez beteta dagozala, aintzaren uts apuŕik eztaukie, ta zorionerako ezertxuren beańizanik be ezin euki leikie.

34. Deunak aintzean goragoak izan, apalagoak eta nire uŕagoak eta maitcagoak dira.

35. Augaitik idatzita daukazu: «Euren burestunak Jaungoikoaren auŕean kentzen ebezala, ta Bildotsaren auŕean auzpaztu zirala, ta len, orain ta beti bizi tlana gurtu (adorau) ebela» (1).

36. Asko dabiz Jaungoikoaren jaureŕian andiena nor dan jakin gurarik-

(1) Apoc, IV, 10.



txikienen art'ean sartzeko be gai izango ete-diran eztakiela.

37. Andia da zeruan txikiena izatea be; an guztiak dira ba andiak, eta guztiak Jaungoikoaren seme deitu ta izango dira.

38. Txikiena mila artean andia izango da, ta eun urteko obendia ilgo da.

39. Zeruko jaureŕian andiena nor izango zan ikasleak itandu ebenian, erantzun au artu eben: «Umetxuen antzeko biurtu ta egiten ezpa-zare, zeruko jaurerian etzare sartuko».

40. <Beraz, umetxu onen antzera bere burua apalesten dauana, zeruko jaureŕian andiena auxe izango da» (1).

41. iErukańiak, umeakaz gogoz apaletsi gura eztabenak! zeruko ate apalak sartzen eztautse itxiko-ta!

42. Bai, eŕukańiak euren etsegiñak emen daukezan abcratsak be; txiroak Jaungoikoaren jaureŕira sartu, ta eurak bańiz, atean txilioka egongo diralako.

(1) Matth. XVHI, 3. 4.

43, Poztu zaiteze apalok, eta alaitu zaiteze txiruok, egi-bidetik ba-zabize, Jaungoikoaren jaureŕia zeuona dozueta.

## LIX AT/.AIBURUA

### ITXAROPEN KTA USTI7 OSOA |AU.\'GOIKOAGA,N) BAÑO EZTALA EZARRI BLAR

1. Gooo ZINTZOAK.—Jauna, zeiri da nire itxaropena bizitza onetan? edo zerupean ikusten diranetatik, zein da a.tsegingaŕien niretzat?

2. Ez ete-zara zeu, eŕukiak neuŕi barik daukazuzan, neure Jaun eta Jaungoiko ori?

3. Zu barik, niri non joan yat ondo?

4. Edo zu bertan egon ezkero, noz ibili naz txarto?

5. Gurago dot zure edeŕagaitik landeŕa izan, zu barik aberatsa baño.

6. Luŕean zugaz bidezkari bizitea



obetzat daukat, zu barik zerua eukitea baño.

7. Zu non, antxe zerua,- ta zu etzagozan tokian antxe eriotzea ta gaiztokia (inpernua). •

8. Zure gose-egaŕi naz, eta augaitik zure atzean zotin, deadar eta otoitz egin bear dot.

9. Azkenez, ene Jauna, nire bearizanetan egoki nok lagundu eztaukat, zeuk izan ezik, eta uste osoa zeugan daukat.

10. Zu zara nire itxaropena, zu nire ustea, zu nire pozkile ta adiskiderik zintzo-zintzoena.

11. Guztiak eurenen bila dabiz; zuk, baŕiz, nire osasuna ta auŕerakuntzea baño eztozuz gura, ta dan-dana neure onerako biurtzen daustazu.

12. Askotariko ziltzaldi ta zoritxaŕetan izten nozunean be, ori guztia neure onurarako artezten dozu,- zure autuak askotara aztertzen dozuz-eta.

13. Onango azterketan, zerutiko

atsegiñez beteko ba'ninduzu lez, maite izan eta goretsi bear zaitut.

14. Zeugan ba, Jaun eta Jaungoikoa, nire etxaropen osoa ta igestokia ipinten dot; zure eskuetan izten dodaz nire Ioŕak eta laŕitasun guztiak; zugandik ataz dakustan dan-dana makal eta aldakor aurkitzen dot.

15. Adiskide askok eztauste onik egingo, laguntzale altsuak be eztauste urgazi al izango, onulari zaŕak be eztauste emongo erantzun egokia, jakitunen idaztiak be enabe poztuko, gauza edeŕak be enabe azkatuko, bazter eskutu ta atsegintsuak be enabe zainduko,- zeuk lagundu, urgazi, indartu, poztu, irakatsi ta zaíntzen ezpa-nozu.

16. Bakea ta zoriontasuna eukiteko dirudien gauzak eztira ezer, eta zoriontasunaren apuŕik eztakaŕe, zu bertan ezpa-zagoz.

17. Zeu zara, ba, ondasun guztien elburua, bizitzaren galuŕa ta itzen sakontasuna,- ta gauza guztien ganetik



zugan itxarotea zure otseñai atsegin andiandia yake.

18. Zugana jasoten dodaz nire begiok, zugan itxaroten dot, neure Jaungoikoa, eŕukien Aita.

19. Onetsi ta gurendu(santutu) egizu nire arima au zerutiko onespenaz, zure biztoki deuna ta zure betiko aintzaren aulkia izan daiten, eta zure begiak iraintzekorik ezpedi aurkitu zure jauretxe onetan.

20. Zure ontasunaren anditasunari ta eŕukiaren ugaritasunari dagokionez begiratu egidazu, ta iluntasun eta eŕiotzeŕian uŕin erbestetuta dagoan zure otseiñ onen otoitza, aŕen, entzun egizu.

21. Bizitza ustelkor oncn jauspideetan otseintxu onen arimea jabon eta zaindu egizu, ta zure eskeŕa lagun dala, bake-bidetik betiko argiaren aber'ira zuzenJu egizu. Olantxe.

# LAUGAŔEN IpAZTIA

## Jauna artzeko dci eraspentsua

### KRISTO'REN OTSA

1. «Nekatu ta zamatuta zagozen guztiok erdu zaiteze neugana, ta neuk arinduko zaituet, diño Jaunak (1).

*1.* «Nik emongo dodan ogta neure aragia da ludiaren (munduaren) bizitzarako» (2).

3. «Artu ta jan egizue: auxe da zuon alde emongo dan neure gorputza: auxe neure gomutaz egizue» (3).

4. «Nire aragia jan eta nire odola edaten dauana nigan dago, ta ni beragan» (4).

5. «Nik esan dautzuedazan itzok gogo ta bizitzea dira» (5).

(1) Mattr,. XI, 28.
(2) Joan. VI, 52.
(3) 1. Cor. XI, 24.
(4) Joan. VI, 67.
(5) Joan. VI, 64.



### I ATZAI.EURUA

### KKISTO ITZAL ANDIAZ ARTU BBAR DALA

### IKASLF.ARF.N OTSA

1. Ene Kristo, betiko Egia, itzok zureak dira,- aldi baten esanak eta toki baten idatziak ezpa-dira be.

2. Beraz, zureak eta egizkoak diralako, eskeŕak eginda ta zintzo artu bear dodaz.

3. Zureak dira zuk esan zenduzalako : baña neureak be badira, neure onerako esan zenduzan-eta.

4. Zure aotik gogoz artzen dodaz, nire biotzari baŕurago itsatsi dakiozan.

5. Gozotasun eta maitasunez beteriko oŕen itz samuŕok adoretu egiten nabe.

6. Baña nire gaiztakeriak bildur-ikaratzen nabe,- eta oŕen eskutuki (misterio) andiak artzetik baŕu loyak atzeratzen nau.

7. Zure itz eztitsuak zirikatzen nabe; baña nire griña txar ugariok astun egiten nabe.

8. Zugana uste osoaz joateko, ta ez ilteko dan janaria artzeko agintzen daustazu,- zugaz aldea euki ta betiko bizitzea ta aintza jadetsi nai ba-dodaz.

9. «Nekatu ta zamatuta zagozen guztiok erdu zaiteze neugana, diñozu, ta neuk arinduko zaituet» (1)-

10. Obendiaren-(pekatariaren) belaŕietan itz oneik gozo-gozoak eta maitagaŕiak dira,- zuk, nire Jaun eta Jaungoiko oŕek, ezeuki ta txiroari zure Gorputz deun-deuna jatera deitzea!

11. Baña ni nor naz zugana eltzen asartzeko?

12. Ara, zeru zabalak ezin zaitue artu, ta zuk diñozu : Erdueze neugana guztiok.

13. Zer esan gura dabe onberatasun oŕen samuŕak, eta dei oŕen laztanak?

14. Ni zelan asartuko naz zugana

(1) Matth. XI, 28.



joatera, usterik eukiteko nire baŕuan ezer onik ezpa-dakust?

15. Nire etxean zelan sartuko zaitut, zure begi samur-samuŕak saŕitan iraindu dodazan onek?

16. Áingeruak eta goi-aingeruak dardaraka dagoz,- deunak eta zuzenak zure hildur dira, ta zuk diñozu: Erdu zaiíeze neugana guztiok.

17. Jauna, au zeuk esango ezpa' zendu, nok siñistuko leuke?

18. Ta zeuk agindu ezpa-zendu, nor asartuko litzake zugana uŕeratzen?

19. Arako gizon zindo Noek kucxa egiten eun urte emon ebazan, bertan gitxigaz gaizkatzeko (salbetako); eta ni ordutxu baten zelan gertu ninteke ludia egin ebana begirunez artzeko?

20. Zure otsein andi ta baŕuko adiskide Mois'ek ol usteldu-eziñakaz kutxa bat egin, eta uŕe uts-utsez estaldu eban, bertan Lege-olak ipinteko,- ta ni izaki ustel au, zu, legearen Egile ta bizitz-emole ori, onen eŕaz artzen asartuko nayatzu?

21. Saloinon'ek, Isŕael'go bakaldunik (eŕegerik)jakitunenak, zazpi urtean Eleiz eder-edeŕa egin eban zure izenaren aintzarako, ta eskintza-jayak zortzi egun'ean ospatu ebazan,- mila bake - opari eskiñi ebazan ta itunben-kutxa, beretzako egoan tokian adar-oska ta ijuika, ospe andiaz jaŕi eban,- eta nik, gizonen artean eŕukaŕi ta txiroen onek, eraspenaz ordu erditxu bat oztaz igaroten dodan onek, nire efxean zelan artuko zaitut? eta ordu-erdia be iñoz ondo igaroko ba neu!

22. Ene neure Jaungoikoa, aek bai zuri atsegin izateaŕen alegiñak egin ebezala!

23. Ene, oso gitxi da nik egiten dodana, ta Jaunartzeko gertzen emoten dodan aldia labur-labuŕa izaten da.

24. Neure baŕuan gitxitan oso baturik eta oso gitxitan bape zabaldu barik egoten naz.

25. Ta benetan, jaungoikozko zure arpegi onuragaŕiaren auŕean burutasun loirik elitzakit etoŕi bear, ezta izakien



batek arazotu be, neure etxean ba ez aingeruen bat, aingeruen Jauna artuko dot-eta.

26. Onetzaz gañera Itunben-kutxa ta bere baŕukoen eta zure Gorputz garbi-garbi ta beroneri yagokozan onoimen esan-eziñen artean alde andia dago; eta etorkizunen iruditzat ipiñitako beñolako lege-oparien eta aintziñako opari guztien betetasuna dan zure Gorputzaren benetal.o opariaren bitartean ald.e luze-luzea dago.

27. Zergaitik geyago enaz ixiotzen zure auŕean? Aintziñako Erkabak eta Igarleak, Bakaldunak (eŕegeak) eta Nagusiak eŕi osoagaz Itunben-kutxaganako ainbesteko eraspenagaz agertu ba ziran, zelan enaz gertzen ardura andiagoaz, zu Ikurtonean artzeko?

28. Dabid bakaldun jaungoiko zale andiak, lenagoan asabai egindako mesedeak gogoratuta, Jaungoikoaren kutxa-auŕean indar guzttakaz jantzan egin eban,- askotariko ereskiñak egin ebazan;

crcsiak (salmoak) berak atera ta alaitasuiiez abestuteko agindu eban,- eta berak be Goteunaren (Espiritu Santuak) eskeŕak eraginda, maniuragaz (zitaraz) saŕitan abestu ebazaii; eta Isŕael'go eŕiari biotz - biotzez Jaungoikoa goretsi, ta egun bakotxean danak ao batez onetsi ta ospatzen irakatsi eutsan. •

29. Orduan ainbeste eraspen baegoan, ta Itunben - kutxaren auŕean Jaungoikoa goresteko ainbesteko ardurea ba-euken, zelango itzal eta eraspena euki bear ete dogu, nik eta kistar guztiak, Ikurtonaren (Sakramentuaren) auŕean, eta Jesukristo'ren Gorputz bikain-bikaña artzean?

30. Asko deunen gorpuzkiñak ikusteaŕen toki askotara oi doaz, eta deunen egiñak entzunda aŕituta gelditzen dira,- eleiz nagusiak ondo-ondo ikusten dabez, eta aŕeun (seda) eta uŕez estalduta dagozan deunen azur gurenai mun egiten dautsie,- ta ona emen zu berton zagoz, neure auŕeko opal-mayan (aldaran) neure



Jaungoiko ori, deunik tleunena, gizonen Egilea ta aingeruen Jauna.

31. Olangoak ikustera iñoz ikusibakoak ezagutu ta jakin-gureak daroaz saŕitan gizonak, eta obetasun gitxi atera oiclabe, batezbere batera ta bestera, buru ariñaz eta benetako damu barik dabiltzanean.

32. Emen, baŕiz, opamaiko (aldarako) Ikurtonean, neure Jesukristo maite ori, Jaungoiko ta gizona oso-osorik zagoz, cta berton bear dan besteko gertakizun eta eraspenaz artzen dogun bakotxean betiko bizitzarako asko irabazten da.

33. Ta ikurton (Sakramentu) onetara ez gakaz arinkeri, ez jakin-zalekeri, ez aragikeriak; siñismen sendo, itxaropen eraspentsu ta maitasun zindoak baño.

34. Ene Jaungoikoa, ludiaren (munduaren) Egile ikusi-eziña, zuk bai aŕigaŕiro diarduzula gugaz! samur samur, eta eskarutsez erabagiten dozu zure autuentzat, eurai Ikurtonean (Sakramentuan)

janaritzat zeu artu zagiezan zeure Gorputza eskintzen dozula!

35. Onek adimen guztiak goitzen dauz, onek jaungoiko-zaleen biotzak jaso ta sutu egiten dauz; euren bizitza osoa onduten diarduen zure jaŕaitzale zintzoak, [kurton guren-guren onetatik eraspen - eskeŕa ta onoimen - maitasuna saŕitan artzen dabez.

36. Aŕigaŕia ta ostendua da benetan Kristo'ren jaŕaitzale zintzoak baño ezagutzen eztaben Ikurton onen eskeŕa,. siñistebakoak eta obenaren (pekatuaren) otseñak, baŕiz, asmatu be ezin leikie.

37. lkurton (Sakramentu) onetan gogoko eskeŕa emoten dozu, ta galduriko onoimena baŕiro biotzeratzen da, ta obenak loitutako edertasuna baŕiro dator.

38. Batzuetan esker au gogoari, baita gorputz makalari be, isuri yakon eraspen beteaz indar ugariagoak emoteko bestean andia izaten da.

39. Baña tamalgaŕia ta negargaŕia da gure epelkeri ta nagikeria, Jesukristo ar-



tzera gogo andiagoaz ezkaroazalako, zeruratuko diranen itxaropen eta irabazía bera ciaía.

40. Bera da, ba, gure donekuntza (santifíkaziño) ta zeru-bidea, bera da bidarien (erbeste onetakoen) poza ta deunen betiko atsedena.

41. Oso negargaŕia da, beraz, zerua poztu ta luŕari eusten dautsan eskutuki (misteri) osasungaŕi oneri askok jarainon gitxi egitea.

42. Giza-biotzaren itsukeri ta gogorkeria; onen emokari gurenari jaramon geyago ez egitea, ta egunoro erabiliaz beratzaz aiztutea!

43. Ikurfon deun-deun au toki baten bano ospatuko ezpa'íitz, eta ludi guztian jaupari (abade) batek baño eskiñiko ezpa'leu, jaungoikozko eskutukiak ospatzen ikusteaŕen, toki oŕetara ta jaungoikoaren abade oŕegana gizonak zelako gurariaz joango Ikzakezala uste dozu?

44. Orain, baŕiz, abade asko dira ta toki askotan eskintzen da Kristo- Jaunar-

tze deuna ludian (munduan) zabaldu dan neuŕiz, gizonaganako Jaungoikoaren eskeŕa ta maitasuna ugariago agertu daitezan.

45. Eskeŕak zuri, Josu on eta betiko artzain oŕi, gu, txiro ta aŕotzok (erbestetuok) zure Gorputz eta Odol bikañagaz janaritzeko eŕukioŕa izan zarealako; ta baita zure aotik urtendako itzakaz eskutuki oneik artzera deitu zeunskulako be, diñozula. «Nekatu ta zamatuta zagozen guztiok, erdu zaiteze neugana, ta neuk arinduko zaituet» (1).

## II ATZALBURUA

### IKURTON (SAKRAMENTu) ONETAN CIZONARI JAUNGOIKOAItUN ONTASUN CTA MAITASUN ANDIA AGERTZEN YAKOZALA

1. IKASI.EARLN OTSA.—Jauna, zure ontasun eta eŕuki andian ustea daukadala, ni gaxoa Osagileagana, gosez- eta egaŕiz nagoana bizitzako ituŕira, ezeukia zeru'

(I) Matth. XI, 2S.



ko Bakaldunagana (eŕegeagana), otseña Jaunagana, izakia Egileagana, ta atsekabetua neure poztzale eŕukitsuagana natorkizu.

2. Baña, nondik datorkit niri zu nigana etoŕea?

3. Ni nor'naz zeu zarean ori niri emoteko?

4. Obendia (pekataria) zelan asartuko da zure auŕean aurkeztuten,- eta zu obendiagana etorterańo, zelan beratzen zara?

5. Zure otseña ezagutzen dozu, ta berari mesede au egiteko berak ezer onik eztaukala badakizu.

6. Nire zatarkeria, beraz, autortzen dot, zure ontasuna ba-dazaut, zure eŕukia goratzen dot, eta zure maitasun laŕegiagaitik eskeŕak dagitzudaz.

7. Au nire irabaziakaittk barik, zeu zareana zarealako egiten daustazu, onetara zure ontasuna ezaunago, maitasuna ugariago isuria ta apaltasuna bikañago izan dagidazan.

8. Zuri au atsegin yatzulako ta zuk onelan egiteko agindu dozulako, neuii be atsegin yat zuri begiko izatea,- ta nire gaiztakeriak ez al daust eragofcziko!

9. Ene Jesu guztiz eztitsu ta biotz bigun ori! betiko gorespenakaz itzal eta esker on andiak zor yatzuz, bere anditasuna iñok azaldu ezin leiken zure Gorputz guren-gurena artzeagaittik.

10. Baña, zer oldoztuko (pentsauko) dot oraingo Jaunartze onetan nire Jaunagana uŕeratzean, berau bear dan bestean ezin gurtu, baña onan da guzti be eraspenaz artu gura dot-eta?

11. Nire burua zure auŕean apaletsi ta niganako zure neuŕibako onberatasuna gorestea baño obe ta onuragaŕiagorik oldoztu neinke?

12. Nik goraldu ta betiko goretsi gura zaitut, ene Jaungoiko ori; neure burua onesten dot eta nire zatarkeriaren sakontasunean menperatzen dautzut.

13. Zu deunik deunena zara, ta n! obendi (pekatari) zikiña naz.



14. Zugana begiak jasoteko be gai cnazan niganañomakurtzen zara zu.

15. Zu nigana zatóz, zuk nigan egon gura dozu, zure maíra deitzen nozu.

16. Zuk niri zerutiko janaria ta aingoruen ogia jateko emon dura daustazu.

*17.* Ez besterik, zerutik jatsi ziñan zeu, ta gizadiari bizia emoten dautsazun ogi bizi ori baño'

(8. Andiak dira benetan zure maitasuna ta onberatasuna, ta esker eta gorespen asko ta asko zoryatzuz.

19. Ikurton au irasi zenduanean, zuk izan zendun asmo osasungaŕi ta onuragaŕía! a zan jate eztitsu ta gozoa, janaritzat zeure Gorputza ta Odola emoten zenduana!

20. Zure egiñak aŕigaŕiak dira, Jauna,- zure indaŕa dan altsua; zure egía dan uts-eziña!

21. Itz egin zendun eta guztiak egin ziran, eta agindu zendun axe egin zan.

22. Aŕigaŕi ta siñisgaŕi ta giza-adinie-

na goitzen dauana da, zu nire Jaun eta Jaungoiko ori, benetako Jaungoikoa ta gizona izanik, ogi ta ardo pizkaren irudipean oso osorik egotea ta artzen zaituanak, zu ezereztu barik, zu jatea.

23. Zuk, guztien Jauna zarean eta ezeren beařik eztaukazun ořek, zure Ikurton onen bitarlez gure artean bizi gura dozu, ta nire biotza ta nire gorputza *or*ban barik jabon egizuz, bařu alai ta garbiagaz zure eskutukiak sařiago ospatu dagikedazan; eta batezbere, zure gorespenerako ta betiko gomutakitzat irazan eta jaři zendun lkurton (sakramentu) au betiko bizitz-gajtzat artu dagidan.

24. Poztu zaite, neure arimea, ta eskeřak egiozuz Jaungoikoari, negar-eři onetan emokari ořen bikaña ta berebiziko atsegiña itxi dautzulako.

25. Ba. eskutuki au gogoratu ta Kristo'ren Gorputza artzen dozun bakotxean, zure beřeroskundea bařiztu ta Kristo'ren irabazkide egiten zara.

26. Kristo'ren mattasuna bein be ezta.



gitxitzen, eta bere eřuki andia iñoz be ezta agortzen.

27. Augaitik gogo beti bařizfuaz gertu bear zara ořetarako, ta osasungařia dan eskutuki andiau arduraz gogoan erabili egizu.

28. Jaupea (mezea) emon naí entzuten dozunean, egun atan Kristo zerutikjatsita Ama Neskutzaren (Birjiñaren) sebelean gizon egin bai'litzan, edo gurutzetik eskegita, gizonen gaizkakunderako jasan (sufridu) ta il zan eguna bai'lítzan, andia, bařia ta atsegingařia dala siñistu egizu.

## 1// ATZAI.BUIUM

## ONDO DAI.A SAKRITAN JAUNA AKTZI.A

!. IKASLKARBN OTSA.— Zugana nator, Jauna, zure emokariak on egin dagistan, eta zuk Jaungoiko ořek, zures amurtasunez txiroai atondu zeuntsen zu*r*e jateko deunean poztu naiten.

2. Ořa-or, zugan dago gura neiken

14. Beraz, jaunartzeak gaitzetik aldendu ta onean sendotu egin ol-dau.

15. Ta orain, Jauna artu nai jaupa (nieza) emoten dodala, onen saŕitan nagi ta epel ba-nago, zer 'izango Utzake osagaŕi ori artu ez, eta laguntasun andi ori bilatuko ezpa-neu?

16. Ta egunoro Meza emoteko beste gai ta ondo gertuta ezpa-nago be, esker au irabazteko garai egokietan jaungoikozko eskutukiak artzeko aleginduko naz.

17. Arima zintzoaren atsegiñik andiena, gorputz ilkoŕean zugandik uŕin bizi dan artean, auxe da ba. Bere Jaungoikoa saritan gogoratu ta bere maitea biotz eraspentsuaz artzea.

18. Guganako zure eŕukiaren óribʹéʹratasuna dan aŕigaŕia! Zuk, Jaun eta Jaungoiko, gogo guztien ligile ta Bizitz-emole oŕek, artma gaxoagana etoŕi, ta oneti gosea zure jaungoikotasun eta gizontasun osoaz asetzea!

19. Gogo zoriontsua ta arima zorion-



duna: zu, bere Jaun eta Jaungoikoa, eraspenaz artu, ta zu artzean gogokor pozez beteten dana!

30. Benetan Jalin andia artzen dau, aŕotz (kanpotar) maitea etxeratzen dau, lagun laztana beragantzen dau, adiskide zintzoa aukcratzen dau, maitale edeŕa ta andikia laztantzen dau, guztien artean maiteena ta maitagaŕi guztien ganetik maite izatekoa!

21. Zure auŕean, neure kutun-kutun ori, ixiiik begoz zcruak eta luŕak, ela euroen npaintasuiia, goresgaŕitzat eta edergaŕitzat dauken dan-dana, zure esku zabaletik artu dabe-ta; ta amaibakojakituria dauken zure izenarcn aintzaraño iñoz be cztira elduko.

IV AT/.ALHURUA

UISA hlíASPHN AN'DIAZ ARTZBN DABENAl ON[1] ASKO EMOTBN YAKIE7.ALA

1. IKASLEAREN OTSA.—Neure Jaun eta laungoikoa, zure gozotasunaren onespe-

nakaz auŕendu zakioz zure otseñari, zure lkurton Sakramentu gurenera bear danez eta eraspenaz uŕeratu al naiten.

*1.* Nire biotz au zeuganantza bultzau egizu, ta lozoŕo gogor onetatik itxartu nagizu.

3. Ituŕian lez, oso-osorik ostenduta dagoan zure gogotasuna Ikurton onetan gozartu dagikedan, ikertaldu nagizu abegi onaz.

4. Baita nire begiak be argitu egidazuz onenbesteko eskutukiari begiratzeko; ta siñismen bizi-biziaz siñisteko, sendotu nagizu.

5. Zuk egiña dalako, ez giza-almenak,- ta zure iraskuna, ez gizonen asmakizuna.

6. Aingeruen adimen zolia goitzen dauan au aitu ta ulertu leikenik eztagota.

7. Ta nik obendi (pekatari) ergel, lur eta auts onek, eskutuki oŕen goiko ta deunatzaz, zer arakatu ta ulertu neinke?

8. Jauna, biotz zintzoz eta siñiste on eta sendoz, eta zure aginduz uŕeratzen nayatzu, ta bene-benetan siñisten dot zu emen Ikurtonean aurkitzen zareala, Jaungoiko ta gizon.



9. Beraz, artu zagidazala ta maitasunean zeugaz bat egin naitela gura dozu.

10. Augaitik zure biotz eŕukitsuari eskatzen dautsat, eta onetarako berarizko eskeŕa emon dagistazun otoizka (eŕeguka) naukazu, zure maitasunez urtu, gañezka egin eta beste iñongo atsegiñen ardurarik ez izateko.

11. Ikurton goi-goiko ta guren-guren au, gorputzaren eta arimaren osasuna, ta gogoaren gaitz guztien osagaŕia da-ta, berton nire oitura txaŕak osatu, griñak ezi, ziltzaldiak azpiratu edo gitxiagotu egiten dira,- eta esker ugariagoa isuri, onoimen asi-baŕia geitu, siñismena sendotu, itxaropena indartu ta maitasuna sutu ta zabaldu egiten da.

12. On asko emon oi-dautsezue, batezbere, Ikurtonean zu eraspen andiaz artzen zaituenai; zuk, neure Jaungoiko,

nire gogoaren artzaile, giza-makaltasunaren osagile ta baŕuko atsegin guztien etnole oŕek.

13. Askotariko loŕen aurka atsegin joria isuriten dautsezu ba, ta euren kikilkeri sakonetik zure laguntasuna itxarotera eragi dozuz, eta esker baŕiagaz euren baŕuak poztu ta argitzen dozuz,- onan lenengoan laŕi ta Jauna artu auŕetik epel egozanak, gero zeruko jan-edariz sendotuta, obera aldatuta aurkitzen dira.

14. Ta onan diarduzu zeuretzako dozuzanakaz, eurenez makal-makalak dirala, ta onak eta eskeŕak zure eŕukitik artu dabezala egi-egiz ikusi ta ezagutu dagien,- eurenez otzak, gogoŕak eta eraspenbakoak izanik, sutsuak, alayak eta eraspentsuak izatea zugandik artzen dabe-ta.

15. Hzti-ituŕira gogo apalaz eldu ezkero, bettotik nok atara ez ezti-tantakadatxu bat?

16. Edo su andiaren ondoan egon ezkero, nor ezla berotuko zerbait?

17. Eta zu, ituŕi betea ta gañezka dagoana zara beti,- beti gaŕean tlagoan sua ta iñoz be itzaliten eztana.



18. Augaitik ituŕi betetik ura *artzen ta aselu* arierraño *edaten* izten ezpa-dauste be, beintzat nire egaŕia asetu ta guztiz igertuta gelditu ez nadin, zeruko odi (kañu) zuloan aoa ipiñiko dot, ango ur tantakadatxu bat artu dagidan.

19. Ta oso zerutikoa ta Jakitunak (kerubin) eta Sudunak (seiafin) lez gartsu izan ezin ba-naz be, aleginduko naz eraspenari ekin eta biotza gertzen, Ikutton bizigaŕi au artuaz jaungoikozko sugaŕetatik txingartxuen bat neuganatu dagidan.

20. Baña ntri uts yatana, zuk, Jesu on eta Gaizkatzale (Salbagile) deun-deun oŕek, eŕukiz eta uŕurik ornidiLegizu,- danai zugana deitzeko adeitsua izan ziñan ba, esan zenduanean: «Nekatuta ta zamatuta zagozen guztiok erdueze neugana, ta neuk arinduko zaituet» (1).

21. Nik, ba, arpegi-izerditan lan egi-

(l) Matth.Xi, 28.

ten dot, eta biotz-miñez oñazetuta, ta obenez zamatuta, ta ziltzaldiz artegatuta, ta griña askogaz naspilduta ta lařituta nago,- ta nok lagundu cztaukat, ez nok azkatu, ez nok gaizkatu (salbau) bez, zuk, neure Jaun eta Jaungoiko ta Gaizkatzale ořek izan ezik,- nazan eta nire gauza guztiak zure ardurapean izten dodaz, nl zaindu ta betiko bizitzara eroan nagizun.

22. Zure izenaren gorespen eta aintzarako artu nagizu, zure Gorputza la Odola janari ta edaritzat ipiñi zeunstazan ořek.

23. Nire Jaungoiko Jaun eta Gaizkatzaíea, zure eskutukira sařitan uřeratuaz, nire eraspenaren beroa mardotzca emon egidazu.

I ! A
V A'l'ZAUiUltUA

IKUIiTONAREN ANDITASUNA TA JAUPARIEN GOtTASUNA

1. MAITEAHEN OTSA.—Aingeruen garbitasuna ta Jon Ugutzariaren (Bateatzalearen) gurentasuna (santutasuna) ba' zeunkaz be, Ikurton au artzeko ta erabilteko beste ez zintzakez izango.



2. Gizonak Kristo'ren Corputza iskindu (konsagrau) ta erabiltea, ta aingeruen ogia jatea, eztalako gizonaren irabaziari zor yakona.

3. Eskutuki andia da au, ta jauparicn (nieza emoleen) bikaintasuna gurena da, aingeruai emon et.xakena eurai emon yake-ta.

4. lia mezea cmoii eta Kristo'ren C.orputza iskintzeko (konsagretako) eskubidea Eleizan arauz jaupalduak diran jaupariak baño eztaukie.

5. Jauparia benetan Jaungoikoaren ordezkoa, Jaungoikoaren erabagiz eta aginduz Jaungoikoaren itzak diñozana da.

6. Baña ořetan egile nagusi ta eragile ostendua, dan-dana bere menpean daukan eta guztiak men-egiten dautsen Jaungoikoa da.

7. Be/az, Ikurton bikain-bikain one-

tan zure zentzunai ta ezaugaŕi agiriai baño, guztia al dauan Jaungoikoari geyago siñistu bear dautsazu.

8. Augaitik Ikurton onetara bilduŕaz eta begirunez etoŕi bear da.

'.). Ondo goznartu ta begiraíu egizu Cotzañaren eskuak czartetik arlu dozun eskubidea.

10. Aiko, jaupari egin zaitue ta mezea emoteko jaupaldu.

11. Opari au Jaungoikoari zintzo ta etaspentsu aldi egokian eskintzeko, ta zeu garbi-garbi agertzeko arduratu zaite.

12 Zure zamea (kargea) eztozu arindu,- baŕiz, zeure burua korapilo estuagoaz lotu ta gurentasun (santutasun) bikañagora igoteko beartu LIOZU.

13. Jaupariak onoimen guztiakaz apainduta egon bear dau, ta besteai bititza onaren eredua emon bear dautse.

14. Bere autualdiak gizon nasai ta ardurabakoakaz barik, zeruko aingeruakaz edo luŕean gizon zindoakaz izan bear dabe,



15. Jauparia jaupa (meza) soñekoz jantzita Kristo'ren ordezkoa da, bere buruaren eta eŕi osoaren alde Jaungoikoari otoi-eskaria biziro ta apal egiteko.

1(). Bere auŕean eta atzean Kristo'ren gurutz-irudiadauko, Kristo'ren Nekaldia (l'asiñoa) beti gogoan erabili dagian.

17. Auŕeanjaupa-janzkian (kasulean) gurutzea daroa, Kristo'ren oñatzai arduraz begiratu ta berari sutsu jaŕaitzeko.

18. Bere atzean be gurutzea daroa, lagun-urkoen irañak eroapenaz Jaungoikoaien jasateko.

19. Bere auŕean gurutzea daroa, bere obenakaitik (pekatuakaitik) negar egiteko; bcre atzean be badaroa, besteen obenakaitik eŕukiz negar egiteko, ta Jaungoikoaren eta obcndiaren bitaitekoa dala jakin dagian,- eta Jaungoikoagandik esker eta eŕukia jadetsl artean, otoitz egiteari ta oparia eskintzeari itxi eztagion.

20. Jaupariak mezea emoten dauanean laungoikoa goretsi, aingeruak poztu,

Eleizeari on-egin, biziai lagundu, ilai atsedena emon eta bere burua on guztien kide egitçn dau.

### VI AIZALBURLIA

#### JAUNA ARTU AURRKKO EGIKIZUNAK

1. IKASI.IÍAKLN OTSA.—Jauna, zure bikaintasuna ta nire zatarkeria gogoratzen dodazanean, ikaraz dardaraka ta lotsatuta nago.

2. Zugana ezpa-noa, bizitzatik igcs noa,- ta txarto aurkezten ba-nayatzu, irain dagitzut.

3. Beraz, zer egingo dot, neure Jaungoiko, neure laguntzale ta beaŕaldietarako neure onularia?

4. Bide zuzena zeuk erakutsi egidazu: Jaunartzeko iñarkun labur eta egokien bat ipiñi egidazu.

5. Zure Ikurton au onuraz artzeko, nai opari onen andi ta jaungoikozko au eskintzeko, nire biotza eraspen eta lotsa andiaz gertzen jakitea beaŕezkoa yat-eta.



### VII ATZALBURUA

#### NORRI.RI. BARRUA ARAKATZLiA TA ONDUTL.KO ASMOA

1. MAITKARI-.N OTSA.—Ikurton (Sakramentu) au eskiñi, erabili ta artzeko biotz apala, itzal eraspentsua, siñismen osoa ta Jaungoikoa goresteko asmo zintzoa bear - beaŕekoak dauz Jaungoikoaren jaupariak.

2. Zure baŕua arduraz arakatu egizu, ta, al dozunez, benetako damuaz eta autortze apalaz garbitu ta argitu egizu,- oben astunen batek be artegatu etzagizan, eta eskutuki onetara etortea galazo eztagitzun.

3. Zure oben guztiak goŕoto izan egizuz,- baña batez be, zure egunoroko utsegiteakaitik damutu zaite ta negar egizu.

4. Ta astirik badaukazu, zure griñen lotsakeri guztiak biotz-baŕuan Jaungoikoari autortu egiozuz.

5. Negar egin eta damutu zaite, oraindiño oŕen aragikoi ta mundukoi zaralako,- griñetan oŕen gordiña, iŕits-eragikunez oŕen betea,- zentzunak zaintzeko oŕen ardurabakoa, irudikerietan oŕen saŕitan naspildua, atetikoetarako oŕen etzana, baŕukoetarako oŕen nagia,- baŕe ta ijuijirako oŕen eŕaza, negar eta damurako oŕen gogoŕa,- nasaik'eri ta aragikerietarako oŕen zolia, ta laztasun eta eraspenerako oŕen alpeŕa,- baŕiak entzun eta edeŕak ikusteko oŕen iŕitsua, apal eta zataŕak laztantzeko oŕen otza; asko artzeko oŕen gosetia, emoteko oŕen esku estua, eukiteko oŕen zekena,- itz egiten oŕen baŕitsua, ixilik egoteko oŕen ixil-eziña,- ekanduetan oŕen nasaya, egiñetan oŕen erabakoa; jateko oŕen nastua, ta Jaungoikoaren itzetarako oŕen goŕa; atsedenerako oŕen zolia, ta lanerako oŕen motela; baŕiketarako oŕen itzaŕik, otoitzean ernai egoteko oŕen lo-gura,- atnaitzeko oŕen ariña, adi egoteko oŕen nagia,- otoitzean oŕen alpeŕa, jaupa emo-



lean oŕeu epela, Jauna artzean oŕen legoŕa; oŕen eŕaz oyertua, oŕen gitxitan zeugan ondo batua,- asaŕeak oŕen laster eragiña, besteak naigabetzeko oŕen eŕaza,- epaitzeko oŕen etzuna, agiraketan oŕen zoŕotza,- zorion-aldian oŕen pozik, zori-txar-aldian oŕen jausia,- onak asmatzen oŕen ugaria, ta betetean oŕen meatza.

6. Zure makaltasunaretikoak diran oneik eta beste zure utsuneak, damu ta iguin andiaz autortu ta negar egin ezkero, zure bizitzea beti ondu ta onbidean auŕeratzeko asmo sendoa artu egizu.

7. Eta gero eroapen osoagaz eta biotz-biotzez zure burua eskiñi egidazu nire izenaren aintzarako, zure biotzeko opa-mayan betiko oparitzal zure gorputza ta arimea zintzo neure ardu.rapean ezarten dozuzala,- onan oparia bear danez Jaungoikoari eskintzea, ta nire Gorputzaren Ikurtona onuraz artzea irabazi dagizun.

8. Eztago ba eskintza edeŕagorik, ezta obenak kentzeko ordaintza andiaporik

be, norbere burua utsik eta osorik Jaupan eta Jaunartzean, Kristo'ren Gorputzagaz Jaungoikoari eskintzea baño.

9. Gizonak bere eskuan dagoana egin eta benetan damutzen ba-da, esker eta parka-eske nigana datoŕen bakotxean : «Bizi naz, diño Jaunak, eztodala gura obendiaren (pekatariaren) eriotzea, nigana biurtu ta bizi dadila baño (1); bere obenakaz geyagoan enaz gomutauko C2), ba guztiak parkatuko yakoz.

## VIII ATZAI..BURUA

### GURUTZIIAN KRISTO'REN ESKINTZEA TA NORBERAREN JASATASUNA

1. MAITEAREN OTSA.—Besoak zabalik eta Gorputza bilosik, eskintzekorik nigan ezertxu be itxi barik, zure obenen ordez, Aita Jaungoikoari bere asaŕea ibitzeko neure burua gurutzean opaldu neutsan lez,- onantxe zeuk be, egunoro

(1) Ezcch. XXXIII, 11.
(2) Hebr. X, 17.



zure indar eta biozkada guztiakaz jaupa einotean eta albait gogotsuen zeure buiua opari garbi ta deuntzat eskiñi bear daustazu.

2. Zarean guztia oso-osoan neure eskuetan iztea baño, zer geyagorik daskatzut?

3. Zeu barik emoten daustazun edozer eztot gura, enabil ba zure emokariaren bila, zeure bila baño.

5. Neu barik, gauza guztiak euki aŕen, naiko elitzakizun lez,- onantxe zeure burua barik emoten daustazunik etxat atsegin.

5. Zeure burua eskiñi egidazu ta Jaungoikoaŕen osorik emon egidazu, ta zure oparia begiko izango yat.

6. Neuk be Aitari zure alde neure burua osorik eskiñi neutsan,- baita nire Gorputza ta Odola be jan-edaritzat emon nebazan, ni osorik zurea izan nendin eta zu nirea izan zaitezan.

7. Baña zeugan gelditzen ba-zara, ta neure gurera gogoz ezpa-zatoz, zure

oparia ezta osoa, ta gure arteko batasuna be ezta izango batasun osoa. Oŕegaitik azkatasuna ta eskeŕa jadetsi gura ba dozuz, zure egikizun oroen auŕetik zure burua Jaungoikoaren eskuetan gogoz eskiñi bear dozu.

8. Euren baŕuz argitu ta azkatuak ain gitxi di*r*a, baña euren buruari beti ukatzen eztakielako da.

9. Auxe da nire erabagi sendoa i «Norbaitek guztiak izten ezpa-dauz, nire ikaslea ezin izan leike» (1). Augaitik zuk nire ikaslea izan gura ba-dozu, zure burua gurari guztiakaz neuri eskiñi egidazu.

## IX ATZAI.BURLIA

### CBURB ISURUA TA GURH GUZTIAK 1AUNGO1K0ARI F.SKIÑÍ, TA DANP.N AI.DF. OTOffZ-EGIN BEAR DAUTSACLII.A

1. IKASLEARP.N OTSA. — Jauna, zeruan eta Iuŕean dagozan guztiak zeureak dozuz. .

(1) í.uc. XIV, .13.



2. Nire burua gogozko oparitzat zeuri eskiñí, ta beti zeurea nazala iraun gura dot.

3. Jauna, nazanez nire burua gauttik betiko otsein-opari ta gorespengaŕitzat biotz bakunaz eskintzen dautzut.

4. Ikusi ezinda be, berton dagozan aingeruen auŕean gaur eskintzen dautzudan zure Gorputz bikain-bikañaten opaii gurenagaz batera, neu be artu nagizu, nire ta eŕi osoaren onerako izan dedin.

5. Zure eŕuki-opamayan eskintzen dautzudaz, Jauna, oben egitcn asi nintzan egunetik oraintxe arte, zure ta aingeruen auŕean egin dodazan oben eta gaiztakeri guztiak, zure maitasun-gaŕetan guztiak batera eŕe ta kiskaldu dagizuzan, eta nire obenen otban guztiak kendu dagistazuzan, eta nire baŕua gaiztakeri guztitik garbitu dagizun, eta oben egiñaz galdu neban eskeŕa baŕiro emon dagidazun, dan-dana azketsi ta zure eŕukiaz bakezko niosua damostazula.

6. Nik nire obenen ordañez zer egin neinke, apal eta negaŕez autortu ta eten barik zure eŕukiaren eske egon baño?

7. Neure Jaungoikoa, zure auŕean nago ta aŕen, eŕukiz entzun dagizula daskatzut.

8. Nire oben guztiak goŕoto dodaz, baŕiro iñoz be eztodaz egin gura,- damu naz, eta oben-nekea bete ta al dodanez ordaintzeko gerturik nago.

9. Azketsi (parkatu) egidazuz, ene Jaungoikoa, azketsi egidazuz nire obenak zure izen deunagaitik; gaizkatu (salbau) egizu zure odol bikañaz erosi zendun nire arima au.

10. Ona emen, zure eŕukipean jezarten naz,- zure eskuetan izten dot nire burua,- nigaz zure ontasunari dagokionez egizu, ta ez nire gaiztakeri ta zitalkeriari zor yakonez.

11. Baita nire on guztiak be, gitxi ta utsez beteak izan aŕen, eskintzen dautzudaz, zeuk obetu ta gurendu dagizuzan, ontzat artu ta zuretzat atsegingaŕi egin, eta beti obetik-obera eroan dagi-



zuzaii; baita ni gizontxu alper eta baldar au betiko zorionera eroan nagizun be.

12. Baita jaungoiko-zaleen gurari deun guztiak, eta nire guraso, adiskide, anai, aŕeba, nire maite guztien eta zure edeŕaŕen niri nai bcsteri on-egin dauskuenen bear-izanak be eskintzen dautzudaz,- baita nik euren eta eurenen alde otoitzak eta jaupak eskintzea gura ta eskatu daustenen alde be, nai biziak nai ilak dirala; danak zure eskeŕaren laguntasuna, zure poztasunaren sorospena, aŕiskuetan azkatasuna ta nekeetan arintasuna oartu dagien, eta gaitz guztietatik aterata, zuri oso alai esker ugariak egin dagitzuezan.

13. Baita otoitzak eta eŕukizko opariak be eskintzen dautzudaz, batez be zeozetan kalte, atsekabe, irain, ezbear edo gaitzen bat egin daustenen alde,- baita neuk iñoz itzez edo egitez, jakitez edo ez jakitez atsekabetu, kezkatu, iraindu ta obeneratu nebazanen alde be. guztioi gure obenak (pekatuak) eta alkaŕeganako irañak azketsi dagiskuzuzan.

14, Jauna, gure biotzetatik susmo, suniin, asaŕe ta buŕuka1<, eta maitasuna eragotzi ta urkoaganako txera ona gitxi-tu leiken edozer kendu egizuz.

15. Eŕukitu zaite, Jauna, eŕukitu zaite zure eŕukia eskatzen dautzuenakaz,- eta eskeŕa emon egiezu bear dabenai, ta zure eskeŕa artzeko.ta betiko bizitzara joaleko gai egin gagizuz. Olantxe,

## X ATZALBURUA

### JAUNARTZHA EZTALA KHRAZ ÍT'XI Ijl.AR

1. MAITHARP.N OTSA. — Eskeŕaren eta jaungoikozko eŕukiaren itufira, ontasun eta garbitasunaren ituŕira saŕitan joan bear dozu, zure griña ta oitura gaiztoe-tatik osatu zaitekezan, eta txeŕenaren (diabruaren) zirikada ta maltzurkeri guz-tien aurka egiteko sendoago ta bizkoŕago jartea jadetsi dagizun.

2. Igali (frutu) ta osagaŕirik andiena Jaunartzean dagoala arerioak badaki-ta,



beti ta guztietara ekíten dautso siñislc ta jaungoiko-zaleak uŕindu ta eragoztén.

3. Augaitik batzuk Jaunartze deune-rako gertzen asten diraneko, len baño txeŕenaren zirikada txa.ŕagoak jasaten dabez.

4. Goteungea berbera, Job'en idazti-ak diñonez, Jaungoikoaren semeen artera dator, oi dauan zitalkeriagaz artegatu edo bildurtiegi egin, edo estututeko; onan euren eraspena epeldu, ta gogor egiñaz siñismena kendu al ba-dautse, edo bear bada Jaunartzea guztiz izten ba-dabe, edo epel artzen ba-dabe.

5. Baña oŕen zitalkeri ta irudikerien ardurarik ezta euki bear, izan leikezanik zataŕenak efa ikaragaŕienak izanda be,-baŕiz,dakarguzan irudikeri guztiak berari barurajaurti bear yakoz.

6. Zorigaiztoko onen lepotik iŕi ta baŕe egin bear da,- berak eragiten dauzan zapaŕada ta ekaitzak gora-bera Jaunartze deuna ezta itxi bear.

7. Baita eraspena saŕitan eragozten

dau berau lortzeko ardura laŕegiak, eta autortzeko estutasun laŕiak be.

8. Jakitunak dirautzuen lez egizu ta alde batera itxi egizuz kezkak eta Iaŕitasunak; Jaungoikoaren eskeŕa galazo ta gogoko eraspena kentzen dabe-ta.

9. Ez kezka ez lor pitiñen bategaittk Jaunartzea ez egizu itxi; albait lasteŕen zoaz autortzera, ta besteai egin dautzuezan irain guztiak gogoz parkatu egiezuz.

10. Baña zeuk norbait iraindu ba-dozu, azkespena (parkamena) apal eskatu egiozu ta Jaungoikoak pozik azketsiko dautzu.

11. Autortzea asko belutu ta Jaunartzea atzeratzeak, zer onik dakar?

12. Ainbat lasteŕen baŕua garbitu egizu; !enbait-len edena (benenoa) jaurti egizu.

13. Osagaŕia beingoan artu egizu, ta luzaroan geroratuko ba-zendu baño obeto egongo zara.

14. Gaur au dala-ta izten badozu, bear bada biarko zio andiagoa agertuko



da,- ~ta onan Jaunartzea luzaroan itxita, gertaera gitxiagogaz aurkituko zintzateke.

15. Nagikeri ta geldikeri ori ainbat bizkoŕen jaurti egizuz, luzaroan kezkatsu ta artega ibiliaz, eta egunoroko eragozpenakaitik jaungoikozko fkurton onetatik alde egiñaz be, ezebe tztozu irabaziko-ta.

16. Jaunartzea asko belutzeak, baŕiz, kalte andia egiten dau,- alperkeri andia ekaŕi oi dau-ta.

17. Au dan negargaŕia! Epel eta nasai norbaitzuek euren gogoa ardura geyagoaz zaindu beaŕa ez eukiteaŕen, autortzea ta Jaunartzea pozik beranduagotu ta belutzen dabe.

18. Jaunartzeaonen eŕazbelutzen dabenak, maitasun uŕia ta eraspen motela bai daukela!

19. Benetan zoriontsu ta Jaungoikoa**rentzat** atsegingaŕi da, egoki ba'Iitzakio ta agiri barik egin al ba'Ieu, egunean-egunean Jaunartu guraz eta gertuta

egoteko, ondo bizi ta bafua garbi zaintzen dauana.

20. Apaltasunagaitik edo bidezko eragozpenagaitik norbaitek Jaunartzea nozikpein izten ba-dau, txalogafia da bere lotsa ofegaitik.

21. Baña apurka-apurka epeltasuna sartu ba-yako, bere burua bizkortu ta al dauana egin bear dau,- eta batez be, asmo onari begiratzen dautsan Jaungoikoa gurari onean laguntzeko etofiko yako.

22. Baña bidez eragotzita dagoanean be, Jaunartzeko gogo ona ta asmo zintzoa eukiko dau,- eta onan Ikurtonaren (Sakramentuaren) igali (frutu) barik ezta gelditukо.

23. Edonor elizkoik egunoro ta orduoro be gogoz eta onura andiaz jaunartu Jeike, au íñok be eztautso eragoztenEta; baña egun batzuetan eta aginduta dagoan aldian Gaizkatzalearen Gorputza Ikurtonean itzal samufaz artu, ta norbere atsegiña baño geyago bilatu



bear dau Jaungoikoaren aintza ta dedua.

24. Kristo'ren Gizakundea ta Nekaldia (Pasiñoa) gomutau ta beraganako maitasunean ixiotzen dan bakotxean, gogoz Jaunartzen dau ta ikusten eztala alikatzen da.

25. Jai - eguna etofi daitenean, edo oitureak eraginda baño gertzen eztana, safi-a'skotan aurkituko da gertu barik.

26. Zoriontsua Meza emotean nai Jaunartze bakotxean, norbere burua oparitzat Jaungoikoari eskintzen dautsana.

27. Jaupa edo Meza emotean astiroegia edo ariñegia izan barik, zugaz bizi diranen erara egizu.

28 Iñori be etzakio izan ez nekegafi ez gogaikafi, danentzat ipiñi daben bideari jafaitu baño, ta zure eraspen eta gurariari baño besteen onerako danari geyago begiratu egiozu.

## XI ATZAI.BURUA

### KRISTO'RENGORPUTZA TA IDAZTI DHUNA ARIMA SINISLEARI BEARREKOAK YAKOZAI-A

1. IKASLEAREN OTSA.—Ene Jesu Jaun gozo-gozoa, andia da benetan arima eraspentsuaren gozotasuna, zure mayan zugaz bazkaltzen dauanean,- an beste jatekorik etxako aurkezten zeu bere maite bakaŕa, ta bere biotzak gura leikenik guragaŕien ori baño.

2. Ta egiz, nik zure auŕean biotz-biotzez negar-malkoak pozik isuriko neunkez, eta Maitale jaungoiko-zaleaz zure oñak negar-malkoz bustiko neunkez.

3. Baña, onango eraspenik non dago? Non onango negar-malko deunen isuritze ugaria?

4. Benetan zure ta aingeruen auŕean nire biotzak gaŕetan egon bear leuke, ta pozaren pozez négar egin.

5. Bene-benetan Ikurtonean zaukadaz ba, beste antz bataz estalduta ba-da be.



6. Zure jaungoikozko argitasunean nire begiak ezingo leuskitzue begiratu, ezta luŕak be ezingo leuke iraun zure aintzaren anditasunaren diztira-auŕean.

7. Beraz, nire makaltasuna ondo dakizula, estalduta zagoz Ikurtonean (Eukaristian).

8. Egiz, zeruan aingeruak gurtzen daben berbera neuk be daukat eta gurtzen dot, baña nik oraindiño siñismenez,- aek, baŕiz, ikustez eta estalki barik.

9. Ni benetako siñismenaren argitan pozik egon eta ibili bear naz, betiko egunaren argia agertu ta irudien kerizpea igesiko dan artean.

10. Baña on osoa etoŕi daitenean, Ikurtonak amaituko dira,- zeruan zoriondunak ikurtonen osagaŕirik eztabe beareta: Jaungoikoaren auŕean onen aíntza arpegi-arpegiz ikusten dabela betiko pozik dagoz, eta jaungoikotasunaren baŕubaŕuan argitatik-argitara dabizala, giza-

tu zan Jaungoikoarenttzaasikalditik izan danez eta beti izango danez, gozartzen dabe.

11. Aŕigaŕiok gogoratuta, edozein atsegin, gogokoŕa izanda be, gogaikaŕi yat,-nire Jauna bere aintzan argiro ikusiko dodan artean, luŕean ikusi ta entzuten dodan edozer ezereztzat daukat-eta.

12. Zu, ene Jaungoiko ori, jakitun zagoz ezek be ezin nauala poztu, ez izakien batek asetu,- betikotasunean ikusi gura zaitudan neure Jaun oŕek baño.

13. Baña au eziña da aragi ilkor.onetan bizi nazan artean,- augaitik eroapen andia bear dot, eta gurari guztietan nire burua zure menpean ezaŕi beardot.

14. Jauna, ba, zeruko jaureŕian (eŕeiñuan) zugaz dagozan deunak be, luŕean bizi izan ziran artean, siñismen eta eroapen andiaz zure aintzaren etoŕerari begira egon ziran.

15. Eurak siñistu ebena neuk be siñisten dot; eurak itxaron ebena neuk be itxaroten dot; eurak eldu diran tokira



neuk be, zure eskeŕa lagun, araxe eltzeko ustea daukat.

16. Bien bitartean, deunen ereduakaz indartuta, siñismenaz ibiíiko naz,- idazti deunak be atsegin eta eginbidetzat izango yataz,- eta guzti onein ganetik, zure Gorputz guren-gurena berebiziko osagaŕi ta igestokitzat eukiko dot.

17. Gauza bi, batez be, bizitza onetan bear beaŕak yatazala dazaut, eta eurok barik bizitz negargaŕi au ezingo neukela jasan (sufridu).

18. Gorputz onetan lotuta nagoala, janariaren ta argiaren bear-izana daukadala autortzen dot.

19. Zuk gaxo onen gogo ta gorputza janaritzeko zure Gorputz gurena emon zeunstan, eta «nire *oñen* argirako zure itza ipiñi zendun» (1).

20. Oneik biok barik ezingo nintzake ondo bizi: Jaungoikoaren itza (berbea) ba, nire arimearen argia da, ta zure Ikurtona bizitea damotsan ogia.

**(I) Psalm, CXVJII, *10$.***

21. Oneik biok Eleiza deunaren ondasuntegiko alde batean eta bestean ipiñiko mai biak dirala esan leike.

*11.* Bata, ogi gurena; au da, Kristo'ren Gorputz bikaña daukan opamai (aldara) deuna, ta bestea Jaungoikoaren legearen maya; ikasbide deuna daukana, siñismen zuzena irakasten dauana, ta gurenik gurenena estalduta dagoan baŕubaŕuraño eskier garoazana.

23. Eskeŕak dagitzudaz zuri, Jesu Jauna, betiko argiaren argi oŕi, zure otsein, Igarle, Bidaldu (Apostolu) ta beste Irakaslietan emon zeunskun ikasbide gurenaren mai augaitik.

24. Eskeŕak zuri, gizonen Egile ta Biŕerosle oŕi, ludi (mundu) guztiari zure maitasuna adierazteko opari andi bat atondu zendulako,- ta bertan, irudizko bildotsa barik, zure Gorputz guren-gurena ta Odolajan-edateko ipiñi zendulako,- zeruko atsegin guztiak daukazan jatei guren onetan, kistar guztiak poztu ta edari osasungaŕiaz mozkortu egiten dozuz, eta, gozotasun zoriontsuagoaz bada bc, aingeru deunak be maikidc doguz.



25. Andia ta dedugaŕia da benetan Jauparien eginbeaŕa! Goiko Jauna itz deunakaz izkindu, ezpanakaz onetsi, eskuetan euki, norbere aoan artu ta besteai banantzeko eskubidea eurai en.on yake'.

26. Eskuak oso txukun, aoa oso garbi, gorputza oso guren ta biotza oso orban barik euki bear dauz, garbitasun-Egilea oŕnbeste bidar bere baŕura sartzen yakon jaupariak!

27. Kristo'ren Gorputza oŕen saŕitan artzen dauan jaupariaren aotik itz deun, garbi ta onuragaŕiak baño eztabe urten bear.

28. Bere begiak, Kristo'ren Gorputza ikusten daben ezkero, bakun eta garbiak izan bear dabe.

29. Bere eskuak, zeru - luŕen Egiíea darabilen ezkero, garbiak eta zerurantz jasoak izan beitez.

30. Jaupariai batez be esaten yake Legean: «Deunak izan zaiteze, ni zuen Jaun eta Jaungoikoa deuna naz-eta» (1).

31. Jaungoiko alguztidun ori, zure eskeŕak lagudu bekigu jauparitzea leporatu dogunoi, gaitasunaz eta eraspenaz, biotz garbiaz eta baŕu onaz zure otseintzan jardun daigun.

32. Ta bear geunken lez eŕu barik bizi ezin ba-gara, egindako gaiztakeriakaitik ondo negar egitea, ta oraindik auŕerantzean gogo apalak eta asmo onaz zuri gogotsuago otsein-egiteko laguntasuna emon eiguzu.

## XII ATZAI.BURUA

## KRISTO ARTUKO DAUANA ARDURA ANDIAZ GERTU BEAR DAt.A

1. MAITEAREN OTSA. — Ni garbitasunzale ta deuntasun-emolea naz.

(1) Lcv. XIX, 2.



*1.* Ni biotz garbiaren bila nabil, eta ant.xc daukat nire atsedentokia.

3. Ápari - gela andi ta apaindu bat atondu egidazu, ta nire ikasleakaz zeugan ospatuko dot Igarotza (Pazkoa).

4. Ni zugana ctoŕi ta zugan gelditzea gura ba-doztt, orantz (lebadura) zaŕa jaurti ta zure biotzeko egongua garbitu egizu.

5. Gizakeriaren (munduaren) eta oitttra gaiztoen durundia zugandik uŕindu cgizu, txori bakaŕa lez telatuan jezaŕi zaite, ta zure geyegikeriak arimearen gaŕaztasunean goznartu egizuz.

6. Maitatzale edonok tokirik onena ta edeŕena bere niaite kutunari gertu oi dautso: onetan ezagutzen da, ba, kutuna etxeratzen daunaren maitasuna.

7. Baña jakin egizu, zure egiñakaz onenbestean ezingo zareala gertu, besterik gogoan euki barik urte betean gcrtzen ekingo ba'zendu be.

8. Baña nire eskar eta eŕukiagaitik nire maira eltzen utscan izten yatzu,-

aberats batek eskeko bateri bere maira deitu dautsala, eskekoak mesede au ordaintzeko bere burua apaletsi ta eskeŕak egitea baño ezpa'leuko lez.

9. Zuk al dozuna egizu ta zoli egizu; oituraz edo beaŕez barik, bildur, itzal eta biotzez artu bear dozu zugana etorteko dan Kristo'ren Gorputza.

10. Neu naz deitu ta etorteko agindu neutzuna; zuk eztaukazuna neuk emongo dautzut: erdu ta artu nagizu.

11. Eraspen-eskeŕa damotzudanean, zure Jaungoikoari eskeŕak egiozuz; ez atarako lain zarealako, zutzaz eŕukitu nazalako baño.

12 Eraspenik ezpa-daukazu ta legoŕago aurkitzen ba-zara, geldi egon barik, esker osasungaŕiaren biŕin edo tantakadaren bat artzea irabazi arte, otoitzari ekin eta negar-egin eta atea jo egizu.

13. Zuk beaŕa nozu, ta nik ez zeu.

14. Zu etzatoz ni deun egitera: Ni, ostera, zu gurendu (santutu) ta ondutera nayatorkizu.



15. Zu nik gurendu, neugaz balu., esker baŕia artu ta baŕiro onduteko berotzera zatoz.

16. Esker au ezetsi barik, zure biotza al dozun ardureagaz gertu, ta zure ku' tuna zeure baŕuan artu egizu.

17. Egoki yatzu ez bakaŕik Jaunartzeauŕean eraspena eukitea, baita Jaunartze-ondoren eraspen ori zeugan ardura zoliaz zaintzea be.

18. Eraspenagaz gertzea beaŕekoa ba-da, Jaunartze - ostean baŕura baruta egotea be beaŕekoa dozu,- esker ugariagoa jadesteko, ondorengo ardura ona gertakizunik onena da-ta.

19. Baŕiz, itsu-itsu beingoan atetiko atsegiñetara doana gertakizun barik gelditzen da

20. Baŕiketatik alde eginda toki ixiíera baztertu, ta zure Jaungoikoagaz gozartu zaite.

21. Ludi (mundu) osoak kendu ezin daiketzuna daukazu-ta

22. Zure ardurea oso - osorik neuri

emon bear daustazu, gaurtik auŕerantze-an ardura barik neugan, eta ez zeugan bizi zaitezan.

## XIII ATZALBURUA

### COGO [AUNGOIKO 7AI.I.AK IKURT ONI.AN (EUKA-RISTIAN) KRISTO'GAZ liATZEA BIOTZ-IiIOT7,E'/, GURA IZAN BF.AR DAUALA

I. IKASI.EAREN OTSA. — Nok emongo daust, Jauna, zu bakaŕean aurkitzea, ta nire biotz guztia zuri zabaltzea,- ta nire gogoak gura dauan bestean izugan gozartzea,- ta onezkero iñok be ez ezestea, ez izakien batek zirkiñik eragitea ta eurai jaramonik ez egitea; ta maitatzaleak maiteagaz itz-egin eta adiskidea adiskideagaz poztu oi dan lez, zuk niri ta nik zuri bakaŕean itz egitea?

2. Auxe eskatu ta auxe gura dot, oso-osoan zuri batzea, ta nire biotza egindako guztietatik uŕinduta, Jaunartzez eta



saŕitan Jaupa emonaz zeruko ta betikoetan atsegiña artzen ikastea.

3. Ene Jaun eta Jaungoiko neurea, noz egongo naz zugan geldituta, zugaz bat-bat eginda, ta neure buruagaz guztiz aiztuta?

4. Zu nigan eta ni zugan, eta onan biok bat eginda irautea emon egidazu.

5. Egiz, zeu zara nire kutuna, miletatik aukeratua, ta nire bizitzako egun guztietan zeugaz bizitea atsegingaŕi yako nire arimeari.

6. Egiz, zeu zara nire baketzalea, bakerik andiena ta benetako atsedena zeugan dago,- zu barik, neke ta miña ta azkenbako zoritxaŕa.

7. Egiz, «zu zara Jaungoiko ostendua» (1), ta gaiztoakin eztaukazu artuemonik, apal eta bakunakaz dira zure autuak.

8. «Ene Jauna, zure gogoa dan eztitsua zure semeakanako gozotasuna adierazoteaŕen, zerutik jatsitako ogi gozo-

(1) ItaiXLV, 15.

gozoagaz janaritu gura izan dozuz-eta» (1).

9. Egiz, zu gure Jaungoiko ori, siñisle guztiai uŕeratzen zayakezan beste, bere Jaungoikoak uŕeratzen yakozan eŕi onen andirik eztago; zureak egunoroko atsegiñaz euki ta biotzak zerura jaso dagiezan, jateko ta gozartzeko zeure Gorputza damotsezu.

10. Non dago Kistaŕen eŕia besteko eŕi andirik? Jaungoikoak bere aragi aintzatsuazjanaritzen dauan arima jaungoiko-zalea baño maiteago dauan irazakirik zerupean ete-dago?

11. Esker esan-eziña'. ontasun aŕigaŕia! neuŕibako maitasuna, gizonari berariz emona!

12. Baña, zer emongo dautsat Jaunari esker onen ordez, onenbesteko maitasunaren ordez?

13. Nire biotza oso-osorik beretzat emon, eta berari gogoz batzea baño

(1) Eleizeak Jos.Vorpurz-egun.jko aí'endian.



atsegiñago izango yakonik ezin emon negikeo.

14. Ta nirearimea jaungoikoari batubatuta emon daitsoanean, alaituko dira nire baŕuak.

15. Orduan esango daust: zuk nigaz egon gura ba-dozu, nik zugaz egon gura dot.

Ib. Eta nik erantzungo dautsat: Jauna, aŕen neugaz gelditu zaite, nik zugaz egotea gogoz gura dot-eta.

17. Nire gurari guztia auxe da: nire biotza zuri batuta egon dadila.

## XIV ATZALBURUA

### KRISTo'RrN GORI'UTZA ARTZEKO JAUNGOIKO" ZAI-H BATZUEN GURARI GARTSUAK

1. IKASLEAREN OTSA.—«Jauna, zure bildur diranentzat ostendu dozun gozotasuna andia be andia da» (1).

7. Zure Ikurtonera (Sakramentura) eraspen eta biotz andiaz yatorzuzan

I) Pialm XXX, 20.

jaungoiko-zaleak gogoratzen dodazanean, sańitan neure bańuan bildurtu ta lotsatu egiten naz, ni zure opamaira (altatara) ta Jaunartzeko maira onen epel eta otz joaten nazalako,- onen legor eta guraii barik gelditzen nazalako,- zure auńean, jaungoiko maitea, su-gańetan enagoalako; ta Jaunartzeko gurari sutsuak edo maitasun beroak eraginda, negar asko egiten eben jaungoiko-zale asko lez, Jaunartzera maitasunak bultz eta indareginda enoalako,- zugana, ituńi bizi zarean Jaungoiko ońegana, aoz eta biotzez eltzeko berotan bizi ziran eta zure Gorputza gozotasun beteaz eta gogo-goseaz artu ezik, euren gose-egańia ezin eben gitxitu, ez asetu.

3. Aen egizko siñismen gartsua, zu [kurtonean (Eukaristian) zagozanaren azaupide argiazan!

4. Onexek dira benetan, euren Jauna ogia ebagitean ezagutzen dabenak; Jesu eurakaz dabil eta biotza su-gańetan dauke.



5. Onango gurari ta eraspena ta ońen mailasun indartsu ta gartsua, sańi-askotan nigandik uńin dago.

6. Jesu on, bigun eta eńukitsu ori, eńuki zakidaz,- eta zure eskeko oneri nozikpein zure maitasunaren pitin bat Jaunartzean nabaitzea emon egiozu, nire siñismena sendotu, nire itxaropena zure ontasunean geitu, ta nire maitasuna bein onclo ixiotu ta zeruko mana zer dan jakin ezkero, iñoz be itzali (amatau) eztaiten.

7. lndartsua da, ba, zure eńukia niri gura dodan eskeńa emoteko, ta gogo-beroz zuk gura dozun eguna etońi daitenean ni eńukiz ikertzeko.

8. Ta zure berebiziko eraspentsuen gurariakaz gorituta ezpa-nago be, bai zure eskeńaren bitartez gurari bero ori euki gura dot, eta zure maitatzaíe gartsuen lagunkide ta euren artean egoteko artu nagizun, gura ta eskatzen dodala.

## XV ATZALBURUA

### KRASI'LN-ESKERRA AIMLTASUNAZ CTA NORBERB BUKUARl.N UKAPUNAZ JADESTEN DALA

1. ÍVl.MTUARl.N OTSA.—Jaungoikoa datoŕen artean, ikertzeko ordua ta erea berari izten dautsazuzala, zuk eraspen-eskaŕa ekin eta ekin bilatu, biotzez eskatu, eroapen eta usteaz itxaron, esker onagaz artu, apaltasunaz zaindu, ta, bera lagun, arduraz lan egin bear dozu.

2. Batez be, apaletsi bear dozu zure burua, eraspen gitxi edo bat be nabaitzen (sendituten) eztozunean,- baña laŕegi kikildu ta geyegi itundu barik.

3. Jaungoikoak luzaroan ukatu ebana, saŕitan unetxu baten emon daroa.

4. Baitabatzuetan otoitz-asieran ukatu ebana, atzenean eraon oi dau.

5. Eskeŕa beti laster emongo ba'litz ta norbere gurari-neuŕiz ba'lego, gizon makalak ezingo leuke ondo eroan.



6. Oŕegaitik eskeŕari uste onaz eta eroapen apalaz itxaron bear dautsazu.

7. Ta emon ez, edo igaŕi barik kentzen ba-yatzu, eŕua zeure buruari ta zeure obenai ezaŕi egiezu.

8. Batzuetan ezerézkeri bat da eskeŕa eragotzi ta estaltzen dauana,- ezerezkeria deitu al ba'litzakio ta ez andia, onen ondasun andia eragozten dauanari.

9. íiaña ezerezkeri-edo andi ori kendu ta ondo azpiratzen ba-dozu, eskatu dozuna eukiko dozu.

!0. Zure burua biotz-biotzez Jaungoikoari emoten dautsazunean, eta zure naya dan lez, onen edo aren bila ibili barik bere eskuetan izten dozunean, batu ta beretuta egongo zara,- Jaungoikoaren gurea baño gozoagorik eta atsegingaŕiagorik ezertxu be etxatzu izango-ta.

11. Beraz, norbaitek bere asmoa biotz bakunaz Jaungoikoagana jaso, ta bere biotzetik zalekeri ta gurari oker guztiak kendu ba-dauz, eskeŕa artzeko ondo ger-

tuta egongo da, ta eraspena eukiteko beste izango da.

12. Jaunak bere onespena, utsik aurkitzen dauzan ontzietara isuri oi dau.

13. Ta norbaitek bekoak osoago ukatu, ta norbere buruaren ezespenaz ilago egon, eskeŕa lasteŕago etoŕi, ugariago sartu ta biotz azkea gorago jasoten dau.

14. Orduan Jaungoikoaren eskua beragaz dagoala, ta Jaungoikoaren eskuetan betiko jaŕi zala ikusiko dau, ta ganezka egingo dau, aŕituko da ta zabalduko yako biotza.

15. Onelan biotz-biotzez Jaungoikoaren bila ibili ta bere arimea alpeŕik artu eztauan gizona onetsiko dabe.

16. Onek Jauna artzen dauanean, jaungoikozko batasunerako esker ugaria irabazten dau; bere eraspen eta atsegiñari begiratu barik, eraspen eta atsegin oroen ganetik, Jaungoikoaren aintza ta dedua bilatzen dauz-eta.



XVI ATZALBURUA

CUkB BEAKTASUNAK KRISTo'RI AGKRTU TA liS" KERKA BERARI BSKATU BEAR DAUTSAGLILA

1. IKASLEAHEN OTSA.—Ene Jaun oso samur eta maitagaŕi ori, orain eraspentsu artu gura zaitudana; zuk ba-dakizu nire makaltasuna ta nik daukadan beartasuna, ta gaitz eta oitura gaizto askotara jausita nagoala,- ta txitian-pitian nekatuta, zirikatuta, artega ta orbanduta nagoala.

2. Osagaŕiaren bila nayatortzu, atsegiña ta jasogaŕía daskatzudaz.

3. Dana dakianari, nire biotzaren baŕukoak agirian daukazanari, eta berak bakaŕik ondo poztu ta urgazi nindukenari itz dagitsat.

4. Zuk ba-dakizu onik beaŕenak zeintzuk yatazan, eta onoimenetan onen txiro nagoala.

5. Ona emen, zure auŕean naukazu

txiro ta bilosik, eskar-eske ta eŕuki-otoizka.

6. Jaten emon egiozu goseak-ilik dagoan zure eskeko oneri; nire oztasuna zure maitasunaz ixiotu, ta nire itsutasuna zure arpegiko argiaz argitu egizu.

7. Luŕeko guztiak gaŕaztu egidazuz; astun eta naigabe guztiak eroangaŕi egidazuz,- eta beko gauza ta izaki guztiak ezetsi ta aiztu eragidazuz.

8 Nire biotza zeuganantz zerura eragidazu, ta lur-ganean ara-oŕa ibilten ez egidazu itxi.

9. Beti-betiko zeu bakaŕik izan zakidaz gozo,- nire janaria ta edaria, nire maitasuna ta nire poza, nire gozotasuna ta nire on guztia zeu zara-ta.

10. Zure arpegiaz ixiotu, kiskaldu ta zeugan aldatuko ba'ninduzu, baŕuko batasun-eskaŕez eta maitasun gartsuaren urtutez zugaz gogo bat egin nadin!

11. Zugandik baraurik eta Iegor aldentzen ez egidazu itxi; baŕiz, eŕukitsua



jzan zaite, zure deunakaz saŕitan aŕigaŕiro egtn dozunez.

12. Zu beti gaŕetan eta iñoz be itzaliten (amatetan) eztan sua, ta biotza garbitu ta adimena argitzen dauan maitasuna izanik, zure maitasunak ni goritu ta eŕetea aŕigaŕi ete-litzake?

•

## XVII ATZALISURUA

### KRISTO ARTZEKO MAITASUN C.ARTSU TA GURARI BIZIA

1. IKASLEARF.N OTSA. — Eraspenik andienaz eta maitasunik eta biotzeko indar eta bero guztiaz artu gura zaitut, Jauna,- euren bizitzeaz atsegingaŕi izan yatzuzan eta eraspen sutsua eukien deun eta jaunkoi asko, Jaunartzean zure gosegaŕi izan ziran lez.

2. Ene Jaungoikoa, betiko maitasuna, nire on guztia, amaibako zoniontasuna, deunen 'oatek be egundo ez euki, ez oartu eztauan gurariri k adoretsuenaz eta itzalik gorengoenaz artu gura zaitut.

3. Ta olango eraspen-biozkadak eukiteko beste ezpa-naz.be, nire biotzeko gurariak osorik eskintzen dautzudaz,- arako gurari atsegingaŕi ta gartsu guztiak neuk bakaŕik ba'neunkoz lez.

4. Ta gogo zintzoak asmatu ta gura leiken dana, itzal apalaz eta biotzeko eraspenaz emon eta eskintzen dautzut.

5. Neuretzat ezertxu be eztot itxi gura,- nire burua ta nire guztiak, gogoz eta pozik, oparitzat zeuri eskiñi baño.

6. Ene Jaun eta Jaungoikoa, nire Egile ta nire Eroslea, Gizakunde eskutukia agertu eutsan aingeruari «ona emen Jaunaren mirabea, zuk diñozunez egin bekit» (1), apal eta zintzo erantzun eban zure Ama deun-deun Miren Garbi aintzatsuak artu ta maite izan zinduzan besteko gurari, itza), gorespen, dedu, eskar-on, gattasun, zaletasun, siñismen, itxaropen eta maitasunagaz gaur artu gura zaitut.

7. Ta deunik andiena ta zure Auŕe-

(1) l.tic. 1,38.



lari Jon Ugutzaria (Bautistea) oraindiño atnaren sabelean egoala, Gogo Deunagandiko (Espiritu Santua) pozagaz, zure auŕean jauzi zan lez,- eta geroago, Jesu gizonen artean ikusi ebanean, bere burua apaletsita, biotz eraspentsuagaz esaten eban lez: «auŕean dagoan eta entzuten dautsan senaŕaren adiskidea asko poztuten dan lez senat'aren abotsa entzunaz» (1), onantxe neuk be, gurari andi ta deunakaz gaŕetan egon eta zure auŕean biotz oso-osoaz aurkeztu gura dot.

8. Biotzjaungoiko-zaleen poz-aldiak, gurari gartsuak, gogo-aŕitasunak, goiko argikuntzak eta zerutiko ikuspenak,- baita zeruan eta luŕean izaki guztiak euren onoimen eta gorespenakaz emon daben eta emongo daben ospea be, nire alde ta niri otoitzak eskatu daustiezan guztien alde eskiñi ta opaltzen dautzudaz,- danak dagokitzunez goretsi ta beti aintzaldu zagiezan.

9. Jaun eta'Jaungoikoa, zure azken-

(1) Joan. III, *79*.

bako anditasun esan-eziñari zor yakon beste, zu goretsi ta onesteko daukadazan antzi ta gurariak artu egidazuz.

10. Orain oneik eskintzen- dautzudaz eta egunoro eta uneoro eskiñi gura neuskizuz, eta zeruko aingeruai ta zure kistar guztiai neugaz batera zuri gorespenak eta eskeŕak egiteko otoitzez eta gurariz deitu ta eskatzen dautsiet.

11. Eŕi, abenda ta mintzoera guztiak goretsi zagiez, eta zure izen deun eta eztitsua poz andi ta eraspen gartsuaz andietsi begie.

12. Ta zure Ikurton guren-gurena lotsa ta eraspenaz ospatu ta siñismen osoaz artzen daben guztiak, zure begietan eskeŕa ta eŕukia aurkitu begie, ta ni obendi (pekatari) onen alde apal-apal otoitz egin begie.

13. Ta gura eben eraspena ta batasun atsegingaŕia jadetsi dagienean, eta zeruko mai deunetik ondo poztuta ta aŕigaŕi[2] janarituta urten daitezanean, ni, gaxo onetzaz, aŕen, gomutau beitez.



## XVIII ATZALUURUA

GIZONAK IKURTON (sAKRAMENTu) ONF.N JAKIN-GURA I.AHRF.GI ELIKI BAIilK, BFRfi IZRITXIA SI-NISMF.N DEUNAREN AZPIAN F.ZARRITA, KRISTO'BEN ANTZAKTZALL.fi IZAN BEAR DAUALA

1. MAITBAEBN OTSA.— Ikurton sakon au jakin-zalekeriz eta alpeŕik ez azterkatzeko ardurea euki egizu, bestela ezbai sakonetara ondatuko zara.

2. «Anditasunaren azterkatzalea aintzak zapalduko dau» (1).

3. Gizonak ulertu leiken baño geyago egin leike Jaungoikoak.

4. Eraspen eta apaltasunaz egia azterkatzea eztago galazota, irakatsia izateko ta Eleiz-Gurasoen irakasbideetatik ibilteko alegin egiten ba-da.

5. Eztabaideetako bide Iatzak itxita, Jaungoikoaren aginduen bide leun eta eskieŕetik doan gogo bakuna zoriontsua da.

(I) Prov. XXV, 27.

6. Askok, goitikoak azterkatu gura izan ebezalako, eraspena galdu eben.

7. Siñistea eskatzen yatzu ta bizikera zindoa, ez adimen zolia, ezta Jaungoikoaren eskutukiak ezagutzea be.

8. Zu baño beragokoak aditu ta ulertzen ezpa-dozuz, zelan ulertuko dozuz zu baño goragokoak?

9. Burua Jaungoikoari menperatu egiozu, ta zure eritxia siñismenaren azpian apaletsi egizu, ta jakituri - argia emongo yatzu, onuragaŕi ta beaŕeko yatzun bestean.

10. Batzuek siñismenaren aurka gogor zirikatuak dira Ikurton (Sakramentu) onetan: baña onen eŕua, euroi barik, arerioari ezaŕi bear yako-

11. Zure burutasunai jaramonik ez egiezu egin, eta eurakaz eztabaidan etzaitez ibili, ta txeŕenak dakartzuzan ezbayai ez egiezu erantzun; baña siñistu egiezu Jaungoikoaren itzai, siñistu bere deun ta igarleai, ta arerio gaiztoak zugandik iges egingo dau.



12. Saŕilan Jaungoikoareu olseñari onuragaŕi yako onelako ziltzaldiak jasatea.

13. Siñismenbako ta obendiak eztauz zirikatzen, bere menpean eskier daukazalako,- baña siñisle ta jaungoiko zaleak, askotara zirikatu ta artcgatzen dauz

14. Ikurtonera siñismen bakun eta sendoagaz uŕeratu ta itzal andiagaz eldu zaite,- ta ulertu ezin dozuna Jaungoiko alguztidunaren eskuetan eskier itxi egizu.

15. Jaungoikoak ziririk eztautzu sartzen,- baŕiz, norbere buruari laŕegi siñisten dautsanak, bere burua atzipetuten (engañetan) dau.

16. Jaungoikoa bakunakaz dabil, apalai agertzen yake, txikiai adimena damotse, gogo garbiai jakinbidea zabaltzen dautse, tajakin-zale ta aŕoakandik bere eskeŕa ostendu egiten dau.

17. Giza-adimena makala da ta txulut egin leike,- benetako siñismenak, ostera, txuliitik ezin egin leike.

18. Giza - adimenak eta berezko ja-

kingureak siñismenaren atzetik joan bear dau, ez auŕetik, e(a eztau ausi bear.

19. Ikurton deun eta gorengo onetan siŕusmen eta maitasunak eder-eder emoten dabe, ta ixil-ixilean diardue.

20. Betiko, azkenbako ta alguztidun Jaungoikoak zeruan eta luŕean gauzaandi ta ulertu eziñak egiten dauz, eta bere egintza aŕigatiak ulertzeko biderik eztago.

21. Jaungoikoaren egiñak gizonaren adimenak eŕaz ulertzeko bestekoak ba' lira, aŕigaŕiak eta esan-eziñak elitzakez izango.

# III.-ERASPENAK

aftao^^aaaMMMaaaM^agi

# GURUTZ-BIDEA

Gurutze santuaren...

Jesukristo neure Jauna...

ESKINT/A. — Neure Jesus ona! Auŕean naukazu belauniko. Zenbat bider alsekabetu zaitudan! Baña damu dot zu iraindua. Gaurdanik etzaitut irainduko, biotzez maite izango zaitut. Ta maitasun onetan indartzeko, Kalbario-tnendirako igoera laŕian izan zenduzan oiñaze-miñak gogoratu nai ditut. Lagun zakidaz, Jesus maitea! Lagun zakklaz Zu be, ene Ama Maria, Jesus onari lagun egin dagiodan eta Eleiza Ama deunak eginkizun eder oni eskiñitako parkapenak írabazi dagiilazan. Olantxe.

Toki balelik beslera zoazala, esan:

Ama eŕukaŕia, Jesus'en zauriak —ezaŕi egidazuz— neure biotzean.

LENENGO EGOTALDIA. — Jesus gurufzean *iltea erabagi áabe.* Jesus maitea! Pilato'k Zu gurutzean josteko agindu dau. Baiña ilteko epai ori neure pekatuak emon dautzue. Damu dot, Jauna. Ez geiago pekaturik. Eŕuki zakidaz.

Aita *Çjurea, Jlcjur Maria* ía Ainíza...

BIGARREN EGOTALDIA. — Jestis iiiaileak giirufzea *aldean* arlzen dau. Ene Jesus, zeru-luŕen egile andia! Nire maitasunaŕen pozik artu dozu gurutze astuna zeure sorbaldan. Emoidazu niri be atsekabe, min eta zoritxar guztiak gogo onez artu ta eioateko indaŕa.

*Aita Çtirea, Acjur Maria ta Ainiza...*

IRUGARREN EGOTAI.DIA. — Jesus *maitea* leuengoz *'jausita.* Luŕera jausi zara, ene Jesus! Zeu zure-luŕen indaŕa, ta gurutzeak eratsi zaitu? Ez, níre pekatuak oinperatu zaitue. Oiain ezagutzen dot



nire gaiztakeiia. Jauna, cz gciago pekatui'ik.

Aila *(jttrea, Açfur Maria ta Aintza...*

LAUGAHUIÍX CGOTAI.DIA. — Jesus *maiteak* l'cre Ania aurkiíu. Ene Jesus niaitea! Ama yatortzu auŕez-aur bidean ncgaŕez. Zenbateko samiña zuon biotzetan! Ama naigabctua, nire dongakeriak ipiñi dabe olan zure Semea. Baña otain zintzo autortzen ditut. Damutan naukazu!

Aiía *Çurea, Atjur Maria ta Aintza...*

BOSTGARREN EGOTALDIA. — JfS'US Oliai'ŕ gurulzea ei'oateko, *tacjuna ipinten dautse,* Ene Jesus maitea! Laguna artu dozu gurutzea eroateko. Astunak ziñez nite pekatuak! Etnoidazu niri be mundu onetako gurutzeak biotz onez eroatcko indar ta sendotasuna.

Aita *Çitrea, Acjur Maria ta Aintza...*

SEICARREN EGOTALDIA —*lieronika Jesus'i arpegia garbitzen.* Eguzki ta izaŕak baiño argiago zarean Jesus maitea! Nok zikindu dautzu arpegi eder ori? Neuk,

tieute gaiztakeriz,- baña orain, damuzko zapi edeŕez izerdi-loiak kendu nai dautzudaz.

Aila *Cjurea, Agur Maria ta AinUa...*

ZAZPIGARREN HGOTALOIA.—Jesus mailea *birtaŕenez* jausleu. Ene Jesus maitea! Bigaŕenez luŕa jo dozu. Laŕegia yatzu gurutzearen astuna,- obeto esateko, nire gaiztakeriaren astuna. Saŕi artu oi dot geiago pekaturik ez egiteko asmua, ta oŕa baŕiro pekatupean. Laguñ zakidaz, Jauna,- indartu nagizu aŕtutako erabagian.

*Aita Çjurea,* Agur *'jl'laria ta Aintza...*

ZOIÍTZIGARRCN egotaldia.—Jesus *Jirus'á-len'go alabai itz etpten.* Ene Jesus maitea! Jerusalen'go alabak yatortzuz negaŕez, eta Zu'k, eŕukiz beterik, euren buruez negar egiteko diñotsezu. Bai, Jauna, neuk be baŕuan daukat zertzaz negar egin. neure pekatu, oker ta bidegabekeriak.Biztunirebaŕuan damu ta maitasungaŕa.

*Aita Çurea, Agur 9¥aria ta Aintza...*



BBDBSATZ.CARREN EGOTALD.A.—Jesus maileii *irutjarenez lura jola.* Ene Jesus maitea! Ainbeste neke-miñez aul egiñik, emen jausi zara irugaŕenez luŕera. Irakasle zaitudan ezkero, ikasi dagidan Zu'gandik nik be oiñaze-miñak, neke-loŕak, ezbear ta atsekabeak gogo onez artzen ta eroaten.

*Aita Çjurea, Atjur Aiaria ta Ainlza...*

AMARGARREN EGOTAI.DIA. — Jesus *maileari souekoafc kentzen daulsez.* Ene Jesus maitea! Edertasuna bera zara, ta alan be, or arerioen auŕean bilosik. Au lotsaria! Zelan ordaindu nai dozuzan nire nasaikeri ta loikeriak! Etnoidazu, aŕen, Jauna, biotzeko garbitasuna,

Aita Gurea, *At)ur 'JMaria ta Aintza...*

AMAIKAGARREN EGOTAI.DIA.—Jesus *(juru-ízeau josita.* Ene Jesus niaitea! Esku ta oin gurutzean josten zaitue, zanak uŕatu ta azuŕak askaturik! Au zure zaurtako odoljarioa! Ta ori, Zeu gizadiaren Erosle zareala! Ta gtfrutze oŕetan neuk ipini

zaitut. Eŕuki zakidaz, Jauna, eŕuki zakidaz.

Aŕía *Çurea, Aclur Maria ta Aintza...*

A.VtABlGARRI.iM UGOTALDIA.— *JtStiS Çfliru-Izean* ilik. Ene Jesus maitea! Gurutzean jasota, miñez aseturik, lapur biren erdian il zara,- ta neugaitik il zara, Erosle maite ori. Garbitu egizu zeure odolez nire arimea; ez, ez bedi, Jauna, niretzat alpeŕikoa izan zure eriotza.

*Aita Qurea, Agur Titaria ta Aintza...*

AMAIRUGARRIIN EGOTAI.DIA.—*Jesiis'en tjorpua Amaren besoelan.* Ene Ama samindua! Nok neurtu zure samiña? Semearen gorpua jatsi dautzue, ta ia ezpatea zure biotzekoa! Ama eŕukitsu oŕek, nire eriotz-ostean, artu egizu besoetan nire arimea, ta Jesus zeure Seme onaren auŕera eroan nagizu.

*Aita Çurea, Agur Maria ta Aintza...*

AMAI.AUGARREN DGOTAI.DIA. — Jesus *'en gorjnia obian.* A, ene arimea! Or dakusu zeuk egiña. Jesus il-obi baŕian sartu dalie.



Amar.en biotza iíxaso saniin biurtu çla. Jesus maitea! Biotz au bedi zure atseclen leku ta pozgaŕi. Amaatse!<abetu oii! Zure nekemiñak izan bediz niretzako zerua irabazteko bide, zeugaz batera Jesus ona betiraun osoan goratu ta maitatu dagidan. Olantxe.

*Aita Çtit'M, Agur Mntia ta Jinlza...*

*Allara-aunean esan oiain bost •• Aita iiiirt'-,* At'ŕfi *Santiuiven asinoetarako.*

*Oaŕa-.* Gurutz-bidea egiteaz parkapen osoa irabazten da.

## GURE JAUNAREN ONESPENA EMOTEKO EREA

Jauna agirian ipinkeran, O *salutaris,* Pam/e /ífigua edo antzekoren bat abestu oi da. Gero Agurtza edo esanda, *Jantum* Prif'O

V. Panein de coelo praestitisti eis (T. P. Alleluia).

R. Omne delectanientuni in se haben- lem (T P. Alleluia).

*Oremus.* Deus, qui nobis sub Sacra- niento mirabili Passionis tuae memoriain ieliquisti : tribue, quaesumus, ita nos Corporis et Sanguinis tui sacra ni}'steria venerarí, ut redemptionis tuae fructum in nobis jugiter sentiamus. Qui vivis et tegnas in saecula saeculorum. R. Amen.

í"ía giire *Jauna bařuan ijorde baiño len,* biraoen ordezko gorapenofe esařeu *dira, belan*- uiko .-

Goratua izan bedi Jaungoikoa.

Goratua izan bedi bere izen santua.

doratua izan bedi Jesukristo, Jaungoi- ko (a gizon egiazkoa.

Goratua izan bedi Jesus'en izena.

Goratua izan bedi bere Biotz gur- gařia.

Goratua izan bedi altarako Sakramen- tu guztiz santua.

Goratua izan bedi Jaungoikoaren Ama guztiz santua.

Goratua izan bedi here Sortze efuge ta santua.

Goratua izan bedi bere jasokunde ałi- gařia.

Goratua izan bcdi iVlaria Birjiña ta Ama-en izena.

Goratua izan bedi bere Hzkontide garbi Jose Santua.

Goratua izan bedi Jaungoikoa bete aingeru ta santuetan.

## JESUS'EN BIOTZ&REN XII ESKIN-TZAK, BERE MAITALFENTZAT

1) Euren bizibidean bear dabezan laguntasun guztiak Neuk emongo dautsedaz.
2) Euren sendi *edo* familietan bakea zabalduko dot.
3) Atsekabe guztietan Neuk poztuko dodaz.
4) Bizitzan eta, batez be, eriotzako orduan, Neu izango naz euren abaro ta estalpe.
5) Euren egikizun guztietan bedeinkatu ta lagunduko dodaz.
6) Pekatariak nire Biotzean eŕukizko itxaso bazter bakoa aurkituko dabe.
7) Kristiñau epelak berotu egingo dodaz.
8) Beroak, nire maitasunean ixiotuko dodaz.
9) Eleiz-gizonai biotzik gogoŕenak biguntzeko doaia emongo dautset.



10) Nire Biotzaren irudia agirian dauken etxeak bedeinkatuko dodaz.
11) Nire biotzaganako maitasuna zabaldu dagien guztien izenak neure Biotzean ezaŕita gordeko ditut.
12) llen lenengo bariku jaŕaikoetan Jaunartu dagien guztiai nire Biotzaren neuŕibako eŕukiak eskintzen dautse, ez dirala nire asaŕean ilgo, ez-ta eleizakoak artu barik be.

### Jesus'en Biotzaren egunean esateko otoitza

Gure Jesus maitea, gizonen Eroslea: zure oiñetan gagozanoi, aŕen, eŕukiz begiratu. Zureak gara, zureak izan nai dogu, ta zureak beti izan gaitezan, gutatiko bakotxak gaur zure Biotzari eskintzen dautsa bere burua.

Asko dira, Jauna, zu iñoz ezagutubakoak; beste askok, zure aginduak ukaturik, baztertu egin zaitue,- eŕuki izan egizuz, Jauna, batzuk eta besteak, ta guztiak zeure Biotz santuan batu egizuz.

Guztion jaun ta jabe izan zaitez, ez bakaŕik Zu'gandik iñoz aldendu ez diranena, ez bai Zugandik uŕun joan direan seme-alaba galduena be, eta gosez ta ezeukiz il ez daitezan, biurtu egizuz guztiak etxera.

[zan zaitez guzuŕak edo asaŕeak banatu dabezanen Eŕege,- ekaŕi egizuz egiaren kaira, guztiok siñiste bateko izanik, auŕerantzean artzain baten azpian artegi bakar bat egin dagien.

Egin zaitez guzuŕezkojaungoikoen edo maomataŕen siñísteko ilunpean bizi direanen Eŕege be,- ekaŕi egizuz onek guztiok be zure eŕeiñuko argira.

Azkenez, begiratu egiozu eŕukizko begirunez beiñola zure kutuna izan zan eŕiko semeai. betor euren gaiñera, bataiour-antzean, eurak pekatutik askatu ta bizira ekarteko, beiñola euren buruen kalterako eskatu eben zure Odola.

Emoiozu, Jauna, zeure Eleizeari askatasuna eta bakea, emon eŕiai he bakezko zoriona, eta luŕaren bazter batelik bes-



tera eztaitela entzun oiu au baiño besterik: Aintza, osasuna emon euskun Jesus' en Biotzari! Aintza ta gorapenezko oiuak Berari amaibako egunetan. Olantxe.

fParfcameii osoa, *atitortu, 'launartu ta Aita Santuaren asmoen úlde vloitz* egŕu ezfcero).

## Jesus'en Biotzaren jaureskundea

ŕ.lxeko guztiak eísari cgokŕenean *balurik,* fleiz-gizonak oiian *bedeinkatzen dau Jesus'en liiotzareit irudia*-.

V. Adjutorium nostrum in nomine Doniini.

R. Qui fecit coelun et terram.

V. Dominus vobiscum.

R. Et cum spiritu tuo.

Oreiitus. Omnt'potens sempitérne Deus, qui Sanctórum tuórum itnágines pingi aut sculpi non réprobas, ut qitóties illas óculis córporis intuémur, tóties eórum actus et sanctifátem ad imitándum memtíríae Óculis meditémur,- hane, c|uaesuIIHIS, imáginem in honórem et memóriam

Sacratíssimi Cordis Unigéniti Fílii tui Dómini Nostri Jesu Christi adaptátam, bene t dícere et sanc t tificáre dignéris,- et praesta, ut quicúmque coram illam Cor Sacratíssimi Unigéniti Fílii tui supplíciter cólere et honoráre studúerit, illíus méritis et obténtu a te grátiam in praesénti, et aetérnam glóriam obtíneat in futúrum. Per Christum Dóminun nostrum. Amen.

Orain *u*r b*e*deiiibnlua b*o*ía *imdiari e*ta elxekoaí.

G*ero* «Kredoa», g*u*zliak bale*r*a.

OTOITZA.—Zatoz, Jesus maitagaŕi ori, zeure Amagaz batera, Zeu'ri eskintzen dautzugun etxe Onetara: ta beté gagizuz berton bizi gareanok zure Biotz agurgaŕia maite daben sendiai agindutako mesedez.

Jaun eŕukitsua! Margarita doatsuai'i esan zeuntsonez, zure Biotz oŕek, esker gaiztoz' erantzuna izan aŕen, gizasemeak OSO gartsu maite dituzu, ta mundti guztiak Zeu gorestea nai zeunke. Guk beintzat maite zaitugu, ta geure etxeko lekurik egokienean pozaŕen ipinten zaitugu. Ona emen guztiok bat eginda, Zu Eŕegetzat arturik, zure menpean jarten gara. Bai, gure ondoan biziko zara, eta Zeu izango zara gure biotzen jabe. Pozean eta negar-orduan, gozo ta nekclanetan, etxe onetako gorabera guztietan, Zu gure ondoan egotea nai dogu beti Bedeinkatu gagizuz, ba; bedeinkatu Jaungoikoak gme artetik betiko eroan ebazan maiteak, bardin emen orain gugaz ez dagozan senide guztiak be.



Zu maitatuaz bizi gaitezala, Jauna, siñismenean zuzen eta garbi; luŕeko zorakeriak atera ta gure arimak zuré Biotz oŕetan sartu egizuz, ta ortxe josi. Zure Biotzeko zauriaren erdi-erdian gorde gagizuz, eta geto eroan guztiok beti Zu'gaz bizitera. Maitetua, onetsia eta goiatua izan bedi Jesus gure artean. Bai, aŕen, bai.

*Aita Çjurto, Jijur 'JHaria eta Aintza...*

Oraiu aŕlak edo *etxeko* buruak *Jesus*'ni Ijioizareu *inulin* auŕetikgerliilafco egoiilefeuan aŕen *dau.* Biíarleau*,* «O Biotz santu», *edo olanijo abestien bal abestu,* faguztiak *belauniko direala,* uŕengo *ot*oitz au *esantfo da-.*

OTOITZA,—Oŕa gure etxe au beste miíen artean berezi ta jauregitzat artu dauan Jesus Eŕegea. Goratua izan bedi Jesus'en Biotza! Aŕiturik gaukazuzjauna, gure buru izatera etoŕiaz egin dauskuzun mesede aundi onegaz,- baŕen-baŕendik poztuta, zeure auŕean auzpez mak urtzen gara,- aita umeakaz lez teilape baten bizi gara, ta gure pozetan poztuten zarean ori, gure neke-lanetan be, gugaz zagozana ba-dakigu. A! Ez gara gu iñor, Zu gure etxean sartzeko; baña zeure guraria erakutsi dauskuzu, ta egaŕiz dagoan a ituŕira lez, Zure Biotzeia gatoz, betiko bizitzara garoezan ur garbien biía,- Zu'gana gatoz damuturik eta uste osoz.

Zagoz, aŕen, gugaz, Biotz santu maita-



li ori. Zure egaŕi dira gure arimak: guk eta besteak be, Zu maitatzea nai dogu. Or tlaukazu mundu guztia garbitu eta berotu bear dauan sua, iBai, bai! Betania' ko etxea baizen gozo-atsegiña izan bedi gute au Zuretzako,- emen aurkituko do*7.uz* Zu'gaz beti egon nai daben lagun kutunak. Zure areioak erbesteratzen zaitue, baña ona emen Egipton lez gordeta biziteko tokia, ez Zu'ri dagokizun bestckoa, baña bai zintzoro gorde ta maitatuko zaituana.

Zatoz, Jesus ona, zatoz. Etxe onetan be, Nazaret'en lez maite dogu Maria, Zeu'k emon zeunskun Ama biguna. Zatoz eriotzeak gure artean isten dituan iitsuneak beteteia. iA, gure negar-orduetan Zu emen izan ba'ziña! Gozotuko zenduzan, bai, gure malko gaŕatzak eta Zuk dakizuzan gure biotzeko zauriak sendatuko zenduzan. Zatoz, bai! Bear bada, nekaldi baŕiak izango doguz laster,- eta gure gaztaroko uste ariñak joan dira... Gelditu emen gugaz, ilunabaŕa

da-ta, mundu gaiztoak bere odei baltz-etan sartu nai gaitu-ta. Guk Zu gura zaitugu; gure Bide, tigi ta Bizia Zeu zara.

Beñola lez, esan egizu: «Gaurgandik etxe onetan Neuk bizi nai dot». Bai, Jauna,- etxe onetako Eŕege Zeu zara-tn, Zeu'k nai ta agintzen dozuna guztiok egingo dogu. Zure gerizpean biziko gara,- ez dogu nai beste iñok emen agintzerik. Zu bakaŕik gure Eŕege. Goratua izan zaite etxe onetan. Gora Jesus'en Bíotza! Betor gugana zure eŕeiñua. Olautxe.

*Andra OSíaria'ren* íiiolz guzlíz *cjarbiari* -Salbe» ba*t.*

Jesus'en Biotz guztiz santua, gugaz eŕuki. (3 *bider).*

Maria'ren Biotz guztiz garbia, gure alde otoitz egizu.

Jose doatsua, gure alde eŕegutu.

Margarita Maria Alakoke zorionekoa, gure alde eŕegutu.



Azkenez, *eleiz-gizonak* e*t*xek*o guzliak be-deinkalzen ditu:*

Benedictio Dei omnipotentis: Patris et Filii et Spiritus Sancti t descendat super vos et nianeat semper. Amen.

Zatoz, Jesus laztana,
zatoz, gure Eŕege;
gaur goratzen zaitugu,
gure Jaun ta jabe.

Betor len-bai-len gugana
zure jabetasuna,
arerioak oinperaturik
betor bai garaipena.

# AGURTZA DEUNA

Gurutze Santuaren...

Jesukristo neure Jauna...

V. Domine, labia mea aperies.

R. Et os meum annuntiabit laudem tuam.

V. Deus, in adjutorium meum intende.

R. Domine, ad adjuvandun me festina.

V. Aintza Aitari ta Semeari ta Espiritu Santuari.

R. Len lez orain, beti ta amaibako egunetan. Amen.

Ama eskertsu ta eŕukioŕa, geure areriokandik zaindu ta eriotzaldian artu gaizuz. Amen.

Pozez*ko* ezk*u*tu*k*ia*k* *e*do mis*íer*ioa*k*. (Astelen eta eguenetarako).

1) Jaungoikoaren Semearen gizakundea.
2) Andra Mariak bere lengusiñari egindako ikustaldia.
3) Jaungoiko-Semeareii jaiotzca.
4) Andra Maria cleizan sartzea.
5) Jesus Umea galdu ta eleizan aurkitzea. \

Nekezfco *ezkiitukiak.* (Astarte ta barikuetarako).

1) Jaunak Getsemani'n egiñiko otoitza.
2) Jaungoikoaren Semea zigoŕez astindua.
3) JesukristoVen arantzazko koroia edo burestuna.
4) Jesus gurutze astuna sorbaldan dauala.
5) Jesukristo'ren gurutzeko eriotza.

ylintzazfco *ezkutukiak.* (Eguazten, zapatu ta domeketarako).

1) Jaungoiko-Semearen berbizkundea.
2) Jaunaren zerura igokundea.
3) Espiritu Santuaren etoŕerea.
4) Andra Maria'ren zeruetara jasokundea.
5) Andra Maria'ren bureskunde edo koronaziñoa.

# ANDRA MARIA'REN ARENTZA

Jauna, eŕuki zakiguz.
Kristo,- eŕuki zakiguz.
Jauna, eŕuki zakiguz.
Kristo, entzun gagizuz.
KristO, aŕen entzun gagizuz.
Zeruko Aita Jaungoikoa, guzaz *eŕuki.*
Jaungoikoaren Seme, gizonen Beŕeroslea, guzaz *eŕuki.*
Espiritu Santu Jaungoikoa,guzaz eŕu*k*i.
[rutasun cleuna, Jaungoiko bakaŕa, giizaz eŕu*kŕ*.
Maria Deuna, *gure aide eskalu.* \
Jaungoikoaren Ama Deuna, {2
Biŕjiñen-Biŕjiña deuna, l 5
Kristoren Ama, \ >
Jaungoikozko eskeŕaren Ama, < S
Ama gaŕbi-gaŕbia, J m
Ama eŕubagea, f £
Ama kutsubagea, | c
Ama oŕbanbagea, \
Ama soitzez gaŕbia,
Ama maitagaŕia,
Ama miragaŕia,
Aolku onaren Ama, /-
Egilearen Ama,
Eioslearen Ama,
Biŕjiña guztiz zuŕa,
Biŕjiña gui'gaíia;
Biijiña goragaŕia,
Biŕjiña altsua,
Biŕjiña eŕukioŕa,
Biŕjiña zintzoa, /
Zuzentasun-ispilua,
Yakituiiaren jaŕlekua
Guie pozaren ituŕia,
Gogozko ontzia,
Ontzi omengaŕia, >
Eraspen-ontzi ospetsua,
Laŕosa miragaŕia,
Dabiden toŕea,
Matfilezko toŕea, \
Uŕezko etxea,
Alkartasun-kutxa,
Zeiuko alea,

Goizeko izaŕa,
Geizoen osasuna,
Pekatarien babesa,
Atsekabetuen pozgilea,
Kristauen laguntza,
Aiogeruen Eŕegiña
Eŕkaben Eŕegiña
Igaŕleen Eŕegiña,
Bidalien (apostoluen) Eŕegiña,
Ziñopeen (martirien) Eŕegiña,
Autoŕleen Eŕegiña,
Biŕjiñen Eŕegiña,
Deun guztien Eŕegiña,
Jatoŕizko oŕban barik soŕturiko Eŕegiña,
Zerura jasoriko Eŕegiña.
Aguŕtza guzttiz deunaren Eŕegiña,
Rakearen Eŕegiña,

laungoikoaren Bildotsa,
gizonen pekatuak
kentzen dozuzana,
harkafu ertizn, Jauna.



laungoikoaren Bildotsa,
gtzonen pekatuak
kentzen dozuzana,
ertízuu *eiíjuzu.*
Jaungoikoaren Bildotsa,
gizonen pekatuak
kentzen dozuzana,
eŕuki zafciguz, *~jauna.*

v. Otoitz egizu gure alde Jaungoikoa.en Ama done oŕek :

ií. Jesukristoren agintzariak jadetsi daikeguzan.

## Oíoitza

Geure Jaun eta Jaungoikoa, emoiguzu, Srén, zure otseñoi gorputz-aritnako osasun betikoa,- eta Maria beti Birjiña aintzatsuaren bitartez oraingo naibagietatik aldenduta, amai bako atsegin zoriontsua geugandu daigula. Jesukristo gure Jaunaren irebaziz. Olantxe.

## llrrillean, Agurtza-ostean esateko otoitza

JoSE DGUNARI

Zugana gatoz, Jose doatsua, gure lafi-aldian,- eta zeure emazte guztiz garbiaren laguntasuna eskatu ondoren, zure bitartekotasuna be uste osoz eskatzen dautzugu. Jaungoikoaren Ama Maria orbangakoari zeuntsan on-eritxiagaitik eta Jesus Umea laztandu zenduan maitasun samuŕagaitik, apal-apalik eskatzen dautzugu: Jesukristo'k bere odolez erosiriko sendi au eŕukiz begiratu daizula, ta zure eskubide ta Iaguntzaz lagundu gaizuzala, geure beaŕizanetan.

Sendi deunaren jagole oso arduratsua! Zaindu, aŕen, Jesukristo'ren eŕi aukeratu au, uŕindu gugandik uts-egite ta gaiztakerien orban guztiak. Geure bitarteko guztiz altsua! Begi onez ikusi ta lagundu gagizuz zerutik, inpernuko arerioakaz darabilgun buŕuka onetan,- eta



lenago Jesus Umea eriotzako aŕiskutik atera zenduan lez, zaindu orain Jaungoikoaren Eleiza deuna arerioen ekiñaldi ta zoritxac guztietatik; eta gurariko bakotxa zeure ardura ta babespean artu egizu, zeure laguntasunaz indarturik, zeure antzera santutasunean bizi gaitezan, eriotza ona egin eta zeruan betiko zoriona jadetsi daigun. Olantxe.

OARRA.—Zazpi urte ta beŕogeiko parkapenak, uŕileko Agurtza ondoren esan ezkero; ta 300 eguneko parkapenak, egunean esanda

# IŔAREN LENENGO ZAPATUA

llaren lenengo zapatua, batez bc, Pio lX'gaŕenak agindu eban ezkero, Andra Mariari eskiñita dago. Lenengo zapatu bakotxean Parkapen osoa irabazi daiteke, autortu, Jaunartu ta edozein otoitz Andra Maria'ri esanaz.

Andra Maria'k, Fatima'ko ikuslari Luzia artzaintxuari esana; «Eriotzako orduan zeruko grazi ugariz lagunduko dautset ilaren lenengo bost zapatutan, eten barik, autortu, Jaunartu, eŕosario-aren zati bat esan, eta nire Biotz guztiz garbiari egiten yakozan iraiñen ordez, ordu lauren batean niri laguntzen daustenai».



# KARMEN'GO AMARI IKUSTALDIA

OTOITZA —Pozez nator zure oiñetara, Arna maitagaŕi ta gozoa. 7ute egalpean alditxu bat emon nai dot, zure adiski-'ieakaz dituzun biguntasunak gogora ekaŕiz. Ama laztana, zure eskuetan zer dakust? tiskapulario santua... Orixe ber-ori daroat nik be bular «aiíían, eta eriotzararte eroango dot; benola jantzi <:der au ekaŕirik, esan zenduan: «Ona emen osasunaren ituŕi, ezbeaŕetan lagun-tza eta betiko bake-ezaugaŕia,- au jantzi-rik dauala ilten danak ez dau inpeniuko stigaŕik ikusiko». Ama maitea: itz oneik zureak dira, beraz uts emon eziñak. Pozez eta itxaropenez betetan dabe nire arimea. Izan be, eŕuki samuŕaren ezau-gaŕi ba'da Lskapulario eder au, ta ni, soiñeko bikain au jantzita bizi ba'naz, noren bildur izango naz? Gaixo ta aul-Jurik, miñez ta atsekabez aurkitzen ba'

naz, zure jantzia laztandurik poztuko ivaz,- deabrua, mundua ta aragia, asmo gaizto ta tnaltzuŕez, hi galdu-naiez jagiten ba'yataz be, zure jantzi edeŕean benetako laguntza egokia aurkituko dot Eta Zu, Ama maite, nire alde ba'zagoz, nok niri kalterik egin?

Zu bai benetan ona, Karmen'go izar eder ori. Beti izan dot zure laguntza, neure bizi guztian. Zer egin nik zuti esker ona erakusteko? Zurea da nire gogoa, zurea nire bizitza, zureak nire asmo ta gogorapen guztiak. Lagun zakidaz beti, baiña eriotzaldian batez be,- ez nagizu bakaŕik itxi ordu ikaragaŕi aretan,- zure seme nazala gogoratu egizu, zure maitasun gozotan, zure jantziari mosuka, zorionekoen eriotzaz il nadin. Olantxe.

## Karmen'go Ama'ri agurrak

1) Karmen'go Ama maite-maitea, gora Zeu, zure semetzat artu nozulako. Agtir *'J\\axia...*



2) Karmengo Ama maite-maitea, gora Zeu, zure Eskapulario santuaren bitartez, aŕisku guztietan laguntzen daustazulako. Agu*r TVÍaria...*

3) Karmen'go Ama maitea-maitea, gora Zeu, zerura joateko ezaugaŕi dan soiñeko deunaz jantzi nozulako. *Jitjur Maria...*

AZKLN-OTOITZA.- Karmen'go Ama maitagaŕia, Zu goraltzen eta Zu'ri cskeŕak emoten emon dodan alditxo augaitik, artu egizu nire biotzetiko esker ona. Geitu dedila, Ama gozoa, zuganako mai-;asun-sua nire baŕuan,- eta egunen batean, maite-gar oŕek suturik, betiko zeru edeŕean sartu naitela. Olantxe.

Karmen'go Amak Simon Stok Deunari.- «Artu, seme, zure Lagundiko jautzi au, neute neba-aŕebatasunaren ezaugaŕia, zuretzat eta karmeldar guztiontzat beraiizko mesedea . berau jantzitn ilten danik, ezta betfko suta*r*a jausiko».

# JOSE DEUNA

Jose deuna Jesukri.ao'ren Aitaordeko dogu, Eleiza Amaren Zaindarí, ta erío-tzaldian batez be gure laguntzaile ona Teresa Ama doneak ona zer diñoskun: «Ez daukat gogoan eskaturiko gauzarik Jose deunak ukalu daustanik: Jaungoi-koak beste Santuei beaŕizan bat edo bestean laguntzeko doaia emon dautsela dirudi; Santu andi onek, ostera, ikusita daukat, guztietan laguntzen dauala,- lu-ŕean lez zeruan be, bere esanak egite: dituala Juangoikoak adierazo nai-edr, dausku».

Izan gaitezan, ba, bere maitale andi; laguntza eskatu daiogun, eta bere bizi-tzari jaŕaitu, bakotxak bere zeregin eta bizibidean.

## Zazpi Igandeak

Oso zabaldua *dabil aure arlean eraspen aui* zarpŕ domefca /*aŕaŕlu*eían egin oi da,



antorfu, *Jaunarlu la zazpi atsekabe-aisegiñak esanaz. Parkapen osoa irabazten da* igande bafcoíxean.

ATSEKABE - ATSEGIÑAK. — I. Maria txit garbiaren Senar garbi, Jose doatsua! Andia benetan zure biotzaren atsekabea zeure Emazte orbanbagea itxiko zenduan ala ez egon ziñanean,- ezin esana zure atsegiña be, Aingeruak Jaungoiko gizon egiñaren ezkutapen andia iragaŕi eu-tzunean.

Atsekabe-atsegin onekaitik eskatzen dautzugu, poztu daizula orain gure bio-tza bizitza onez, ta azken-orduan, Jesus ta Maria'ren besoetan, zurearen antzeko eriotza edeŕez.

*Aita Ĺjurea,* Agitr *Maria ta Aintza...*

II. Aitalen zorioneko, Jaungoiko gi-zonduaren aitaordekt» auturiko Jose do-atsua! Jesus Umetxoa ailagiñako ez-eukian jaioten ikusirik, atsekabez bete ziñan,- baiña laster biurtu yatzun atseka-be ori zeruko poz, aingeru-soñuak en-

tzun eta gau miraritsu atako argitasuna-ikusirik.

Atsekabe-atsegin onekaitik eskatzen dautzugu, bizitza onetako aldia igarotakoan, aingeru-abestiak entzun eta zeruko argi dirditsuan poztutera joan gaitezala.

Aŕía *Çurea, Açjur 7v\ar\a ia* Ainlza...

III. Jaungoikoaren legea zintzo bete zenduan Jose doatsua! Gure Erosle Jesus Umeak Bilebaikundean ixuri eban odolak biotza ausi eutzun,- baiña Jesus'en izenak poz-atsegiñez indartu zinduzan.

Atsekabe-atsegin onekajtik eskatzen dautzugu, bizitzan gaiztakeri guztia botarik, Jesus'en Izen santua aoan ta biotzean dogula, poz-pozik il gaitezala.

*Aita Çurea, Agur ÍMaria ta Aintza...*

IV. Gure Erosketako ezkutapenetan artu-emona izan zenduan Jose zintzo ta doatsua! Simeon igaŕleak, Jesus eta Maria'k igaro bearko ebena iragaŕi eutzunean, ilbeaŕeko atsekabez laŕitu zintzan,- baiña neke-miñok ainbeste arimen



onerako izango ziralajakiteak pozez bete zinduzan.

Atsekabe-atsegin onekaitik eskatzen dautzugu, Jesus'en irabazi ta Maria Birjiñaren bitartez, zorion-bizitzarako berbiztuko diranen arteko izan gaitezala.

*Aita* íjurea, *Agur yVíaria la Aintza...*

V. Jaungoiko-Seme gizonduaren Jagola arduratsu izan ziñan Jose donea! Zenbat ardura ' ízan zenduan Jaungoikoaren Seme ori azi ta zaintzen, batez be Egipto'ra iges egin bear izan zenduanean! Baiña zenbat alaitu ziñean, Jaungoikoa bera zeugaz beti eukiteaz, eta Egipto'ko guzuŕezko jaungoiko-irudiak luŕera jausten ikusteaz!

Atsekabe-atsegin onekaitik eskatzen dautzugu, inpernuko arerioa uŕin eukirik eta batez be galbide aŕiskutsuetatik alde egiñik, jausi dedila gure biotzetatik lurzalekeria ta guzur-jaungoiko dana, Jesus eta Maria'ren zale ta jaŕaile izanik, zoriontsu bizi ta il gaitezan.

Aíla *(jurea, Agur Maria ta Ainlza...*

VI. Luŕeko aingeru, zeru goiko *Eiegea* menpeko izan zenduan Jose doatsua, Egipto'tik etxeratzean, Arkelao'n bilduŕez, mingoztu yatzun biotza,- baiña Aingeruaren esana ontzat artu ta pozik bizi izan ziñean Nazaret'en.

Atsekabe-atsegin onekaitik eskatzun dautzugu, gure biotza bildurtxar guztitik gorde ta baŕuko bake gozatsuan, jesus eta Jvlaria lagun, bizi ta il gaitezala.

Aita *Çurea,* Agur Maria la *Aintza...*

Vll. Santutasun osoaren eredu zarean jose doatsua! Zeure eŕu barik galduriko Jesus Umea, atsekabe aundiz, iru egunez bilatu bear izan zenduan,- baiña azkenik atsegin anditan aurkitu zenduan eleizan, irakasleen erdian.

Atsekabe-atsegin onekaitik biotzbiotzez eskatzen dautzugu, ez daigula Jesus ona iñoz galdu pekatu astunaz,- baiña, zoritxaŕez iñoz galduko ba'gendu, damu zintzoz lenbailen aurkitu daigula, eriotzako orduan batez be bera eŕukior



aurkiturik, zeruan zeugaz batera bere eŕukiak goretsi daiguzan.

Aŕía Gurea, *Agtir JSiaria la Ainiza...*

BIKI..—Jesus bera, agertzen asi zanean, ogetamar bat urteko zan, Jose'ren semea, • uste zanez.

V. Gure alde otoi egizu, Jose deuna.

í\. Jesus'ek aginduak jadetsi daikeguzan.

OTOITZA. — Ainbesteko atduraz Jose doatsua zeure Ama txit santuaren senartzat auketatu dozun Jaungoikoa: eiguzu, aŕen, luŕean zaindari dogun lez, zeruan bitarteko izan daigula. Amaibako egunetan bizi ta agintzen dozun Oŕek. Olantxe.

# MIXIÑOEN ALDEZKO OTOITZA

(Pio Xl'gaŕenak egiña)

Jesus gure Jaun ezin maitagaŕiagoa, zeure odol edeŕa ordaiñez emonik mundu guztia erosi zenduana! Itzuli, aŕen, begi eŕukitsu oŕeik oindiño eriotzaren itzalean eta guzur-ilunpetan bizi direan ainbeste gizasemeengana, ta bialdu eurengana bere dizdira guztian egiaren argia. Ugaritu, Jauna, zure Baŕi Onaren zabaltzaileak; sutu egizuz eurok, emoikor egin eta onetsi zeure graziaz euren kemena ta nekeak, euren lanaz siñistebakoak Zeu ezagutu ta euren Egile ta Erosle zarean Oŕengana biurtu daicezan, Dei egin zeure artaldera sakabanaruta deslai dabiltzan ardiai, ta atze-atzeka dabiltzanak be zeure Eleiza donearen altzora ekaŕi egizuz. Betorkigu luŕera, Salbagile maitagaŕia, lenbailen zure eŕe-



getza ta agintea,- erakaŕi gizon guztiak zeure Biotz txit gozoagana, zure erospeneko irabazi ezin-esanez jabe egiñik, zeru edeŕean zoriontsu bizi daitezan. Olantxe.

**Teresetxo deunari.**—Jesus'en Teresatxo deuna, mundu guztiko Mixiño katolikoen Zaindari izendatua izan zareana! Gogoratu egizuz Jesukristo'ren Gurutzea luŕeko bazter guztietan ezaŕi ta bere Baŕi Ona, mundua mundu dan artean, zabaltzeko emen luŕean bizi ziñeala erakutsi zenduzan gurari bizibiziak. Lagun zakiez, agindu zenduan lez, Abade ta Mixiolariai, ta Eleiza osoari. Olantxe,

I. Jesus Umearen Teresatxo donea, Mixiñoen Zaindaria.

E. Otoitz egizu gure alde.

# ONDO ILTEKO GERTUEREA

Zelango bizitza, alangp eriotza, esan oi da. Baiña batez be eriotzatik datorkigu edo betiko zoriona edo betiko zorigaiztoa. Au dala-ta, bizi garean artean ardura andiz gertau ta gero, geixo-aldian, Eleizakoak artu ta abar, ańeta andiagoaz egin beańean aurkitzen gara.

EldOTZA ONA JADHSTEKO OTOITZA. — G u r U ' tzean josita zagozan neure Jesus maitea! Artu egizu gogo onez nik eriotzaldirako orain zuzentzen dautzudan otoitza, eriotzaren bilduńez nire zentzun guztiak tits egingo daben aldi aretarako.

Nire begiak lausotu ta ilundurik aurkituko diranean, zure arpegi samuńa geiago ezin ikusirik, orduan, ene Jesus laztan ońek, gogoratu orain zuzentzen dautzudan begikun samuńa, ta eńuki zaite.

Nire ezpan legońak zure zauri agurgańiari ezin munik emonik aurkituko dira-



nean, goyoratu orduan, Jauna, orain emoten dautzudazan mun gozoak, eta iítzaz eńuki zaitez.

Nire esku otzak zure gurutze maiteari ezin eutsírik aurkituko diranean, gogo--atu orain biotzez laztantzen dodala, ta nitzaz eńuki zaite.

Fta azkenez, nire min fodi-molelduak geiago itzik ezin esango dauan une aretan, gogoratu nire orai/igo eskari au.

Jesus, Maria ta Jose, nire arimea zuen eskuetan ipinten dot.

GEIXOA II.-AGIÑI:A.\ DAGOANERAKO OTOITZAK. *-f.leiz-gizonik* ez ba'íer/o, *edozeiñek rtjin kikezotoiiz oneik, cjurulze haten <uińenn belauniko.*

I. OTOITZA.—Zoaz, arima kristiñaua, mundu onetatik, egin zinduzan Aita Jaungoiko aJguztidunaren izenean,- zugaitik il zan Jesukristo, Jaungoiko biziaren izenean; zugana jatsi zan Espiritu Santuaren izenean,- Jaungoikoaren Ama .Maria Birjiña edeńaren izenean,- onen

senar goragaŕi Jose santuren izenean,- Aiugeru, Goi-aingeru, Aulki, Nagusi, Agintari, Almen, Aingeru argi ta Aingeru sutsuen izenean- Lege Zaŕeko Aitalen eta Igarleen izenean,- Apostolu ta Ebangelari santuen izenean,- Martiri ta Autorle santuen izenean,- Lekaide ta Eremutar santuen izenean,- Birjiña santu ta Jaungoilcoaren beste done guztien izenean. Gaur izango al dozu bake-lekuan zure egonlekua ta Sion santuan zure aterpea, Jesukristo Jauna bera bitarte dala. E. Olantxe.

II. OTOITZA.—Artu egizu, Jauna, zure otsein (mirabe) au, zure eŕukiari esker itxaroten dauan osas un-lekuan. E. Olantxe,

Gorde egizu, Jauna, otsein (mirabe) onen arima, inpernura jausteko aŕiskutik, geroko neke ta oiñaze guztietatik. E. Olantxe.

Gorde egizu, Jauna, zure otsein (mirabe) onen arima eriotzatik, Enok eta Elias berezko eriotzatik gorde zenduzan lez. E. Olantxe.



Gorde egizu, Jauna, zure otsein (mirabe) onen arima, Noe uiolan gorde zenduan lez. E. Olantxe.

Gorde egizu, Jauna, zure otsein (mirnbe) onen arima, Abraan Ur critxon Kaldea'ko uritik atara zenduan lez. E. Olantxe.

Gorde egizu, Jauna, zure otsein (mirabe) onen arima, Job bere neke-miñetatik gorde zenduan lez. E. Olantxe

Gorde egizu, Jauna, otsein (mirabe) onen arima, Isaak bere aita Abraan'en eskuetatik il barik atara zenduan lez. E. Olantxe.

Gorde egizu, Jauna, zure otsein (mirabe) onen arima, Lot Sodoma'ko su kiskalgaŕitik atara zenduan lez. E. Olantxe.

Gorde egizu, Jauna, zure otsein (mirabe) onen arima, Moises Egipto'ko Paraon eŕegegandik atara zenduan lez. E. Olantxe.

Gorde egizu, Jauna, zure otsein (mirabe) onen arima, Daniel leoi-zulotikatara zenduan lez. E. Olantxe.

Gorde egizu, Jauna, zure otsein (mirabe) onen arima, arako iru gazte areik laba goritik eta eŕege gaiztoaren eskuetatik atara zenduan lez. E. Olantxe.

Corde egizu, Jauna, zure otsein (mirabe) onen arima, Susana guzuŕezko salakuntzapetik atara zenduan lez. E. Olantxe.

Gorde egizu, Jauna, zure otsein (mirabe) onen arima, Dabid eŕege Saul'en eta Goliat'en eskuetatik atara zenduan lez. E. Olantxe.

Gorde egizu, JaUna, zure otsein (mirabe) onen arima, Pedro ta Paulo Santuak' "katepetik atara zenduan lez. E. Olantxe,

Eta Tekla birjiña ta martiri deuna iru nekaldi ta oiñaze ikaragaŕitik atara zenduan lez, atara egizu, aŕen, zure otsein (mirabe) onen ariraea be, eta Zeu'gaz zeruetako ondasun-arteko poza izan bedi. E. Olantxe.

(II. OTOITZA.—Jauna, onen gaztaroko pekatu ta uts egitez ez zaite, aŕen, goinutaci; baiña zeure eŕuki andiaren legean,



oroitu zaitez beronetzaz zeruko argiíasunean. Zeruak edegi bekioz- aíngeruak poztu begie. Artu egizu Zeu'k, Jauna, zeure mcnpeko au zeruan. Ondo etoŕia emon begio Mikel Goi-aingeru deunak, zeruko gudari-sailen buru danak. Betorkioz bidera Jaungoikoaren Aingeru guztiak, ta eroan begie zeruko Jerusalen urira. Ondo etoŕia egin begio zeru-eŕiko giltzak Zeu'k emon zeuntsazun Pedro Apostolu zoriontsuak. Lagun etoŕí bekio Paul Deuna, zure ontzi autua izateko mesedea egin zeunt.sanak. Beronen alde egin bei Joan Apostolu deunak, zeruko ixil-gordeak Jaunak erakutsi eutsozanak. Beronen alde otoitz egin begie, lotzeko ta askatzeko eskubidea Jaungoikoak emon eutsen Apostolu guztiak. Azkenez, Kristo'ren izenagaitik lur onetan ainbat neke eroan daben zeruko Santu ta aukeratu guztiak izan dagizala bitarteko: aragi ilkor onetako kateak etenik, Aita ta Espirjtu- Santuagaz batean Jesukristo gure Jauna betiraun guztian

bizi ta Eŕege dan zeruko zoriontasunera eltzea lortu dagian, E. Olantse.

ANDHA MARIA'HI OTOITZA.—Andra Maria Jaungoiboaren Ama eŕukio ta naigabetuen pozkileak eskiñi begio bere Semeari otsein (mirabe) onen arima,- Ama samur onen bitartez, eriotz laŕiaren bilduŕak uxatuaz, egaŕi biziz itxaron izan dauan zeruko abeŕia, bera lagun dauala, pozez beterik jadetsi dagian. E. Olantxe.

JOSE DEUNAKI OTOITZA.—Zugana nator, ilzorian dagozanen Zaindari zarean Jose santua,- eta zuri, zeure eriotza zoriontsuan Jesus eta Maria begira zeunkazau oŕi, mesede pozgaŕi biokaitik, il-zori laŕian aurkitzen dan N. otsein (mirabe) onen arima eskintzen dautzut, zu bitarteko zareala, deabruaren maltzurkeri ta betiko eriotzatik aldendu dadin, ta betiko zorionera sartzea merezi dagian. E. Olantxe.

Jesus, Jesus, Jesus!



Zure eskuetan, Jauna, ipinten dot neure arimea.

Jesukristo neure Jauna, artu nire «ngoa.

Andra Maria, nire alde eŕegutu.

Maria, Atíia eskertsu ta eŕukioŕa, areioalcandik zaindu ta eriotzaldian artu nagizu.

Jose deuna, otoitz egizu nire alde.

AzKEN-ARNASEA EMONDA r.ASTI.R ESATE"KOA.—E) Zatoze, zeruko santuak; urten bidera, Jaungoikoaren aingeruak; artu egizue onen arimea, ta eroan Goikoaren auŕera.

I) Kristo'k artu zagizala, Berak deitua izan zara-ta, ta Aingeruak Abraan bizi dan lekura eroan zagiezala.

E) Artu egízue onen arimea, ta eroan Cloikoaren auŕera.

I) Betiko atsedena emoiozu, Jauna, ta betiko argiak argi egin begio.

E) Eroan egizue Goikoaren auŕera.

Jauna, eŕuki zakiguz.
Kristo, eŕuki zakiguz.
Jauna, eŕuki zakiguz.

*Aild (jtirta* (ixiíik).

t) Ez eiguzu itxi tentaldian jausten.
E) Baiña gatxetik jagon gaizuz.
I) Jauna, emoiozu betiko atsedena.
E) Eta betiko argiak argi egin begio.
1) Inpernuko atetik.
E) Aldendu egizu bere arimea.
I) Bakean bego.
E) Olantxe.
I) Jauna, entzun nirc otoitza.
E) Eta beyoa Zu'ganaño nire deia.
I) Jauna zuokaz.
E) Bai ta zure arimeaz be.

OTOITZA.—Jauna, zure eskuetan isten dogu zure menpeko onen arimea, mundurako il dan ezkero, Zuretzat bizi dadin; eta aragizko gorputz aulak eragin dautsozan pekatuak, Zure eŕukiaren eŕukiz, aŕen, garbitu egiozuz, Jesukrisfo gure Jauna bitarte dala. Olantxe.

•ajaaaaaMMMMaa^^^^ia

## ZORTZI EGUNEKO GOGO-IÑARKUNE-TARAKO GAYAK

### Lenengo egunerakc

1. Bakartasun eta ixillasunerako zaíetasuna. (J'go tia XX, 119 '
i-iaztia XX, 119 ingoskia).
2. Gurc azken elburua: Jaungoikoa (3, IX, 240),
3. Jaungoikoa'gandiko on-egiñak (3, XXII, 280).
4. Lufeko uskerí guztien ezespena (1, I, 19).

### Bigaren eguneroko

1. Jaungoikoa'reu eskutuko epayak (3, XIV 255).
2. Betiío cguiia (3, XLVIÍI, 353).
3. Obentlien epai ta oñazeak (1, XXIV, 141).
4. Norbere bañia arakatzea (4, VII, 439).

## Irugaren egunerako

1. Eriotzazko gogartea (1, XXIII, 134).
2. Baíu onaren poza (2, VI, 172).
3. Norbere makaltasuna (3, XX. 271).
4. Izatasunaren eta eskaŕaren eragvkun barclin-ezak (3, LIV, 379).

## Laugaren egnnerako

1. Kristo'renirakatsi tajaíibideak(3, XVIII, 265).
2. jaungoikoaren itzak (3, III, 214).
3. Kristo'renantz-artzea (3, LVI, 391).
4. Asaba Deunen ereduak (1, XVIII, 110),

## Bosgaren egunerako

1. Gure bizikeraren obekuntza (1, XXV, 147).
2. Emengo bizitza gudaketa da (3, XXXV, 318).
3. Bíotzeko bake sendoa (3, XXV; 209).
4. Onean jaíaitzeko ardnrea (1, XI, 91).

## Seigarert egunerako

1. Norbere burua ukatzea (3, XOXII. 311).
2. Josu'ganako maitasuna (.2, Vll-VIII, 275).
3. Izaki guztiak ezetsitea (3, XXXI, 307).
4. Norbere buruaren ukapena (3, XXVH, 296; XXXVII, 323).

## Zazpigaren egunerako

Kristo gurutzatuaganako maitasuna(2, XI, 193).
Gurutz Oeunaren bide edefa (2, XII, 197).
Geure burua ta gure guztiak Jaungoikoari eskintea (4, XIII-IX, 442-444).
Josu'ren antzera menpeko apalaren esangintasuna (3, XIH, 252).

## Zortzigaren egunerako

Jaungoikoa'ren maitasuna (3. V-VI, 223-228).
Josu'gaz ikurtonan alkartzeko guraria (4,XIJÍ, 464).
Betiko bizitzea gura izatea (3, XLIX, 3591.
Jaungoikozko eskai'orea eragitasuna (3, LV, 396).

## Beste gai batzuk

Lckaidien bizikera (1, XVII, 108).
Lekaidien esangintza ta menpetasuua <1, IX, 26).
Jauparien goitasuna (4, V, 429).

# ZER NUN

Atarikoa 5

## L-OTOITZAK

Goizeko otoitzak 9
Egun bitarterako otoitz batzuk 13
lluntzeko otoitzak 14
Autortza 17
Jauna\rtzea 24
Meza Deuua 30
Gogozko otoitza 65

## II.-KRISTO'REN ANTZ BIDEA

I. Kristo'ren antz-bidca ta lufeko uskeri guztien ezespena 6!.>
II. Norberazko eritxi apala 72
III. Egiaren ikasbidea 75
IV. Eginbeafatzazko zurtasuna 80
V. Idazti Deunak irakurceaz 81
VI. Gnrari okefak 83



VII. Aípefiko itxaropen eta aŕokeritik ifícs-egin bear da 84
VIII. Adiskidctasun laŕegirik ezta euki bear 86
IX. Esangíotza ta menpetasuna 88
X. Alperiko itzak eztira esan bear 89
IX. líakea jadetsi ta onean jafaitzeko ardurea . 91
Xíf. Zoritxnŕarcn onurea 95
XIII. Ziltzaldiai gogor eginbeaŕa 99
XIV. /.io ariñegiaz eztala epaitu bear 102
XV. Makasuneiiko egiñak 104
XVI. Besteen utsak eroan beafa 106
XVII. Lekaidcen bizikerea ' 108
XVIII. Asaba Dcuncn eredaak 110
XIX. Lekaide onaren iñarkunak 114
XX. liakartasun eta ixiltasunerako zaletasuna 119
XXI. Iíiotzcko dainua 125
XXII. Gizatasunaren zoritxaŕak goznartzeaz 129
XXII. Eriotzako gogarketa ' 134
XXIV. Obendien cpai ta ouazeak 141
XXV. Gure bizikera osoarcn obekuntza gartsua 147

## Bigaren idaztía

1. Iíaŕuko autuetzaz 156
*U.* Menpctasun apnla 162

III. Gizon on eta baketsua 164
IV. Biotz garbia ta asmo bakuna 167
V. Norbere buruatzazko gogaketa 169
VI. Baíu onaren poza 172
VII. Gauza gnztien ganetik Jesu maite izatea 175
VIII. Jesu'gazbaf u-bafuko advskidetasuna 178
IX. Atsegjfuk-eza 182
X. Jauogoikoa'ren eskafari 2or yaken esker-ona 189
XI. Kristo'ren gurutz-zaleak gitxi clirala 193
XII. Gurutz Deuna'ren bide edeí'a 197

## Irugaren idaztia

[. Arima zintzoari Kristo'k bafuan diramsana 209
II. Egiak gogo-baíuau ítz-zarata barik itz-egin dauala 211
III. Jaungoikoaren itzak apaltasunaz entzun bear dirala, ta askok bear dan besteao eztabezala goznartzen 214
IV. Jaungoikoaren aufean egiaz eta apaltasunaz itz egin bear dala 210
V. Jaungoikozlfo maitnsuuaren egintza afigafia 223
VI. Benetako mailatzalearen ezaubidea 228
VII. Eslteía apaltasunaren zaipean estaldu bear dala 233



VIII. Jaungoikoaren aufean norbere burua zatartzat artzea 237
IX. Gauza guztiak elburura lez Jaungoikoagana zuzendu bear dirala 240
X. Gizakeria (mundua) ezetsi ezkero, Jaungoikoari otsein - egitca gozo dala 242
XI. Riotzeko gurarink aztcrkatu ta ezi bear dirala 246
XII. Eroapenari ekitca ta aragi - ií'itsen aurkako bufukea 248
XIII. Jcsukrísto'ren antzera nienpeko apalaren esangintasuna 252
XIV. Ondo egiten doguznnctan aíotu ezkaitezan, Jaungoikoaren eskutuko epayak goznartu bear diraln 255
XV. Gura leikczanetan craz jardun eta itz cgin bear dala 258
XVI. Benctako poza Jaungoikoagan baño eztala bilatu bcar 261
XVII. Ardura osoa Jaungoikoagan ipiñi bear dala 363
XVÍII. Bizitzaldiko zoritxaralí Kristo'k lcz gogo bardiñaz jasan bcar dirala 265
XIX. Irañetan jasaten ta benetako eroapentsu nor agiri dan 268
XX. Norbere makaltasuna autortzea ta bizitza onetako zorítxafak 271
XXI. On cta cmokari guztien ganetik Jaungoikoagan atsedendu bear dala 275

XXII. Jaungoikoari arturiko on - egíte uga-
rien gonmtea 336
XXIK. Bake andia dakafen lau gauza 284
XXIV. Jíioren bizit2a - bafiak jakinguretik
iges-egin beaŕa 283
XXV. Biotzeko bake sendoa ta benetako
auferakuntza 290
XXVI. Irakurteaz baño otoitz apalaz obeto
irabazten dauala gogoak bere azka-
tasuna, ta azkatasim onen bikain-
tasuna 293
XXVU. Norberazko nraitakeriak betiko one-
tifc asko atzeratzen dauala 296
XXVUI. Min txarto-esaleen aurka 299
XXIX. Lofaldian Jatmgoikoari deitu ta bera
onetsi beafa 3()0
XXX. Jaungoikozko Iaguntasuna eskatu, ta
eskefa bafiro be eukiko dogula
uste bear dogu 302
XXXI. Izaki guztiak ezetsitea, egítea aurkitu
al izateko 307
XXXII. Norbere burua ukatzea ta ii'its guz-
tiak iztea 311
XXXIII. Biotzaren aldakortasuna ta gure az-
ken-asmoa Jaungojkoagana zuzen-
clu beaŕa 313
XXXIV. Maitatzaleari guztiak baño geyago
ta guztietan Jaunjíoikoa yakola go-
gogafiena 315



XXXV. fiizit/.a o.nctan ziltzaldiak cz ízatcko
eskiertasum'k cztagoaln
XXXVf. Gizonen eriixí utsalcn aurka
XXXVII. IíioLzaren azkatasuna jadestcko nor-
berc buruaren ukapen garbi tn
oson
XXXVIII. Atelikoelan norbere burua ondo
zaindu, La afiskuctan Jaungoikoa-
gnnn \o bcar dala
XXXIX. Gizonakarnzoetan czlauala izan bear
nrduratsuegia
XI.. Giionak berez onik bat be cztaukala,
tn aŕotzekorik bez
XÍ.I. Aldikor dcdu guztiak ezestea
XLIÍ. Bakca gizonnknn eztala ipiñi bear
XI,III. Gizarteko jakjturi utsalaren aurka
XI,IV. Atctikoak eztirafa norberagandu bear
XI,V. Guztiai etxakela siñistti bear eta
izkctan cŕaz laban-egin oi dala
XÍ,VI. It/. míngai'ink /.auriUen gaituenean
Jaungoikoagaz itxaron beafa
Xl.VII. Neke astundanakbizitzeagaitikjasan
bcar dirala
XLVIII. Bctiko eguna la bizitza onetako la-
f inldiak
XIJX. Bctiko bizitzea gura izatea, la bufu-
kalarientzní nginduta dagozan
onak nsko-asko dirala
*L,* Gí/,on atsckabetna Jaungoikoaren es-
knctan jnrtcko era

LI. Egikizun apaletan ekin bcar dala, goi-goratuetarako aclorerik eztagoanean 371

LII. Pozaldiak baño zigorkadak obeto iraba^i dauzala siñistu bear dauala gizonak 373-

LÍU. Lui'ekoak gozo dabezakanak Jaungoikoaren eskeŕa eztala nastuten 376

LIV. lzatasunaren eta eskafaren eragikun bardin-ezak 579

LV. Izatasunaren usteltasuna ta Jaungoikozko eskefaren eragitasuna ZS^

LVI, Gure burua úUatu ta gurutza ren bitartez Kristo'ren antza artu beor dogula 301

LVII. Utsen batzuetan jausten dana eztala lai'cgi kikildu bear 395

LVIII. Goikoenak eta Jaungoikoaren erabaeskutuak eztirala azterkatu bear 3')8

LIX. Jtxaropen eta uste osoa Jaungoikoagan baño eztala ezafi bear 4<X


## Laugaren idazíía


I. Kristo itzal andiaz artu bear dala Í11

Tí. Ikurton (Sakramentu) onetan gizonari Jaungoikoaren ontasun eta maitasun andia agertzen yakozala 420

III. Ondo dala sní'itan Jauna artzea 435





IV. Jauna ernspcn andíaz artzen dabcnai on asko emolen yakiczala -l/>

V. Ikurtonaren anditasuna la jauparien goitasnnn 431

VI. Jauaa artti auŕcko egikizunak 438

VII. Norbere burua arakntzea ta ondute-ko nsmoa 439

VIII. Gurutzean Kristo'ix'n e:;kintzea ta norberaren jnsatnsunn 443

IX. Geure burua ta geure guztink Jauni*oikoari eskiñi, tn danen alde oloitz-cgin bear dautsagula 444

X. Jaunnrlzea eztala eraz itxi bear 44S

XI. Kristo'ren gorputza ta idazti dcuna arima siñisleari bcnrekonk ynkoznln 454

XII. Kristo arluko dauana ardura andiaz gertu bear dala 460

XIII. Gogo Jninko-zalcak ikurtoncan (Eukaristian) Kristo'gaz bntzen biotz-biotzez gura iznn bcar dauala 464

XIV. Kristo'ren gorputza artzcko Jaungoiko-znlc batzucn gurari gartsuak 467

XV. Lraspcn-eskci'a apaltasunaz eta norbcrc buruarcn ukapcnaz jadesten clnla 470

XVI. Gurc boartasunak Kristo'ri ngertu tn cskcfn berari csknt u bcar dautsngula 473

XVII. Kristo art2cko niaita.sun gartsu ta gurart bizia 475

XVIII. Gizonak Ikurton (Sakramentu) onen jakin-gura laŕeiíi euki barik, berc eritxin siñismen deunarcn azpian ezaŕila, Kristo'i cii niHxartzale izan b'ear dnuala •íZ»

## III.-ERASPENAK

Gurutz-ljidea 4S4
Gure Jaunaren onespena emoteko erea 492
Jcsus'en lijolzaren XII cskinuak here maitaleentzat 494
Jesus'enBiotzaren egunean esateko otoiua 495
Jesus'en Biot/.aren jaureskundca 497
A^urtza Deuna 503
Andrn Maria'ren Arentza 503 •
Ui'iiean, Agurtzn ostean ésateko otoitza. ]ose Deunari 508.
iíaren lenengo zapatua 5íÓ
Karmen'go Amari Ikustaldia 513
Jose Deuna. Zazpi igandeak 517
Mixiñoen nldezko otoitza 520-
Ondo ilteko gertuerea 522
Zortzi eguneko gogo-Iññrkunctara-ko gayaíí 5B3

L. D. V. *M.*